


A photograph of a red building facade with several small, square windows. The windows are arranged in a grid pattern. The building is the background for the text.

# ***HARROBITik***

# ***HARROBIra***

**Harrobi plazari buruz  
gizarte-berrikuntzarako  
ekintzailetzarako  
garapen komunitariorako  
eta kultura-ekintzarako  
ekosistema gisa**

A green plant with large leaves is visible in the bottom right corner of the image.



WI  
KI  
TO  
KI









S E V E N D E



FIELD KIT



# ***HARROBITik*** ***HARROBIra***

**Harrobi plazari buruz  
gizarte-berrikuntzarako  
ekintzailetzarako  
garapen komunitariorako  
eta kultura-ekintzarako  
ekosistema gisa**

Agiri hau 2015eko apiriletik abuztura egindako ikerketa eta lan kolektiboko prozesuaren emaitza da, HARROBitik HARROBIra ekimenaren lehen urrats gisa. Bilbao Ekintzak bultzatu du ekimena, Harrobi plazaren inguruan jarduteko aukerak definitzeko, gizarte-berrikuntzako eta ekintzailtzako erakargune gisa, nagusiki plazaren inguruan baina Bilboko San Frantzisko auzoko gainerako tokietan ere biltzen diren eragileak eta baliabideak metatuz.

**Koordinazioa eta garapena: HARROBitik HARROBIra**

*ColaBoraBora Koop*  
WikiToki - Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbo  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
Tel.: 944 158 861

**HARROBitik HARROBIra Euskerara itzulpena**

*HORI-HORI S.A.*  
Ledesma, 6 – 48001 Bilbao  
<http://hori-hori.eus>  
tel: 944 242 433



Agiri honen eta osatzen duten material guztien edukia, HARROBitik HARROBIra prozesutik eratorritzen baitira, *Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da.

# AURKIBIDEA

## Nola irakurri agiri hau

Edukiari buruzko eta dokumentua erabiltzeko moduari buruzko sarrera laburra.

2 orrialde

## ***HARROBitik HARROBIra*** **Jarduketa-proposamen bat zehazten**

Proiektuaren testuinguru kontzeptual eta metodologikoari buruz, kokatuta dagoen esku-hartze espazioari buruz eta ekintza- eta bideragarritasun-plan bat zehazteko urratsei buruz.

62 orrialde

## ERANSKINAK

### **1. eranskina**

***HARROBitik HARROBIra prozesua aurkezteko dosierra***

6 orrialde

### **2. eranskina**

***HARROBitik HARROBIra prozesuari buruzko atariko diagnostikoa eta lehen iritziak***

20 orrialde

### **3. eranskina**

***Elkarrekin sortzeko saioetarako materialak***

14 + 4 orrialde

### **4. eranskina**

***HARROBIA elkarrekin sortzen***

30 orrialde

### **5. eranskina**

***HARROBitik-ra prozesurako inspiratzea***

52 orrialde

### **6. eranskina**

***Harrobia Trantsizioan***

48 orrialde



# Nola irakurri agiri hau

*HARROBItik HARROBIra* Harrobi plazaren inguruan ekintza-plan bat abian jartzeko proposamen bat da; haren lehen urratsa ikerketa- eta lan-prozesu kolektibo batean oinarrituta egin da, eta horixe agertzen da dokumentu honetan.

Hasteko, proposamen-txosten bat dago, proiektua oro har deskribatzen duena; eta, ondoren, eranskin batzuk gehitu dira, burututako lanaren zati handiena eta proposamena egiteko *iturburu-kodea* dena.

## ***HARROBItik HARROBIra*** ***Jarduketa-proposamen bat zehazten***

62 orrialdeko txostena; bertan, proiektuaren testuinguru kontzeptual eta metodologikoa, proiektua kokatuta dagoen esku-hartze espazio fisikoa eta ekintza- eta bideragarritasun-plan bat zehazteko urratsak barne hartzen dira, baita jardueraren eremuei eta proposamen-motari, kudeaketa-ereduari edo finantzaketa-aukerei buruzko kontuak ere.

Txosten honetan, edukiaren zati handi bat modu sintetiko eta eskematikoan ageri da, eta, informazio ugari zabaltzeko, eranskinetan gehiago garatu diren azalpenak eta kasuak aipatzen dira.

## **ERANSKINAK**

**Erreminta-tresna** gisa, **muntaketa-kit** moduan, erabil daitezke eranskinak. Horietan mota guztietako informazioa, gogoetak, kasu praktikoak eta aipamenak aurki daitezke eta, gure ustez, oso erabilgarriak izan daitezke honetarako:

1. *HARROBItik HARROBIra* prozesuaren edukia eta aukerak hobeto ulertzeko eta horietan sakontzeko.
2. Proposamen orokorra zehazteko eta hurrengo urratsean ekintza- eta bideragarritasun-planak definitzeko informazio nahikoa edukitzeko.
3. Eta, gainera, orain arte burututako ikerketako eta elkarrekin sortzeko prozesua zer-nolakoa izan den eta nola garatu den jakiteko.

Agiriak sei eranskin hauek dauzka:

### 1. eranskina

*HARROBitik HARROBIra* prozesua aurkezteko dossier laburra, Harrobi plazari buruzkoa, gizarte-berrikuntzarako, ekintzailetzarako, garapen komunitariorako eta kultura-ekintzarako ekosistema gisa. Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiei bidali beharreko oinarritzko atariko informazio gisa erabili da.  
6 orrialde.

### 2. eranskina

*HARROBitik HARROBIra* prozesuari buruzko atariko diagnostikoa eta lehen iritziak, plazako eta auzoko askotariko eragileei egindako banakako lehen elkarrizketetatik abiatuta sortuak.  
20 orrialde.

### 3. eranskina

A) Atariko txostenetik ateratako indar-ideia batzuk, parte-hartzaileei elkarrekin sortzeko saioetan bidaliak, *HARROBitik HARROBIra* prozesuaren aukerei buruz pentsatzen laguntzeko erreferentzia-material gisa. 14 orrialde.  
B) Parte hartzeko gida, elkarrekin sortzeko saioetako helburuei eta metodologiei buruzko informazio xehatuarekin. 4 orrialde.

### 4. eranskina

***HARROBIA elkarrekin sortzen.*** Harrobi plazaren inguruko eragile, baliabide eta aukeretakako hurbilketa bat, elkarrekin sortzeko saioetan eta prototipatu kolektiboan sortutako materialetan oinarritua, (elkar) ezagutzeko eta batera (elkarri buruz) pentsatzeko.  
30 orrialde.

### 5. eranskina

***HARROBitik-ra prozesurako inspiratzea.*** Han-hemengo ekimen batzuk dituen txostena, berrikuntzari eta gizarte-ekintzailetzari, kultura-ekintzari eta adimen kolektiboari buruz. Proiektuei, espazioei, neurriei eta programei buruzko erreferentziako kasuak.  
52 orrialde.

### 6. eranskina

***Harrobia Trantsizioan.*** Harrobi plazaren inguruan *trantsizioko ekimen* bat egiteko aukerei eta erreferentziei buruzko txostena.  
48 orrialde.



# ***HARROBitik HARROBIra***

**Harrobi plazaren inguruan  
prozesuarekin jarraitzeko  
proposamen bat zehazten**

**62 orrialde**







# ***HARROBITik*** ***HARROBIra***

**Harrobi plazaren inguruan  
prozesuarekin jarraitzeko  
proposamen bat zehazten**



ColaBoraBorak egindako txostena.  
Irailaren 5ean bukatu zen lehen bertsioa,  
eta 2015eko abenduaren 7an amaitu zen berrikusten.

Txosten honen edukia, *HARROBitik HARROBIra* prozesutik eratorritzen diren gainerako materialen moduan,  
*Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da.



# AURKIBIDEA

## 1. Proiektuaren esparrua

### 1.1. Europako esparrua

### 1.2. Tokiko esparrua

### 1.3. Hiria berrikuntza banatuko ekosistema gisa

## 2. Definizioa eta prozedura

### 2.1. Zer nahi dugun

### 2.2. Helburuak eta estrategiak zehazten

- > Plazari buruz, gizarte-berrikuntzako *living lab* gisa
- > Ingurune produktibo bati buruz, gizarte-ekonomiaren ikuspegitik
- > Espazio publikoan bizitza aktibatzeari buruz
- > Helburu komun baten aldeko apustu batean ahaleginak batzeari buruz

### 2.3. Nola nahi dugun

### 2.4. Ibilbide bat hiru urratsetan

1. URRATSA: AURKITU > DEFINITU
2. URRATSA: GARATU > ZEHAZTU
3. URRATSA: INPLEMENTATU

## 3. Non? Plazari eta hango inguruneari buruz

### 3.1. Lekuaren deskribapen laburra

### 3.2. Aukera-espazioak

## 4. Eta zer proposatzen dugu?

### 4.1. Nondik jarraitu?

- > Aurkezpena eta egiaztapen publikoa
- > Talde higiarazle bat eta dinamizazioa
- > Soziograma bat egitea
- > Ekintza-plana zehaztea
- > Eragile erakargarriekiko harremana
- > Espazioak (berriro) antolatzea
- > Lehen prototipoak

### 4.2. Zer egin?

- > Lehentasunezko jarduera-eremuak
- > Ekosistemaren antolaketa posible bat

### 4.3. Nortzuen artean?

- > Ahalik eta diferenteena eta aberatsena den konglomeratua
- > Badagoen horretatik abiatuta jardutea
- > Zabaldu eta batzea
- > Subsidiarotasuna eta deialdi espezifikoak
- > Elkarlanean aritzen (berriro) ikastea

### 4.4. Zein da antolaketa-eredua?

### 4.5. Nola finantzatzen da hau guztia?

### 4.6. Eta nola ebaluatzen da?



TRANSIZIOKO GIZARTE BATERANTZ,  
GIZARTE-BERRIKUNTZAKO  
HERRITAREN LABORATEGI BATETIK,  
NON EKONOMIA ETA  
EKOIZPEN-EREDUAREN  
ALDAKETA BAT IZANGO DEN,  
HONE TAN OINARRITUTA >>>



**GARAPEN  
KOMUNITARIOA  
EKINTZAILETZA ETA  
GIZARTE- EKONOMIA  
HIRIGINTZA JASANGARRIA  
BIZITZA OSASUNTSUA  
KULTURA- EKINTZA**



**PRESTAKUNTZA  
IKERKETA  
EKINTZAILETZA**




JARDUERA-HOBI BERRIAK  
DITUEN HARROBI BAT  
HIRI-BERRONERATZEA  
ENERGIA-NAHIKOTASUNA  
GIZARTE-DISEINUA  
ELIKADURA-SUBIRANOTASUNA  
TEKNOLOGIAK BIGUNAK  
BITARTEKARITZA SOZIOKULTURALA


**HURRENGO URRATSA**



**PROPOSAMENA EGIAZTATU**



**LITEZKEEN ERREFORMAK HASI**





**TALDE HIGIARAZLEA SORTU**



**ANTZEKO PROIEKTUAK EZAGUTU**







Txosten honek,  
*HARROBItik HARROBIra*  
dokumentua irekitzen baitu,  
Harrobi plazaren inguruan  
ekintza-plan bat zehazteko  
proposamen praktiko bat egiten du,  
Bilbao Ekintzak bultzatutako  
eta ColaBoraBorak 2015etik apiriletik  
irailera arte garatutako  
ikerketa- eta lan-prozesu  
kolektibo batetik abiatuta.


## 1. Proiektuaren esparrua

***HARROBItik HARROBIra* prozesuaren helburua Harrobi plazaren inguruan esku-hartze kolektiboko aukerak proposatzea da, gizarte-berrikuntzako eta ekintzailetzako, garapen komunitarioko eta kultura-ekintzako erakargune gisa. Proiektua kokatutako tokiko errealitatea, plazako eta auzoko alderdi zehatzetatik, esparru orokorrago batekin konektatuz pentsatu nahi da, Europako industriondoko hiri-alderdi batetik.**

### 1.1. Europako esparrua

*HARROBItik HARROBIra* oso toki-testuinguru zehatzean sortutako proposamena da, baina industriondoko hiri-auzoetako beste errealitate batzuekin ezaugarri komunak ere baditu eta, ondorioz, Europari eragiten dioten oso erronka zehatzekin ere bai, hala nola:

- Ardatz geopolitiko eta ekonomikoaren aldaketa bat, horretan Europa mendeetan gorde duen zentraltasuna argi eta garbi galtzen ari baita.
- Europako paradigma kulturalaren eta haren balioen behin betiko krisia.
- Biztanleriaren zahartzea eta krisialdietako migrazio-presioaren kudeaketa konplexua.
- Ekonomia hirugarren sektorera pasatzea —edo behintzat, Europak bere ekoizpen-eredua oinarritu zuen industria-kontzeptua erabat berriro definitzea— eta enplegua eta biztanleria aktiboaren ideia ulertzeko modu berri bat eduki behar izatea.
- Ingurumenaren eta baliabide-urritasunaren gaia, planeta osoari eragiten baitio.



Horrela, Europak berriro kokatu behar duenez, Europar Batasunak **Europako Estrategia 2020<sup>1</sup>** definitu zuen, epe luzeko erronkei erantzuteko asmoz, **enplegu, produktibitate eta gizarte-kohesioko mailak hobetzean** ardatzen den estrategia bat, hazkunde-eredu baten bidez: adimentsua (ezagutza eta berrikuntza), jasangarria (ekosistema-ikuspegia, ekonomia zirkularra, merkatu soziala) eta integratzailea (gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzea). Estrategia hori Europako eskalan enblematicoak diren zazpi ekimenen bidez garatzen da: **HARROBitik HARROBIra prozesuarekin zerikusi handia duten bi, alegia, *Berrikuntzaren aldeko batasuna eta Prestakuntza eta enplegu berrietarako agenda bat***; eta beste batzuk, hots, *Gazteria abiadan, Europarentzako agenda digital bat, Baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen Europa, Mundializazioaren garairako industria-politika bat eta Pobreziaren aurkako Europako plataforma bat*.

Zehatz-mehatz, EBk, *Estrategia* horren barruan, 2020an lortzeko bost helburu nagusi ezarri ditu, hain zuzen:

1. Gutxienez % 75eko enplegu-tasa lortzea 20 urtetik 64 urtera arteko biztanleentzat.
2. Barne-produktu gordinaren % 3 ikerketan eta garapenean inbertitzea.
3. Berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 20 murriztea, gure amaierako energia-kontsumoan energia-iturri berriztagarrien ehuneko gehienez % 20 eta energia-eraginkortasuna % 20 handituz.
4. Eskola uzten dutenen tasa % 10ren azpitik murriztea eta goi-mailako irakaskuntzan titulatuena tasa gutxienez % 40raino handitzea.
5. Pobreziaren atalasearen azpitik eta gizarte-bazterketako arriskuan bizi diren pertsonen kopurua 20 milioi gutxiagotzea.

Erronka eta helburu zehatz horien inguruan lan egiteko, kontzeptu interesgarri bat *gizarte-berrikuntza* da, bere transbertsalitateagatik; horri buruzko definizio ugari daude, baina guk, *HARROBitik HARROBIra* prozesuaren esparrurako, Europar Batasunak argitaratutako **Gizarte Berrikuntzari buruzko Gidak<sup>2</sup>** ematen duena hautatu dugu:

1 [http://ec.europa.eu/europe2020/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/europe2020/index_es.htm)

2 [http://ec.europa.eu/regional\\_policy/en/information/publications/guides/2013/guide-to-social-innovation](http://ec.europa.eu/regional_policy/en/information/publications/guides/2013/guide-to-social-innovation)



*Gizarte-berrikuntza honela defini daiteke: **gizarte-beharrak betetzeko, gizarte-harreman berriak sortzeko eta emaitza hobek eskaintzeko** ideia berriak (produktuak, zerbitzuak eta ereduak) garatzea eta inplementatzea. Elkarreragin sozialeko prozesuari eragiten dioten gizarte-eskariei erantzuteko balio du eta giza ongizatea hobetzea du xede. Gizarte-berrikuntzak gizartearentzat onak izan ez ezik pertsonen jarduteko gaitasuna hobetu ere egiten dutenak dira. Herritarren, sozietate zibilaren erakundeen, toki-erkidegoen edo enpresen sormenean oinarritzen dira.*

Horrez gain, gure ustez, *Europako Estrategia 2020* delakoari **KULTURA + HEZKUNTZA + PARTAIDETZA** hiruhortzaren aldeko ikuspegia eta apustu askoz ere argiagoa gehitu beharko litzaioke, **Europako etorkizunaren oinarriak izan beharko bailukete** eta guk **HARROBITik HARROBIra** prozesuan bereziki zaindu nahi baititugu.

## 1.2. Tokiko esparrua

*HARROBITik HARROBIra* tokiko eremutik, testuinguruan kokatutako errealitate espezifiko batetik, planteatzen den proiektua da. **Plazaren inguruan biltzen diren eragileen gaitasunak, baliabideak eta ekintzak metatzen ditu eta gutxienez plaza publiko bat partekatzen duten auzotarren erkidegotzat (jabe desberdinekotzat) jotzen da.** Halaber, modu ekosistemikoan, auzo eta hiri osoa hartzen dira aintzat (plaza eta hango eragileak loturen arteko potentzia garatu behar den sare zabalago bateko nodo gisa).

Horri dagokionez, funtsezkoa da proposamena sortzen den testuingurua aintzat hartzea<sup>3</sup>, baina haren mugak ere argi eduki behar dira, irismena hobeto ulertu eta ardazteko (auzoko egoerari buruzko zati bati soilik heltzen zaio eta, noski, ez da erabateko irtenbiderik eman nahi). Hain zuzen, **HARROBITik HARROBIra** prozesua oso ekintza-esparru zabalago baten barruan kokatzen da nahitaez, bai espazioari bai gai-eremuei dagokienez, eta beharrezko plan komunitario berri bat aktibatuz lor liteke.

Horrela, *HARROBITik HARROBIra* funtsean honako honetan ardazten da:

- **Harrobi plaza eta hango ingurune hurbilena** (funtsean, San Frantzisko auzoa eta Miribillako beheko aldea). Hango eragileak, ekipamenduak eta plaza bera. Hurbiletik, baina tokiko eta nazioarteko beste esperientzia batzuekin lotuta.
- **Eremu produktiboa, garapen ekonomikoarekin, lan- eta lanbide-arloarekin eta hezkuntza-prestakuntzarekin lotua.** Jakina, ez dira ahaztu behar (bereziki auzoan) erreproduzigarritasun sozialarekin eta bizitzari eustearekin zerikusia daukaten kontu asko daudela, ekoizpen-alderdiari zuzenean edo zeharka eragiten dietenak eta arreta-foku eta berrikuntza-iturri garrantzitsuak direnak.

---

<sup>3</sup> Hori ulertzeko, interesgarria da *2. eranskina* ikustea, han egoeraren diagnostiko bat egiten baita, testuinguruarekin lotutako zenbait eragileri egindako elkarrizketa pertsonaletan oinarrituta.



### 1.3. Hiria berrikuntza banatuko ekosistema gisa

Aurreko puntuan esan denez, *HARROBI*tik *HARROBI*ra proiektutik sor daitekeena modu ekosistemikoan ulertu behar da, **auzo osoan eta hiriko barruti guztietan nodoak dauzkan sare banatu batekoa dela** jakinda, eragile guztiak harremanetan jarriz, jardueren arteko fluxuak aktibatuz, lankidetzaren bidez, elkarrekin erantzuleak izateko antolaketa- eta gobernamentu-eredu irekiagoetatik.

Bilboko garapenean pentsatzean, **herritarren berrikuntzako ekosistema aberats, anitz eta jasangarria, hirigintza-hardwarea software sozialarekin uztartzeko bide ematen duena**, dela ulertu behar da. Helburua pertsonen arteko loturen indarra garatzea da, elkarrekin harremanetan jarriz, proiektuak sortuz, hiria eginez eta biziz. Horretarako, azpiegiturak, baliabideak eta aktiboak, jarduerak eta herritarren energia deszentralizatu eta hiri guztian zehar banatu behar dira. Sareko nodo bakoitza modu autonomoan eta testuinguruaren arabera landu behar da (eremu edo lurralde bakoitzeko inguruabarretara egokituz), baina, aldi berean, interdependentsia eta transbertsalitatea aintzat hartu behar dira, zentzu orokor dibertsifikatu baina antolatua bilatuz, harremanak eta baliabideak optimizatzeko eta aukerak maximizatzeko.

**Herritarren berrikuntzarako ekosistema hori antolatzeko erronka hirian habitat espezifiko batzuk *hub* zentroen modura elkarrekin erlazionatzean datza.** Zenbait habitat osagarri osaturiko ekosistema. Zentro bakoitzak indar gehiago hartzen du sare edo hiri beraren barruko beste batzuekin erlazionatzen denean, eta multzoa proiektu liteke nazioartean erreferentziako eredu berritzaile gisa. Horrela, **zentro bakoitzean pentsatu** behar da —**kasu bakoitzean berrikuntzaren aldeko garapenerako baldintza onenak bil ditzan**—, **baina aldi berean horien multzoan pentsatu** behar da, harreman orekatuen eta espezializazioaren edo diziplina arteko sinergien ondoriozko aukeren fluxua bilatuz.



Habitat horietan pentsatuz eta nagusiki alderdi produktiboa aintzat hartuz (ahaztu gabe ekosistema batek beste mota bateko habitatak kontuan izan behar dituela jasangarria izateko), *HARROBItik HARROBIra* proiektuak proposatzen du **Bilbon —gainera, horretarako egokiak diren faktore batzuei esker, hala nola, hedadurari eta kontzentrazioari esker— truke- eta ezagutza-fluxua eta lankidetzaren harremanak sortzeko ahaleginak areagotu eta sistematizatu egin behar direla**, zenbait kasutatik abiatuta, esate baterako:

1. Hiriko zenbait tokitan dauden ezaugarri desberdinetako **AuzoFactory**-en sare hasiberria. Matikoko Kabi Digitala, gaur egun, adibide nabariena izan daiteke; edo Harrobi plazako Dispentsarioa eraikina bera, han baitaude WikiToki eta Bilbao Ekintzaren enpresa-mintegi bat. *AuzoFactory*ren ideiak balio lezake ekosistema biltzeko.
2. **Bilbao Berrikuntza Faktoria**<sup>4</sup>, udalaren, Mondragon Unibertsitatearen eta zenbait eragileren (azeleratzaileak, *cluster*ak, enpresak) arteko lankidetzaren adibide interesgarria; han, prestakuntzak, ekintzaitzak eta enpresen sendotzeak bat egiten dute.
3. **Zorrotzaurreko ingurunea**<sup>5</sup>, non nagusiki sormen-fabriken asmoarekin zerikusia duten eta kulturarekin eta sormenarekin, teknologiek eta *maker* munduarekin zerikusia duten jarduerak biltzen dituzten ekimen ugari instalatu diren. Bi adibide esanguratsu *ZAWP* eta *EspacioOpen* inguruneak dira, edo beste aukera-espazio batzuk ere, hala nola *Papelera*.

4 <http://bbfaktoria.com/>

5 <http://www.zawp.org/> | <http://espacioopen.com/>



## 2. Definizioa eta prozedura

*HARROBI*tik *HARROBI*ra etorkizuneko proposamena da, *trantsizioko ekimen* baten bidezkoa, tokiko giza garapenean eta ingurumenaren jasangarritasunean oinarritzen dena; Harrobi plazan egiten da, *living lab* delakotzat jotzen baita, alegia, gizarte-berrikuntzako herritarren laborategizat. Ekimen hori modu parte-hartzailean diseinatu da, elkarren segidako zenbait urratsez osaturiko lankidetzaren prozesu baten bidez.

### 2.1. Zer nahi dugun

*HARROBI*tik *HARROBI*ra Bilboko erdialdeko auzo historiko bateko plaza germinal batean egiteko ekimena da; **15 urtera (2030) begira, gizarte-berrikuntzako erakargune bihurtzea proposatzen du, handik tokiko giza garapena eta ingurumenaren jasangarritasuna oinarri hartuta, trantsizioko ekimen baten bidez<sup>6</sup>**, lan egiteko, pertsonen eta planetaren arteko errespetuan oinarritutako paradigma baterantz. Hain zuzen, hauxe lortu nahi da:

1. **KOMUNITATEA.** Bizi-baldintzak hobetzea, zaintzak ziurtatzea, auzotarren erresilientzia handitzea eta komunitateko eta sare interdependenteko ideiak garatzea (alderdi publikoan, profesionalean, etxekoan...).
2. **EKONOMIA- ETA EKOIZPEN-EREDUA.** Baliabideen erabilera jasangarrian (batez ere, energia-mendetasuna txikiagotzeko), gizarte-merkatuan eta P2P harreman- eta ekoizpen-moduetan oinarritutako eredu bat garatzeko lan egitea.

<sup>6</sup> Dokumentuko 6. *eranskinak* modu xehatuan aurkezten du nola izan liteke auzoko testuingururako egokitutako *trantsizioko ekimen* bat.



3. **BIZTANLERIA AKTIBOA.** Jarduera-hobi, lanbide-hezkuntzako eremu, ikaskuntza partekatu eta giza garapen berriak arakatzea, enplegarritasuna, ekintzaitetza-gaitasuna eta herritarren balio soziala ekoizteko beste modu batzuk areagotzeko asmoz.
4. **KULTURA.** Kultura arteko eta kultura anitzeko aberastasunaren eta auzoan dagoen kultura-sare garrantzitsuaren balioa azpimarratzea, berritzea, garapen komunitarioa eta gizarte-kohesioa erdiesteko baliabide gisa, berdintasuna eta aniztasuna kontuan hartuta.
5. **ASKEA ETA IREKIA.** *Open source* delakoaren, irisgarritasunaren eta gardentasunaren aldeko apustua, gobernamentu-ereduan eta ezagutzaren ekoizpenean eta banaketan paradigma aldatzeko, hain zuzen lehiatu beharrean elkarlanean aritzeko eta partekatze helburuarekin.

**EKONOMIA BERDEA, ZIRKULARRA ETA ELKARLANEKOA + GIZARTE-MERKATUA + TEKNOLOGIA GOGORRAK ETA BIGUNAK + DISEINUA ETA SORMENA + KULTURA ETA HEZKUNTZA + P2P HARREMANAK** zeharka gurutzatzen diren sistema.

Ingurune horretatik, eremu hauetan sakondu eta sofistikatu behar da: **BIZTANLERIA AKTIBOARENTZAKO ZERBITZU OSOAK / HIRI-BERRONERATZE INKLUSIBO ETA JASANGARRIA / ENERGIA-, ELIKAGAI- ETA TEKNOLOGIA-SUBIRANOTASUNA / BIZITZA AKTIBO ETA OSASUNTUA / ZAINZAK ETA MENDEKATASUNA / GARAPEN KOMUNITARIOA / ESKU-HARTZE ETA BITARTEKARITZA SOZIOKULTURALA.**

## 2.2. Helburuak eta estrategiak zehazten

*HARROBITik HARROBIra* proiektuaren proposamena helburuen konbinazio batean zehazten da. Helburu horiek erdiesteko, estrategia espezifikoak garatu behar dira, alegia, **ZER eta NOLA desberdinen multzo koherente eta interdependente** gisa, kontuan hartuta prozesuan zehar eboluzionatzeko eta egokitzeko gaitasuna izan behar dutela.

Horrela, Harrobi plaza gustatuko litzaigukeen bizi-espazioa bihur dadin, *HARROBITik HARROBIra* prozesuaren bidez ondoren azalduko ditugun helburuak lortu nahi dira eta estrategiak proposatzen dira.


### > Plazari buruz, gizarte-berrikuntzako *living lab* gisa

**ZER:** plazako ingurunea lankidetzarako, gizarteratzeko eta belaunaldi, kultura eta diziplina arteko esperientziak trukatzeko **herritarren laborategi bihur dadila**. **Bizitza erdigunean ipintzearen aldeko apustua egiten duen ekoizpen-ereduaren aldatetari** buruz esperimintatzeko testuinguru onuragarria, kontu ekonomiko, sozial eta kulturalak aintzat hartuz.

**NOLA:**

- **Berrikuntzan, ekonomian eta gizarte-ekintzan erreferentzia-puntuak diren eragileek plazen duten presentzia bultzatu eta antolatuz.** Jadanik





badaudenen (Hargindegi, Gaztaroa, Ikastola, Hi!, WikiToki...) presentzia finkatuz; Bilbao Ekintzaren presentzia aktiboa suspertuz, zeregin esanguratsua berreskuratzeko (gizarte-ekonomian eta auzoko ekintzailtzarako arreta espezifikoan espezializatutako unitate bat sortzea); erakargarri eta testuinguruaren antolatzaile izan litezkeen eragile berriak txertatuz, hala nola ekalN sarea, Goiener, IHOBE, etab.

- Plazaren inguruko komunitatea osatzen duten **eragileen arteko lankidetzeta eta elkarren ezagutza sustatzeko baldintza egokiak erakarriz eta sistema formalez eta informalez hornituz** (beste eragile batzuentzat irekita). Espazio, baliabide eta zerbitzu komunak, aldizkako bilerak, erabilera anitzeko proiektuak, truke- eta hibridazio-programak, elkarlana errazten duten jarduerak eta tresnak.
- **Plazako testuinguruan bertan prototipoak eta esku-hartze zehatzak garatzea**, inplementatu, eskalatu edo transferitu ahal diren proba-bankuak eta jardunbide egokiak erakusten dituzten kasuak sortzeko.
- *Living lab* direlakoekin, berrikuntzarekin eta gizarte-ekonomiarekin zerikusia duten **nazioarteko sareetan eta programetan sartzeko aukera aztertzea** (eragile bakoitzak banaka ezarrita dauzkan harremanetatik abiatuta eta Santander/Bordel mugaz haraindiko ardatzean arreta berezia jarrita).

## > Ingurune produktibo bati buruz, gizarte-ekonomiaren ikuspegitik

**ZER: plaza alderdi ekonomiko eta produktiboaren inguruan erreferentziako tokia bihur dadila, tokiko giza garapenaren eta gizarte-kohesioaren ikuspegitik**, ikaskuntza-eremuak, laguntza, enplegua, ekintzailtza eta bizitza aktiboko eta gizarte-balioaren sorkuntzako beste modu batzuk kontuan izanik.



## NOLA:

- **Jarduera- eta enplegu-hobi berriak identifikatuz eta garatuz**, esate baterako: hirigintza jasangarria, energia berriztagarriak, gizarte-merkatua, bizitza osasuntsua, zaintzak eta mendetasuna, bitartekaritza soziokulturala, diseinu eta sormen sozialeko zerbitzuak, etab. Zerbitzu aurreratuen eta lanbide- eta laneratze-prestakuntzaren arteko sinergiak bilatuz. Deslokalizatu ezin diren eta urtarokoak ez diren jarduera inklusibo eta intentsiboen aldeko apustua eginez.
- **Gizarte-ekonomiaren inguruko ekimenak, trantsizioko gizarte baterantz daramatenak, erraztuz eta lehenetsiz**. Komunitatean bertan eta ingurunean inplikatzeko diren eta horien onurarako diren ekimenak; merkatu, enplegu eta gizarte-enpresen eredu antolatua eta formalagoak izateko eboluzionatu ahal dutenak; jasangarriak, errepikatzen edo eskalatzeko modukoak direnak eta eragin eta itzulkin handiagoak dituztenak.
- **Programa eta neurri zehatzak, berariaz kalitate oneko enplegua sortzea eta ekintzaitza kolektiboa sustatzea xede dutenak**, garatuz, gizarte-ekonomiaren inguruan; lehenengo eta behin zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzat, auzokoentzat edo plazan bertan kokatutako zerbitzuen erabiltzaileentzat direnentzat.

## > Espazio publikoan bizitza aktibatzeari buruz

### **ZER: plaza auzoarentzat erreferentziako bizi-espazioa bihur dadila.**

Topaketetarako, harremanetarako, zaintzetarako, jolasetarako, nahasketetarako tokia. Espazio dinamikoa, abegikor eta integratzailea, non elkar ezagutu eta enpatizatu ahal den, tokiko giza garapena bultzatzeko eta gizarte-kohesio handiagoa errazteko.

## NOLA:

- **Askotariko jarduerak sortuz**, unean-unean edo aldizka, plaza gehiago erabiltzeko eta erreferentzia-puntu bihurtzeko. Jarduera horietako askok plazaren inguruan (jardueraren hedapen naturalerako gunea) kokatzen diren eragileek beraiek dagoeneko sortzen dituztenekin zerikusia eduki beharko lukete. Oso garrantzitsua da jarduerak elkar ezagutaraztea eta auzotar zaharren eta berrien arteko harremana sustatzea.
- **Barne-kanpo hesia hautsiz, batez ere kalean dauden guneei dagokienez**. Libre dauden edo laster erabilgarri egon litezkeen espazioetan sartu beharreko eragile- eta jarduera-motak ondo pentsatuz, benetako alderdi ireki, aktibo eta publikoa eduki dezaten.
- **Plazatik igarotzen diren pertsonen kopurua areagotuz**. Miribillatiko eta Miribillarainoko zirkulazioa bideratzen saiatuz (batez ere, bloke berrietako auzotarrei dagokienez, eskaileren eta Cantalojas kalearen bidez); eta ikastolaren erabiltzaileak plazaren mailatik sartzea lortuz (horretarako, eraikin osoak okupazioa handitu behar du).




- **Espazioa bera fisikoki eta bisualki aldatuz**, zenbait gauzatarako erabilgarriagoa izan dadin (oinezkoentzat moldatuz edo, behintzat, aparkatzea debekatuz, hiri-altxariak eta dauden oztopoak askatuz edo berrantolatuz, bizikleten udal-zerbitzuan sartuz, ingurunean bisualki esku hartuz haren nortasuna lantzeko).

## > Helburu komun baten aldeko apustu batean ahaleginak batzeari buruz

**ZER: plazaren inguruko proiektuak eragileak eta estrategiak antolatu, integratu eta elkartzeko balio dezala** —orain neurri handi batean barreiatuak, zatikatuak edo bereziak baitaude—, ikuspuntu komun batez pentsatuz eta jardunez, tokiko ikuspegi batetik, Europako industriondoko errealitate batetik testuinguru global bati loturik.

### NOLA:

- **Proiektuaren konplexutasunaren parean dagoen baterako apustu bat antolatuz, eragile publiko, sozial eta pribatuen konbinazio bat integratuz.** Sail arteko eta erakunde arteko apustu politikoa; eta testuingurutik bertatik, eragile ekonomikoetatik, sozialetatik, kulturaletatik eta auzotar guztiengandik abiatzen den apustua.
- **Plazaren inguruan eragileen, proiektuen eta erabileren azaleratzea antolatuz eta katalizatuz** (urte gutxitan nabarmen aldatu baititu fisionomia eta biztanleak). Multzoa ordenatuz, lehenetsiz eta zentzuz hornituz; modu kolektiboan (ez aldebakarrekoan), kohesionatuan eta ekosistemikoan planifikatuz, jadanik han bizi diren eta han bizi litezkeen eragileekin.
- **Gobernamendu-eredu ireki, horizontal eta eraginkor bat bereganatuz**, eragileak lan-prozesu kolektibo baten barruan inplikaturik eta han liderrak izanez, erantzunkidetasuna eta proiektua garatzeko interesak eta errekurtsioak biltzeko beharrari erantzuna emateko.
- **Proiektua gure auzoetarako plan komunitario berri baten garapenarekin eta inplementazioarekin bat etorraraziz.** Jarraitutasuna ematen duen baina aurreko planei dagokienez aldaketa bat den plana, ardatz soziala, kulturala eta ekonomikoa nabarmentzen dituen, herritarren partaidetza erantzunkidearen ikuspegitik prestatua eta zabaldua. Ildo horretan, *HARROBITIK HARROBIra* proiektuan *trantsizioko ekimenaren* ereduaren inguruan (ikus 6. eranskina) lan egiteko aukera proposatzen dugu, gure auzoetatik hiriko gainerako tokietara hedatu ahal baita.
- **Proiektua *Europa Estrategia 2020* delakoarekin bat etorraraziz, enplegu, produktibitate eta gizarte-kohesioko mailak hobetzean ardazten baita**, hazkunde-eredu baten bidez: adimentsua, jasangarria eta integratzailea. Proposatzen diren zazpi ekimen enblematikoetatik bitan arreta berezia jarritz: *Berrikuntzaren aldeko batasuna, Prestakuntza eta enplegu berrietarako agenda bat*.



## 2.3. Nola nahi dugun

*HARROBitik HARROBIra* prozesua **Harrobi plazaren inguruan bitartekaritza egiteko eta parte hartzeko gailu gisa proposatzen da, proposamenaren sortzaile eta abiarazle gisa han bizi direnekin batera**, prozesuaren hasieratik inplikatur. Horrela, helburuak estrategiekin nahasten dira, prozesu honetan gurutzatuz: AURKITU > DEFINITU > GARATU > ZEHAZTU. Horren bidez, gauzak modu naturalean zehaztuz eta itxura hartuz joango dira eta, azkenik, IMPLEMENTATU egingo da.

Lan-planteamendu orokorra plaza eta hango ingurunea *living lab*<sup>7</sup> gisa ulertzea da, alegia, herritarren laborategia, non auzotarrek, beste erabiltzaile eta ekoizle batzuek topo egingo duten alderdi guztientzat onuragarriak diren berrikuntzak elkarrekin sortzeko. **Benetako proba- eta esperientazio-ingurunea, esperientzietan oinarritua.** Oro har, *living lab*ek lau jardura-mota hartzen dituzte barne:

1. **Elkarrekin sortzea:** erabiltzaileek eta ekoizleek elkarrekin diseinatzea (*maker* eta *prouser*—ekoizlea eta erabiltzailea aldi berean— figurak sustatuz).
2. **Araketa:** komunitaterako eta merkaturako goraka ari diren erabilerak, portaerak eta aukerak aurkitzea.
3. **Esperimentazioa:** erabiltzaileen komunitateen barruko benetako agertoki eta esperientzien bidez eta prototipoen bidez.
4. **Ebaluazioa:** kontzeptu, produktu eta zerbitzuena, irizpide sozioergonomikoak, soziokognitiboak eta sozioekonomikoak kontuan izanik.

Erronka nagusietako bat **ikuspegi ekoSISTEMIKO batez planifikatu eta jardutea** da. Azkenean definitzen den proiektu orokorrak —izendatzaile komunitetako txikienetik ezartzen denak— koherentzia eduki beharko du edukiari eta kontakizunari dagokienez, baina proiektu desberdin eta autonomo ugariz osatuta egon ahalko da, baldin eta modu interdependentean elkar atzera elikatzen badute.

<sup>7</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi *Open Living Labs EnoLL* sareari buruzko fitxa 5. eranskinaren 46. orrialdean eta bisitatu <http://www.openlivinglabs.eu> webgunea.



## 2.4. Ibilbide bat hiru urratsetan

HARROBITik HARROBIra prozesu osoa elkarren segidako hiru urratsetan garatzen da. Orain arte egindako lana ibilbide osoaren lehen urratsa baino ez da.

### 1. URRATSA: AURKITU > DEFINITU

2015eko apiriletik abendura (dokumentu hau urrats honen emaitza da)

#### Ekintzak:

- Ingurunearen, egoeraren eta aukeren **atariko diagnostikoa** egitea.
- **Eragileak, baliabideak, jarduketa-eremuak eta lekuak identifikatzea.**
- **Badagoena erlazionatu eta berrantolatzea.**
- Eragileek **elkar ezagutzea eta elkarri eragitea** sustatzea.
- **Izendatzaile komun** posibleak identifikatzea, horien inguruan lan egiteko eta kohesioa sortzeko.
- Proiektuaren **lehen eskema kontzeptual bat, ekintza-multzo bat eta lan-plan posible bat** proposatzea, hurrengo urratseko elkarlanaren oinarria izateko.
- **Egiatzen instituzionala** (aurkezpena, elkarrizketa, doikuntzak...).
- Erakundetik hurrengo urratsari ekiteari (edo ez ekiteari) buruzko **erabakiak hartzea**; eta, hala bada, prozedura, baldintzak, etab. definitzea.

#### Parte-hartzaileak:

- Plazaren inguruan kokatutako eragileak (bai erakundeak bai gizabanakoak).
- Auzoa ordezkatzen duten eta gizarte-berrikuntzarekin eta ekintzailetzarekin zerikusia daukaten eragileak.
- Beste eragile espezializatu batzuk (unean-unean).

#### Metodologia eta itzulkinak:

- Elkarrizketa pertsonalak.
- Elkarrekin sortzeko saioak.
- Txosten espezifikoko eskatzea.
- Dokumentu bat idaztea, proiektuaren *iturburu-kode* gisa. Funtsezko galderetarako hasierako erantzunak barne hartu behar du, adibidez: zer / nork / non / nola egin / noiz —kronograma— / nondik hasi.


### 2. URRATSA: GARATU > ZEHAZTU

2016ko urtarriletik abendura

2. urratsa osatzen duten ekintzen azalpen xehatua dokumentu honetako 4.2.\_*Nondik jarraitu?* izeneko puntuan dago.

#### Ekintzak:

- **1. URRATSEAN garatutako proposamena** aurkeztea, **egiaztatu**, proiektua zabaldu, azaldu eta eztabaidatu eta elkarrizketak eduki ahal izateko, inplikatu nahi duten eragileak identifikatu eta biltzeko.
- Fokua zabaltzea, **antzeko proiektuak eta erreferentziako jardunbide egokiak** aurkeztuz (*Darwin+Pola, Usera Barrio Sostenible, Coopolis, Barcelona Lab, Volumes, El Milagro de los Peces, Harinera ZRGZ + Azucarera, ENoLL*).



- **Talde higiarazle bat sortzea:** koordinazio-taldea antolatzea eta lan-dinamika orokorra eta tartean dauden eragileen arteko harremanaren dinamika definitzea. Pertsona bat edo talde bat kontratatzea, host-funtzioak betetzeko.
- **Soziograma** bat egitea, proposamenera berariaz egokitua.
- Proiektu osorako eta haren zatietarako **Europako programak aztertzea**.
- Proiektua eta lehentasuneko ekintza espezifikoak modu parte-hartzailean definitzea (prozesuan erabakiko da zer egin daitekeen, zer ezin daitekeen egin eta zehazki nola egin behar den, 1. urratsean proposaturiko guztiaren artean), **ekintza- eta bideragarritasun-planak** modu xehatuan zehaztuz, **eragina eta itzulkina neurtzeko sistemaren** eta **adierazle kuantitatiboen eta kualitatiboen multzoaren** definizioa barne.
- Lehen **prototipoak test moduan** inplementatzea.
- Espazioetan egin daitezkeen **erreformei eta esku-hartzeei** buruzko txostenak egitea eta nola egin planifikatzea (edo baita baten bat egitea ere).

### Parte-hartzaileak:

- Plazaren inguruan kokatutako eragileak, urrats honetan han bizi diren auzotarrak barne hartuta (bai erakundeak bai gizabanakoak).
- Gizarte-berrikuntzarekin, ekintzailetzarekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten auzoko eragileak (bereziki, 1. URRATSEAN harremanetan egon ez direnak).
- Auzoko gizarte-eragileak eta auzotarrak oro har.
- Erakundeetako eragileak.
- Ezagutzarekin eta esperientziarekin zerikusia daukaten eragileak.
- Litezkeen eragile erakargarriak.
- Litezkeen finantzatzaileak eta inbertsiogileak.
- Txosten espezifikoak eskatu behar zaizkien zenbait eremutako profesionalak.



### Metodologia eta itzulkinak:

- *Display* fisikoa 1. URRATSAREN emaitza aurkezteko (aurkezpen- eta partaidetza-gailu gisa).
- Erreferentziako kasuen aurkezpenak.
- Soziograma.
- Elkarrizketa pertsonalak.
- Elkarrekin diseinatzeko saioak kontu zehatzetarako.
- Txosten espezifikoak eskatzea.
- Ekintza-plana eta bideragarritasun-plana barne hartzen dituen dokumentua.
- Beste dokumentu operatibo batzuk (proiektuko gai edo zati espezifikoetarako buruzkoak).

## 3. URRATSA: INPLEMENTATU

### 2017ko urtarrila >>>

#### Ekintzak:

- **Ekintza-plana** abian jartzea: prozesuka eta proiektuka.
- **Deialdiak eta bitartekaritza-programak** aktibatzea.
- **Prototipoak eta proiektu zehatzak** inplementatzen jarraitzea.
- Espazioetan litezkeen **esku-hartzeak (obrak)** inplementatzea.
- *HARROBITik HARROBIra* proiektuaren beraren programakoak diren jardueri buruzko komunikazioak egitea eta gainerako jarduerak komunikatzen laguntzea.
- **Nazioarteko sareekin** lotzea eta programa zehatzetan sartzea.
- Definitzeko eta abian jartzeko prozesua **ebaluatzea**.

#### Parte-hartzaileak:

- *HARROBITik HARROBIra* prozesuaren kudeaketan eta garapen orokorrean zuzenean inplikaturik dauden eragileak.
- *HARROBITik HARROBIra* prozesuko proiektu eta programa zehatzetan inplikaturik dauden eragileak.
- Auzotarrak, alderdi guztietan.
- Jarduera-lerroekin zerikusia daukaten ekintzaileak.
- Proiektu edo programa zehatzetan (etengabe edo unean-unean) parte hartzen dutenak.
- Solaskide espezifikoak jarduera-lerroen arabera.
- Komunikabideak.

#### Metodologia eta itzulkinak:

- Plazaren multzoa bera, lanaren, informazioaren, bitartekaritzaren eta partaidetzaren kasu frogagarri eta *display* fisiko gisa.
- Lanerako, informaziorako, bitartekaritzarako eta partaidetzarako espazio digitala.
- Ikastaro, lantegi eta mota guztietako jarduera formalak eta ez formalak, erabiltzaile-mota guztientzat.
- Deialdi publikoak.
- Bitartekaritza-programa.
- Formatu espezifikoak proiektuak.
- Programei eta jardueri buruz irekian argitaratutako dokumentazioa.
- Urteroko memoria eta ebaluazio-txostena, irekian argitaratuak.



### 3. Plazari eta hango inguruneari buruz

*HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuko esku-hartze espazioa Harrobi plazan ardatzen da, plaza bera, inguratzen duten eraikinak eta aldameneko ingurunea barne hartuz, harremanak hurbiltasunean eta kontaktuan oinarriturik ezartzeko.

#### 3.1. Lekuaren deskribapen laburra

Harrobi plaza San Frantzisko auzoko (Gorte eta Kontzezio kaleen artean) leku Germinal eta enblematikoa da.

Plaza inguratzen duten eraikinek konfiguratzeko dute; horietako asko (Harrobia eraikina eta babes ofizialeko etxebizitzak) eraiki berriak dira. Albo luze batean etxebizitzak daude (beheko solairuetan Gaztaroa eta Hargindegi kokatzen dira), baita Gasteiz eta Gimnasio kaleek osaturiko zirkulazio-bide bat ere; horietatik bi bide perpendikular irteten dira: Cantalojas (oinekoentzat), plazako erdialdetik, eta Aintzira kalea, zeinaren ondoan plaza mailadun bat dagoen. Beste albo luzean, Harrobia eraikinaren erdialdean, hutsune bat dago, eta han antzinako arkuak eta eskailera berriak eta estu batzuk daude, plaza Kontzezio kalearekin lotzen dutenak.






Plazako albo laburretan honako hauek daude: alde batetik, udal jabetzako antzinako Dispentsarioa eraikina (polizia-etxea, WikiToki eta AuzoFactory daude han) eta etxebizitza-erakin txiki bat; eta bestetik, Harrobia eraikineko hegal laburra.



Kontzezio kaleari dagokionez (plazaren atzealdean kota handi batek banatzen du plazatik), garrantzitsua da honako hauek daudela nabarmentzea: orain ikastolako sarrera nagusia dena (hasiera batean, sarrera edo atari hori plazarantz proiektatua zegoen); plazara daramaten eskaileretarako goiko sarbidea, zeinaren ondoan banku bat eta bizikletak aparkatzeko toki bat dagoen; Hi!, WikiToki eta polizia-etxeko atzeko irteerak (elkarren alboan); lorategitxo bat Dispentsarioko mehelinaren ondoan; Miribillako parkearekiko zuzeneko lotura; eta orain eraikitzen bukatzen ari diren etxebizitzaren talde bat. Eta Kontzezio kalean bertan auzoko erreferentziako bi kultu-leku daude: Filadelfia eliza ebanjelikoa eta Al Furkan meskita.




Gainera, oso hurbil EHUko ikasleen egoitza (Gorte kaleko 38. zenbakian), Miribillako eskola publikoa eta zaharren egoitza (Gorte kaleko 1. zenbakian du sarrera) daude; azken hori Mirasol kondearen kaletik irteten diren eta Harrobi plazan sartzeko ohiko beste bide bat diren eskaileraren ondoan dago.





IPAR ALTXAE









### 3.2. Aukera-espazioak

Plazako ingurunea guztiz eraldatu da azken urteetan (horri dagokionez, bitxia da ikustea *Google Maps*, *Earth* edo *Street View*en plazaren zati handi bat oraindik eraitsita, eraikitzen edo jadanik amaituta ikusten dela). **Horrela, bitarteko egoera bat bizitzen ari gara: aski dago jadanik eginda, baina oraindik egiteko asko geratzen da, eta esku hartzeko eta multzoari koherentzia eta eraginkortasuna ematen saiatzeko une egokiena izan daiteke hau** (eragileen eta espazioen egungo egoera hobeto ulertzeko, 2. *eranskin*eko 3. *Harrobi plazari buruz* puntua kontsultatzea gomendatzen dugu).

Gaur egun, ingurune horretan aukerak eskaintzen dituzten edo arazotzat jo behar diren (hau da, erabilerarik ez duten, erabileraz aldatu behar duten edo erabilera osagarriak eduki behar dituzten) espazioak, *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuari dagokionez, hauek dira:

- **Harrobia eraikineko espazioak:** eraikin horrek ditu metro karratu gehien eraikita eta oraindik erabilera zehazturik gabe. Beheko solairuak 400 m<sup>2</sup>-ko gela argitsu bat dauka, sarrera independentea, beirztatua eta erabilera anitzekoa duena, baita orobat beiraz hornituta dagoen atari edo atartea, 96 m<sup>2</sup>-koa, eta komunen eta aldagelen gune bat ere. Bosgarren solairuak 1.000 m<sup>2</sup> baino gehiago ditu (zerbitzuak ez daude hasita); eraikineko L osoan espazioa argitsua da, bi eremutan banatuta dago, bi hegaletatik sartzeko aukera dago eta estalkira lotuta dago. Eta eraikineko beste solairu batzuetan (nagusiki, 2. solairuan) konpartimentuetan zatitutako beste espazio batzuk daude. Espazio libreez gain, ikastolaren funtzionamendu arruntaren barruan —asteleheneetik larunbatera etengabe zabalik egoten da 08:00etatik 21:00etara—, espazio hornituak daude, eta plazako edo auzoko gainerako eragileekin adostutako bestelako erabilerak eduki ahalko lituzkete (hori guztia nola egin zehaztu beharko litzateke).



- **Dispentsarioa + Hi!:** plazako beste ertza udalarena da: antzinako Dispentsarioa eta Harrobia eraikineko 6 solairuetatik 4 (horietako hiru Hi! proiektuak okupatzen baititu). Bi eraikin horietan zenbait alderditan ekintzaitzarekin zerikusia daukaten jarduerak garatzen dira, askotariko ikuspuntuetatik eta eragile desberdinek kudeatuta (ez dago ez kohesiorik ez koordinaziorik haien artean). Gainera, Harrobia espazioan erabilera anitzeko espazio bat dago, kalearen parean, 67 m<sup>2</sup>-koa; probetxu handiagoa atera ahalko litzaioke. Bestalde, 4. solairua dago; hiru bulego-espazio argitsu ditu eta hutsik daude (75/64 eta 44 m<sup>2</sup> + sarrerako 26 m<sup>2</sup>). Eta Dispentsarioan, zehaztu gabeko epe batean, **gaur egun polizia-etxeak hartzen duen espazioa** (beheko solairua eta 1. solairua) eskuragarri gera liteke.
- **Gaztaroak eta Hargindegik** ere instalazio zabalak dituzte, besteak beste, prestakuntzarako homologatutako zenbait espaziorekin. Kasu horretan, erabilera intentsiboko espazioak dira; beraz, hobeto koordinatu edo erabilera ahalbidetzen duten lankidetzaproiektu zehatzak antolatu beharko lirateke.
- **Plaza bera eta inguruko eraikinetako fatxadak**, esku hartzeko espazio gisa (horiei Kontzezioko atzealdeko fatxadak eta Dispentsarioaren ondoko lorategitxoak gehitu ahalko genizkieke). Plazan beran zera pentsatu beharko litzateke: nola egin abegitsuagoa, zer egin Kontzezio kalearekin lotzen duten **eskailerekin** (argi eta garbi, puntu beltza irisgarritasunari, segurtasunari eta higienari dagokienez) eta **Gasteiz kalea (edo horren zati bat) oinezkoentzat egin ahal den** aztertzea (edo, behintzat, plazaren aldean aparkatzea debekatzeko aukera).
- **Aldirietako lonjak eta orubeak:** plazan bertan ez dauden arren, aldirietako lonja batzuk aintzat hartu ahalko lirateke proiektuaren neurriak ezartzeari begira. Jarraian, horietako batzuk aipatuko ditugu:
  - **Gasteiz kalea:** plaza berrurbanizatzean sortu zen kale-tarte berri bat (lehen, zurgindegia bat zegoen); lonja asko hutsik daudenez, plazaren hedadura-espazio natural bat izan liteke. Jabe berberen hiru lonja daude kaleko zenbait zatitan (sotoko 500 + 500 m<sup>2</sup>, egoitzaren ondoan; 600 m<sup>2</sup>, orube edo patio txiki baten ondoan; eta 75 m<sup>2</sup>, plazaren kantoian). Erdi eraikitako eraikin bat dago; badirudi berriro eraikitzeari ekingo diotela eta etxabe zabalak edukiko lituzkeela. Kalea (edo zati bat) oinezkoentzat eginez gero, ingurunea plazarekin eta Cantalojas kalearekin batuko litzateke.
  - **Eraiki gabeko orubeak:** nagusiki, Gimnasio kaleko 1. zenbakikoa (Harrobiarekin mugakidea) eta Gasteiz kaleko orube edo patio txikia, aurreko puntuan aipatutakoa.
  - **Cantalojas kalea:** Ziur asko, Harrobi plazara sartzeko bide nagusia; goiko zatia oinezkoentzat egin du eta plaza zuzenean San Frantzisko kaleko Berreginen Museoarekin lotzen du.
  - **Gorte eta Aintzira kaleen arteko ertzean, eta batez ere Gorte eta Cantalojas kaleen artekoan, HARROBitik HARROBIra** proiektuari lotutako ekimenak garatzeko erabil litezkeen bi lonja daude (Cantalojas kalekoa, Gorte kaleko 20. zenbakian, erabat erreformatuta dago, zenbaitetan jardueretan erabili da, adibidez, *Gau Irekia* delakoan, eta gainera Nevipen eragilearen ondoan dago —horrek garrantzitsua izan beharko luke proiektuan—).



- Ez hain modu zehaztuan, **plaza dagoen etxe-uharteko** (Gimnasio/Kontzezio) **gainerako lokaletan** jarri behar da arreta, horietako askok jarduera interesgarriak eskaintzen dituztelako eta lonja huts asko daudelako. Gimnasio kalean artisau, industria txiki eta negozio berri ugari daude; eta Kontzezio kalean meskita eta eliza ebanjelista daude, baita saltoki txikiak ere, eskolatik hurbil.
- **Miribillako parkea:** parkea aukera-espazioa da, orain arte gatzgabe samarra, ia ez-leku bat, Miribilla eta San Frantzisko lotu baino gehiago banatu egiten dituen. Parke horrek *HARROBitik HARROBIra* proiektuaren esparrua gainditzen duen azterketa espezifikoa mereziko luke, baina proiektuan dauden alderdi batzuk zeregin esanguratsu bat betetzera hel litezke.

Hauek dira espazioari dagokionez HARROBitik HARROBIra garatzean aurre egin behar zaien erronka zehatzak:

- **Harrobiko eta Dispentsarioko espazioetarako erabilera zehatzak definitzea** (aurrerago, 4.3.\_ puntuko > Ekosistemaren antolaketa posible bat atalean, eskainiko diogu arreta gehiago horri).
- **Plazan jadanik gertatzen dena behatuz** hastea (dirudiena baino gauza gehiago gertatzen dira). Orain une desberdinetan dauden erabilerei buruzko behaketa antropologikoko prozesu txiki bat planteatzea eta beste aukera batzuk proposatzea, elkarrekin diseinatzeko lantegien edo beste partaidetza-gailu batzuen bidez.
- **Hirigintzako eta arkitektura jasangarri eta inklusiboko irtenbideak** proposatzea plazarako, eskailerarako, espazioak bukatzeko edo birgaitzeko, irizpide ekologikoei jarraiki.
- **Plazaren inguruko jarduerak bistartzeko, seinalatzeko edo erakusteko moduetan** pentsatzea. Ikusi, ulertu, balioetsi, zaindu egiten dena... Fatxadetan muralismoa egiteko edo seinaleak ipintzeko esku-hartzeak izan litezke.
- **Plaza inguratzen duten beste espazio batzuetarako erabilera zehatzak (egonkorrak edo pop up)** proposatzea. Espazio hutsak eta gunek hilak, esate baterako, etxe-uhartean dauden lonjak edo orubeak.
- Auzoan dauden bestelako espazio eta baliabideak identifikatzea eta **direktorio bat eta erabilerei eta trukeei buruzko protokolo bat** sortzea.

Elkarrekin sortzeko saioetan plazako eta hango inguruneke espazioarekin zerikusia daukaten proposamenak planteatu ziren, hala nola: *Hack the Plaza*, *Hiri Berroneratzeko Europako Agentzia*, *Plaza Berri*, *¡DISPONIBLE!* edo *Cantera del s. XXII*<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Ikusi 4. eranskinaren 14., 15. eta 19. orrialdeak.





## 4. Eta zer proposatzen dugu?

*HARROBitik HARROBIra* proiektuko 1. URRATSETIK eratorritako proposamena puzzle gisa konfiguratzeko da, alegia, hurrengo urratsetan zehaztu eta aktibatu beharko den collagea. Puntu honetan, pieza-kit modura, behin betiko proiektu bat taxutzeko erabilgarriak izan daitezkeen kontu batzuk aurkeztuko ditugu (2.3. *Definizioa eta prozedura* puntuan eskematikoki aurkeztutako 2. URRATSAREN baliokidea litzateke).

Behin betiko proiektuak konfigurazio posible asko eduki litzake, inplikatzeko diren eragileen, jokoan jartzen diren baliabideen, bidean sortzen diren aukeren eta abarren arabera. Beraz, ez dago erantzun zuzen bakar bat; aitzitik, asko egon daitezke eta horien artean aukeratu behar da.



## 4.1. Nondik jarraitu?

### > Aurkezpena eta egiaztapen publikoa

*HARROBITik HARROBIra* garatzen jarraitzeko, lehenengo eta behin, orain arte garatutakoaren aurkezpen edo egiaztapen bat egin behar da, herritarrentzat eta horretan interesatuta egon daitezkeen eragile espezifikoentzat irekirik.

Hauexek lirateke aurkezpenaren helburuak:

- *HARROBITik HARROBIra* proiektuari buruzko informazioa ematea, **ekimena egiaztatu, hobetu eta zehazteko**.
- Proiektua **auzokoentzat** zabaltzea, **parte har dezaten**.
- **Inplikatu ahal diren eragile gehiago** erakartzea (lehentasunezkoentzat jotzen ditugun eremu espezifikoetako eragileetan jarri behar da arreta berezia, baita hedapena handitzen laguntzen duten komunikabideetan ere).
- **1. URRATSEAN inplikatuta egon diren eragileen artean egindako lana ospatzea, loturak estutzeko eta mugarriak gainditzeko bide gisa.**

Aurkezpen hori egiteko, **erakusteko eta azaltzeko *display*** bat egin liteke plazako espazioetako batean, kalearen parean (Hi! espazioko beheko solairua, Harrobiko ataria edo igerilekua, eman nahi diogun neurriaren arabera); proposizio-izaera eduki beharko luke, egindakoari balioa ekartzeko. Zenbait bisita eta jarduera parte-hartzaile planteatu ahal litezke ekimena ezagutarazteko, baita fokua handitu ere egin, antzeko proiektuak eta erreferentziako jardunbide egokiak aurkeztuz (adibidez, jardunaldi batzuk *Darwin+Pola*, *Usera Barrio Sostenible*, *Coopolis*, *Barcelona Lab*, *Volumes*, *El Milagro de los Peces*, *Harinera ZRGZ + Azucarera* proiektuen, *ENoLL* sarearen edo "*In Transition 2.0*" dokumentalaren esku-hartzeekin).

Horrez gain, **microsite simple bat** sor liteke dokumentu hauxe (*Creative Commons* lizentziarekin argitaratua), egindako egiaztapena, aurkezpenen bideoak, elkarrizketak, etab. aurkezteko. *Site* hori *HARROBITik HARROBIra* proiektuaren erreferentziako informazio- eta komunikazio-espazioa bihurtuko litzateke.



## > Talde higiarazle bat eta dinamizazioa

*HARROBitik HARROBira* proiektu irekia, plurala eta parte-hartzailea izatea nahi badugu, ahalik eta lasterren talde higiarazle bat aktibatu behar da. **Nagusiki lan-prozesua koordinatzeaz eta proiektuaren gobernamendu-eredua** (taldea izango baita horren jatorria) **definitzeaz arduratzen den talde bat** antolatzea.

Talde higiarazle horrez **tartean dauden eragileak ordezkatzeko dituen askotariko multzo batez** osatua egon beharko luke (eta aldatzeko eta kide berriak onartzeko irekia egon beharko luke), borondatezkoa izango litzateke eta, beraz, agendak jadanik oso beteak dituzten eragileek gain hartzeko moduko arduraldia eskatu beharko luke (adibidez, 5 ordu hilean -3, aurrez aurre, eta 2, urrutitik).

Horregatik, betearazteko, antolatzeko, koordinatzeko, idazkaritza tekniko osatzeko, bitartekaritza egiteko, errazteko eta harrera egiteko funtzioak betetze aldera, komenigarria da baliabideak erabiltzea **dinamizazio-talde bat edo, behintzat, host funtzioak dituen pertsona bat** egon dadin, erreferentziako pertsona batzuk egon daitezten eta erakundeen, gizarte-eragileen, enpresen eta herritarren arteko beharrezko metatze-lotura gauzatzeko.

Gobernamendu-ereduari eta kudeaketa-taldeari buruz, talde higiarazle hori aktibatzeaz haraindi, *4.4. Zein da antolaketa-eredua?* puntuan hitz egingo dugu zehatzago.

## > Soziograma bat egitea

Proiektuaren une honetan, era berean, komenigarria da denen artean soziograma bat egitea (1. URRATSEAN modu informalean egin da, oraindik helburu argi eta partekaturik eduki gabe). **Eskemak eragileak, baliabideak eta ekintzak modu espezifikoan jaso edo zerrendatu behar ditu -proiektuari dagokionez eta ahalik eta xehetasun gehienekin-, jakin ahal izateko nor den nor eta nork egiten duen zer** (direktorio baten edo baliabide-banku baten jatorria edo zati bat izan liteke).

Soziogramak, identifikatzeko ez ezik, garrantzitsuena nabarmentzeko, harremanak (badaudenak eta egon litezkeenak), gatazkak, aukerak, etab. planteatzeko ere balio izan behar du. Halaber, honetarako lagungarria izan beharko luke: 1) egin litezkeen apustu kolektiboak eta elkarrekin lan egiteko bideak igarri eta zehazteko; 2) garatu ahal diren proiektuetan kontuan izan behar diren hasierako faktoreak antolatzeko; eta 3) une oro eragile bakoitzaren rola adierazi eta ordenatzeko.

## > Eragile erakargarriekiko harremana

Lan estrategiko erabakigarrietako bat litezkeen eragile erakargarriak (mugiarazteko eta *HARROBitik HARROBira* proiektura beste eragile batzuk erakartzeko gai direnak) lehenbailehen identifikatzea eta haiengana jotzea izango da.

Honako funtzio hauek bete ahal dituzten eragileak identifikatu behar ditugu (eragile batzuek funtzio bat baino gehiago bete ahalko dituzte):



- Proiektuko edo zati bateko kide estrategikoak izatea.
- Aukera-guneetako batean instalatzea.
- Proiektua edo zati bat finantzatzea (funts galdurako, mailegu edo inbertsio gisa, kasuaren arabera).
- Jarduera-eremu batean inplikatzea.
- Elkarlanean aritzeko eta baliabideak ekartzeko beste modu batzuk.

**Ahalik eta zerrenda zabal eta askotarikoena egin** beharko litzateke, **horrelako kasuetan ohikoak diren estereotipoak eta izenak gainditzen saiatzeko**. Zerrenda horretatik abiatuta, fitxak egingo dira (nor diren, zer behar dugun haiengandik, zergatik interesatu ahal zaien) eta taldekatu eta lehenetsi egingo dira, harremanari ekiteko.

### > Ekintza-plana zehaztea

Badauden eta egiaztatzean identifikatu ahal diren *inputetan* oinarrituta, erronka *HARROBItik HARROBIra* prozesurako proiektu orokorra denen artean definitzen bukatzea eta lehentasunezko ekintzak zehaztea da, **ekintza- eta bideragarritasun-plana zehazteko**. Dokumentu horrek *iturburu-kodea*, lan hori errazten duen pieza-kita, izan beharko luke.

Planak honako hauek definitu beharko ditu modu xehatuan:


- **Izendatzaile komunetako txikiena**, balioak, helburuak eta ekintzak elkartzen dituen eta horiei dagokienez erreferentzia dena.
- **Helburuak (kualitatiboak eta kuantitatiboak) eta estrategiak**.
- **Ekintza zehatzen multzoa**, lankidetzak eta diziplinartekotasun-ikuspegitik.
- **Gobernamendu-eredua**, harremanei eta antolaketari dagokiena, erantzunkidea.
- **Espazioak (berriro) antolatzea** (erreformak eta esku-hartzeak, banaketa, ezaugarriak, erabilerak, arauak).
- **Aurrekontua eta finantzaketa-plana**.
- **Adierazleak eta ebaluazio-eredua** (ikus 4.6. *Eta nola ebaluatzen da?*).

### > Espazioak (berriro) antolatzea

*HARROBItik HARROBIra* proiektuaren oinarrietako bat eragileen artean elkarreragin eta komunikazioa handia egotea da. Horretarako, espazioaren erabilerak eta harekiko harremanak beste modu batzuetan pentsatu behar dira.

Ildo horretan, espazioa (berriro) **antolatzeko plan bat** planteatu beharko da, **modu parte-hartzailean eta esku hartzeko irizpide ekologikoei jarraituz**. Honako hauek hartu beharko ditu kontuan nagusiki:

- Eragile eta zerbitzu batzuk birkokatzea.
- Espazioen arteko lotura areagotzea, bai fisikoki bai sinbolikoki.
- Espazio batzuk moldatu, birbanatu edo egokitzea.
- Bizikidetasun-arauak eta erabilera-protokoloak sortzea.
- Espazio publikoan eta plazako fatxadetan esku hartzea.



## ► Lehen prototipoak

Zehazteko prozesu honetan **prototipo erakusgarri** batzuk abian jarriko dira jadanik, **proba moduan. Ideietatik ekintzara pasatuko gara, errazak diren ekintzen bidez.** Elkarrekin sortzeko saioetatik sortu ziren ekimenetako batekin<sup>9</sup> edo landu nahi diren jarduera-eremuekin lotuago daudenekin hasiko da.

Hasieran aktibatzeko hautatzen diren prototipoek honelakoak izan beharko dute:

- Helburuen eta eremuen aniztasuna ordezkatu beharko dute, *HARROBitik HARROBIra* proiektuaren ikuspegi ekosistemikoari erantzunez.
- Garatzeko eragile zehatzak eduki beharko dituzte.
- Elkarlanean eta eragile anitzen artean egiteko proiektuen alde egin beharko dute.
- Baliabide, azpiegitura eta mantentze gutxi eskatu beharko dituzte (edo kontu horiek beste modu batean ziurtatuta eduki eta *HARROBitik HARROBIra* esparru gisa erabili).
- *Design thinking* metodologiak eta pertsonengan ardaztutako diseinua erabili beharko dituzte definitzeko, probatzeko, zehazteko eta baliozkotzeko.
- Erakargarriak edo motibagarriak izan beharko dute adibide erakusgarri gisa.
- Elkar ezagutzeko eta elkarrekin erlazionatzeko prozesuan sakontzea ahalbidetu beharko dute.
- Jende gehiago praktikatik batzea ahalbidetu beharko dute.

<sup>9</sup> Ikusi 4. eranskineko 3.1. Ekimenen zerrenda puntua.



## 4.2. Zer egin?

### > Lehentasunezko jarduera-eremuak

*HARROBI*tik *HARROBI*ra ekimenak, 15 urtera begira (2030), gizarte-berrikuntzako erakargune, *living lab*, bihurtzea proposatzen du, handik tokiko giza garapena eta ingurumenaren jasangarritasuna oinarri hartuta lan egiteko, *trantsizioko ekimen* baten bidez, pertsonen eta planetaren arteko errespetuan oinarritutako paradigma baterantz.

Epe laburreko erronketako bat asmo-adierazpen hori zehaztea da. Horretarako, hel ahalko lekietan aukera guztien artean, egokiena hautatu behar da eta **jarduketa-eremu espezifikoak eta testuinguruan ipiniak finkatu behar dira, proiektuari koherentzia eta nortasun argia emateko.**

Horrela, orain arte egindako analisi-prozesuan oinarrituta —tartean egon daitezkeen eragileen ezaugarriak, horiek zerikusia duten esperientziak eta proiektuak, proiektuak berak ezartzen dituen helburuak eta beharrak eta eskuragarri dauden aukera-espazioak kontuan hartuta—, jardueraren zehaztapenak honekin eduki lezake zerikusia:

***Living lab* moduko sistema bat sortzea, non alderdi hauek zeharka gurutzatuko diren: EKONOMIA BERDEA, ZIRKULARRA ETA ELKARLANEKOA + GIZARTE-MERKATUA + ZAINTZA ETA MENDEKOTASUNA + TEKNOLOGIA GOGORRAK ETA BIGUNAK + DISEINUA ETA SORMENA + KULTURA ETA HEZKUNTZA + P2P HARREMANAK.**



## Eremu espezifikoak:

- > **Biztanleria aktiboarentzako zerbitzu osoak**, lanbide-heziketako eredu eta eremu berriekin, enpleguarekin, gizarteratzearekin eta laneratzearekin, ekintzailatzarekin eta garapen pertsonalarekin, lanaren eta errentaren banaketarekin zerikusia dutenak.
- > **Hiri-berroneratze inklusiboa eta jasangarria**, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, ingurune-kutsadura. Ingurunea bera kasu erakusgarri gisa.
- > **Elikadura-, energia-, ekonomia-subiranotasuna eta abar**. Gizarte-merkatua, bidezko merkataritza, elikagaien eta energiaren autoekoizpena, kontsumo-taldeak, elkarlaneko ekonomia.
- > **Bizitza aktibo eta osasuntsua**, zaintzak, zahartzea, mendetasuna eta autonomia pertsonala, osasun mentala.
- > **Esku-hartze eta bitartekaritza soziokulturala**, kontu hauei dagokienez: gizarte-kohesioa eta -zaugarritasuna, bizikidetzaren kudeaketa eta gatazken konponketa, kultura eta belaunaldi anitzen arteko harremanak, ahalduntzea, herritarren partaidetza.

## Eremu transbertsalak:

- > **Praktika artistiko eta kulturalak, berrikuntzako, garapen komunitarioko eta gizarte-kohesioko baliabide gisa** (banakako eta taldeko eraldaketa, harreman eta subjektibotasun berrien ekoizpena, hizkuntza eta hizkeren ugartasuna aberastasun eta ondasun komun gisa).
- > **Gizarte-teknologiak (gogorak eta bigunak), pertsonengan ardaztutako diseinua, permakultura**. Ezagutza librearen ekoizpenaren eta banaketaren paradigmatic sistemak, prozedurak eta gailuak garatzea.

## > Ekosistemaren antolaketa posible bat

Puntu hau etorkizunari begira planteatzen da, ideia-collage gisa, *HARROBITik HARROBIra* prozesuaren inguruan garatu ahal diren ekimen batzuk aurkezteko.

Proposamenak egiteko, jarduera-eremuak eta espazioak erlazionatzen dira, elkarrekin bizi da eta kasu askotan eragileak eta erabilerak gurutzatu egiten dira. **Gurutzapen eta interrelazio horiek eragile guztientzat modu natural eta onuragarrian gertatzea *HARROBITik HARROBIra* prozesuko gakoetako bat da; beraz, hasieran sustatu eta gero bereziki zaindu eta lagundu behar dugu.**

Jarraian planteaturiko proposamen guztiak ikertzeko eta elkarrekin sortzeko prozesutik abiatutako adibide-zirriborroak baino ez dira eta, nolana ere, prozesuko 2. URRATSEAN egiaztatu eta zehaztu beharko lirateke, bai ekimen-multzoaren zentzuari bai kasu bakoitzari berariaz dagokienez.



## >> BIZTANLERIA AKTIBOARENTZAKO ZERBITZU OSOAK

**Enplegu-eredu eta -eremu berriekin, ekintzaitzarekin eta garapen pertsonalarekin** zerikusia duen proposamena. **Toki hauetan kokaturiko eragileen eta jardueren artean lotura estuagoak ezartzean edo horiek batzean oinarritzen da:** Dispentsario eta Hi! eraikinetan (ekintzaitza-zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileak —hala nola Bilbao Ekintza<sup>10</sup>, Novia Salcedo<sup>11</sup>, ColaBoraBora<sup>12</sup>, Ttipi Studio<sup>13</sup> —, baita instalatutako ekintzaile guztiak ere). Horrez gain, Gaztaroak<sup>14</sup>, Hargindegik<sup>15</sup>, Harrobiak<sup>16</sup> edo oso hurbileko beste eragile batzuek, adibidez, ADOS Consultingek<sup>17</sup>, ere eskaintzen dituzten zerbitzuak.

Zerbitzu osoen ideian gai horrekin zerikusia daukan balio-kate guztia sartuko litzateke eta eragile-mota guztiak beharrezkoak izango lirateke. **Gizarte-ekintzaitza eta gizarte-ekonomia** (alderdi zabalenetan) zerbitzu-eskaintza eta laguntzeko proiektu-mota ardaztu beharreko eremua izan liteke, espezializatze eta beste *AuzoFactory* batzuetatik eta Bilbao Ekintzako beste zerbitzu batzuetatik bereizteko estrategia gisa. Gizarte-ekonomia, gaur egun, ez da Bilbao Ekintzaren arreta espezifiko arlo bat, eta uste dugu izateko baldintzak betetzen dituela, hauxe kontuan hartuta:

1. **Euskadiren ibilbidea** eta eremu horretan dagoen **masa kritikoa**, bai lankidetzaren esparruan, bai gizarteratze, laneratze eta ekonomia alternatiboaren esparruan; komenigarria da txikiagoak diren eta merkataritzarekin, zerbitzuekin eta abarrekin lotuta dauden erakundeetarantz dibertsifikatzea.
2. Daukagun **administrazio- eta legeria-esparrua onuragarria** da gizarte-ekonomiaerentzat, haren era juridikoentzat eta abarrentzat.

**Coopolisen** ereduak, jarduera- eta zerbitzu-motari dagokionez<sup>18</sup>, eta **WikiTokiren** funtzionatzeko moduak<sup>19</sup>, elkarrekiko harremana izendatzaile komunitateko txikiena duten eragileen konglomeratu batek kudeatzen baitu (Dispentsarioko solairu batean instalatuta daude, Bilbao Ekintzarekin sinatutako hitzarmen baten bidez), proposamena zehatzago definitzeko balio lezakete.

10 <http://www.bilbao.net/BilbaoEkintza/>

11 <http://www.noviasalcedo.es/>

12 <http://www.colaborabora.org/>

13 <http://ttipistudio.com/>

14 <http://www.sartu.org/es/asociacion-gaztaroa-sartu-bilbao/>

15 <https://www.caritasbi.org/cas/tag/hargindegik/>

16 <http://harrobia.net/>

17 <http://ado2.es/>

18 Ikusi dagokion fitxa 5. eranskinaren 12., 13. eta 14. orrialdeetan.

19 <http://wikitoki.org/como/>





Proposamenaren multzoan zera eskain litzateke:

- Zenbait motatako **prestakuntza**, gizarte-ekintzailetzari, enplegarritasunaren hobekuntzari edo norberaren ahalduntzeari oso lotuta. Eta hori egiteko, ikaskuntzan eta lankidetzako ekintzailetzan jarriko da arreta nagusia, *Enplegu-anezkak, Juntas Emprendemos, CARE o Emprendipia*<sup>20</sup> proiektuetan ikusten den moduan. Testuingurukoak berezkoak diren **kultura-aniztasunerako eta zaurgarritasun-egoeretarako** arreta bereziki zaintzea.
- Ekintzaileentzako **aholkularitza**- eta **laguntza**-zerbitzua eta norberaren gaitasunetara, nahietara eta egoeretara egokitutako enplegua bilatzeko zerbitzua.
- **Co-working espazioak** (eta litezkeen beste lan-espazio batzuk).
- **Espazio eta zerbitzu komunak.**
- **Praktikako, ezagutza partekatuko eta esperientzia-trukeko komunitateei** lotutako jarduerak. *Merkatu Plaza, Compartiendo, Harrobrain* edo *Universidad Abierta de Saberes* moduko proposamenak, elkarrekin sortzeko saioetan sortuak, horretara bideratuak egon litezke<sup>21</sup>.
- **Praktika**- eta **truke**-programak.
- Berrikuntzaren, ekintzailetzaren eta gizarte-ekonomiaren alderdi guztien inguruko **eskaintza eta eskaria sofistikatzea.**
- **Ikerketa-proiektuak eta merkatu-aukerak** bilatzea, eragileen arteko lankidetzan oinarrituta.
- **Gizarte-teknologietako** proiektuak erabiltzea eta horietan sartzea. Plazan eta auzo guztian oso erakunde gaitu ugari daude, eta gorantz ari den sektore bat da. Plaza bera ere APTES, Farapi, Novia Salcedo eta ColaBoraBora gaur egun planteatzen ari diren **Gizarte Diseinuko Eskolak** Bizkaian duen egoitza izatera hel liteke.
- Elkarrekin sortzeko saioetan gai horrekin guztiarekin zerikusia daukaten ideia anitz irten ziren, hala nola: *Gizarrobi, Ideien Ustiapen Zentroa, Laboratorio Emprendedor* edo *Gran hotel del Emprendimiento*<sup>22</sup>.

Badauden eragileei, solairu batean, adibidez **ekain sarea**<sup>23</sup> gehitu litzaioke, **eragile erakargarri** gisa. *ekain sarea* delakoa REAS Euskadi, EAPN, Gizartea, Hirekin eta Harresiak Apurtu sareek osatzen dute; hain zuzen, eremu hauetan dira erreferentzia-puntu: gizarte-inklusioa, enplegua, gizarte-zerbitzuak, kultura-artekotasuna, gizarte-babesa, aukera-berdintasuna, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka, garapen komunitarioa, ekonomia solidarioa, etab. *ekain sarea* gaur egun Venezuela plazan dago eta baliteke plazan instalatu nahi izatea, espazio gehiago izateko, erabilera anitzeko zerbitzu komunak edukitzeko eta antzeko jarduera-eremuak eta interesak dituzten eragileetatik hurbil egoteko.


Amaitzeko, nabarmendu behar da “biztanleria aktibo” ideiarekin inguruko litekeen batasun kontzeptualarekin batera **batasun operatiboa** (funtzionatzeko modua eta barne-antolaketa) eta beharbada **batasun espaziala** (alboan dauden bi eraikinak lotzeko aukera ematen duen arkitektura-proiektua egin beharko litzateke, eta biak unitate bakartzat jo) ere gauzatu beharko liratekeela.

20 Ikusi proiektu horien aipamenak 5. *eranskinaren* 32. eta 33. orrialdeetan.

21 Ikusi 4. *eranskinaren* 22., 23. eta 24. orrialdeak.

22 Ikusi 4. *eranskinaren* 22. eta 23. orrialdeak.

23 <http://ekainsarea.net/>



## >> HIRI-BERRONERATZE INKLUSIBO ETA JASANGARRIA

Hiri-berroneratzearen eta jasangarritasun energetikoaren gaia *Europako Estrategia 2020* delakoaren helburu nagusien artean dago, eta Harrobi plaza dagoen ingurunean ezin hobea da hori lantzeko. **Hazten ari den sektore batetik proiektuen eta zerbitzuen garapena enplegarritasun-eremu berrietako prestakuntzarekin, ingurunearen hobekuntzarekin eta jasangarritasunarekin, energia-eraginkortasunarekin eta beste gai eratorri batzuekin erlazionatzeko aukera.**

Ildo horretan, proposamen zehatz bat **Harrobiko 5. solairua eta haren estalkia jarduketa-eremu horretako proiektu oso bat antolatzeko eskaintzea** izan liteke; elikadura-subiranotasun proiektuarekin (hurrengo puntuan landuko dugu) konbina liteke. Gainera, beste kontu batzuk sar litezke, adibidez, teknologia-subiranotasuna (estalkian telekomunikazio-sare aske, ireki eta neutraleko proiektu bat proposa liteke eta *guifi.net*<sup>24</sup> duen antena bat instalatu, gutxienez plazako inguruneari zerbitzua ematen diona).

Espazioa erabili ahal izateko prestatzen bukatzeko behar den esku-hartzea (solairuak osatzen duen L letrako gune bat lan- edo bulego-espazioei eskaini ahalko

24 <https://guifi.net/>



litzaieke, eta bestea, laborategiari) **kasu erakusgarri** bat izan liteke, **eta gero auzoko ingurunera eskala liteke (etxeko eremuan arreta berezia jarritz).**

Horri dagokionez, *6. eranskin* guztiak (*Harrobia trantsizioan*) arreta berezia jartzen du energiaren gaian, baina batez ere *Usera Barrio Sostenible*<sup>25</sup> proiektua ezagutzea proposatzen dugu; izan ere, egin beharreko proposamenaren zati bat izan litekeenaren oso antzekoa da eta helburu praktiko oso zehatzekin abian jarrita dagoen proiektu bat da. Era berean, interesgarria da **HARROBINN** proiektua erreskatatzea; Hi! Plazaren ibilbidearen hasieran egin zuten une horretan osatzen zuten eragile batzuek, eraikuntza eraginkorra, energia-nahikotasuna, landare-estalkiak eta horien inguruko prestakuntza eta dibulgazioa elkartuz.

Nolanahi ere, eremu honetako proiektu handinahi orok **askotariko eragileen gaitasunak, jarduerak eta baliabideak konbinatu** beharko lituzke: jadanik plazan dauden edo horrekin harremana duten ekintzaileak (Akude<sup>26</sup>, Synergy Matters<sup>27</sup>, Emma Blanco<sup>28</sup>, Control 20<sup>29</sup>...); sektore horretako eragile erakargarriak, berrikuntzaren eta gizarte-ekonomiaren ikuspegitik (hala nola, energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko Goiener kooperatiba<sup>30</sup>); lanbide-heziketako programak dituzten erakundeak, hala nola Harrobia edo Gaztaroa; EEEren<sup>31</sup> eta IHOBEn<sup>32</sup> lan-ildoak; Innobasqueren *Ekonomia Zirkularreko* eta *Ekoberrikuntzako* dinamikak, eraikuntza, energia eta ingurumeneko *clusterak*, Eraikune<sup>33</sup> eta Cluster de Energía<sup>34</sup> eta ACLIMA<sup>35</sup>, Tecnaliako<sup>36</sup> *Eraikuntza Jasangarria* eta *Energia eta Ingurumena* arloak edo unibertsitateak...

## >> ELIKAGAI-SUBIRANOTASUNA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA

**Ingurunearen ezagutzarekin eta permakulturarekin, elikagaien autoekoizpenarekin, gizarte-ekonomiako merkatu baten sorrerarekin eta garapen komunitarioarekin** zerikusia duen proiektua. Horri dagokionez, auzoan badaukagu *San Franeko Ortuaren*<sup>37</sup> esperientzia, barruti-zentroko patioan, Mariaren Bihotza plazan. Badira urte batzuk WikiToken, PEZ Estudiotik<sup>38</sup>, *Agronautas* esperientzia garatzen ari direla. Eta Hi! Plazan modu horretan lan egiten duten oso ekintzailetza-esperientzia interesgarri bi daude, Birika eta Uartea<sup>39</sup>.

---

25 Ikusi *6. eranskinaren* 29. orrialdea, eta informazio gehiago hemen: <https://prezi.com/9keapy6ba78b/barrios-sostenibles-usera/>

26 Eraikinen mantentzearen kudeaketa teknikoa, <http://www.akude.net/>

27 Permakultura, bioeraikuntza eta jasangarritasuna, <https://cuestiondesenergia.wordpress.com/>

28 Energia-eraginkortasuneko eta energia berriztagarrietako industria-ingeniaria,

<https://www.linkedin.com/pub/emma-blanco-l%C3%B3pez/43/4a3/53a/>

29 Ingeniaritza termikoa, <http://www.control20.net/>

30 <http://www.goiener.com/>

31 Energiaren Euskal Erakundea, <http://www.eve.es/>

32 <http://www.ihobe.eus/>

33 <http://www.eraikune.com/>

34 <http://www.clusterenergia.com/>



35 <http://www.aclima.net/>

36 <http://www.tecnalia.com/>

37 <https://es-es.facebook.com/SanFranekoHiriOrtuaElHuertoDeSanFran>

38 <http://www.pezestudio.org/>

39 <http://birika.eu/> | <http://uarte.com/>



Proposamena bi modu osagarritan zehaztu liteke:

1. **AKUAPONIA:** akuaponia-proiektu bat Harrobiko estalkian (energia-, elikadura- eta teknologia-subiranotasuna batzeko). Akuaponia sistemaren bidez, instalazio berean bi elikagai (arrainak eta barazkiak) lor daitezke; horrela, kostuak, lana eta inbertsioa partekatzen dira, ingurumena errespetatzen duen eta permakulturan eta prozesuen atzeraelikaduran oinarrituta dagoen teknologia garbi eta jasangarri baten bidez. Horri dagokionez, *El Milagro de los Peces*<sup>40</sup> proiektua, Sevillako 3.000 Viviendas auzoan egina, erreferentzia ona da.
2. **HIRI-ORTUA:** Mariaren Bihotza plazan badagoen esperientzia osatu eta indartzea, Gimnasio kaleko 1. zenbakiko orubean beste mota bateko hiri-ortu bat gehituz, hiri-inguruneko basa-laborantzei buruz ikertuz edo are Miribillako parkean planteamendu handinahiago bat eginez. Horren harira, *Incredible Edible*<sup>41</sup> (Todmorden, Erresuma Batuko iparraldean) oso esperientzia interesgarria da, nola sortu den eta nola garatu eta dibertsifikatu den kontuan hartuta.

Elikagaien ekoizpena plazako tabernaren menuarekin eta guneko beste jatetxe eta saltoki batzuekin lot liteke.

40 Ikusi 5. eranskinaren 36. eta 37. orrialdeak.

41 Ikusi 5. eranskinaren 38. eta 39. orrialdeak.



## >> ERAKUNDEEN PRESENTZIA

Garrantzitsua da administrazio publikoak eta, kasu honetan, nagusiki Bilboko Udalak zeregin esanguratsua betetzea eta auzoan duten presentzia eta ikusgarritasuna berreskuratzea. Eta garrantzitsua da hori egitean eragile publikoen, pribatuen eta sozietate zibilaren arteko partaidetza- eta erantzunkidetasun-harreman mota berriak lortzeko.

Horri dagokionez, norabide horretan eman ahal den urrats gisa —eta gogorarazi nahi dugu hau etorkizunari begiratzeko irudimen-ariketa baino ez dela—, proposatzen dugu **egungo *Birgaitze Bulegoa (Trantsizio Bulegoa izenda bailiteke*<sup>42)</sup> Harrobi plazara lekualdatzea eta espazioa ekintzailetzaren eta gizarte-ekonomiaren eremuan bereziki jarduten duen Bilbao Ekintzako talde txiki batekin partekatzea**. Modu horretan, proiektuaren eragile instituzional nagusiek espazioa partekatuko lukete, gainerako eragileekin biziko lirатеke eta *HARROBITik HARROBIra* ekosisteman zuzenean integratuko lirатеke. Espazio hori Hi!-ko 1. edo 2. solairua izan liteke, harrera- eta komunikazio-gune gisa proposatzen denaren gainean hain zuzen (ikus hurrengo puntua).

## >> PLAZAREN BARNEKO PERIMETROA, KALEAREN PAREAN, AKTIBATZEA

Kontu hau funtsezkoa da plazari bizitza emateko eta barrutik kanpora jarduera eransteke. Beheko alde hau erakusleihoa, mintza, barruan gertatzen den denari buruzko komunikazio- eta aurkezpen-kanala da.

- **HARRERA ETA KOMUNIKAZIOA.** Hi!-ko beheko solairuko erabilera anitzeko gela *HARROBITik HARROBIra* multzoa hartzeko eta aurkezteko eta erabiltzaileak espazio, proiektu eta zerbitzuetara zuzentzeko gunea bihur liteke. Informazioa emateko, azaltzeko eta aurkezteko gunea izan liteke eta orobat dendatxo bat barne har lezake.
- **LIVING LABA.** Ikastolako beheko solairu guztia, bai ataria bai, batez ere, “igerilekua”, zenbait motatako jarduerak egiteko erabilera anitzeko espazioa bihur liteke. Horretarako, erabilera-baldintzen protokolo bat definitu beharko litzateke ikastolarekin.

Espazio horien erabilerak oso dinamikoa izan beharko luke (egunero gauza bat gerta dadila), auzoko eta auzoaz kanpoko eragile- eta erabiltzaile-mota asko erakartzeko. Gizarte-berrikuntzako proiektuak prototipatzearekin, probatzearekin, erakustearekin eta aurkeztearekin zerikusia duten jardueretarako espazio bikainak (*Esperientzia Laborategia, KUBO 365, La Probeta Derramada* edo *Espacio Magnético* moduko proposamenak, elkarrekin sortzeko saioetan sortuak, horretara bideratuak egon litezke<sup>43</sup>).

---

42 Bulegoak eginkizun garrantzitsua eduki beharko luke trantsizioko auzoaren proiektu posible batean; etorkizun estrategiko berri eta zirrargarri bat ezarri ahalko luke (ikus *6. eranskina, Harrobia trantsizioan*).

43 Ikusi *4. eranskinaren* 20. eta 21. orrialdeak.



- **TABERNA.** Egungo polizia-etxeko beheko solairua taberna-jatetxe, topaketa-eta sozializazio-puntu, bihur liteke. Lokal horren eskaintza estaltzeko, neurri handi batean Harrobiko estalkian ekoizitako elikagaiez horni liteke, auzoko saltokietan eskainitako kultura anitzeko produktuekin batera. *SanFran Chef* proposamena modu horretan planteatu da<sup>44</sup>.

Udaltzaingoa egungo kokapenean geratzen bada, beste espazio bat bilatu beharko da (plazan bertan edo Gasteiz kalearen hasieran); izan ere, taberna bat prozesu osoan zehar behin eta berriro agertu den baliabide bat da, eta frogatuta dago zeregin garrantzitsua duela modu informalean harremanak eta lankidetzak aktibatzeke.

- **MAKER SPACEA GASTEIZ KALEAN:** Kale horrek guztiak jabetza pribatuko lonja batzuk dauzka; lonjak batera har litezke (2.000-2.500 m<sup>2</sup> bil litezke erraz, kalearen parean), *maker* filosofiaren, fabrikazio digitalaren eta gizarte-teknologiaren inguruan proiektu bat garatzeko aukera-espazio gisa (biztanleria aktiboaren, gizarte-ekintzailtzaren, hirigintzaren eta energia jasagarriaren jarduketa-eremuekin harreman zuzena duena).

Proiektu horrek planteatutako gainerako proposamenek baino askoz ere inbertsio handiagoa beharko luke; beraz, oso ondo aztertu beharko lirateke haren egokitasuna<sup>45</sup> eta hori gauzatzeari ekiteko moduak. Argi eta garbi industrialagoak diren proiektuak alde batera utzita, estatu-mailako oso adibide hona Medialab Prado<sup>46</sup> da; eta Euskadin ere badaude esperientzia interesgarriak, baina txikiagoak, esate baterako, Espacio Open<sup>47</sup> eta Bilbo Makers direlakoetan (Bilbon) edo *Hirikilabs*<sup>48</sup> izenekoan (Tabakalera) egiten den lana. Horren harira auzoko eragile batek, hain zuzen, Agiantzak<sup>49</sup>, duen ibilbidea ere nabarmendu daiteke; gainera, orain mota horretako beste proiektu bat bultzatuko du Trapagan (bi proiektuen arteko loturak ezar litezke, bata industrialagoa eta beste sozialagoa).

Eta, horri lotuta, Gasteiz kaleko espazio horiek Gaztaroak bere prestakuntza-lantegietarako egin behar duen espazio-aldaketarako ere erabil litezke, Muelle3 delakoan dituen oraingo lokalen kontratua amaituko da-eta.

---

44 Ikusi 4. eranskinaren 17. orrialdea.

45 Jakina, hau hazten ari den eta etorkizuna duen sektore bat den arren, proiektuaren ezaugarri espezifikoak eta inguruan duen harremana ondo aztertu beharko lirateke (teknologiaren umotasuna masa kritikoari dagokionez, harremanetan badauden eragileak —prestakuntzakoa, profesionala, soziokulturala—, eremu espezifikoak, formatuak...), eskuarki agertzen ari diren eta askotan funtzionatzen ez duten ereduak ez errepikatzeke asmoz.

46 <http://medialab-prado.es/>

47 <http://espacioopen.com/>

48 <http://hirikilabs.tabakalera.eu/>

49 <http://www.agiantza.org/>



## >> ERABILERA ANITZEKO BESTE ESPAZIO BATZUK

Kalearen pareko solairuan dauden *living lab* espazioez gain, *HARROBI*tik *HARROBI*ra bezalako proiektu batek erabilera askotako espazio eta gela homologatu ugari behar ditu lantegietarako, topaketetarako, aurkezpenetarako, lan-bileretarako... bai formatu txikikoak bai ertainekoak. Mota horretako espazioen prestutasuna beste eragile batzuei eskaintzeko baliabideen eta zerbitzuen katalogoan egon liteke eta sarrera-iturri bat izan liteke (alokairuak). Horretarako, erabilera-baldintzen protokolo bat definitu beharko litzateke.

Espazio hauek eduki lezakete funtzio hori:

- HII-ko 4. solairuko hiru espazioek, oso argitsuak baitira eta hutsik baitaude (75 / 64 eta 44 m<sup>2</sup> + sarrerako 26 m<sup>2</sup>).
- Ikastolako ikasgelek eta aurkezpen-gelek (erabilera arruntean, ikastola astelehenetik larunbatera dago zabalik, etengabe, 08:00etatik 21:00etara).
- Gaztaroako eta Harguindegiko gelek eta WikiTokiko erabilera anitzeko espazioak.

Era berean, espazioen eta baliabideen erabilgarritasunari dagokionez, auzo osoa gogoan hartuta, WikiTokitik **auzoaren direktorio** baten sorrera aktibatzen hasi da, **eragileak, parteka litezkeen espazioak eta baliabideak eta horretarako baldintzak identifikatzeko balio duena.**

## >> EGONALDIRAKO ETA TRUKEETARAKO OSTATUAK

*HARROBI*tik *HARROBI*ra delakoak gizarte-berrikuntzarekin eta ekintzaitzarekin zerikusia duten pertsona geldiezinentzako erakargunea izan behar du, ezagutzak eta esperientziak sortzeko espazioa. Ildo horretan, funtsezkoa da egonaldiak eta trukeak erraztea, eta, horretarako, harrera-erakundeak eta lantzeko proiektuak ez ezik, ostaturako espazioak ere behar dira.

**Udal Etxebizitzei** dagokienez, etxebizitza bat edo batzuk erabil litezke funtzio horretarako. Horiek ere **espazio erakusgarriak** izango lirateke; han, etxeko ingurune batean *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuan garatzen diren proiektuetatik sortzen diren berrikuntzak sartu ahalko dira.

Halaber, harrera-aukerak areagotu eta dibertsifikatzeko, **UPV-EHUrekin harreman bat** antola liteke, **ikasleen egoitzaren bidez**, baina aldi berean unibertsitatetik *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuarekin zerikusia daukaten **graduondo- eta ikerketa-programa batzuekin loturak sortuz**. Eta **auzoan banatuta dauden logelen sare** bat sor liteke; horrela, testuinguruan jarritako esperientzia bat eskainiko litzateke etortzen direnentzat, eta sarrera osagarrien iturri txiki bat sortuko litzateke hartzen dituztenentzat. Horrelakoak dira *Gran Hotel del Emprendimiento*, *Practica en mi empresa* edo *Etorri Bilbora*<sup>50</sup> proposamenak.

---

50 Ikusi 4. eranskinaren 24. eta 25. orrialdeak.



## >> ESPAZIO PUBLIKOAN ETA FATXADETAN ESKU HARTZEA

Erabileretan pentsatzeaz gain, garrantzitsua da plaza izaeraz hornitzea eta han gertatzen denari nolabaiteko koherentzia formala eta ikusgarritasuna ematea<sup>51</sup>. Hori plazako espazio publikoan eta inguruko eraikinetan esku hartzeko proiektu baten bidez egin liteke.

Auzoan bertan, Sey Colors eta DK Muralismo enpresek esku-hartze ugari egin dituzte ildo horretan. **Komenigarria litzateke DK Muralismotik Otxarkoaga auzorako egin zen esku-hartze proposamena berreskuratzea**; izan ere, han, esku-hartze estetikoak partaidetza-prozesu baten bidez proposatu zen, eta hori lanerako prestakuntza-programa batekin konbinatu zen. Esku-hartze horiek, gainera — irizpide ekologikoei jarraituz — margo fotokatalitikoak egin litezke, ingurumen-kutsadurako mailak hobetzen lagunduko bailukete.

---

51 Ikusi Hack the Plaza, Plaza Berri edo Cantera s. XXII, 4. eranskinetako 14., 15. eta 19. orrialdeak.





## >> PLAZAKO ESPAZIOA ERABILTZEN DUEN LANKIDETZA-PROIEKTU BATEN KASU ERAKUSGARRI BAT

Gogoeta-prozesuan behin eta berriro agertu diren erronketako bat (oraindik ez dira lan-programa argirik sortzeko kristaldu, baina haien inguruan jardura solteak proposatu dira) bizitza aktibo eta osasuntsua da<sup>52</sup>. Zaintzekin, zahartzearekin, elikadurarekin, mendetasunarekin eta autonomia pertsonalarekin, osasun mentalarekin, azturekin eta abarrekin zerikusia duten proposamenak. Proposaturiko proiektuetatik bat, *HarroParcour*, nabarmendu nahi dugu:

- izan ere, bizitza osasuntsuaren eremua eta hazten ari den beste bat, alegia, bideo-jokoena eta aplikazioena konbinatzen ditu;
- izan ere, **plazan bizi diren baina oraindik elkarlanean ari ez diren eragileen elkarrekintzan oinarrituta** soilik gauzatu daitekeen proiektu bat litzateke.

*HarroParcour* online joko baterako ideia bat eta **plazaren inguruan kirola eta osasuna erlazionatzen dituen app bat** da; eremu birtuala eta fisikoa nahasiko dira eta aldizka jarduerak antolatuko dira plazan bertan (*gymcanak*, ariketak, *parcoura*, yoga...). Proiektuak guneko profesionalak, esate baterako, Arcadiapps<sup>53</sup> (giza garapenaren alde egiten duten aplikazioak) edo Jokoga<sup>54</sup> (plataforma anitzeko jokoak) ikastolan ematen diren lanbide-familiatako (kirola, informatika edo 3D modelatua) lanbide-heziketako ikasleekin erlazionatzen ditu. Hasiera batean, testuinguruaren ganean benetako kasu batera aplikatutako eta enpresen eta ikasleen artean egindako prestakuntza- eta praktika-proiektu gisa bideratu liteke.

52 Ikusi 4. eranskinaren 16., 17. eta 18. orrialdeak.

53 <http://arcadiapps.es/>

54 <http://es.jokoga.com/>



## 4.3. Nortzuen artean?

### > Ahalik eta diferenteena eta aberatsena den konglomeratua

Proiektuaren erresilientzia eta garatzeko gaitasuna areagotu egingo dira zenbat eta eragile gehiago bildu izendatzaile komunitate txikien baten inguruan (balioak/helburuak/ekintzak); horrela, bakoitzak bere helburuak bete ahal izango ditu eta multzoaren barruan garatu (*Nork bere onena eman eta bakoitzak behar duena lortu*).

Hori dela-eta, hasieratik, *HARROBItik HARROBIra* diseinatzean eragile-motari, **dimentsioari, jarduera-eremuei, eskumenei, jatorriari eta abarri dagokienez askotarikoa den *partner*-sare bat garatzeko asmoa eduki behar da.**

Proiektuarekin oro har edo haren zati batzuekin bat egiten duten erakunde publikoen eta pribatuen konglomeratu bat osatzea.

Ildo horretan, harreman-baldintza argietatik abiatuta edo konfiantza landuz, eragile guztiek, ahal den neurrian, irekiak eta eskuzabalak izan behar dute besteekin erlazionatzerakoan; zergatik egin azaltzeko arrazoietan baino, zergatik ez egin diotenetan jarri behar dute arreta, aurreiritziak, betoak, etab. saihesteko.

### > Badagoen horretatik abiatuta jardutea

**Berrikuntzaren iturria (disruptiboarena ere) gure inguruan dago.** Badagoen horretan, jadanik egiten ari garen horretan, ipini behar dugu arreta, beste alde batetik begiratzeko, kualifikatzeko edo haren balioa azpimarratzeko asmoz.

**Ezin dugu jarduera-eremurik aukera-jardueratzat jo benetako eragileek babesten ez badute.** Horregatik, egin nahi denak eragile bultzatzaileek jadanik egiten duten edo egin dezaketen horretan ardaztu behar du, epe laburrean mugiarazi ahal duten eta epe labur edo ertainean plan bati jarraiki iraun ahal duten gaitasun, baliabide, ezagutza eta aukera zehatzen arabera. Mota horretako proposamenetan inplikaturik dauden eta konprometitu eta beren lan-dinamikaren esparrutik ekarpenak egiteko gai diren eragile erakargarriak kontuan hartu behar dira (neurri handi batean, beren agendei ekintza gehiago gaineratu beharrean, **jadanik egiten ari diren horri zentzu integratu bat gehitu** beharko litzaioke, beste eragile eta ekintza batzuekin plan orokor zabalago eta antolatutago batean bat etortzeko).

### > Zabaldu eta batzea

**Proposatzen denak —gaien espezifikoa izateaz edo eremu produktiboan ardazteaz gain— parte-hartzailea, irekia eta inklusiboa izan behar du eta komunitate guztiari zenbait alderdiri dagokienez eragin behar dio.** Helburua beste pertsona, kolektibo eta erakunde batzuen inplikazioa lortzea da, lehen



“tipula-geruzatza” jo genezakeenaren haraindi. Hala ere, inplikazio hori ezin da bortxatu; aitzitik, kanalak gaituz eta adierazgarriak, motibagarriak diren eta harremana eta partaidetza errazten dituzten egoera praktikoa zehatzak sortuz bilatzen da.

Hona hemen baturaren eta irekiduraren alde egin dezaketen zenbait faktore:

- **Auzokoekin zuzenean erlazionatzea**, auzoan pentsatuz, ez bakarrik plazan.
- **Parte hartu ohi ez dutenen partaidetza bilatzea**; kasu askotan arrazoia horretarako ipintzen zaizkien oztopo esplizituak edo inplizituak dira.
- **Pertsonak ahalduntzea, talentu-aniztasunaren balioa azpimarratzea**, mendeko taldeak oparotasun-komunitate bihurtzeko asmoz.
- **Inplikazio-maila desberdinak ahalbidetzea**. Denek neurri berean lagunduko ez duten arren, bakoitzak funtsezko modu batean laguntzeko aukera eduki behar du.
- **Pertsona desberdinak proiektuan modu diferenteetan onartuak sentitu ahal izatea**. Horretarako, partikularra bokazio komuneko ikuspegi kolektibo batetik landu behar da.
- **Hezkuntza- eta prestakuntza-alderdiari garrantzia ematea**, bai ingurune formalean bai informalean, jakintzak praktikatzeko eta trukatzeko komunitateetan.

## > Subsidiarotasuna eta deialdi espezifikoak

*HARROBI*tik *HARROBI*ra proiektuak ekosistema bera garatzen eta indartzen ipini behar du arreta, baina bere eragile bultzatzaileetara zedarritutako proiektu bat izatera mugatu gabe. Talentua erakarri eta katalizatu behar du, bai testuinguruan bertan kokatua, bai urrun daudenak eta plazako eta auzoko ingurunean beren proposamen berritzaileenak garatzeko aukera egokia aurkitzen dutenak.

Hori horrela izan dadin, gutxienez kontu hauei erantzutea proposatzen dugu (elkar osatzen dute eta kasu askotan integratuta daude):

1. **AUZOAREKIN KONPROMISOA HARTZEN DUTENEN ALDEKO APUSTUA EGITEA**. Auzoan geratzen diren (edo geratzera etortzen diren) eta lan egiten duten eragile esanguratsuei (neurriagatik, erakartzeko gaitasunagatik, kapital sinbolikoagatik edo dinamismoagatik) egiturazko laguntza ematea. Horretarako harreman, hitzarmen edo programa espezifikoak sustatzea, **subsidiarotasun-printzipioen arabera** jarduteko bide ematen dutenak (sozietate zibileko eragile espezializatuek edo proposatu dutenek zuzenean ekintzak garatzea), beste eragile batzuekin elkarlanean, kasu bakoitzean administrazio eskudunarekin adostutako irizpideen eta helburuen arabera.
2. **DEIALDI PUBLIKOAK**. Modu ireki eta gardenean jardutea, eragile abiarazleek eduki dezaketen beren burua aipatzeko joera hausteko asmoz. Harremanak zabaltzea, talentua erakartzea *HARROBI*tik *HARROBI*ra proiektua erreferentzia-puntu bihurtzea gizarte-berrikuntzari, ekintzailtzari eta garapen komunitarioari dagokienez. Horretarako, aldi behin **lehia askeko deialdiak egitea edo ideia-lehiaketa ordainduak proposatzea** planteatzen



da (tokikoak edo nazioartekoak, ekin beharreko ekimenaren izaeraren eta neurriaren arabera). Horretarako, funtsezkoa da: 1) **deialdi-eredu bat eta jardunbide egokien kode bat** garatzea; eta 2) deialdiak behar bezala hedatzeko bide ematen duten **nazioarteko sare espezializatuetan** aktiboki parte hartzea.

*Esperientzia Laborategia, KUBO 365, La Probeta Derramada* edo *Espacio Magnético* moduko proposamenak, elkarrekin sortzeko saioetan sortuak, horretara bideratuak egon litezke<sup>55</sup>. Horri dagokionez, oso interesgarria da **Ardora-DSS2016**<sup>56</sup> ekimena nabarmentzea, Donostia *Europako Kultur Hiriburutik*, herritarrek proposaturiko eta herritarrek berek ebaluatu eta hautatutako proiektuak hautatzeko. Ebaluazio-batzordea askotariko profiletako 25 pertsonak osatzen dute eta zozketaz antolatzen da Donostiako herritarren eroldaren artean.

## >Elkarlanean aritzen (berriro) ikastea

**Banaka nekez helduko ginen lekuetara elkarrekin heltzen saiatzea da elkarlanean aritzea. Baliabide eta aktibo partikularren baturaren emaitza da, ikuspegi kolektibo batetik, denen onerako.**

Gaur egun, behar bihurtu den nahia da lankidetzeta, bai berrikuntzari bai jasangarritasunari dagokienez. Proiektu berriei ekiteko modu zoragarria, gure gaitasunak handituz, ikuspegiak batuz eta aukera berriak zabalduz, diziplinartekotasun handiago batetik abiatuta. Era berean, arriskuak, baliabideak eta kostuak partekatzeko eta porrot-possibilitateak txikiagotzeko balio du.


Hala ere, elkarlanean aritzea ez da erraza, erronka konplexua baizik; izan ere, denbora gehiegi daramagu paradigma lehiakorrean sartuta. Horregatik, elkarlanean aritzea etorkizuneko aukera onena bihur dadin, *HARROBITik HARROBIra* proiektutik **lankidetzarako egoera egokien alde egin behar da eta bereziki lankidetzaprozesuen garapena sustatu eta eragile anitzeko proiektuak lehenetsi behar dira.**

Ildo horretan, interesgarria da Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Berrikuntza Arloan aspalditik egiten ari den lankidetzaren inguruko lanari<sup>57</sup> jarraitzea, *CoLab* moduko proiektuen bidez, *KOOPtel* moduko metodologiaren bidez edo, oraintxe bertan, berrikuntza lankidetzatik bultzatzeko erakunde arteko sare bat antolatzeko saioaren bidez.

55 Ikusi 4. eranskinaren 20. eta 21. orrialdeak.

56 <http://www.dss2016.eu/es/olas-de-energia/ardora>

57 <http://blogs.berrikuntzazerbitzua.net/category/cooperacion/>



#### 4.4. Zein da antolaketa-eredua?

*HARROBI*tik *HARROBI*ra bezalako proiektu konplexu baten erronketako bat —eragileak zabaldu eta batu nahi dituelako— aldi berean praktikoa eta berritzailea den funtzionamendu-eredu bat aurkitzea da, **instituzionaltasun berri bat, gardenagoa, parte-hartzaileagoa eta erantzunkideagoa**, bilatzearekin zerikusia duena. **Aldi berean eraginkorra eta proiektuaren balioetarako egokia den gobernamendu-sistema bat, tartean dauden eragileen rol eta interes desberdinen arteko orekari eusten diona, alegia:** erakundeenak, gizarte-eragileenak, enpresenak eta herritarrenak. Eredu horrek, eragile bakoitzak banaka duen autonomia errespetatuz (antolaketa-moduei, helburuei, ohiturei, kulturei eta abarri dagokienez), proiektu komunaren inguruan modu kolektiboan eraginkortasunez bat etorrarazi behar ditu.

Eredu hori, proiektuaren gainerako atalak bezala, era parte-hartzailean definituko da, diseinu teoriko batetik abiatuta eta hori tartean dauden eragileen esperientzietan eta erreferentzia izan daitezkeen jardunbide egokiko beste kasu batzuetan oinarrituta egiaztatuz.

Jadanik egin dugun kasu-analisia oinarri hartuta, aukera hau har liteke kontuan:

► **FORMA JURIDIKOA:** konplexutasun hori eta haren helburuak bildu eta ordezkatzeko dituen forma bat behar da. Gutxitan erabiltzen den aukera bat **erakundeen zerbitzu-kooperatibena** da; alegia, Euskadiko kooperatiben legearen 125. artikulua araberak: *Batzak, herri-erakundeak, iraskundeak, sindikatuak eta bestelako elkarteak dira mota honetako kooperatibak era ditzaketanak; kooperatiba horien bidez, denen berdintasunean eta kide bakoitzaren burujabetasuna eta erakunde lez dituen ezaugarriak ukitu gabe, edozein arazo edo antolamendu edo jarduneko beharrez irtenbidea eman dakioko.*



#### > BI ANTOLAKETA-MAILA:

1. **Maila politikoa:** batzar bat eta gutxienez ekintza-talde bat, eragileak espazio batean biltzen dituen, estrategia eta helburu komun eta transbertsalak definitzeko, lana planifikatzeko eta jarduketa-ildoak diseinatzeko.
2. **Maila tekniko:** egitura profesional egonkor bat (komunitatearen laguntza duena, hileko konpromisoko ordu-pakete baten bidez), hartutako erabakiak garatu eta betearazten dituen eta proiektuaren eguneroko alderdiak eraginkortasunez eta kalitatez kudeatzen dituen. Hauek izan litezke talde horren funtzioak: kudeaketa, garapena edo koordinazioa (lantaldeena, programena, proiektuena, hitzarmenena, zerbitzuena...), bitartekaritza, idazkaritza tekniko, komunikazioa eta artxiboa, mantentzea eta barne-zerbitzuak.

> **FUNTZIONAMENDUA PROIEKTUKA:** *HARROBitik HARROBIra* prozesuaren egitura finkoak doitua eta dinamikoa izan behar du (hori bai, egonkortasuna ziurtatuta), **ekin beharreko zereginen eta proiektuen arabera hazten edo txikitzen den sistema banakatu baten** antzera jarduteko. Proiektu bakoitza modu autonomoan antolatuko da, modu interdependentean multzoari dagokionez.

Era berean, **bitartekaritza-talde bat** eduki liteke, erabiltzaileei eta bisitariei harrera egiteko zein jarduerak eta proiektuak dinamizatzeko funtzioekin. Gainera, talde horretako kideek zuzenean edo zeharka jarduera-eremuei edo garatzen diren proiektu espezifikoetara lotutako ikerketak egingo dituzte. Horren ildotik, oso interesgarria da Medialab Pradok urtero egiten duen **bitartekariak kontratatze deialdiaren eredu**a aztertzea<sup>58</sup>.

## 4.5. Nola finantzatzen da hau guztia?

Baliteke hau galdera garrantzitsuenetako bat izatea, eta ez du erantzun errazik (horregatik utzi dugu amaierarako, ez baztertzeko, baizik eta oroimenean irauteko).

Ongizate-estatua zalantzan jartzen denez, tradizionalki administrazio publikoak finantzatu edo zuzenean kudeatu dituen eremu askok azken urteetan, bereziki "krisialdia" hasi zenetik, ikusi dute murrizketa nabarmenak egon direla edo externalizazio prekarizatuko edo zuzenean pribatizazioko prozesu eztabaidagarriak gertatu direla. Bestalde, sozietate zibilaren zati handi batek, ohituraz, mendeko jarrera du, ez da mugitzen edo alderdi publikoaren esku uzten du komuna denari eragiten dion guztia.

Horrela, gaur egun, ondasun eta zerbitzu komunak mantentzeko eta garatzeko buruzko gaia funtsezkoa da zuzeneko partaidetza askoz ere gehiago sustatzen duen eta eskubide-eta aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa nagusi dituen sistema publiko bati eusteko. *HARROBitik HARROBIra* prozesuak **mutualismo eta gizarte-ekonomiako praktika-laboretegia** izan behar du, **non baliabideak eta finantzaketa sortzeko ereduetan berritzea lehentasuna ematen zaion, alderdi publikoaren (horretan erantzukizun eta**

<sup>58</sup> <http://medialab-prado.es/article/convocatoria-mediacion-2015-2016>



**eskumen nabariak edukiko baititu), pribatuaren eta sozietate zibilaren artean. Hasiera batean, kontuak hauetan jarri beharko genuke arreta:**

1. **ERAKUNDE ARTEKO ETA SAIL ARTEKO FINANTZAKETA PUBLIKOA.** Zenbait administrazio eta horietako sail inplikatzan dituzten finantzaketa-bideak aktibatzea, **finantzaketa-bideak ez ezik kontaktuak eta harremanak ere dibertsifikatzeko** helburuarekin. Proiektuak arlo hauekin zerikusia duten harremanak eta lan-bideak aktibatu behar ditu: garapen ekonomikoa, enplegua, gizarte-ekintza, hirigintza, ingurumena, partaidetza, berdintasuna, kultura, hezkuntza... Gaur egun, *HARROBITIK HARROBIra* prozesua bultzatzen duen erakundea Bilboko Udala da, **Bilbao Ekintzatik, eta erakunde horren bidez planteatu eta antolatu beharko lirateke, hasiera batean, beste erakunde batzuekiko harremanak** (edo behintzat, modu koordinatuan egin).
2. **EUROPAKO ALDERDIA.** Funtsezko finantzaketa-bide bat Europakoa da; kontuan hartu beharreko programa askotan dibertsifikatutako aukerak daude, landu nahi den gaiaren arabera, esate baterako: *Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboa (POCTEFA)*<sup>59</sup>, *Europako Hego-ekialdeko Guneko Lurralde Lankidetzako Programa (SUDOE)*<sup>60</sup>, *Ingurumeneko eta Klimaren Aldeko Ekintzako Programa (LIFE)*<sup>61</sup> edo *Europa Herritarrekin Programa*<sup>62</sup>. Garrantzitsua da bide hori ez bakarrik finantzaketa-baliabidetzat jotzea, baizik eta baita nazioarteko harremanak, ikaskuntza eta ezagutza- eta esperientzia-transferentzia, Europarako komunak diren kontuei buruzkoa, lortzeko bidetzat ere bai. Hala ere, Europako finantzaketa konplexua da eta arrisku batzuk dakartza berekin (kide onak aurkitzea, kudeaketa burokratikoa eta auditoretza, finantzaketa beste baliabide batzuez osatzeko gaitasuna...). Ildo horretan, eta *HARROBITIK HARROBIra* proiektuaren neurria aintzat hartuta, komenigarria litzateke udalaren edo neurri eta esperientzia nahikoak dituzten beste erakunde batzuen babesa edo inplikazioa edukitzea, eragile gisa.
3. **ITZULKIN SOZIALEKO FINANTZAKETA PRIBATUA.** **Balantze hirukoitzean** (ekonomikoa/soziala/ingurumenekoa) oinarritutako errentagarritasuna bilatzen duten eragile inbertitzaileak erakartzea. Programa zehatz batekin **gizarte-eragineko bonuen**<sup>63</sup> eredu probatzea, prototipo moduan. Proiektuarekin oro har baina eremu eta ekintza espezifikoekin ere zerikusia duten **eragile eta programetara (gizarte-ekintza, babesletza, GEK)** jotzea (proiektua segmentatzea eta harremanak dibertsifikatzea). **Antzeko helburuekin lan egiten ari diren** eta proiektuarekin bat egitean interesatuta egon daitezkeen **erakundeetara**<sup>64</sup> jotzea. Kapitala ekartzeaz gain, eragileak, ekoizleak edo bezeroak izan daitezkeen **rol antzeko inbertsiogileengan** pentsatzea. Litezkeen inbertsiogile pribatuak? Inbertsiogile handiak eta ertainak? Nor? Zein interesekin?

59 <https://www.poctefa.eu>

60 <http://www.interreg-sudoe.eu>

61 <http://ec.europa.eu/environment/life/funding/lifeplus.htm>

62 <http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/cooperacion/mc/pec/programa-europa-con-los-ciudadanos-2014-2020.html>

63 Ikusi horri buruzko kapitulua, 5. *eranskinaren* 25. orrialdean.

64 Hauek izan litezke horren bi adibide oso desberdin: NER taldeak harreman-estiloa aldatuz Bidezkoa eta Iraunkorra den Giza Garapena lortzearen alde egin duen apustua, <http://www.nergroupp.org/>; edo Telefónicaren *Open Future* ekimena, estatuko zenbait aldetan (hemen Andaluziako proposamena ikus daiteke:

[http://www.eldiario.es/cultura/Transferencia-Metodologia-Implantacion-Open-Futurepdf\\_EDIFIL20140407\\_0001.pdf](http://www.eldiario.es/cultura/Transferencia-Metodologia-Implantacion-Open-Futurepdf_EDIFIL20140407_0001.pdf)).



4. **HERRITARREN FINANTZAKETA BANATUA. Finantzaketa, mailegu eta P2P inbertsioko**<sup>65</sup> aukerako ereduak, **finantza etikoei lotuak**, probatzea. **Crowdfundinga** erabiltzea hasiera batean txikiak diren ekimenak finantzatzeko (adibide on bat *Goteo*<sup>66</sup> izan daiteke, komuna, librea eta irekia dena sustatzen duten proiektuetan ardaztutako plataforma), orobat komunikatzeko eta komunitatea antolatzeko helburuarekin. Mota horretako eredu bidez auzotarrak, saltokiak, toki-erakundeak, etab. inplikatzen moduak bilatzea (finantzaketa-bide erantzunkide gisa eta proiektuan sartzeko beste era posible gisa).
5. **DIRU ALTERNATIBOAK ETA BALIOA EKOIZTEKO BESTE MODU BATZUK.** Alternatibak probatzeko asmo horiekin, *HARROBitik HARROBIra* proiektuak balio-trukearen eta dohaintza-ekonomiaren beste era batzuk, monetazkoak zein bestelakoak, sustatzeko plataforma bat izan behar du, hala nola hauek bultzatzeko:
  - **Tokiko diruak**, ekonomiaren zati bat birlokalizatzeko eta beste balio eta irizpide sozial batzuk sartzeko bide ematen dutenak. Horri dagokionez, Bilbon badago esperientzia interesgarri bat, *Ekhi Txanpona*<sup>67</sup> delakoarekin; 2014tik dago zirkulazioan, 78 enpresa dira kide eta 26.000 ekhi baino gehiago trukatu dira.
  - **P2P kriptodiru digitalak**<sup>68</sup>, ohiko diru-sistemari nahitaez lotuta ez daudenak eta beste mota bateko harremanak garatzea ahalbidetzen dutenak. Ezagunena *BitCoin* delakoa da, baina hemen interesatzen zaizkigun gizarte- eta lankidetzeta-balioetatik hurbilago dagoen adibide bat *FairCoin* izenekoa da.
  - **Denbora-bankuak**; horien bidez, pertsonak beren denbora, jakintzak eta gaitasunak eskaintzen dituzte, besteekin trukatzeko. Auzoan bertan, Aldauritik kudeatua, badago denbora-banku bat<sup>69</sup>, eta horrelako gailuen aukeren eta erabileren oso erreferentzia ona izan daiteke. WikiTokin ere denbora-banku bat erabiltzen dute, baina ikuspegi desberdin batekin, pertsona bakoitzak komuna denari hileroko eskaintzea agindutako orduak kudeatu edo kontrolatzeko.

Bukatzeko, beharbada garrantzitsuena dena nabarmendu behar da, alegia, finantzaketaz, proiektua bultzatzeko beharrezkoa den inbertsioaz, haraindi (edo horretaz gain), *HARROBitik HARROBIra* delakoak soilik funtzionatuko duela garatzen duen komunitatea hau egiteko gai bada:

1. **EKONOMIA ALTERNATIBOA BAINA ERREALA EKOIZTEA**, komunitatean bertan eta ingurunean inplikatzen diren eta horien onerako diren ekimenen bidez; merkatu, enplegu eta gizarte-enpresen eredu antolatuagoak eta formalagoak izateko eboluzionatu ahal dutenak; jasangarriak, errepikatzen edo eskalatzeko modukoak direnak eta eragin eta itzulkin handiagoak dituztenak.
2. **GIZARTE-KAPITALA SORTU ETA BANATZEA**; ondasun immaterial hori hiru iturri nagusien arteko lankidetzatik sortzen da: 1) elkarrekiko txera eta konfiantza, 2) arau eraginkorrak eta 3) gizarte-sareak.

---

65 Ikusi "'Moving Mainstream: The European Alternative Finance Benchmarking Report'" txostena, Cambridge-ko Unibertsitateko Finantza Alternatiboen Zentroak egina:

[http://www.jbs.cam.ac.uk/fileadmin/user\\_upload/research/centres/alternative-finance/downloads/2015-uk-alternative-finance-benchmarking-report.pdf](http://www.jbs.cam.ac.uk/fileadmin/user_upload/research/centres/alternative-finance/downloads/2015-uk-alternative-finance-benchmarking-report.pdf)


66 <https://goteo.org/>

67 <http://www.ekhitanpona.org/wordpress/>

68 <https://bitcoin.org/es/> | <https://fair.coop/es/faircoin/>

69 <http://www.bdtbilbao.org/>





## 4.6. \_Eta nola ebaluatzen da?

*HARROBITIK HARROBIra* moduko proiektuek sortutako balioa neurtzea erronka zail baina erabakigarria da, baldin eta azaleratzen ari den gizarte-berrikuntzak gure ustez egokitzen zaion toki estrategikoa okupatzea eta inbertsioa edukitzea nahi badugu —munduan erabakiak indizeetan eta tauletan oinarrituta hartzen baitira gero eta maizago—.

**Horrelako proiektuek prozesu-izaera dutenez eta ukiezinetan oinarrituta daudenez, oso konplexua da haien eraginak eta itzulkinak ebaluatzea; izan ere, ondorio asko epe ertainean edo luzean gertatzen dira edo modu informalean edo zeharka agertzen dira.** Horregatik, sozialki berritzaileak diren proiektuak garatzea bezain garrantzitsua da berritzea: gizarte-proiektuen eragina eta itzulkina ebaluatzeko eta neurtzeko sistemetan; eta eraginkorrak eta proiektuen eta haien helburuen izaerarekin koherenteak diren adierazle kualitatiboan eta kuantitatiboan multzoen sorketan. **Pertzepzioak eta sentrazioaz modu objektiboan hartu eta konparatu ahal diren balio estatistikoak bihurtzea** ahalbidetzen diguten tresnak lortu behar ditugu.

Asmo horrekin, azken urteetan ukiezina eta soziala dena xede duten ebaluazio-sistemak ugaritu egin dira, baina oraindik gehienak honelakoak dira:

- Enpresa-mundutik datozen ereduaren zuzeneko egokitzapenak (errentagarritasun ekonomikoa, hazkundea, patenteak eta abar oso kontuan izaten dituztenak).
- Ez oso egokiak gizarte-irizpideei dagokienez (hain zuzen, horrelakoek balioetan, harremanetan, baldintzetan... jartzen dute arreta).
- Inbertitzen duenaren, proiektuak sortzen eta kudeatzen dituztenen ikuspuntutik sortuak (neurtzeko errezeloa erakusten dute, behintzat haien ustez proiektuak ebaluatzen dituzten sistemekin), edo amaierako hartzaileen ikuspuntutik (horiek ez dira behar bezala kontuan hartzen).
- Emaitzaren kontrol kuantitatiboan prozesuaren jarraipen kualitatiboan baino ardaztuagoak.



## >> ORDUAN... ZER ESPERO DUGU NEURKETA-SISTEMA BATETIK?

HARROBitik HARROBIra proiekturako abian jartzen den ebaluazio-sistemak alderdi hauek hartu behar ditu kontuan:

- **Baliozkotasuna:** neurtu behar duena benetan neurtzea.
- **Konparagarria baina malgua:** sistemak adierazleak (edo horietako batzuk) konparatzeko bide ematea, baina zorrotza izan gabe, proiektura egokitzeke, proiektua sistemara egokitu beharrean.
- **Soiltasuna:** lagunkoia, ulertzen eta aplikatzen erraza izan behar du.
- **Orekatua:** balantze hirukoitza ingurunearen, pertsonen eta baliabideen artean, jasangarriaren, bidezkoaren eta bideragarriaren artean.
- **Ikuspuntu anitz:** proiektuari lotutako eragile guztiak (talde sustatzailea, parte hartzen duten pertsonak, gizartea oro har) barne hartuta.
- **Ikuspegi mistoa:** bai neurtzen duen horri (alderdi kuantitatiboak zein kualitatiboak), bai neurtzeko moduari (galde-sortak, elkarrizketak eta egiaztatze-taldeak, egunerokoak, beste metodo informal batzuk) dagokienez.
- **Prozesuan zehar:** proiektuaren bizi-zikloko une desberdinetan erabilgarria izatea.
- **Erabaki eraginkorragoak:** helburuen jarraipen bat egiten laguntzea, balioa non sortzen den, beharrak eta itxaropenak betetzen diren, zer azpimarratu behar den, etab. antzemateko.
- **Legitimitatea:** proiektuaren ondorioak komunikatzen eta ipintzen laguntzea eta inbertsioa eta haren itzulkinak ukigarri bihurtzea.

Ildo horretan, txosten hau egiteko arakatu ditugun ebaluazio-sistemetatik<sup>70</sup>, uste dugu egokiena **bi sistema konbinatu erabiltzea** izan daitekeela: **bata, kuantitatiboagoa, homologatua eta konparagarria; eta bestea, kualitatiboagoa, geuk egina, sinplea, malgua eta egokitua dena.**

---

70 Balioa eta gizarte-eragina neurtzea xede duten zenbait ebaluazio-eredu:

> **Eredu kuantitatiboagoak;** horietatik, hedatuena *inbertsioaren itzulkin soziala (SROI)* da:

<http://ecodes.org/responsabilidad-social/retorno-social-de-la-inversion-sroi> |

[http://socialvalueuk.org/publications/publications/doc\\_download/445-the-sroi-guide-spanish](http://socialvalueuk.org/publications/publications/doc_download/445-the-sroi-guide-spanish). Gure ingurunean bertan, bertsio bat daukagu, alegia, *Gizarte Balio Integratuaren Kuantifikazioa*, EHUren eta Deusturen arteko ikerketaren emaitza, eta orain probatzeko fasean dago: <http://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4742444.pdf>

> **Balantze hirukoitzean (ekonomikoa, soziala, ekologikoa) oinarritutako ereduak:**

<http://ocw.upm.es/organizacion-de-empresas/la-responsabilidad-social-empresarial/contenidos/material-de-clase/2012-RT-M3.PDF>. Haren aplikazio garatuena eta orokortuena, ziurrenik, *Ondasun Komunaren Ekonomia* da; indize bat sortzea ahalbidetzen du eta ebaluazio-matrize sinple bat dauka:

<http://elordenmundial.com/desarrollo/mad-2-economia-bien-comun-decrecimiento-slow-movement> |

<http://economia-del-bien-comun.org/sites/default/files/Matriz%20del%20bien%20com%C3%BAAn%204.1.pdf>

> **Eredu disruptiboagoak, sentsazioak, inguruneak eta balioak ukigarri bihurtzen saiatzen direnak.** Hedatuena *Nazio Zorion Gordinaren* indizea da; Bhutanen jarri zen abian lehenengoz eta esperientzia-kontakizunen eta 180 galderako galde-sorta baten analisisian (ongizate psikologikoari, denboraren erabilerari, komunitatearen bizitasunari, kulturari, osasunari, hezkuntzari, ingurumen-dibertsitateari, bizi-mailari eta gobernuari buruz) oinarritzen da:

[http://servindi.org/pdf/Felicidad\\_nacional\\_bruta\\_indice\\_FNB.pdf](http://servindi.org/pdf/Felicidad_nacional_bruta_indice_FNB.pdf)

> **Euskadin azken urteetan sortu diren eta garapen-fase desberdinetan dauden beste eredu batzuk**, esate baterako: *Resindex indizea*, Sinnergia-ek Innobasque-rentzat garatua:

<http://www.sinnergia.org/index.php/resindex-regional-social-innovation-index>; *I+G+b-ren* gizarte-eraginaren ebaluazioa, Tecnalia eta APTESek garatua: <http://www.tecnalia.com/es/impacto-social/evaluacion-del-impacto-social-de-la-idi/evaluacion-del-impacto-social-de-la-idi.htm>; edo *Gizarte-berrikuntzaren maila neurtzeko tresna*, ElHuyarrek garatua: <http://berrikuntzasoziala.elhuyar.eus/ebaluazio-tresna>



## >> ERAGIN-MAPA BAT ETA ADIERAZLE-MULTZO BAT

Proiektura ondo egokitzen den ebaluazio-sistema bat edukitzeko gakoa zer ebaluatu nahi dugun eta nola, zein mekanismoren bidez egin nahi dugun zehazteko aurretiko lana da. Horretarako, ebaluazio-sistemak aukeratzeaz gain, lehen zeregina eragin-mapa bat eta adierazle-multzo bat lortzea da.

**Eragin-mapak** pronostiko bat egiteko balio behar du; hori prozesuan zehar egiaztatu eta osatuko litzateke. Faktoreen arteko harremana modu sekuentzialean antolatzen dituen taula; faktoreok, besteak beste, hauek dira:

- **Interes-taldeak** (eragiten dute edo eragina jasotzen dute).
- **Helburu** zehatzak (nagusiak, bigarren mailakoak eta albokoak).
- Jokoan jarritako **baliabideak** (deskribapena/balioa).
- Garatu beharreko **ekintzak**.
- **Emaitzak**, espero diren eta lortu diren ondorioak (epe laburra/luzea).
- **Desbiderapenak** eta arrazoiak.

**Adierazle-multzoa** tokian bertan proiektu bakoitzerako egiten da, eta definizio hori bera tartean dauden eragileen taldeak egin beharreko zeregina da. *HARROBItik HARROBIra* proiektuari dagokionez, adierazle-zerrendarako lehen hurbilketa bat, soilik orientatzeko, hauxe izan liteke:

### > Plazari buruz, gizarte-berrikuntzako *living lab* gisa

- Plazan dauden gizarte-berrikuntzari lotutako eragileen kopurua eta mota.
- Alderdi soziala kontrolatzeko gaitasuna, arazoak eta eskariak (kausak, ondorioak, etab.) identifikatzeko eta irtenbideak arakatu eta sortzeko asmoz.
- Jarduketa-eremuen aniztasuna.
- Esku hartzeko moduen aniztasuna.
- Gaitasun zehatzak xede dituzten jardueren kopurua.
- Etengabe hobetzea eta bizitza osoan ikastea xede duten jardueren kopurua.
- Ekintzailtza-maila eta ekintzarako bideratze-maila.
- Plazaren inguruan eta hango zerbitzuen bidez abian jarri diren enpresak eta bestelako erakundeak.
- Elkar ezagutzea, trukea eta lankidetzeta (barnekoa/kanpokoak) sustatzen dituzten mekanismo espezifikoak eta baliabide komunak egotea.
- Mutualismo-, bateratze- eta zaintza-mekanismoak egotea.
- Irisgarritasuna eta aniztasuna ziurtatzen dituzten mekanismoak egotea.
- Ezagutza barnean gizarteratzeko gaitasuna eta gizarteratze horren eragin-maila.
- Kanpo-uztardurarako gaitasuna eta loturen indarra eta iraunkortasuna.
- Zenbait eragileek batera egindako proiektuen kopurua eta mota.
- Ezagutza eta jardunbide eraldatzaileen ingurune ohituretarako txertatze-maila.
- Garatutako prototipoen kopurua (eta ondorengoko inplementazio-, eskalagarritasun- eta transferentzia-ratioa).
- Soziki berritzaileak diren prozesu, produktu eta zerbitzu berrien sorketa.
- Ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia.
- Berrikuntza-politika publikoetan duen eragina.
- Kide den tokiko, estatuko eta nazioarteko sareak eta programak (horietan profil aktiboa eta garrantzia edukitzea).



### > Ingurune produktibo bati buruz, gizarte-ekonomiaren ikuspegitik

- Hobi horien bilakatzeko joera, litezkeen beste batzuekin erkatuta (ekoizpen-ereduaren eraldaketaren barruko garrantzia, politika publikoen eremuan eta merkatuan duten eragina, enpleguaren sorketa...).
- Aurretik lehentasunezko zat jo diren jarduera-hobien inguruan garatutako proiektu eta jardueren kopurua eta mota.
- Gizarte-ekonomiaren barruan koka daitezkeen sortutako enpresen kopurua eta mota.
- Proiektuen jasagarritasun-indizea (kualitatiboa eta kuantitatiboa).
- Sortutako enpleguen kopurua (zuzenekoa eta zeharkakoa) eta mota, irizpide hauek kontuan hartuta: enplegatuen jatorria (plazako eta auzoko zerbitzuetatik eratorriak), kalitate oneko enplegua, bokaziozko lana, pertsonen ahalduntzea eta gaikuntza espezializatua, etab.
- Administrazio publikoek eta beste eragile pribatu batzuek berrikuntzari, ekonomiari eta gizarte-ekintzailtzari buruz abian jarri dituzten neurri eta programa zehatzen kopurua eta mota, eta plazako ingurune onuradunak.
- *Trantsizioko ekimenaren* ereduaren garapen-maila plazan eta auzo osoan.

### > Espazio publikoan bizitza aktibatzeari buruz

- Plazaren erabiltzaileen kopurua eta mota.
- Plazan garatutako jardueren kopurua eta mota eta horietan parte hartu dutenak.
- Auzokoen partaidetza-indizea plazan sortutako jardueretan.
- Plazaren erabileren aniztasun-indizea.
- Plazaren fisionomiaren bilakaera.
- Auzotarrek zein neurritan ezagutzen duten *HARROBItik HARROBIra* (erabilera, balioa, nortasuna, testuinguruarekiko benetako harremana...).

### > Helburu komun baten aldeko apustu batean ahaleginak batzeari buruz


- *HARROBItik HARROBIra* proiektuaren garapenean inplikaturik dauden eragileen kopurua eta mota.
- Gobernamentu-ereduaren bilakaera, honako hauek kontuan hartuta: parte hartzeko eta erabakiak hartzeko mekanismoa, erantzunkidetasun-maila, gardentasun-maila, etab.
- Plazako eta ingurune espazioen okupazio-maila, antzemandako koherentzia-maila, erabilera komuneko espazioen ehunekoak, etab.
- Auzoko beste eragile eta ekipamendu batzuekiko harremanen kopurua eta mota.
- *HARROBItik HARROBIra* proiektuak *Plan komunitario* berriaren garapenarekin duen interrelazio-maila.

### > Proiektuaren ekonomiari buruz

- Finantzaketa-iturrien aniztasuna.
- Proiektuaren jasagarritasunaren eta berezko ekonomiaren sorketaren bilakaera (eskainitako produktuen eta zerbitzuen deribatuak).
- Proiektuaren inbertsioaren itzulkin sozialeko indizearen bilakaera.

### > Beste adierazle orokor batzuk

- Hurbileko testuinguruaren gizarte-kohesioan duen eragina: ekitate-mailak, denboraren erabilera, bizi-kalitatearen, osasun fisikoaren eta ongizate psikologikoaren hobekuntza.
- Hurbileko testuinguruaren garapen jasagarrian duen eragina: ingurumen-erantzukizunari buruzko pedagogia, etxeko eremuko proiektu zehatzak, etab.
- Aukera-berdintasunaren inguruko neurri zehatzak (generoa, kultura-artekotasuna, zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak...).
- Proiektu osoaren azterna ekologikoa.



**Urrengo  
pausua  
emango  
dugu?**



**Bai, ezta ?**

**;-)**


# ***1. eranskina***

***HARROBITik HARROBIra***  
**prozesuaren aurkezpen dosierra**  
**parte-hartzailentzako**  
**atariko informazioarekin**

**6 orrialde**







Harrobia: 1. Eraikuntzarako harriak edo lehengaiak erauzten diren lekua.  
2. Jardueraren bat egiteko gaitasun espezifikoak osatzen eta bultzatzen diren lekua.d.

# ***HARROBI-tik HARROBI-ra***

***Harrobi plaza gizarte berrikuntzarako eta  
ekintzailtzarako, komunitatearen garapenerako  
eta kultura ekintzetarako ekosistema gisa***

***2015eko martxotik uztailera***

**Proiektuaren koordinazioa eta garapena:**

***ColaBoraBora Koop***

*WikiToki - Plz. La Cantera, 5, 2º - 48003 Bilbao  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
tel: 944 158 861*



## **1.- Erronkaren definizioa**

### **1.1.- Proposamena**

**HARROBItik HARROBIra** proiektuaren xedea da Harrobi plazaren ahala bultzatzea gizarte berrikuntzarako eta ekintzailertzarako, komunitatearen garapenerako eta kultura ekintzetarako ekosistema gisa. Proiektu honek Harrobi plazaren ingurua izango du zehazki erdigunetzat, **Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetarako nahiz hiri osorako aukeren** espazio gisa. Helburu hori lortzeko, plaza eta plazan jarduten duten eragileak izan ditugu gogoan, baita auzoarekin zerikusia duten beste eragile eta espazio batzuk ere.

Lan prozesu bat ireki nahi da, aukera bat komun pentsatzeko gai izateko askotariko eragileen eta arloen artean, erakunde publikoen nahiz pribatuen eta gizarte zibilaren sinergietatik abiatuta eta gizartearen/ekonomiaren/kulturaren balioa taldean sortzeko eta hedatzeko. Orainaldian eragina izateko eta berau eraldatzeko ahalegina da, Bilborako eta bilbotarrentzat etorkizun berriak irudikatzeko, aniztasuna alderdi guztietan sustatzean eta egituratzean oinarrituta.



## 1.2.- Auzoaren unea

**HARROBItik HARROBIra** proiektua Ibaiondo barrutiaren testuinguruan gauzatuko da, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan. Aukeren auzoak dira, kulturartekotasunez, kontrastez, egoera konplexuz, urgentziaz eta larrialdiz, sorkuntza eferbeszentez eta muturreko bizirik irauteaz betetako auzoak. Auzo horietan zentraltasuna, aniztasuna, premia eta aukera batzen dira, eta gizarte ehundura garrantzitsua dute; betiko jarduerak gurutzatzen dira, besteak beste, merkataritzaren, produktibitatearen, gizartearen, kulturaren eta ostalaritzaren arloko proposamen berriekin.

Herriaren jatorria eta etorkizuna islatzen dute auzo horiek, ezinbestekoa nahiz estigmatizatua den meatzaritza erauzketaren eta izaera apalaren iraganetik abiatuta, gizarte inklusibo, berritzaile eta gogoetatsurantz, bizikidetzarako gaitasunean oinarrituko dena eta kulturen arteko lankidetzeta eta sormena bultzatu duena<sup>1</sup>. Auzo horien ezaugarriek lagunduko digute hurrengo hamarkadetako Bilbo proiektatzen.

## 1.3.- Plaza aukeren espazio gisa

Harrobi plazak egiteko garrantzitsua du prozesu honetan, **inguruko ezinbesteko gune nagusietako bat** baita. Plaza asko aldatu da azken urteetan, berrurbanizatu egin da eta inguruan babes ofizialeko etxebizitzak eraiki dira, baita Ikastolen Elkartearen eraikina ere. Gainera, udalak beste zenbait ekipamendu ditu anbulatorio zaharrea (duela urte askotik polizia etxea da, eta auzoko enpleguari eta ekintzailetzari lotutako espazioa ere bai).

Espazio aldaketa horiek -auzoko bizitzari dagokionez leku nabarmenagoa egin dute- eragile berriak erakarri dituzte plazara. Hala ere, bizi izan dugun eta bizitzen ari garen egoera ekonomikoaren erdian, eragileen iritsiera horrek ez ditu osatu erabilgarri dauden espazioak; hain justu, okupatu gabeko espazioak daude oraindik. Hori aukera bat izan daiteke, **horien erabilerari buruz modu osoagoan edo, behintzat, egituratuta pentsatzeko aukera** eskaintzen baitu.

<sup>1</sup> Kulturartekoa zentzu zabalean ulertu behar da, ez gara ari soilik beste leku batzuetatik datozenei buruz -oso presente daude auzoan-; aldiz, belaunaldien, generoaren, sinesmenen, prestakuntzen, arlo profesionalen, bizi ibilbideen eta eragile moten arloko aldeei buruz ere ari gara, besteak beste.



## 2.- Helburuak

**HARROBItik HARROBIra** proiektuaren xede nagusia da Harrobi plazaren eta berau osatzen duten eragile eta espazio multzoaren (inguruko beste eragile, eremu eta baliabide batzuekin batera) indarra aztertzea berrikuntzarako eta ekintzailetzarako gune gisa. Helburu horren baitan beste azpi-helburu batzuk ere sartzen dira, esaterako:


1. **Plaza** proposatzea **proiektu bateratu** gisa berrikuntzaren, ekintzailetzaren eta gizarte ekonomiaren inguruan (identitate batekin komun, banakakotasunak errespetatuz).
2. Auzoaren baitan (eta hiri osoan) **erreferentzia puntu** bihurtzea, eta, halaber, nazioartean antzeko ezaugarriak dituzten gizarte berrikuntzako beste ekosistema batzuekin loturak bilatzea.
3. Testuinguruko eragileen artean **harremanak izateko eta antolatzeko**, baliabideak partekatzeko eta elkarrekin ekoizteko beste **modu** batzuk proposatzea.
4. **Baterako proiektuak** garatzea, interes bereziko guneak identifikatzea, gaitasunak batzea, eta berrikuntza, lankidetzeta, osagarritasuna eta interdependentzia bultzatzea.

### Identifikatzea:

- Eragileak (plazaren ingurutik bertatik eta auzoaren gainerakoan).
- Partekatu ahal izateko espazioak eta beste baliabide batzuk.
- Honelako ezaugarriak dituen proiektu baterako harremanak izateko eta antolatzeko ereduak.
- Eragile bakoitzaren programak eta proiektuak, horietan sinergiak sortu ahal izateko.
- Baterako proiektu edo zerbitzu berriak sortu ahal izateko jarduera arloak.
- Harremanak ezartzeko programak eta sareak (erkidego, estatu eta nazioarte mailan).
- Finantzaketa bideak.

### Sortzea:

- Proiektuaren eskema kontzeptuala.
- Proiektuaren soziograma (eragileen eta baliabideen mapa).
- Ekintza espezifikoaren plana (egitekoak eta horien arduradunak).
- Abiarazte egutegia (kronograma eta une garrantzitsuak).




### 3.- Egiteko modua

HARROBtik HARROBira 2015eko martxotik uztaiera garatuko da ondoz ondoko hiru urratsetan:

- **1. urratsa:** Auzoko bertako eragileekin kontrastea (mapatzea, elkarrizketak).
- **2. urratsa:** Kontraste horretatik eratorritako eta beste leku batzuetan izandako antzeko esperientzien ezagutzatik eratorritako aukeren identifikazioa.
- **3. urratsa:** Lantaldeen bidez eta sorkuntzaketazako saioen bidez Harrobi plazan esku hartzeko proposamen bat edo hainbat diseinatzea.

Prozesu hau modu kolektiboan eta irekian garatuko da, eta eragile kopuru handienak eta askotarikoenak parte hartzea lortu nahi da hasieratik, **prozesuarekin identifikatuta eta interpelatuta senti daitezten, erantzukidetasunez**. Prozesuak, gainera, lor daitezkeen emaitzak identifikatu eta legitimatu nahi ditu, eta **talde bultzatzaile edo praktika komunitate** bat identifikatu eta elkartu nahi du etorkizunera begirako proiektu baten inguruan.

Hori horrela, lehenengo egitekoa izango da **modu aktiboenean parte hartzea gonbidatuko diren eragileen taldea identifikatzea**, horietako bakoitzean fase desberdinetan izango dituzten rolak zehaztea eta beste eragile batzuek parte hartu ahal izateko erabiliko ditugun beste mekanismo batzuk definitzea.



## 4.- ColaBoraBora

Bilbao Ekintza erakundeari proiektu hau garatzen laguntzen dio ColaBoraBora kooperatibak. Hain zuzen, eragile hori 2003az geroztik bizi da eta lan egiten du auzoan, giza garapen lokalaren ikuspegiak (gaur egun, Harrobi plazan bertan, WikiTokiren baitan).

ColaBoraBora kooperatibak **pertsonetan oinarritutako berrikuntza eta lankidetzak prozesuak diseinatzen eta errazten ditu**, baita erronka zehatzei aurre egiteko irtenbide praktikoak ere, hain justu ere, eraldatzaileak direnak eta balioa, inpaktua eta gizartearekiko itzultzera sortzen dutenak.

Kooperatibak **teknologia bigunen erabilera** oinarritzen du lana **eta beste harreman irekiago, horizontalago eta afektiboago batzuk errazten dituzte** aukera berriak aztertzen, bermatzen eta oinarritzen laguntzeko, honako alderdi hauei begira:

- Berrikuntza ekoizpen, gobernantza eta jabetza ereduetan, sare banatuen (P2P) estualditik eta komunaren aldeko apustutik abiatuta.
- Arlo eta sektore desberdinen arteko lankidetzak eta hibridazioa.
- Ekintzailertza eta gizarte ekonomiarako moduak.
- Herritarren ahalduntzea eta parte hartzea.
- Berrikuntza administrazioan, zerbitzuetan eta politika publikoetan.

Hori guztia gauzatzen da **aholkularitza, diseinu, sorkuntzakidetzak, laguntza eta prestakuntza zerbitzuetan** eta, betiere, taldean garatutako proiektuetan, besteak beste: praktika komunitateak, hala nola *Wikitoki*, *HONDARTZAN*, *meetcommons* edo *TRANSlab-Amarika*; *Goteo crowdfunding* sare soziala eta *GoteEuskadi* tokiko gunea abian jartzea; *Copylove* edo *Empresas del procomún* ikerketa kolektiboak; *DSS2016EU* Europako Kultur Hiriburuaren diseinua; *EUTOKIA* Gizarte Berrikuntzarako Zentroa martxan jartzea; eta gizarte komunikazioko eta komunitate garapeneko proiektuak, *Tod\*s a las huertas!*, *Emancipator Bubble* edo *Zure auzoko zaborgeografia* kasu.

## ***2. eranskina***

***HARROBITik HARROBIra-ri  
buruzko atariko diagnostikoa  
eta lehen iritziak  
Plazako zein auzoko  
zenbait eragileri egindako  
elkarrizketetan oinarrituta***

**20 orrialde**







atariko diagnostikoa  
eta lehen iritziak

**HARROBITik**

**HARROBIra**

2015eko ekainaren 16an

Txosten honen edukia, *HARROBITik HARROBIra* prozesutik eratorritzen diren gainerako materialen moduan, *Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da.



# **AURKIBIDEA**

## **0 Aitzinsolasa**

### **1 Eragileei eta haien harremanei buruz**

- 1.1\_Kategoria posible batzuk
- 1.2\_Koordinazio-beharra
- 1.3\_Eragile instituzionalei buruzko pertzepzioa
- 1.4\_Eragile ez-instituzionalen motei eta egoerari buruzko oharra
- 1.5\_Eragile historikoak + / vs. eragile berriak
- 1.6\_Han-hemengo eragileak
- 1.7\_Eragileen arteko lankidetzak
- 1.8\_Galdera batzuk
- 1.9\_Aukera batzuk
- 1.10\_Soziograma bat egitea

### **2 Auzoari buruz**

- 2.1\_Eragileen beraien pertzepzioa
- 2.2\_Jarduera-motari buruz
- 2.3\_Kultura-arragoa bat
- 2.4\_Espazio eskuragarriak

### **3 Harrobi plazari buruz**

- 3.1\_Ingurunearen ezaugarriak
- 3.2\_Eragile-motak
- 3.3\_Espazioen erabilera eta eskuragarritasuna
- 3.4\_Kontuan hartu beharreko gauzak
  - 3.4.a\_Lanerako eta zenbait jardueratarako espazioak
  - 3.4.b\_Eragile instituzionalen eta ez-instituzionalen arteko harremana
  - 3.4.c\_Beste kontu batzuk

### **4 Elkarrekin proiektu bat(zuk) egiteko aukerei buruz**

- 4.1\_Plazan ardatzuta
- 4.2\_Auzo osoari dagokionez
  - 4.2.a\_Ustezko aukera bat aprobetxatzea
  - 4.2.b\_Nola egin
    - Behar dena
    - Hasteko era posible bat
    - Planifikatzeari buruz
    - Ustezko aukera horri buruz
  - 4.2.c\_Eremu posibleak



## 0 Aitzinsolasa

Txosten hau lehen zirriborroa da *HARROBitik HARROBIra* gogoeta-prozesuaren barruan. Bilbao Ekintzak bultzatzen du eta ColaBoraBorari agindu zaio, **Harrobi plazaren inguruan, gizarte-berrikuntzako eta ekintzailetzako erakargune gisa, jarduteko aukerak definitzeko** asmoz. Horretarako, nagusiki plazaren inguruan baina auzoko gainerako aldeetan ere biltzen diren eragile eta baliabide guztiak metatzen ditu. Beraz, txostenak auzo osoari buruzko kontuei eta Harrobi plazako ingurunekeo espezifikoak direnei heltzen die.

Lehen zirriborro hau 2015eko apiriletik ekainera Harrobi plazarekin zerikusia duten eta gutxi gorabehera hango hurbileko ingurunean modu nabarmenean jarduten duten zenbait eragileri egindako elkarrizketetan oinarrituta egin da.

Hauei egin zaizkie elkarrizketak: **Ados Consulting, Agiantza, Aldauri, Auzo Factory Matiko, Bilbao Ekintza, Bilbao Historiko, Gaztaroa, Gizagune, Hargindegi, Harrobia, Bilbao Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako Taldeen Koordinatzailea, Novia Salcedo, Birgaitze Bulegoa, REAS Euskadi eta Synergy Matters.**

Elkarrizketen iraupena aldakorra izan da (105 minutu batez beste), eta gidoi ireki batean ardaztu dira. Besteak beste, alderdi hauek jorratu dira:

- Eragilearen eta ingurunearekin duen harremanaren aurkezpen laburra (kokatzeko).
- Eragilearen ikuspegia auzoari dagokionez.
- Eragilearen ikuspegia plazari dagokionez.
- Aukera zehatzak eta kontuan har litezkeen arazoak.
- Beste alderdi espezifiko batzuk, eragile bakoitzaren arabera.

Era berean, **beste pertsona batzuekin elkarrizketa informalak** eduki dira, **banaka**, hain plangintza egituraturik eduki gabe; horietatik kontuan hartu beharreko gaiak atera dira, hein handi batean subjektibotasunekin, sentsazioekin, norberaren esperientziekin eta abarrekin zerikusia dutenak.

Ondorioz, orri hauetan aurki daitekeena **auzoaren eta plazaren egoeraren atariko diagnostiko partziala da, baita lehen iritziak eta oharrak ere, esku-hartze posibleei begira**. Ondoko fase batean, ideia horiek goratu eta garatu egingo dira, lan-ildo eta proposamen zehatz bihurtzeko.

Ildo horretan, *Aitzinsolas* hau bukatzeko, garrantzitsua da argitzea **txostena ekarpenen eta iritzien arragoa-laburpena dela** eta batzuk orokorragoak eta beste batzuk partikularragoak izan daitezkeela. Beraz, elkarrizketatutako pertsonak ezin dira txosten honetan agertzen diren ondorioen erantzuletzat jo; aitzitik, izatekotan, horren azken erantzuleak ekarpen guztiak interpretatu eta antolatu ditugunok gara.





## 1.2\_Koordinazio-beharra

Aho batez (baina era desberdinetan), ikusi da **auzoan jarduten duten eragileen arteko KOORDINAZIO handiagoa** behar dela, **metatzen dituen zerbait, handik batera lan egin**, helburu eta estrategia partekatu bat ezarri eta hori lortzeko modu antolatuagoan lan egin ahal izateko.

Azken urteetan, **eragileen arteko deskoordinazioa egon da eta harreman indibidualizatu eta pribatuak ugaritu dira**, non erakundeak eta eragile ez-instituzionalak **banaturik** egon diren (handiekin, hoberen lotuta daudenekin, berritzaileenekin, setatsuenekin...).

Illo horretan, batez ere bi koordinazio-eragile edo -mekanismoen funtzioa planteatu da, baita beste eragile batzuk kontuan hartzea ere:

### 1. Birgaitze Bulegoa eta Mahai Komunitarioa, administraziotik.

> Mahaiari hauxe eskatzen zaio: **proaktibitate handiagoa, presentzia handiagoa auzoaren errealitatean, transmisio-uhalek eta katalizatzaile gisa funtzionatzea, auzora heltzeko harrera-espazioa izatea** (haren ikusgaitasuna, irisgarritasuna eta are kokapena ere zalantzan jarri ohi dira). Aurreko etapekin erkatuta, orain hein handi batean udalaren bulego teknikitzat jotzen da eta garrantzia, tamaina eta ekintza-gaitasuna galdu dituela uste da.

**Mahai Komunitarioa eta Talde Koordinatzailea, auzorako erreferentziako lan-espazio gisa**

**Nola ireki espazio horiek partaidetza, begirada eta dinamika berrietara?**

> Pentsatzen da mahaiaren parte hartzea hein handi batean erretorikoa dela, ez dela oso eraginkorra eta ez daukala benetako eraginik gero gauzatzen den horretan. Hori horrela izan zein ez, badirudi partaidetza-tresna horrekiko axolagabetasuna dagoela eta horrek eraginkortasuna kentzen diola.

**>>> Auzoan esku hartzeko eta parte hartzeko tresna horiei esanahia eta balioa berriz harraraztea, zentraltasun handiagoa eduki dezaten.**

### 2. Taldeen Koordinatzailea sozietate zibil antolatutik.

> Oso erreferentzia esanguratsua da auzoko bizitzan, alderdi askotan, elkarriketatutako eragile askorentzat, baina zenbait kasutan pentsatzen da **berriro definitu edo kokatu beharko litzatekeela helburuei, osaerari, funtzionamenduari** eta abarri **dagokienez** (Koordinatzailea bera horretaz jakitun da eta irekitzeko eta auzoko beste talde eta dinamika batzuekin elkarlanean aritzeko lan egiten du).

> Parte hartzera hurbildu ahal direnentzat irekiagoa dagoela ikusi behar da (horrek ez du esan nahi horrelakoa ez denik). Ordezkaritasuna delako gai konplexua ateratzen da: nor ordezkatzeko du edo ez du ordezkatzeko Koordinatzaileak? Era berean, uste da Koordinatzaileak hein handi batean "kontra" funtzionatu duela, eta



horrek bere izaera eta egiteko moduak markatu ditu. Beharrezkotzat irizten saio posizionamendu berri bat bilatzeari (horrek alderdi politiko eta instituzionalean ere aldaketak egitea ekartzen du).

> Beste kontu bat zera litzateke: **Koordinatzaileari esleitzen zaizkion funtzioetako batzuk beste mota bateko edo batzuetako eragileenak izan behar liratekeen aztertzea**, eragile horiek existitu zein ez. Zein eskumen eduki behar du edo ez du eduki behar Koordinatzaileak?

3. Badaude **beste koordinazio-talde batzuk**, interes zehatzetan oinarrituta: hezkuntza-eragileen koordinatzailea (Miribillako eskolatik deitua), 5. barrutiko eragile soziosanitarioak edo merkatari-elkarteak (elkarte ofiziala, baina baita 2 de Mayo edo Aretxaga ere).
4. **Beste interes-talde batzuk**, antolatuak egon zein ez, auzoan daudenak eta Koordinatzaileak ordezkaturak oso jarrera desberdinak dituztenak edo ezohiko moduetan ikustarazten dituztenak.

## 1.3\_Eragile instituzionalei buruzko pertzepzioa

**Erakundeen deskoordinazio eta lidergo-falta** kezkarri bat ikusten da. Auzoa estrategikoa da mundu guztiarentzat, baina gero hori ez da nabaritzen. Badago inbertsiorik, baina inbertsio hori ez dago lehenago egon den bezain lerrokatua edo koordinatua. Abandonua ez bada, immobilismoa, inertzia edo moteltzea sentitzen dira.

**Erakundeek auzoan dituzten presentzia eta pisua jaitsi egin dira azken urteetan.** Adibidez, Birgaitze Bulegoak tamaina eta funtzioak galdu ditu eta Bilbao Ekintzak, historikoki oso garrantzi nabarmena eduki duen eragile batek, auzoan zuen zuzeneko presentzia desagertu egin da.

**Gizarte-eragileekin eta interes-taldeekin erantzunkidetasunez eta partaidetzaz gauzatutako lidergo eta konpromiso instituzionalak**

Lidergo eta konpromiso instituzionalak eskatzen dira, herritarrekin erantzunkidetasunez eta partaidetzaz gauzatzen dena, gizarte-eragile eta interes-talde guztiekin.

**>>> Honako hauen mapaz berriz hausnartzea: politika publikoak / ekintzak / pertsonak / baliabideak.**

## 1.4\_Eragile ez-instituzionalen motei eta egoerari buruzko oharra

**Auzoa eragiletan aberatsa den testuingurua da, baina argi dago beste asko falta direla eta jende askok ez duela auzoa ezagutzen (oraindik estigmatizatuta dago).**

> Jarduketa-mota eta -eremu asko, baina gehienetan **zaurgarritasun-** eta **eskastasun-**egoeran (batez ere ekonomiari dagokionez).



## Ekintza-gaitasun eta kapital sinboliko eta sozial handiak

**BAINA ALDI BEREAN...**

**Eskastasun eta baliabide materialen urritasuna**

> **Kapital sozial eta sinbolikoaren eta kapital ekonomikoaren arteko desoreka.**

Gizarte-eragileak oso indartsuak dira pertzepzio sozialean eta testuinguruaren gaineko jarduketan eta inplikazioan, baina oso ahulak alderdi materialean.

> **Ondo-ondoan ipinitako bizikidetzak baina elkarren ezagutza eta elkarreragin urriak.**

Aukera gisa ikusten da **eragile ugari aldaketa- edo zalantza-une batean daudela eta berriro formulatzeko prest daudela**, nahiagatik edo beharragatik (banaka, baina baita taldean ere).

Gainera, atariko txosten hau egiteko elkarrizketa eta mapa egin zaizkien eragileez gain, elkarrizketetan kontuan hartu beharreko izen batzuk atera dira:

Miribilla eskola (eskolaren erabilerak eskola-orduetatik kanpo, eta eskolaz haraindi hezkuntza-jarduerak koordinatzeko mahaia), Kale Dor Kayico, Munduko Medikoak (etorkinekiko esku-hartze komunitarioko programa), Assalam Meskita Elkartea, Munduko Emakumeak, Bilbao Berrikuntza Factory (LEINN, *clusterak*, enpresak, taberna...), EKHI txanpona, Sarean, BakuVa, UPV-EHUko ikasle-egoitza, Hiria Kolektiboa, ALL, Emaus Bilbao, KideKoop, merkatari-elkartea, Atxake, 2 de Mayo elkarte, Etorkinekin Bat, KB Arquitectas, BlackBox Bilbao eta SupperStudio enpresak...

*Zerrenda hau ez da zientifikoa eta ez du zertan errealitate objektiborik ordezkatu. Ez zaio hori baino garrantzi handiagorik edo txikiagorik eman behar.*

## 1.5 Eragile historikoak + / vs. eragile berriak

Oreka konplexua auzoan jarduten duten eragile ugarien artean, instituzionalak zein ez-instituzionalak izan. Auzoan ibilbide luzea egin dutenen artean (esperientzia handia eta ezagutza kokatua dituzte, baina baita nekea eta "hamaikak eta bat ikusita daudelako" nolabaiteko sententzia ere), duela gutxi heldu diren beste batzuekin (energia ugari eta ikuspuntu berriak dituzte, baina baita nolabaiteko xalotasuna ere).

Eragile historikoek kapital sinbolikoa eta erlaziozkoa biltzen dute. Kasu batzuetan, zenbait kontzeptu, hala nola legitimitatea edo agintea, eragile batzuk beste batzuen gainetik jartzeko erabiltzen dira, auzoan nork har dezakeen esku eta nork ezin duen zehazteko. Horrek beste eragile batzuek jarduteko oztopo bat sortzen du.

Batzuetan, eragile berriek aurretik epaitu dituztela sentitzen dute testuingurura heldu eta lan egiten, parte hartzen saiatzen direnean (hori dela-eta, auzoa harreman-esparru gogortzat eta oso fiskalizatzailetzat jo dezakete). Horren ondorioz, baztertuak senti daitezke, urruntasuna, desadostasunak, mesfidantzak sortzen dira eta estereotipoak indartu egiten dira. **Horiek guztiak denen artean gainditu behar dira, eragile berriak auzoan lan egitera etortzea posiblea ez ezik alderdi guztientzako desiragarria ere izan dadin. ONGI ETORRI GUZTIOK!**



Horretarako, legitimitate-idea arazotsu hori birbanatu, desegin behar da, **elkar ezagutzeko nahitik abiatuta elkarrizketak hasteko**. Auzoarentzat komeni denari eta komeni ez denari buruzko elkarrizketak, hain sustraituak ez dauden baina konprometituak dauden eta bizigarri berria, bizkortasuna, ikuspegi berriak, bestelako iruditeriak, gaitasunak eta jarduteko moduak ekar ditzaketen beste eragile batzuk barne hartzeko.

>>> **Konpromisoari, sustraitzeari eta legitimitateari buruz ezarritako ideiez berriro hausnartzea.**

## 1.6\_Han-hemengo eragileak

**Kultura-aniztasunaren  
botere handia  
ez da garrantzitsutzat  
jotzen**

Jatorri desberdinetako eragileen arteko lotura-falta handia dago. Egitate bakanduez gain, esanguratsuak baina puntualak baitira, ez da kultura-aniztasunaren botere handia garrantzitsutzat jotzen. Ez dago elkarrizketarik, eta are gutxiago nahasketarik. Auzo berean bizi arren, ez dago bizikidetzarik.

Toki-eragileen inguruan ezjakintasuneko eta laguntza-jarrerako egoerak daude, baina gutxietan ezagutzen dute elkar, berdinetik berdinerara.

>>> **Harrera-, ikusgaitasun- eta erlazio-gailuez berriro hausnartzea.**

## 1.7\_Eragileen arteko lankidetzak

Oro har elkarrekin lan egiteak eta baliabideak partekatzeak denentzat onuragarria izan beharko lukeela pentsatzen den arren, kulturarekin eta ohiturekin zerikusia duten kontuek modu horretan lan egitea (edo horri askoz ere etekin handiagoa ateratzea) galarazten dute.

**ETXEKOTASUNETIK  
KONFIANTZA sortuz  
ANTOLAKETA bilatuz**

Programei eta baliabideei buruzko patrimonialitate-sentimendu bat dago, kulturaren eta ohituraren ondorioz ez ezik bizitza publikoaren gero eta instituzionalizazio handiagoaren ondorioz ere; beste arrazoi bat da eragileak gaur egun (gero eta maizago) eskastasunean eta eutsiezintasunean daudela eta, hori dela-eta, epe laburrean ardaztu behar dutela eta ezin dutela denborarik eman komuna dena eraikitzen (gainera ez baita hain erraza).

Ondorioz, **auzotasun- edo etxekotasun-harreman oso neurtuak gertatzen dira, gauzak egitea eta aurrera egitea eragozten dutenak. Bakoitza "bere gerran" egoten da eta abagunea ez galtzeko parte hartzen du zenbait harreman-espaziotan, elkarrekin aukerak eraikitzeko baino gehiago, bestearen lekuan ere jarriz (ez soilik norberaren egoeratik).**

>>> **Dauden harremanez berriro hausnartzea, eboluzionatzen saiatzeko:  
ETXEKOTASUNA > KONFIANTZA > ANTOLAKETA**





## 1.8 Galdera batzuk

**Nola gaintu** administrazioak eragileei, eragileek administrazioari eta eragileek elkarri dizkioten **beldur-mota eta -dosi desberdinak** (herstura, inertziak, mesfidantzak, ezjakintasuna)?

**Nola jarri jokoan historikoki metatutako "legitimitate" formala eta informala**, hori ez galtzeko eta, gainera, beste eragile batzuekin partekatzean ugaritzeko?

**Nola kudeatu eragile historikoen eta azaleratzen ari direnen arteko askotariko kapital-fluxuak?** Nola partekatu programak eta kapitalak atzera elikatzeko, eragileen jasagarritasuna ziurtatuz, osagarritasunak bultzatuz eta gainjartzeak saihestuz?

## 1.9 Aukera batzuk

**Elkar hobeto ezagutzeko eta lidergoak gehiago partekatzeko egoeratarantz** bideratzeko beharra ikusten da. Baina ez dago argi ez nola ez norengandik edo nortzuen artean.

### Elkar ezagutzea eta erakundeen eta gizarte-eragileen elkarrekiko konfiantza berrezartzea

Mitoak eta estereotipoak alderdi guztietatik hautsi behar dira eta **aurreiritzi gutxiagoko topaketa- eta elkarrizketa-espazioak** bilatu.

Kasu guztietan, **emakumeek ordezkaritza eta jendaurreko presentzia handiagoak** eduki behar dituzte (espazio publikoa, harremanetakoa eta erabakiak hartzekoa oso maskulinizatua dago).

**Eragile** instituzionalen eta sozietate zibilaren artean, ezarrita dauden eta azaleratzen ari diren eragileen artean **elkarrekiko konfiantza (berr)ezarri ahal den espazioak eta egoerak** sortzea. Konfiantzarik badago, beste harreman batzuk egon ahalko dira eta beste proiektu komun batzuk sortu ahalko dira.

### Gizarte-eragileek eragile instituzionalei eskatzen diotena:

- Lidergo erantzunkidea, edo behintzat elkarrizketa argi bat eta baliabide nahikoak eta ondo antolatuak dituen apustu bat.
- Sail eta erakunde arteko koordinazio askoz ere handiagoa.
- Harreman instituzionaleko, gobernamentuko eta partaidetzako beste eredu batzuk, elkarrizketan eta modu erantzunkidean partekatutako erabakietan oinarrituak.
- Hautagarritasuna deuseztatzea.
- Jadanik garatzen ari diren eta eragileek sortzen dituzten ekimenak ez instituzionalizatzea (berreginatzea eta izaera homogeneizatu batez hornitzea).
- Ekimen horiek baliabide nahikoez hornitzea (baita adierazleez eta kontrol-mekanismoez ere), administrazioenak beraienak diren ekimenekin egiten den bezala.
- Burokrazia txikiagoa eta errealitate konplexuetara egokitzeko gaitasun eta malgutasun handiagoak.



## 1.10 \_Soziograma bat egitea

Behin eta berriro aipatzen da **modu parte-hartzailean soziograma bat egiteko beharra (zentsu edo diagnostiko moduan); horren bidez, eragileak, baliabideak eta ekintzak identifikatuko lirateke, jakiteko nor den nor eta nork egiten duen zer.**

Soziogramak, identifikatzeko ez ezik, garrantzitsuena nabarmentzeko, harremanak (badaudenak eta egon litezkeenak), gatazkak, aukerak, etab. proposatzeko ere balio izan behar du.

Soziogramak honetarako lagungarria izan beharko luke: 1) egin litezkeen apustu kolektiboak eta elkarrekin lan egiteko bideak igartzeko; 2) garatu beharreko proiektu posibleetan kontuan izan behar diren hasierako faktoreak antolatzeke; eta 3) une oro eragile bakoitzaren rola adierazi eta ordenatzeko.

## 2 \_Auzoari buruz

### 2.1 \_Eragileen beraien pertzepzioa

Oro har, auzoari buruzko pertzepzio bipolarra dago (han bizi diren eragileen aldetik):

1. Leku bizia, erakargarria, askotarikoa, dinamikoa, aukerez betea.
2. Leku gogorra, estigmatizatua, garatzen bukatzen ez duena.

Auzorako irudi bat ez ezik **normaltasun-errealitate bat** ere eraiki behar da.

**Leku bizia,  
baina leku gogorra,  
oso biztanle  
higikorrak dituen**

Auzoko biztanleak oso hirikorrek dira. Auzo-kontzientzia bat sortu behar da, han bizi den jendea sustraitu (bakarrik bidez egon arren). **Iraupen- eta intentsitate-maila desberdinetako sustraitzeak.**

**Kide izateko eta harrotasunezko sentimendua** indartzeak kohesio, gizabide eta erantzunkidetasun handiagoak sortuko lituzke.

Arreta handiena jaso behar duten biztanleria-sektoreak:

- Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak.
- Bizitzera edo lan egitera datozen belaunaldi berriak; seme-alabak dituztenean geratzea lortu behar da (horri dagokionez eskaintza hobetzea).
- Migratzaileak, auzoa igarobide gisa soilik ikusi beharrean beren bizi-proiektua eraikitzeke lekutzat jo ahalko bailukete.
- Ekintzaileak eta ikasleak.



## 2.2\_Jarduera-motari buruz

**Auzoko gaur egungo jarduera, nagusiki, gizarte-ekintzarekin, sorketarekin eta sormenarekin, kultura-aniztasunarekin, merkataritza txikiarekin, ostalaritzarekin eta gaueko aisialdiarekin lotzen da.** Hori da nahi dugun jarduera-posizionamendua? Kontuotako batean edo horietako baten hibridazioan jarri behar da arreta?

### **Zein posizionamendu nahi da auzoarentzat jarduerari eta ekoizpen-eremuei dagokienez?**

Zenbait alderdiren ustez, auzoan **laguntza eta gizarte-larrialdiko funtzioak dituzten eragileen gehiegizko kontzentrazioa** dago (Bilboko beste auzo batzuekin erkatuta), eta horrek auzoa estigmatizatu egiten du, oso irudi edo egoera zehatz baterantz polarizatzen du eta arazoa barrurantz, norberarena den zerbait balitz bezala, ikusi eta bizi egiten du.

**Oso esanguratsua da eragile elkartuek interes komunak garatzeko duten zeregina.** Mahai Komunitarioaren eta Koordinatzailearen kasuez haraindi (jadanik aipatu baititugu), Bilbao Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako merkatarri-elkartea, 2 de Mayo merkatarri-elkartea, Sarean (espazioa Mariaren Bihotza plazan), WikiToki (Harrobi plazan), Aretxagan (Atxake) hasten ari diren harremanen antolaketa, etab. aipa ditzakegu.

Garrantzitsua da jarduera-motaren aniztasunari eustea, **ez degradazio- ez gentrifikazio-prozesurik ez gertatzeko.**

Era berean, jende gehiago maiz eta normaltasunez etortzeaz gain (beste profil batzuk erakarri, dibertsifikatu), **auzotik irteteko eta geure burua kanpoalderantz erakusteko gaitasun handiagoa lortu nahi da.**

## 2.3\_Kultura-arragoa bat

**Kultura-aniztasuna eta -artekotasuna da gure auzoetako aprobetxatu gabeko balio nagusia.** Bilbok biztanleria homogeen samarra duen arren, gure auzoetan jatorri askotako eta askotako pertsonak gurutzatzen dira, ezin konta ahala bizi-esperientziak, hizkuntzak, nahiak, gaitasunak eta abar dituztenak. Hori, nahiz eta askotan gatazka-iturritzat jo, gure ahalmen handiena izango litzateke, argi eta garbi, bideratzen jakingo bagenu. Horretarako, lehenengo eta behin **migratzaileen balioa benetan azpimarratu behar da.** Hainbeste dute ekartzeko (beste bizi- eta kultura-ikuspegi bat eta beste premia batzuk, geure egoeraz beranduegi izan baino lehen berriro hausnartzen lagundu beharko liguketenak)... eta hain kasu gutxi egiten diegu.



## 2.4 Espazio eskuragarriak

**Espazio publikoaren zati handi bat baditu erabilera kalifikatu edo estereotipatuak. Modu formal edo informalean, nolabaiteko nortasuna edo erabilerak esleitzen zaizkio.**

Gure auzoen merkataritza- eta bizi-bihotza gogorki samar okupatua eta jendeztatua dago. **Arazoren bat badago, litekeena da kuantitatibo baino kualitatiboagoa izatea, jarduera-eskaintza egokitzeari eta sofistikatzeari buruzko kontua** (adibide hauek atera dira: izoztuen denda, bidaiaria-agentzia, albaitaria, etxez etxeko zerbitzuak gehitzea). Gure auzoetako beste gune batzuk, aldiz, ez dute jarduerarik.

**Ez dago aukera-espazio handirik, eta, badagoen lekuetan, jarduerak, erabiltzeko edo sartzeko moduak berriro definitu beharko liriateke.** Auzoko bizitza oso banatua da eta nolabaiteko zentraltasuna hartzen du plaza batzuetan. Auzoko arterien bidez loturiko plazen (nodoen) sistema horri esker, **auzoa P2P sare banatutzat** jo daiteke. Txosten honetako 4. puntuan Harrobi plazaren kasua jorratuko dugu zehatz-mehatz.

Funtsezkotzat hartzen da **merkataritza- eta lanbide-jarduera kalearen parean kualitatiboki garatzea**. Hala ere, argi eta garbi bereizi behar dira, alde batetik, merkataritza- eta ostalaritza-jarduerak eta, bestetik, bulego-erabilerako espazioak, mugimendu txikiagoa (baina espezializatuagoa eta dibertsifikatuagoa) sortzen baitute. Adierazgarria da batzuetan jarduera berri batek, erabilera berri batek bakarrik gune bateko bizitza nabarmen eraldatzea.

Bide nagusia San Frantzisko da, eta gauza asko daude egiteko kale guztian. Tarte batzuetan oso jarduera eskasa dago, eta beste batzuetan oso balio murrizta ekartzen duten jardueren gehiegizko kontzentrazioa dago.

Mariaren Bihotza plazak eta hango inguruneak auzoko bizitza sozialerako espazio nagusia izaten jarraitzen du, bai haren zentraltasun eta tamainagatik, bai biltzen dituen ekipamenduengatik. Berriro definitzen bukatu behar da: egokitze-plana bukatu; ataripeetako lonjei erabilerak eman (hazietan eskaintzen diren zerbitzu batzuk sendotuz); antzinako Berreginen Museo espazioari beste erabilera bat eman eta hondarrekin eta plazekin lotu; auzo-etxeen beste kudeaketa- eta erabilera-eredu bat planteatu. Datozen hilabeteetan espaloiak handituz, Sarean (ateneoa-taberna-jatetxea) irekiz eta Klaretiarren eraikinaren proiektu osoa abian jarriz (gizarteratze- eta laneratze-ibilbide osoa + bestelako zerbitzuak + parrokia) zer ondorio lortzen den ikusi beharko da.

Auzoko gainerako tokietan lonja erabilgarri ugari daude (pribatuak eta publikoak, azken horiek Udal Etxebizitzak-ek eta Alokabidek kudeatuak); horietako asko eraikin eraiki berrietan daude, baina kasu askotan inbertsio handia egin behar da sartzeko, eta hori ez dator bat sar litezkeen aukerekin. Beraz, **auzoari bizitasuna kentzen dioten lonja hutsen parke handi bat** daukagu. **Administrazio arduradunek planen bati ekin beharko liokete horri dagokionez. Ez litzateke jabetza publikoko lonjarik erabili gabe egon behar!**

Epe ertainean, **intermodalaren gaia** nola konpontzen den ikusi beharko litzateke, **lubakia desagertzeak auzoko bizitzari eta hiriko gainerako tokiekiko loturari nola eragiten dien ikusteko**. Eta ikusi beharko da nola konpontzen den mugako espazioa (Bailen eta Zabala), hor aukera-espazio garrantzitsuak zabalduko dira-eta.



## 3\_Harrobi plazari buruz

### 3.1\_Ingurunearen ezaugarriak

Harrobi plaza eremuko nodo nagusietako bat da. **Espazio berreskuratu hori, azken urteetan asko aldatu baita**, berrurbanizatu egin da eta haren inguruneetan babes ofizialeko etxebizitzak altxatu dira, baita Harrobia Fundazioaren eraikina ere; antzinako Dispentsarioko beste udal-ekipamendu batzuk ere badaude han (duela urte batzuetatik, polizia-etxea, eta auzoko enpleguari eta ekintzaitzari loturik orobat, Bilbao Ekintzaren bidez eta garatu dituen jardueren bidez).

**Hala ere, plaza gutxi erabiltzen den espazioa da, bizia falta zaio.** Espazio horrek erabilera anitzekoa izan nahi du, baina azkenean erabilera zailtzen duten oztopoez beteta dago (hiri-altzariak, zuhaitzak, eskailera-mailak, barandak...) eta ia ez dago espazio argitsurik. Baina, beharbada, gehiegi ez erabiltzea kultura- edo ohitura-kontua izan daiteke. Era berean, baliteke polizia han egoteak presentzia- eta erabilera-motak nolabait baldintzatzea.

Bestalde, Harrobia eraikinak, metro erabilgarri produktibo asko gehitu dituen arren, ikusizko horma bat ekarri du Miribillari dagokionez, muga bai fisiko bai sinbolikoa ezarri baitu (gaur egun, ikastolaren erabiltzaileak goiko aldetik sartzen dira, ez plazatik; beraz, egunero horra joaten diren pertsonen fluxuak ez du plaza zeharkatzen).

**Plazako jarduera guztiak bulegokoak dira eta etxe barruan garatzen dira** (ez dago merkataritza- edo ostalaritza-lokalik —agian plaza ez da horretarako ingurune aproposa, baina hausnartu egin behar da—). Gaztaroaren eta Hargindegiren jarduerak badute erabiltzaile-kopuru handia (jarduera batzuek plaza erabiltzen dute une jakin batzuetan —Hargindegiren kale-udalekuak—).

### 3.2\_Eragile-motak

Plaza birmoldatzeak —auzoko bizitzarako toki esanguratsuagoa bihurtu baitu— eragile berriak erakarri ditu, eta horiek bazeudenekin bat egin dute.

Horrela, plazaren inguruan soilik, eragile hauek daude:

- **Hargindegi edo Gaztaroa:** gizarte- eta lan-eremuarekin zerikusia duten gaiez arduratzen dira espezifikoki, baita beste laguntza- eta gizarteratze-prozesu batzuek ere.
- **Harrobia-IbarEzkerra ikastola:** prestakuntza-maila eta -ikastaro asko ematen ditu, funtsean kirolaren eta teknologien eremuan.
- **Eragile profesional ugarik antolatzen dituzten edo horiek hartzen dituzten zenbait espazio edo proiektu** —horietako asko ekintzaitza-fasean edo lehen jarduera-urteetan daude—: funtsean gizarte-berrikuntzarekin, kulturarekin eta sormen-industriekin dute zerikusia (Auzo Factory, WikiToki, Hi!). Proiektu horiek udal-jabetzako espazioetan kokatu dira, zuzenean Bilbao Ekintzatik kudeatuta edo beste erakunde batzuekin (Novia Salcedo fundazioa edo WikiToki) hitzartuta.



**Horrela, plazako inguruneak nolabaiteko koherentzia edo logika informala dauka jarduera-motari dagokionez**, eta honako hauek barne hartzen ditu: gizarte, hezkuntza eta kulturakoa, prestakuntza-, laguntza- eta ekintzailtza-prozesuetan ardaztua; horrelakoetan, berrikuntza- eta testuinguru-izaerak zeregin garrantzitsua betetzen du.

**Gizarte, hezkuntza eta kulturakoa, prestakuntza-, laguntza- eta ekintzailtza-prozesuetan ardaztua; horrelakoetan, berrikuntza- eta testuinguru-izaerak zeregin garrantzitsua betetzen du**

Hori auzoko gainerako tokien ezaugarria ere bada eta plazan bertan biltzen da modu esanguratsuan. Gainera, ezaugarri interesgarri bat dauka, alegia, plazaren inguruan **auzoko betiko eragileak beste eragile berri batzuekin** elkartzen direla; **denak dinamiko samarrak dira jarduera-profilari dagokionez eta, hasiera batean, eragileen artean elkarlanean aritzeko irekita daude.**

### **3.3 Espazioen erabilera eta eskuragarritasuna**

Plazako eraikinetako espazio fisikoaren eskuragarritasunari dagokionez, ikusten da espazio batzuek erabilera intentsiboa dutela eta beste batzuk eskuragarri samar daudela. Interesgarria litzateke batzuen eta besteen arteko fluxuak eta harremanak sortzeko aukera.

Lehen hurbilketa batean, aukera-espazioak igartzen dira, hala nola:

- **Harrobia eraikineko espazioak (ikastola):** beheko solairua (igerilekua), kalearen parean, espazio irekia, beirateak, erabilera anitzekoa; 5. solairua, espazio argitsua eraikinaren L osoan (zerbitzuak ez daude hasita); konpartimentuetan zatitutako beste espazio batzuk (nagusiki 2. solairuan).

Espazio libreez gain, ikastolaren funtzionamendu normalaren barruan astelehenetik larunbatera etengabe zabalik egoten da 08:00etatik 21:00etara, espazio hornituak daude, eta plazako edo auzoko gainerako eragileekin adostutako bestelako erabilerak eduki ahalko lituzkete (hori guztia nola egin zehaztu beharko litzateke).

- **Udalaren espazioak:** plazako beste ertza udalaren jabetzakoa da: antzinako Dispentsarioa eta Harrobia eraikin berriko 4 solairuak (Harrobia fundazioak udalari saldu baitizkio edo berehala salduko baitizkio). Bi eraikin horietan zenbait alderditan ekintzailtzarekin zerikusia daukaten jarduerak garatzen dira, askotariko ikuspuntuetatik eta eragile desberdinek kudeatuta (ez dago ez kohesiorik ez koordinaziorik haien artean). Gainera, espazio horretan, Harrobian, erabilera anitzeko espazio bat dago kalearen parean, zeinari etekin handiagoa atera ahalko litzaiokeen, baita 4. solairua ere, hiru bulego-espazio argitsu dituena (gutxi gorabehera, 100 m bakoitza —egiaztatu gabeko kopurua—). Eta, epe laburrean, polizia-etxeak okupatzen duen espazioa ere (beheko solairua eta 1. solairua) eskuragarri egon liteke.
- **Gaztaroak eta Hargindegik** ere prestakuntzarako espazio homologatuak dauzkate. Kasu horretan, erabilera intentsibokoak dira; beraz, hobeto koordinatu edo erabilera ahalbidetzen duten lankidetzaproiektuak antolatu beharko lirateke.



## 3.4\_Kontuan hartu beharreko gauzak

### 3.4.a\_Lanerako eta zenbait jardueratarako espazioak

Lan-espazioak behar dira, baina ez soilik lan-espazioak, baizik eta baita **eragileen arteko harremanetarako beste esparru-mota batzuk** ere. Harremanak lantzea, bitartekaritza-lanak egitea eta baterako ahalmenak garatzea.

**Lan-espazioak eta erabilera anitzekoak beharrezkoak dira, baina batez ere eragileen arteko harremanetarako beste esparru bat da funtsezkoa**

**Erabilera anitzeko espazioak behar dira**, erabiltzeko espazioak, beste batzuk, adibidez, auzo-etxeenak, osatzen dituztenak, **kudeaketa- eta erabilera-eredu irekiagoa, malguagoa eta erantzunkideagoa** dutenak, **ez hain burokratizatu** (ordutegiak, jardueramotak, etab.). Jarduera jarraiturik ez duten espazioak eta aldizkakotasun altua ez dutenak beste erabilera batzuetarako hipotekatu behar dira.

**Udal-jabetzako espazioei (Dispentsarioa eta Hi!)** buruz lan egin beharko litzateke — plazako proiektu osoaren barruan edo modu espezifikoan—; **izan ere, gainera, horietan zuzenean ekintzailetzari lotutako jarduerak egiten dira, Bilbao Ekintzaren eskumenekoak**. Espazio horiek elkarren aldamenean daude; horietan antzeko jarduerak garatzen dira, eragile askok elkarren arteko harreman pertsonalak daukate eta une batzuk partekatzen dituzte. Dena den, aldi berean, hurbiltasuna eta etxekotasuna gorabehera, ia ez dago harremanik (ezta WikiTokiko eragileen eta AuzoFactoryko 3. eta 4. solairuen artean ere). **Hesi fisiko eta mental hori gainditzea eta proiektu kohesionatuago bat edo proiektu komun bat ere lortzeko urratsak ematea** (tartean dauden eragileen aniztasuna onartuz) berez HARROBItik HARROBIra prozesuaren barruko proiektu bat izan liteke.

### 3.4.b\_Eragile instituzionalen eta ez-instituzionalen arteko harremana

**Helburuak bat etorerrarazteko eta baliabideak batzeko, proiektua egitura baino garrantzitsuagoa da**

Auzoko gainerako tokietan bezala, loturiko eskumenak dituzten eragile guztien esku-hartzea eta konpromisoa behar dira (sail artean eta erakunde artean), modu koordinatuan. Helburuak bat etorerrarazteko eta baliabideak batzeko, hasiera batean kasuan kasuko proiektuaren izaera ekiteko antolaketa-egitura baino garrantzitsuagoa da (azken hori proiektura egokitu beharko da).

Ikusten da **erakundeek inplikaturik eta presente egon behar dutela, baina espazioak, proiektuak eta dinamikak instituzionalizatu, burokratizatu eta ondare bihurtu gabe**. Harreman- eta gobernamentu-eredu berriak planteatzen dira, helburu komun bat daukaten eragileen eta eredu pluraltasuna kontuan hartzen dutenak (energiak eta interesak bat etorrazten dituen izendatzaile komuneko espazio hori bilatzea).



Horri buruzko galdera batzuk: zer ekartzen du eragile bakoitzak? Nola kudeatu batera? Badago bitarteko eredurik Matikoko AuzoFactoryren eta Harrobi plazakoa izan litekeenaren artean? Zein baliabide eta inplikazio du Bilbao Ekintzak kasu bakoitzean? Eta gainerako eragileek? Zer ipintzen du bakoitzak? Beharrezkoa da udalaren ikuspegi hegemonikoa edo espazio hibridoagoak, mistoak, askotariko iruditeriak eta inplikazioak dituztenak, sor daitezke?

Adibidez, Matikori dagokionez: Bilbao Ekintzako berezko langileak daude, AuzoFactory abian jartzeaz eta aktibatzeaz arduratzen direnak; bedel, harrera eta mantentze teknikoko funtzioak betetzen dituzten langileak daude, 09:00etatik 21:00etara; jarduerak antolatzeko aurrekontu txikiak eskuratzeko aukera dago, Bilbao Ekintzako barne-prozedurei jarraituz; eta zerbitzuak emateko kontratu bat dago, *start-up*ak bizkortzeko gaietarako enpresa aholkulari batekin sinatua (hori, Kabirekiko hitzarmenaren barruan). Aldiz, udala hain presente ez dagoen beste proiektu batzuetan, distantzia edo aiherga gertatzen da, eta inplikazio-maila eta -aukerak desberdinak eta askoz ere murriztagoak dira (erakundeetatik eta erakundeekin harremanetan egoteko beste aukera batzuk aztertu beharko lirateke).

### 3.4.c Beste kontu batzuk

**Plazaren inguruan gertatzen dena espezializatzeaz ala ez espezializatzeaz hausnartzea.** Zerbait zehatzen aldeko apustua egin nahi da? Zer, badauden alderdien artean? Zer izan daiteke falta?

Plazan dauden **eragile** oso dinamikoen **osagarritasuna aprobetxatzea eta haren balioa azpimarratzea** (haien geruzak eta esperientzia- eta gaitasun-mailak).

**Eragile bakoitzaren inplikazio-mailaren garrantzi handia, bereziki bere proiektuarekin ez ezik, plazarekin eta auzoarekin ere.**

Eragile bakoitzaren inplikazio-mailaren garrantzi handia aipatzen da, bereziki bere proiektuarekin ez ezik, plazarekin eta auzoarekin ere. Plazan kokatutako proiektuek beren konpromisoak bete behar dituzte dauden lekuari dagokionez, zeren eta ahalmen material zein sinboliko handiko espazioak okupatzen ari baitira (metro karratuengatik, kokapenagatik, etab.). **Eragileek hemen kokatuta egoteko apustu argi eta irmoa egin behar dute**

eta kokatzen diren testuinguruari balio-ekarmen garrantzitsua egin behar diote. **AUZOAREKIN KONPROMISOA HARTZEN DUTENEN ALDEKO APUSTUA EGITEA.** Eragile horietako batzuek, beren tamainagatik, kapital sinbolikoagatik edo dinamismoagatik, **eragile erakargarri** (berriak) izan behar dute **auzoan (ez daude hemen beren jardueragatik soilik, baizik eta baita beren erakartzeko gaitasunagatik ere)**. Horrek batez ere esan nahi gai du horiei denbora eskaini behar dietela eta, besteak beste, dauden lan-dinamiketan eta -taldeetan zuzenean inplikatu behar dutela.

**Pertsonak igaro beharra.** Antolaketaren (edo antolaketarik ezaren) mailari buruzko jarrera desberdinak daude eta ez dago argi pertsona-fluxu hori proiektu koherente batetik ala jarduera-batura soiletik etorri behar den (jarduerak edozein direla ere).



## 4\_Elkarrekin proiektu bat(zuk) egiteko aukerei buruz

### 4.1. Plazan ardaztuta

> **PLAZA KONBERGENTZIA-GUNETZAT JOTZEA** (baina auzoko eta haraindiko beste alde batzuk baztertu gabe).

> **IZENDATZAILE KOMUNETAKO TXIKIENA** (eta beste faktore garrantzitsu batzuk) **IDENTIFIKATZEA**.

> **INTERESAK, BEHARRAK ETA GAITASUNAK TRUKATZEA**, banakakoetatik kolektiboetarantz proiektatzeko.

Berrikuntzak, ekintzaitzak eta gizarte-ekonomiak eragile askorentzako toki komunak dirudite. Alderdi soziala eta kulturala edo sormenezkoa nahastea aukeratzat jotzen da; gainera, auzoan euskara eta beste hizkuntza eta kultura asko daude elkarrekin (plazatik, nagusiki, Gaztaroa eta Hargindegi dauden haiekin harremanetan).

**Erraza den horretatik hastea, “auzotarren erkidegoaren” ideiatik (harremanetatik alderdi juridikora): elkar agurtzea / elkar ezagutzea / elkarri gatza eskatzea / auzotarren bilerak / etxekotasun handiagoa / konfiantza / baliabideak partekatzea / ekimenak batera garatzea.**

Hasteko, bi gauza egin litezke:

1. **Plazaren inguruan soziograma txiki bat egitea** (ikusi 1.10\_ puntua).
2. **Komuna dena antolatzeaz arduratzen den pertsona bat (host partekatua)** edukitzea; koordinazio-lanak egin, aukerak eta proiektuak identifikatu, batera kudeatu ahal diren baliabideak katalogatu, plaza osorik hartuta ikusgai bihurtu eta haren balioa azpimarratu beharko du.

## Erraza den horretatik hastea, AUZOTARREN ERKIDEGOAREN ideiatik

**Modu naturalean gertatzen diren harremanetatik horien kalifikazio batera pasatu** beharko litzateke. Harreman pertsonaletatik (oinarrizkoak eta funtsezkoak) haraindi joatea eta erakundeen arteko harremanak garatzea, modu kontzienteagoan eta artikulatuagoan. Estrukurala denerantz jotzea pertsonala galdu gabe. **Probak edo esperimentuak eginez joateko** beharra planteatzen da, baliabideak partekatzeko aukeretan eta kooperazioan aurrera egiteko asmoz.

**Plazako espazioan bertan pentsatzea** (ez eragileetan edo lokaletan). Plaza aisialdirako leku dinamikoago eta biztanledun gisa, non jarduerak garatu ahal diren eta zeina proposamenak probatzeko balio duen (herritarren *living laba*).

Epe laburretik epe luzera arte aintzat hartzea (lehentasunen ordena) **errentagarritasun-, ikaskuntza-** eta **posizionamendu-**kontuetan.



## 4.2. Auzo osoari dagokionez

### 4.2.a. Ustezko aukera bat aprobetxatzea

**Aukera-denbora posible batean sartzan ari gara (egoera politiko berriagatik eta eragile askoren berriro kokatzeko beharragatik).** Hartzen ez den aukera galdu egiten da, eta auzoak jadanik ezin du aukera gehiagorik galdu.

**Erakundeen apustu argi eta irmoa eskatzen da (politikekin, neurriekin eta aurrekontuekin eta eskumenak dituzten erakundeen arteko benetako batasunarekin).** Esku-hartzea eta aurrekontu-zuzkidura itzulkin soziala zein ekonomikoa dituen inbertsioztat jo behar da.

Eragile askorentzat, **lidergoak (behintzat sinbolikoa), modu erantzunkidean gauzatua, udalean egon beharko luke, alderdi politikoan.** M24ren ostean, auzoaren testuinguruari zein han bizi diren eragileei buruz asko dakiten pertsonak dauzkan udal-gobernu bat sartu da, bereziki enpleguari eta gizarte-gaiei dagokienez.

**Lidergo instituzionalaren ideiak ez du esan nahi proiektua instituzionala denik eta logika instituzionaleri erantzun behar dienik. Ekosistemaren berezko proiektua da.** Espazio-esparru berri bat sortu behar da, ohiko logikei erantzuten ez diena. Denok noizean behin hartzen ditugun balazta-jarrerak utzi egin behar dira. Egin behar dena egin behar da, multzorako komenigarria dena.

### 4.2.b. Nola egin

#### Behar dena

- > Elkarrizketa instituzional argia (sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa) + aurretiko jarrera eta irudimena, teknokratikoaz haraindi (hautagarritasunik gabe, gardentasunarekin).
- > Eskumen-, legitimitate- eta ordezkartza-espazioa definitzea.
- > Plan eta kontakizun komun bat (pertsonaliza daitekeena).
- > Helburu eta adierazle komunak identifikatzea.
- > Inbertsio publikoa (behintzat inbertsio pribatuak erakartzeko).
- > Konfiantza gizarte-eragileengan, haien esperientzian, haien lanean, haien sareetan (baina orobat eragile-mapan, gainjartzeetan, interes-gatazketan, egoetan, desadostasunetan, etab. ordena ipintzea ere).
- > Falta diren eragileak batzea (erakargarriak).
- > Auzoarekin (auzoan geratzeko) konpromisoa hartzen dutenak babestea.
- > Konfiantzatik abiatuta erlazionatzen diren eragileak, rola eta eremuak ahalik eta argien dauzkatena (helburu produktiboak betetzea bezain garrantzitsua da prozesua eta norberaren taldea zaintzea).
- > Harreman- eta gobernamentu erantzunkideak.
- > Herritarrek prozesu osoan parte hartzeko mekanismoak.
- > Oso kudeaketa ona.
- > Eskalatzeko eta errepikatze aukera.



## Hasteko era posible bat

- > Prospekzioa egin eta ikuspuntua sortzea.
- > Tiraderetan dauden planak edo txostenak berrikustea.
- > Balio duena berreskuratzea. Gurpila gurpila berriro ez asmatzea.
- > Hutsetik ez hastea, baina orain arte gertatutakora ere ez lerratzea.
- > Soziograma bat egitea.
- > Lurzoru komuna + banakako jarrera: balio- eta interes-mapa, kode etiko partekatua eta zergatik eta zertarako den identifikatzea.
- > Plan komunitario berri baten partaidetzazko diseinua.**

## Planifikatzeari buruz:

- > Solteko ekintzetatik (txikiak edo enblematikoak) koordinatuetara.
- > Sail arteko eta erakunde arteko planteamendua (adib., Bilbao Ekintzaren, Berdintasun eta Lankidetzaren eta Udal Etxebizitzak-en arteko koordinazioa edo administrazioetako gizarte-ekintzako eta enpleguko arloen arteko koordinazioa).
- > Billar-partida bat, karanboletara jolasten. Ez pentsatu geure bolan sartzean, baizik eta partida osoan.
- > Kontuz ibiltzea “zuhaitz berri batek” gainerakoak haztea ez galarazteko eta horiei itzalik ez egiteko.
- > Behintzat, proiektu batzuk erkidegoak jakinda garatzea (ez egitateak burututa).
- > Auzoan eragin positiboa edukitzeko adina masa kritikoa duten planak eta ekintzak bilatzea.
- > Planifikazio-prozesuari arreta eskaintzearen jadanik gertatzen ari dena ez alboratzea. Dagoena, gertatzen ari diren gauza zehatzak, zaintzea. Funtsezko eragileak, hala nola Birgaitze Bulegoa edo Talde Koordinatzailea, suspertzea eta horiei esanahi berria ematea. Gauza txiki solte asko elkarri lotu sarea sortzeko (2 de Mayo, Arategizar, Aretxaga, EKHI txanpona eta horrelako kasuak aipatu dira).
- > Azaleratzen ari denaren eta planifikatuta dagoenaren arteko oreka.

## Ustezko aukera horri buruz

- > Non sortzen da aukera? Nork sortzen du? Nola antolatzen dira hasierako baldintza eta faktoreak aukera hori sor dadin?
- > Zer da gauza kolektibo hori? Batera sor daiteke bozeto-hazi bat? Behintzat joko zabaltzeko edo askotariko jendea ideia baten inguruan biltzeko balio duen zerbait. Besteekin espekulatzeko, beste leku batera begiratzeko beharra, beste gauza batzuk ikusi edo imajinatzeke helburuarekin.
- > Aukera horri ekiteko planak eta baliabideak identifikatzea. Europako proiektuak aipatzen dira, Urban eta Interreg modukoak. Udalean badago Europako programak koordinatzen dituen organoak?



## 4.2.c Eremu posibleak

- > **GIZARTE-ZERBITZUETATIK ETA HARAINDI PROIEKTATZEA.**
- > **AUZOARENTZAKO ETA HANGO ERAGILEENTZAKO BESTE ETORKIZUN BAT IMAJINATZEA.**
- > **BIR- (BADAGOENAZ HAUSNARTZEA).**
- > **BENETAN AUZOA EGIN NAHI DUTENEN (AUZOAREKIN KONPROMISOA HARTZEN DUTENEN) ALDEKO APUSTUA EGITEA.**

Kontuan hartuta agertoki eta egoera berriak daudela (ez koitunturalak, baizik eta estrukturalak), behin eta berriro irteten da **BERRIRO egiteko beharra —BIR-: birdefinitu/birbihurtu/birsortu/birziklatu...** planei eta proiektuei zein tartean dauden eragileei dagokienez).

Auzoari dagokionez, aukerak sortzen dira kulturartekotasunaren, garapen komunitarioaren, gizarte-ekonomiaren modu berrien, hiri-berroneratzearen, ekojasangarritasunaren, kulturaren oinarritutako esku-hartze eta bitartekaritza sozialaren, pertsonengan ardaztutako diseinuaren, gizarte-teknologiaren eta abarren inguruan. Era berean, oso era espezifikoan aipatzen dira enpleguari eta ekintzaitzari buruzkoa, enplegua sortzeko eredu berriak, laneratze-enpresentzako nitxo berriak, gizarteratze- eta laneratze-ibilbide osoak. Zaintzen, zahartze aktiboaren, bizitza osasuntsuaren eta abarren lanbide-familia berrietan ere pentsatzen da.

**Gizarte ekonomia klabeetan  
pentsatu testuingurua,  
ekojasangarritasuna,  
garapen komunitarioa,  
inguru permakulturala,  
trantsiziozko auzoa**

Kontzeptu emankorrak planteatzen dira, esate baterako, trantsizioko eskualdeak, permakultura, ekonomia zirkularra, elkarlanekoa, P2P, ondasun komunarena...

**Nolabaiteko espezializazioa bilatzen bada, proiektuaren % 70 osatuko duen corea identifikatu behar da.**

**Koordinazioa eta garapena: HARROBItik HARROBIra**

ColaBoraBora Koop  
WikiToki - Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbo  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
Tel.: 944 158 861

### ***3. eranskina***

**A) Aurreko txostenatik ataratako lehen Indar-idea batzuk, *HARROBItik HARROBIra* elkarrekin sortzeko saioetan erreferentzia gisa erabilitako materiala**

**B) Elkarrekin sortzeko saioen parte hartzeko gida helburu eta metodologiekin**

**14 orrialde + 4 orrialde**





# Indar-ideia batzuk *HARROBitik HARROBIra* prozesuaren aukerez hausnartzen laguntzeko

Erreferentziako materiala  
ekainaren 23a eta 30a bitartean  
Hi! Plaza espazioan egindako elkarrekin sortzeko  
lantegietako parte-hartzaileentzat

Idea guztiak *HARROBitik HARROBIra* prozesuaren lehen fasean,  
2015eko apiriletik ekainera, egindako elkarrizketa pertsonaletatik  
atera dira.

Agiri honen edukia, *HARROBitik HARROBIra* prozesutik eratorritzen diren gainerako materialen moduan,  
*Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da



**Harrobi plazatik  
edo plazaren inguruan  
eta han dauden eragileetatik  
edo haien inguruan  
GIZARTE-BERRIKUNTZARI  
ETA EKINTZAILETZARI  
buruzko proposamenak  
identifikatzea  
(auzo guztiarekin batera)**

...

**Badagoenaz  
hausnartzea,  
aukera berriak imajinatzuz,  
BESTE IKUSPEGI, INTERES  
ETA BALIABIDE BATZUEN  
NAHASKETAN ETA BATUKETAN  
OINARRITUTA**

...

**Ingurunean dauden eragileak  
eta baliabideak  
(eta beste berri batzuk)  
identifikatzea,  
helburu hauekin:**

- a) elkarri buruzko ezagutza sortzeko**
- b) lankidetzaz-aukerak irekitzeko**
- c) komunitate-ideia garatzeko**





# **ZER NAHI DA AUZOARENTZAT JARDUERA ETA EREMU PRODUKTIBOEI DAGOKIENEZ?**

...

**Auzoko  
egungo jarduera  
honetan ardazten da:**

- > gizarte-ekintza**
- > sorketa eta sormena**
- > industria tradizional txikiak**
- > merkataritza txikia**
- > ostalaritza**
- > gaueko aisialdia**

...

**GIZARTE LARRIALDIKO  
LAGUNTZA-FUNTZIOAK  
DITUZTEN ERAGILEEN  
GEHIEGIZKO  
KONTZENTRAZIOA**

**GIZARTE-ZERBITZUETATIK  
ETA GIZARTE-BAZTERKETATIK  
HARAINDI PROIEKTATZEA**



**AUZOARENTZAKO  
ETA HANGO ERAGILEENTZAKO  
BESTE ETORKIZUN BAT  
BERRIRO  
IMAJINATZEA  
(BADAGOENAZ  
HAUSNARTZEA)**

**BIR-definitu  
BIR-bihurtu  
BIR-sortu  
BIR-ziklatu**

...

**BESTE LEKU BATZUETAN  
GERTATZEN DEN  
ETA HEMEN GERTA  
LITEKEEN GAUZARIK?  
ZER ETA NOLA?**

...

**ESKALATZEKO  
ETA ERREPIKATZEKO  
AUKERA**



## **TRANTSIZIOKO ESKUALDEAK GIZARTE-MERKATUA TOKIKO GIZA GARAPENA PERMAKULTURA**

### **Ekonomia**

- >elkarlanekoa**
- > zirkularra**
- > P2P**
- > ondasun komunarena**

...

### **ZENBAIT ALDERDI KONBINATZEA**

- > soziala**
- > ekonomikoa**
- > kulturala**
- > jasangarria**



**KULTURA...  
BELAUNALDI...  
DIZIPLINA...  
HIZKUNTZA...  
...ANITZEKOA  
...ARTEKOA  
...GAINDIKOA**

...

**Jarduera-eremu eta  
gizarte-, hezkuntza- eta kultura-  
proiektu mota  
berriak/zaharrak,  
honelako prozesuetan  
ardaztuak:**

- > prestakuntzakoak**
- > laguntzakoak**
- > ekintzailetzakoak**

**testuingurua kontuan hartuta**

...

- > Enplegua sortzeko eredu  
berriak**
- > Laneratze-enpresentzako  
ibilbide eta nitxo berriak**
- > Lanbide-familia berriak**



## **OSAGARRITASUN-, INTERDEPENDENTZIA- ETA DIBERTSIFIKAZIO-HARREMANAK**

**> HAUEN ARTEAN <**

**eragile-motak**

**publikoa / pribatua**

**finkatua / goraka ari dena**

**testuingurukoa / kanpokoa**

**ekonomikoa / soziala / kulturala**

...

**Jarduera-eremu  
posibleak**

**> zaintzak**

**> zahartze aktiboa**

**> bizitza osasuntsua**

**> pertsonengan ardaztutako diseinua**

**> gizarte-teknologiak**

**> hiri-berroneratzea**

**> ekojasangarria**

**> gizarte-merkatua**

**> bidezko merkataritza**

**> kontsumo-taldeak**

**> gatazken konponketa**

**> kultura-bitartekaritza**

**> kultura anitzekoa eta kultura artekoa**



## **Kudeaketa- eta erabilera-ereduak**

- + irekiak  
malguak  
erantzunkideak**
- burokratizatuak  
estereotipatuak**

**ELKAR HOBETO  
EZAGUTZEA ETA  
LIDERGOAK GEHIAGO  
PARTEKATZEA**

...

**Eragileen artean  
ELKARREKIKO KONFIANTZA  
(BERR)EZARRI  
ahal den  
espazioak edo egoerak**

...

**ERRAZA DEN  
HORRETATIK  
HASTEA**



**1) apustu kolektiboak  
eta interes komunak  
igartzea**

**2) hasierako faktoreak  
antolatzea**

**3) eragileak/rolak  
adierazi eta ordenatzea**

...

**IZENDATZAILE  
KOMUNETAKO TXIKIENA  
IDENTIFIKATZEA**

**helburu eta  
adierazle  
komunak**

...

**> INTERESAK  
> BEHARRAK  
> GAITASUNAK  
TRUKATZEA**

**alderdi indibidualetik,  
kolektiborantz  
proiektatzeko**



**AUZOA  
EGIN NAHI DUTENEN  
(AUZOAREKIN KONPROMISOA  
HARTZEN DUTENEN)  
ALDEKO  
APUSTUAEGITEA**

**ez da espazioa,  
testuingurua baizik**

...

**>> Auzora etortzea  
> Auzora itzultzea  
< Auzotik joatea**

...

**Falta diren  
eragileak batzea  
ERAKARGARRIAK  
ERAKARTZAILEAK**

...

**Hauei buruz ezarritako ideiez  
berriro hausnartzea:**

**> KONPROMISOA  
> SUSTRAITZEA  
> LEGITIMITATEA**





**Honelako gailuez  
berriro hausnartzea:**

- > HARRERAKOAK**
- > IKUSGAITASUNEKOAK**
- > HARREMANETAKOAK**

...

**AUZOTARREN  
ERKIDEGO  
harremanetatik  
alderdi juridikora**

- > Elkar agurtzea**
- > Elkar ezagutzea**
- > Elkarri gatza eskatzea**
- > Auzotarren bilerak**
- > Etxekotasun handiagoa**
- > Konfiantza**
- > Baliabideak partekatzea**
- > Baterako ekimenak**

...

- > KOMUNITATEAREN IDEIA**
- > KUDEAKETA KOLEKTIBOA**
- > BALIABIDE KOMUNAK**



**ETXEKOTASUNETIK**

**KONFIANTZA**

**sortuz**

**ANTOLAKETA**

**bilatuz**


...

**ESPAZIOARI ETA ERABILEREI BURUZ**

- > **Ikastolako espazioak**
- > **Udal-espazioak**
- > **Espazio hitzartuak**
- > **Kalearen pareko espazioak**
- > **Plantako espazioak**
- > **Co-working espazioak**
- > **Erabilera anitzeko espazioak**
- > **Espazio homologatuak**
- > **Espazio okupatuak**
- > **Espazio eskuragarriak**
- > **Plaza bera**
- > **Eskailerak eta arkua**
- > **Beste lonja batzuk auzo guztian**
- > **Miribillaren eta itsasadarraren artean**

...

- > **Ordutegiak / erabilera-motak**
- > **Homogeneoa / Heterogeneoa**
- > **Beste erabilera posible batzuk**



**Plazaren inguruan  
gertatzen dena  
ESPEZIALIZATZEAZ  
ALA EZ ESPEZIALIZATZEAZ  
hausnartzea**

...

**PLAZA  
KONBERGENTZIA-  
EREMU GISA  
auzoko eta haraindiko  
beste alde batzuk  
baztertu gabe**



**AUZOA  
P2P  
SARE BANATU  
GISA**

...

**ESPAZIO PUBLIKOARI  
ESANAHI BERRIA EMATEA  
formalki edo informalki  
jadanik esleitutako edo  
estereotipatutako  
erabileren eta nortasunen  
aurrean**

...

**PERTSONA-FLUXU  
JARRAITU ETA  
NORMALIZATUA  
EGOTEA  
LORTZEA**

...

***Koordinazioa eta garapena: HARROBItik HARROBIra***

*ColaBoraBora Koop  
WikiToki - Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbao  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
Tel.: 944 158 861*



parte hartzeko gida

# ***HARROBI i HARROBIra*** **Elkarrekin sortzeko saioak**

- > Saioak ekainaren 23an, 24an, 29an eta 30ean izango dira
- > Bakoitzak 3 ordu iraungo du (16:00etatik 19:00etara)
- > Lan egiteko lekua Hi!-ko beheko solairua da, Harrobi plazako 4.z-an
- > Gizarte-sareetako etiketa: #harrobira

## **1.\_Sarrera**

*HARROBI*tik *HARROBIra* ColaBoraBorak Bilbao Ekintzarentzat garatutako gogoeta-prozesua da, **Harrobi plazaren** inguruan, **gizarte-berrikuntzako eta ekintzailetzako erakargune gisa**. Prozesuaren zati gisa, elkarrekin sortzeko lantegi batzuk egingo dira, taldeka imajinatzeko eta proposatzeko zer nahiko genukeen plazaren inguruan eta, hedaduraz, auzoan gertatzea.

Agiri honen helburua parte-hartzaileoi saioen helburua zein zuengandik espero duguna argitzea da, baita erabiliko dugun metodologia laburki azaldu ere egin. Edozein galdera edukiz gero, jarri harremanetan Ricardo Antónek: [ricardo@colaborabora.org](mailto:ricardo@colaborabora.org) | 659 964 873.

## **2.\_Elkarrekin sortzeko saioen helburuak**

1. Harrobi plazaren eta hango eragileen artean **litezkeen ideiak eta proiektuak identifikatzea** (auzo guztia ahaztu gabe). Badagoenaz hausnartzean datza, baina beste ikuspegi, interes eta baliabide batzuen nahasketan eta batuketan oinarrituta **aukera berriak imajinatzuz**.
2. **Ingurunean badauden eragileak eta baliabideak** (eta hel litezkeen beste berri batzuk) **identifikatzea**, helburu hauekin:
  - a) elkarri buruzko ezagutza sortzeko, b) lankidetzak irekitzeko, c) komunitate-ideia garatzeko.



### 3.\_Zer eskatzen dizuegu?

> **Irakurri erantsi dizuegun informazioa aldez aurretik:** parte hartzeko gida hau + Ideia indartsuei buruzko agiria + *HARROBItik HARROBI*ra prozesuaren izaera eta helburuak azaltzen dituen atariko dosierra

> **Parte hartu modu proaktiboan** elkarrekin sortzeko lantegian kasu bakoitzean adostutako egunean, 16:00etatik 19:00etara.

Eskatzen dizuegu **10 minutu lehenago (15:50)** heltzeko, orduan hasten garela ziurtatzeko. Ezinbestekoa da denbora guztia (3 orduak) geratu ahal izatea, lana modu taldeka planteatzen baita.

Hiru ordu bizi izango dira, etengabe lan egingo dugu-eta. Etorri energiarekin!

> **Egin idatzizko ebaluazio labor bat ondoren.** Oso sinplea, 1 edo 2 folio gehienez, iritziak, azpimarratu beharreko ideiak, aparteko ekarpenak, inplika daitezkeen eragileak, etab. barne hartuz. Txosten txiki hori ahalik eta lasterren helarazi behar diguzue, esperientzia oraindik freskoa duzunean (1-5 egun).

### 4.\_Elkarrekin sortzeko saioen metodologiaren deskribapena

> Elkarrekin sortzeko 4 saioetan lan-metodologia bera erabiliko da, baina dinamikak eta materialak saioz saio egokitu ahalko dira.

> 4 talde desberdin, mota askotako 6 edo 8 eragilez osatuak, iragarri dira. Ikuspegi heterogeneotasuna, batuketa eta gurutzaketa bilatu dira (esparru orokor baten barruan, alegia, gizarte-berrikuntza eta ekintzailtza).

> Ateratzen diren materialez txosten bat egingo da, eta haren edukiak *HARROBItik HARROBI*ra gogoeta-prozesuko proposamenak eta ondorioak prestatzen lagunduko du. Gainera, txosten hori amaierako txostenaren eranskin publiko gisa agertuko da.

#### HAS GAITEZEN

> **15:50 – 16:00. Parte-hartzaileak heltzea.**

> **16:00 – 16:10. Ongietorria / Hasierako hitzaldia / Bilera kokatzea.**

#### ROBOT-ERRETRATUAK

> **16:10 – 16:55. Pertsonaiak aurkeztu eta sortzea.**

Parte-hartzaileen artean aurkeztuko gara eta parte hartzen egon litezkeen beste eragile batzuk aipatuko dira. Horrela, elkarrekin soziograma txiki bat egingo dugu.

#### Aldiak eta moduak:

- **5 minutu: ariketaren azalpena.**
- **35 minutu: nor zara zu?** Hasiera batean bikoteka lan egingo da, pertsona batek bestea taldean aurkeztuko du. 15 minutu bikoteka hitz egiteko eta beste pertsona baten fitxa diseinatzeko + 10 minutu partekatzekeo.



- **15 minutu: noren hutsunea sentitzen duzu?** Bigarren atalean, eragile bakoitzak, banaka, fitxa berri bat diseinatuko du. Oraingoan, prozesu honetan ez dagoen baina egon beharko lukeen (edozein motatako) beste eragile bat jaso beharko du. 5 minutu pertsonaia imajinatzeko eta fitxa prestatzeko + 10 minutu partekatzeko.

Fitxan informazio honek agertu beharko du:

#### **Nor zara?**

- Eragilearen marrazki-erretratua.
- Izena.
- Lana.
- Zaletasuna.
- Trebea zaren hori.
- Bilatzen ari zaren hori.

#### **Testuingurura hurbiltzeko hiru galdera:**

- Zer da zuretzat gizarte-berrikuntza?
- Zer-nolako harremana daukazu auzoarekin?
- Zer nahiko zenuke plaza honetan gertatzea?

**ADI!** Fitxan jaso behar den informazioa zehatza eta sintetikoa da.

## **PROIEKTATU ETA PROBATU**

### **> 16:55 – 18:10. Ideien eta proiektuen garapena.**

Gizarte-berrikuntzari eta ekintzailetzari dagokienez plazaren inguruan edo han dauden eragileak aintzat hartuz gara litezkeen ideia-proiektu batzuk sortuko dira. Horretarako, kontuan izan lehen irakurri duzun informazioan, lan-espazioko hormetan dauden elementuak eta, batez ere, zeure interesak eta esperientziak.

Gogoratu proposamenek kontu hauetako batean edo batzuetan jarri behar dutela arreta:

1. **Jarduera-eremu eta proiektu-mota** desberdinak, gizarte-berrikuntzaren eta ekintzailetzaren inguruan (auzoan jadanik gertatzen ari diren edo gerta litezkeen gauzetan oinarrituta).
2. **Garatzeko testuingurua:** Harrobi plazaren inguruan edo plazatik eta auzo guztiarekin lotuta.
3. **Harreman berriak**, publikoak zein pribatuak, eta testuinguruko eragile- eta erabiltzaile-mota guztien artekoak, sortzeko aukeraz hausnartzea.
4. **Prozesuarekin bat egin lezaketen eragile berriak** proposatzea (eragile publiko eta pribatuak, badaudenak edo testuinguruaz kanpokoak, tokikoak / estatukoak / nazioartekoak).
5. Kontuan hartu beharrekoak: **komunitate-ideia, eragileen arteko harremanak, baliabideen kudeaketa kolektiboa.**
6. Ez ahaztu proiektu orok barne hartu beharko lituzkeen **alderdiak: soziala / ekonomikoa / kulturala / jasangarria.**



### **Aldiak eta moduak:**

- 10 minutu jarduera azaltzeko.
- 10 minutu espazioan paseatzeko, eskuragarri dagoen informazio guztia ikusteko (elementuak behatu edo gaineratzeko).
- 10 minutu **lehen ideia** bat planteatzeko; **idatziz partekatu behar da** gainerakoek ekarpenak egin ahal izan ditzaten. Deskribatu ideia paragrafo batean, A3 orri batean. Modu laburrean eta hitz gutxitan, idazkera ona erabiliz (hobeto MAIUSKULAZ); marrazki edo eskema bat gehitu daiteke.
- 15 minutu **elkarrekin sortzeko txandarako** (2 minutu aldaketa bakoitzeko). Ideiak zeure eskuetatik pasatzen direnean, egin ekarpen positiboak, aukerak batu eta irekitzen dituztenak (bai oso gauza zehatz edo praktikoak, bai ideiarik zoro eta disruptiboak).
- 20 minutu **ideia-proiektuaren** fitxa prestatzeko. Ekarpen guztiak jasotakoan, zeure ideia-proiektua landu beharko duzu (A3 fitxa). Planteatu nahi duzuna aukeratzeko unea da; sistematikoa, argia eta sintetikoa izan behar duzu.
- 10 minutu partekatze (tituluak aurkezteko, minutu 1 proiektu bakoitzeko).

**ADI!** Ariketa egitean, bai zure ideia aurkezteko bai besteenei ekarpenak egiteko, ariketak ezartzen dituen premisez hausnartuz tratatzen zarela sentitzen baduzu... ahaztu eman dizkizugun premisak! Eta ekarpenak egiteko erabili intuizioa, nahia, zeure beharrak... Erabateko askatasunarekin!

**> 18:10 – 18:20. Hautatu proiektuak (aukeratu guztietatik 2).**

**> 18:20 – 18:50. Nola egingo dugu?**

Prototipo edo ekintza-plan txiki bat proposatu behar da hautatutako proiektuak probatzeko. Benetan proba egin behar da eta nola funtziona lezaketen ikusi. Konparatu garapenean inplikaturik egon daitezkeen eragileak eta amaierako erabiltzaileak.

### **Aldiak eta moduak:**

- 20 minutu planteatzeko nola probatuko edo abian jarriko litzatekeen proiektu bakoitza. Zer-nolakoa izango litzateke proba? Zein baliabide beharko litzateke? Zein eragilek inplikatu beharko luke? Zer egin beharko litzateke lehenengo eta behin? Nor konbentzitu beharko genuke? (A3 fitxa).
- 10 minutu proiektuak partekatze (5 minutu proiektu bakoitzeko).

Bi talde sortuko dira eta 2 proiektu bozkatuenetan oinarrituta egingo da lan (proiektuaren arduradunak hori lantzen den taldekoa izan beharko du, besteei hobeto azaldu ahal izateko).

Taldearen helburua da proposatzea nola jar litekeen abian proiektua, baina prozesuan jatorrizko ideia aldatzeko edo hobetzeko proposamenak sartu ahalko dira. Horretarako, post-itak erabiliko dira (proposamen bat post-it bakoitzeko).

**ADI!** Baliabideak egoteak edo ez egoteak ez du geldiarazten duen aldagaia izan behar. Ahalik eta modu errazenean, posibilitistenean eta eraginkorrean pentsatu behar da. Badaukagunaz edo lortzen erraza denaz egin behar da.

## **PUNTU ETA JARRAITU**

**> 18:50 – 19:00. Amaiera / Feedback-txostena gogoraraztea / Bukaerako hitzaldia.>**



# ***4. eranskina***

***HARROBIA elkarrekin sortzen***

**Talde inteligentziaz abiatuz  
Harrobi Plazaren inguruan dauden  
eragile/ baliabide/ aukerari  
hurbilketa bat**

**30 orrialde**





# ***HARROBIA elkarrekin***

**Elkarrekin sortzeko eta taldean prototipatzeko saioetan Harrobi plazaren inguruan sorturiko eragileetarako, baliabideetarako eta aukeretarako hurbilketa bat**

**elkar (berriro) ezagutzea eta taldeka (elkarri buruz) hausnartzea**

ColaBoraBora - Bilbo, 2015/08/18

Agiri honen edukia, *HARROBItik HARROBIra* prozesutik eratortzen diren gainerako materialen moduan, *Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da.



## 1. \_Elkarrekin sortzeko saioak kokatzen

*HARROBI*tik *HARROBI*ra lan-prozesuaren barruan, lan-fase nagusietako bat plazaren ingurunearekin, auzoarekin edo askotariko lan-eremuekin nolabaiteko zerikusia duten zenbait eragilerekin elkarrekin sortzeko saio batzuk egitea izan da.

### 1.1. \_Ideiak, proiektuak, eragileak, baliabideak

Saio horien helburua ideiak elkarlanean imajinatzen eta proposatzen saiatzea eta mapa mentalak eta prototipo hasiberriak sortuz joatea zen. Horretarako, aldi berean bi kontu jorratu ziren:

1. Harrobi plazaren eta hango eragileen artean **litezkeen ideiak eta proiektuak identifikatzea** (auzo guztia ahaztu gabe). Badagoenaz hausnartzean zetzan, baina aniztasunean eta beste ikuspegi, interes eta baliabide batzuen nahasketan eta batuketan oinarrituta aukera berriak imajinatuz. Ez zen espero ideia garatuak sortzerik, baizik eta lehen asmoen zirriborroak sortzea.
2. **Ingurunean badauden eragileak eta errekurtsuak** (eta hel litezkeen beste berri batzuk) **identifikatzea**, helburu hauekin: a) elkarri buruzko ezagutza sortzea, b) lankidetzak irekitzea, c) komunitate-idea garatzea.



## 1.2. Non eta nola

Elkarrekin sortzeko saioak ekainaren 23an, 24an, 29an eta 30ean garatu dira, 16:00etatik 19:00etara, *Hi!* guneko beheko solairuan, Harrobi plazan bertan. Espazioak berak murgiltzeko balio zuen, parte-hartzaileei gaian pentsatzen eta ardatzen laguntzen zieten estimuluak eskaintzen baitzizkien. **Espazioak eboluzionatu egiten zuten eta informazio gehiagoz betetzen zen, egiten ziren saioen arabera.**

ColaBoraBora arduratzen zen saioak dinamizatzeaz, **ideiagintza eta lan kolektiboko metodo sinpleen** bidez, alderdi ludikoaren eta produktiboaren arteko orekari eusten saiatuz. Parte-hartzaileei alde aurretik informazioa ematen zitzaientzen, hain zuzen ere: *HARROBITik HARROBIra* aurkezten zuten dossier labur bat, aurretik egindako elkarrizketetatik ateratako indar-ideien zerrenda bat eta partaidetza-fitxa bat, elkarrekin sortzeko saioen edukia eta helburua zehatz-mehatz azaltzen zituena (material horiek agiri honen 1. eta 3. eranskinak osatzen dute). Ondoren, parte-hartzaileei saioaren ebaluazio labur bat egiteko eskatzen zitzaientzen, ekarpen eta iritzi osagarriak eman zitzaientzen.



### 1.3. Emaitzak

Saio horien ondorioz, ziurtasunak baino gehiago seinaleak eduki ditugu, proposamen zehatzak baino gehiago, zirriborroak. Gutxi gorabeherako ideiak plazaren litezkeen erabilerei buruz, garatu beharreko espezializazio-eremuei eta lan-ildoei buruz, batera egin beharreko proiektuei buruz, etab. Batez ere, helburua **alderdi kolektiboaren oinarriak ezartzea** zen, eta, gainera, **pertsonen eta gauzen buruzko zantzu argiagoak dauzkagu**. Gainerako dokumentuetako informazioarekin gurutzatzean, lan egiten jarraitzeko lehen ekintza-plana zehaztuko dute.

Txostenaren zati handienera pasatu baino lehen, laburbilduz, zortzi ideia-talde aurreratuko ditugu, argien agertu diren gakoak biltzen dituztenak:

**1. Berrikuntzaren iturria (disruptiboarena ere) gure inguruan dago.** Badagoen, egiten ari garen horretan jarri behar dugu arreta eta beste leku batetik begiratu behar dugu, kalifikatu edo azpimarratzeko. Ezin dugu jarduera-eremurik aukera-jardueratzat jo benetako eragileek babesten ez badute. Bultzatu nahi denak, aktibatuzko, horrelako proposamenekin konpromisoa hartu duten eragile erakargarriak eduki beharko ditu. Beraien lan-dinamikaren esparrutik hasiera batean ezagutza ekartzeko, baliabideak mugiarazteko eta proiektua iraunarazteko gai diren eragileak.

**2. Jarduera-eremu gisa SOZIALA + BERDEA + SORMENEZKOA + IKT gurutzatzea nabarmentzen da,** eremu hauen inguruan: bizitza aktibo eta osasuntsua; gizarte-elkarbizitza eta -kohesioa, elikadura-, energia-, ekonomia-subiranotasuna...; kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna; hirigintza eta mugikortasun jasangarri eta inklusiboa.

- 3. Proposatzen denak —gaietan espezifikoa izateaz edo eremu produktiboan ardazteaz gain— parte-hartzailea, irekia eta inklusiboa izan behar du.**  
*Auzotarrekin zuzenean erlazionatzea (auzoan pentsatuz, ez bakarrik plazan).  
Parte hartu ohi ez dutenen partaidetza bilatzea (kasu askotan arrazoia horretarako ipintzen zaizkien oztopo esplizituak edo implizituak dira). Hezkuntza- eta prestakuntza-alderdiari garrantzia ematea (bai ingurune formaletan bai informaletan).*
- 4. Ikuspegi ekoSISTEMIKO batekin planifikatu eta jardutea.** *Proiektu orokorrak —izendatzaile komunitateko txikienetik ezartzen denak— koherentzia eduki behar du edukiari eta kontakizunari dagokienez, baina proiektu desberdin eta autonomo ugariz osatuta egon daiteke, baldin eta modu interdependentean elkar atzera elikatzen badute.*
- 5. Elkar ezagutzea, erlazionatzea, partekatzea, elkarlanean aritzea.** *Ikuspegi ekosistemikoa eragileek beraiek integratutako zerbait izate aldera, eragileek hobeto ezagutu behar dute elkar (nork zer egiten duen jakin, eragileen eta baliabideen direktorioa eduki) eta harremanak, trukeak, ikaskuntza partekatuak, ekimen zehatzetan lankidetzak... ezarri behar dira. Hori optimizatzeko, garrantzitsua da host-funtzioa, eragileen arteko metatzaile-dinamizatzailearena, zaintzea, herritarren, gizarte-eragileen, enpresen eta erakundeen profil desberdinetan arreta jarritz.*
- 6. Ideietatik ekintzara pasatzea. Baliabide gutxi eskatzen dituzten prototipo eta ideia errazetatik hasi.** *Egin nahi duen jendea biltzea, praktikatik. Gutxieneko baliabideak eta azpiegiturak edukitzea. Bitartekaritza, dinamizazioari eta errazteari garrantzia ematea. Proiektu zehatzetarako deialdi publikoak egitea (zabaltzeko eta ez gheztifikatzeko ahalegina egin). Dinamismoa jardueran, egunero zerbait gertatzen da (lehen erroka: plazara 100 pertsona, auzokoak eta auzoaz kanpokoak, erakartzea). Prestakuntza-, praktika- eta truke-programak auzoko erakunde eta enprekin (elkarren artean, nazioartean...).*
- 7. Espazioa erabiltzeko eta han esku hartzeko modu jasangarri eta inklusiboak buruz.** *Plazaren inguruko jarduerak bistaratzeko, seinalatze edo erakusteko moduetan pentsatzea. Ikusi, ulertu, balioetsi, zaindu egiten dena...  
Plaza inguratzen duten espazioen (espazio hutsak eta gunek hilak) erabilera pentsatzea, baina baita plazan ere, erabilera anitzeko, topaketarako, bizitzarako espazio publiko gisa. Plazan jadanik gertatzen dena behatuz hastea (dirudiena baino gauza gehiago gertatzen dira).  
Plazarako, eskailerarako eta ingurunerako hirigintza jasangarri eta inklusiboko irtenbideetan pentsatzea (espazioak mapatzea, nazioarteko lehiaketa, pop-up proposamenak...).*
- 8. Kultura demokratia ulertzeko eta garatzeko modu oso gisa. Sorketa banakako eta taldeko eraldaketarako elementu gisa.** *Arteak, harreman eta subjektibotasun berriak ekoizteko. Kulturen, hizkuntzen eta mintzairen ugaritasuna aberastasuntzat eta ondasun komuntzat jotzea eta horiek kudeatzearen eta eguneroko bizitzan haien balioa azpimarratzearen konplexutasunaren erroka aurre egitea.*





## 2. Pertsonei buruz

Elkarrekin sortzeko saioen lehen atalak eragileek elkar ezagutzea eta prozesuko beste parte-hartzaile posible batzuk aipatzea zuen helburu. Horretarako, bikoteka hitz egiten zen eta informazio hau jasotzen zuten fitxa batzuk egiten ziren: nor zaren, zein trebetasun daukazu, zer-nolako harremana duzun auzoarekin, zer den zuretzat gizarte-berrikuntza eta zer nahiko zenuke plazaren inguruan gertatzea. Soziograma txiki eta informal bat egiteko modu bat.

### 2.1. Saio honetan parte hartu dutenak

Natalia, Laura, Fernando, Paciencia, Ane, Ane, Eduardo, Mikel, Marisa, Fernando, Marta, Asis, Guille, Mixel, Borja, Iván, Begoña, Iker, Bernart, Sergio, María, Yolanda, María del Carmen, Nerea, Javier, Alex, Txabi, Karmele, Arantxa, Iratxe, Georges, Haizea. Guztira, 32 pertsona (8ko taldetan), **askotariko profil osagarriak gurutzatzeko** asmoz, elkar ezagutzen zuten eta elkar ezagutzen ez zuten pertsonen artean, testuinguruarekiko esperientzia eta hurbilketa desberdinak eta eremu profesional desberdinak. Batez ere, auzoan bizi diren edo lan egiten duten pertsonak, baina baita kanpoko zenbait pertsona ere. Administrazio pertsona batzuk, baina nagusiki esku-hartze sozialaren, ekintzailetzaren eta enpleguaren, kulturaren eta sormenaren, diseinuaren, teknologien, hezkuntzaren, arkitekturaren eta abarren eremuetako gizarte-erakundeekin edo enprekin zerikusia daukaten eragileak.

**Asmoetako bat zen plazan garatu ahalko denaren zuzeneko eragina jaso dezaketen edo horretan inplikaturik egon daitezkeen pertsonak (nagusiki eremu profesional eta produktiboari dagokionez) hasieratik sorreran parte hartzea, beren burua onartua ikusteko eta prozesuarekin eta emaitzarekin nolabaiteko konplizitatea edukitzeko.**

Egia da profilak are gehiago dibertsifikatu eta zabaldu ahal zirela (horregatik sartu zen beste batzuk aipatzeko aukera hori: auzotarrak, etorkinak, merkatariak, aktibistak, langabeak, gremio tradizionalak, politikariak, inbertsiogileak, poliziak, nazioarteko adituak...). Hala ere, pentsatu dugu hori geroko fase batean izan daitekeela egokiagoa, proposamen zehatzago bat edo batzuk landu ahal direnean; herritarrengana ekimen zehatzugabeegi batekin ez jotzeko, nahasia gerta litekeelako edo gero prozesu honen bidez bete ezin litezkeen itxaropenak sortuko liratekeelako. Nolanahi ere, funtsezkoa da geroko faseetan fase honetan ordezkari txikiak eduki duten kolektiboak modu zehatzagoan sartzea (nagusiki, **kultura anitzeko profilen, auzotarren eta dendarien presentzia handiagoa** behar dela errepikatu dute batez ere dagoeneko parte hartu dutenek).



## 2.2. Pertsoneri buruzko ideia batzuk

Pertsonen hausnartuta, fitxetan irten ziren eta *HARROBItik HARROBIra* prozesuaren garapenean pentsatzen jarraitzerakoan esanguratsuak iruditzen zaizkigun ideia batzuk jasoko ditugu.

- **Denbora entzuten eta hitz egiten ematea.**
- **Ekimena zabaltzea, parte hartzera animatzea,** egitea bera bezain garrantzitsua da. Zenbat eta jende gutxiago ezagutu, orduan eta gehiago zabaltzen ari da taldea (garrantzitsua da pertsona berriei harrera ona egitea, partaide direla senti dezaten eta gera daitezen).
- **Inklusioa eta aniztasuna maximizatzea** = Pertsona desberdinak, antzeko zer baitetan lan egiten > Gauza diferenteak sor ditzakete >>
- **Begiradak gurutzatzea.** Auzoa, haren idiosinkrasia eta historia ezagutzen duten pertsonak heldu berriekin, aurreiritzi gutxiago baitituzte eta kanpotik esperientziak baitakartzate, inplikatzea.
- **Gauzak egiten dituen jendea.** Makerrak, mainatsuak, gauzak eragiteaz gozaten duten pertsona ausartak. Ideietatik ekintzara. Proba eta errakuntza. Gauzak egitea, bistaratzea, ospatzea, partekatzea, hobetzea.




- **Mendekoen zentraltasuna.** Eskuarki ekimenen erabiltzaile edo hartzaile pasibo gisa soilik begiratzen dugunongan (haurrak, adinekoak, migratzaileak, egoera zaurgarrian dauden beste pertsona batzuk...) arreta jartzea eta protagonismoa ematea. Auzokoak proposamenak egiteko eta gauzatzeko subjektu aktibo gisa, ez esku hartzeko subjektu pasibo gisa. Auzokoak modu zabalean barne hartzea, ez soilik haien ordezkari antolatua kontuan izanik. Fokua zabaltzea. Zein ideia sortuko litzateke, adibidez, haurrei, erretirodunei eta iraupen luzeko langabeei elkarrekin lan eginaraziko bagenie? Eta eskastasunetik eta urritasunetik baliabideak maximizatuz bizitzera, ezerezetik biderkatzera ohituta dauden pertsonak bilduko bagenitu?
- **Hezkuntza-ingurunea funtsezkoa da beste etorkizun posible baterako bidea emateko.** Gelatik ingurunera, ingurunetik gelara. Irakasleak inplikatzeko, gehiegizko zama ekarri gabe programak curriculumera gehitzea erraztea.
- **Pertsona proaktiboak** eta aurrez prestatuak zaintzea, gauza askoren lotura baitira (ez daitezela ahitu, baina, era berean, ez daitezela ezinbesteko bihurtu).
- Ekintzailtza eta gizarte-berrikuntzako proiektu batek ez du soilik **“ekintzaile berrientzat” definituta egon edo soilik horiek inplikatu behar, ezin da horrelakoa izan.**



- **Gentrifikazioa eta kolonizazioa saihestea.** Badagoenari gainjartzea. Hemen bazegoenari (eta bizirik ateratzen denari, irauten duenari, desagertzen denari, hobetzen denari...). Tradizionalki bazeuden edo auzoan ugarienak diren gremioetan eta saltokietan arreta jartzea.
- Ideiak eta pertsonak erakarri behar dira, baina **baliabideak eta finantzaketa** ere bai. Oreka bilatzea.
- **Erreferentzia-puntu bihurtzea eta erakarren positiboa sortzea.** Auzoari dagokionez nor bere burua baino ez aipatu beharrean, hiriko gainerako tokietara ere begiratzea eta beste testuinguru batzuekin konektatzea.
- **Ekimenak administraziora, politikariengana, erabakiak hartzen dituztenengana eta baliabideak maneiatzen dituztenengana hurbiltzea.** Ezagutzen badute, errazago da ulertzea, balioestea eta haren garapena erraztea.
- **ADI! “Dena denentzat” kontzeptuak EZ du balio.** Irekitzeak ez du ongikerian edo adostasun faltsuetan erortzea esan nahi. Azkenean, proiektuak zehaztu eta zirt edo zart erabaki egin behar du. Proiektu batek ez ditu arazo guztiak konponduko. Proiektu ugari, ekimen espezifikoaren arrago bat, egotea behar da.








### 3. Gauzei buruz

Saioen bigarren atalak plazaren inguruko edo han bizi diren eragileengandiko ekimen posibleetarako prototipoen gutxieneko zirriborro bat egitea zuen helburu. Horrez gain, saioak bukatzean, eragileei eskatzen zitzaien hurrengo egunetan agiri labur bat idazteko; bertan, saioari buruzko gogoetak, aparteko ekarpenak eta HARROBItik HARROBIta prozesuari dagokionez egin nahi zituzten bestelako oharra jaso behar zituzten.

Ondoren, ekimenen zerrenda jasoko dugu eta beste ekarpen batzuk bilduko ditugu.



### 3.1. Ekimenera zerranda

Puntu honetan irten ziren proiektuak deskribatzen dituen zerranda egin da; gai-zerrendatxoak ezarriz metatu dira (ideia asko elkarren oso antzekoak dira —zenbait elkartu egin dira idaztean— edo batzuek beste batzuk osatzen dituzte). Batez ere, **zerranda honek nahiak, interesak eta itxaropenak argitara emateko balio du.** Edozein ideia garatzeko, askoz ere garapen xehatuago bat beharko litzateke.

#### HACK THE PLAZA

espazio publikoa | erabilera antz | bizikidetzaz

Espazio publikoa bizigarriagoa eta gozagarriagoa, belaunaldi artekoa eta erabilera antzeko egitea. Guztien eta guztientzako plaza bat. Geratzeko plaza bat. PLAZA BAT. Zenbait espazio / zenbait erabilera. Sarbideez, hiri-altzariez, zirkulazioaz, ingurune eragilez eta abarrez hausnartzea. Behaketa antropologikoa (plazan gertatzen dena erregistratzea). Safariak eta *gynkanak* asmatzea. Partaidetzazko diseinua, klarionez marraztuz. *PlayDay*.

#### Hiri Berroneratzeko Europako Agentzia (UREA)

hirigintza | ikerketa eta esku-hartzea | Europa

Jasangarritasunaren eta gizarte-berrikuntzaren ikuspegitik hiri-berroneratzeaz arduratzen den Europako agentzia horren egoitza, behategia eta jardunbide egokien lantegia, Gasteiz kalean erdi eraikita dagoen orubean instalatua. Ikertzeko eta esku hartzeko proiektuak garatzea (gai posible batzuk: mugikortasun eta irisgarritasun unibertuala, espazioen konektibitatea, ekonahikotasuna, meategiko espazioa...).

Nazioarteko erreferentzia-puntu izatea. Kidetasun publikoa eta pribatua.





## **PLAZA BERRI**

### **nazioarteko\_lehiaketa | hirigintza**

Arkitektura-eskolen nazioarteko lehiaketa, Miribilla, Harrobi, Mariaren Bihotza, Martzana eta Alde Zaharra (Erriberako merkatua) lotzeko hirigintza-proiektuena; loturako plazetan eta espazioetan jartzen du arreta nagusia. Zaharra berriaren bide gisa, badagoenetik abiatuta berriro diseinatzea. Prozesu parte-hartzailea nahiak, beharrak, zehaztapenak identifikatzeko, lehiaketaren baldintza-agiria egiteko. Inplika daitezkeen eragileak: Surbisa, Metr poli30, EHU Arkitektura, Arkitektoen Elkargoa, BAT, testuinguruaren hirigintzako eta arkitekturako profesionalak.

## **¡DISPONIBLE! \***

### **espazio\_hutsak | orubeak | protokoloak | pop-up | deialdia**

Espazio hutsak eta gunek hilak (etxabeak, teilatuak, orubeak...) berreskuratzeko eta eskura jartzeko eta okupatuta dauden espazioen erabilera maximizatzeko (beste erabilera batzuk, beste ordutegi batzuk) proposamena. Leku itxi eta aprobetxatu gabeen ezinikusia saihesteko modu bat, auzoko bizitzaren alde ipintzeko asmoz.

Jabeen, administrazioaren eta erabiltzaileen arteko harreman-esparrua (akordioak, protokoloak, pizgarriak). Lehenengo eta behin, auzoan eskuragarri dauden espazioak mapatzea. Erabilera osoak edo partzialak, aldi baterakoak edo egonkorak, alokairua, salmenta edo lagapena (erakustokia, pop-up...). Proiektuen deialdiak egitea.

*Proiektu honetan "Cantera y futuro" proiektua bildu dugu, oso antzekoak direlako.*

## **MOVILIDAD**

### **mugikortasuna | irisgarritasuna | ondarea\_eta\_turismoa**

Ezer zehaztera heldu gabe, atera den gai garrantzitsu bat auzoko mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsala da. Lehen auziak mugikortasun eta irisgarritasun zeri esaten diogun definitzearekin du zerikusia, espazioari eta hirigintzari soilik zedarrituriko kontzeptuak ez izateko.

Adibidez, etxebizitzetan igogailuak aipatzen dira, baina baita eskailera mekanikoak eta igogailuak ere desnibel ugari dituen auzo batean; zubiak eta arrailak; garraioak (antzinako tranbiaren gaia atera da —merkatari-elkartearen armarrarian irudi hori gordetzen da—, baita Basurtu-Abusu linearena ere); udalaren bizikleten eta bizi elektrikoaren zerbitzua; kultura arteko mugikortasuna (bereziki Afrikarekin); erroldaren ezegonkortasuna; bizi-baliabideetarako irisgarritasuna (pertsonek %42k DBE kobratzen dute San Frantziskon). Era berean, beste turismo mota batez eta "turismoaz" hitz egiten da, etortzeko eta itzultzeko modu desberdinez (bidaia-agentzia bat auzoan?).

Hiru lan-ildo zehatz:

1. Miribilla / Alde Zaharra ardatzaren lotura eta irisgarritasuna.



2. Irigarritasunik eta mugikortasunik gabeko puntuak mapatzea eta auzotarren beharren eta aukeren diagnostikoa egitea, hirigintza-arloarekin lan eginez.
3. Auzoko ondarearen eta memoriaren balioa: Done Jakue bidea + Lurpeko Bilbo (meategiak) + itsasadarra + Martzana kaia (San Antonera iristen diren itsasontziak).

## **SASOI AUZOLAB \***

### **osasuna | bizi\_kalitatea | auzo\_aktiboa | herritarrak | kasu\_praktikoak | eragile\_konbinazioa**

Pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta aztura osasungarriak (fisikoak, mentalak, gastronomikoak, kulturalak...) sustatzea auzoan eta munduan da erronka. Gaur egun, auzo hau Bilbon bizi-itxaropen baxuena duena da. Zein faktorek eragiten dio horri? Zer egin dezakegu aldatzeko?

Hauek dira landu litezkeen elkarrekin erlazionatutako bi helburu:

- Auzoaren errealitate eta irudi osasuntsua eta aktiboa sustatzea, hain zuzen auzokoen bizi-kalitate hobetzea eta zenbait gizarte-sektorerentzat erakargarriak diren aztura osasungarriak sortzea ahalbidetzen duten ekimen, produktu eta zerbitzuen bidez.
- Lan-jarduera eta garapen ekonomikoa sortzea auzo aktiboaren eta herritarren espazioaren (zaintzen duten herritarrak) ideia inguruan.

Alderdi anitzeko jarduera-eremu handi bat da; horren gainean lan egin daiteke eta gure ingurunean mota guztietako prototipoen laborategi on bat eduki lezake: eguneroko bizitzan aztura osasungarri txikiak sartzea; espazio publikoa jarduera osasungarrietarako erabiltzeko proposamenak (dantzak, yoga- edo taichi-taldeak, *gynkanak*, mantentze-ariketak, ibilaldiak); etxebizitzak egokitzea eta oztopoak kentzea, mugikortasun urriko pertsonekin elkarlanean; elikadura-subiranotasunarekin eta gastronomia osasungarriarekin zerikusia duten programak; etxera janaria eramateko eta *catering* ekologikoko zerbitzuak; elikagaien aprobetxamendua eta birbanaketa; osasun mentalaren prebentzioa eta hobekuntza; komunitatean laguntza emateko eta zerbitzuak trukatzeko programak; produktu eta zerbitzu berrien probaketa; etab.

Alderdi anitzeko jarduera-eremu handi bat da; horren gainean lan egin daiteke eta gure ingurunean mota guztietako prototipoen laborategi on bat eduki lezake: eguneroko bizitzan aztura osasungarri txikiak sartzea; espazio publikoa jarduera osasungarrietarako erabiltzeko proposamenak (dantzak, yoga- edo taichi-taldeak, *gynkanak*, mantentze-ariketak, ibilaldiak); etxebizitzak egokitzea eta oztopoak kentzea, mugikortasun urriko pertsonekin elkarlanean; elikadura-subiranotasunarekin eta gastronomia osasungarriarekin zerikusia duten programak; etxera janaria eramateko eta *catering* ekologikoko zerbitzuak; elikagaien aprobetxamendua eta birbanaketa; osasun mentalaren prebentzioa eta hobekuntza; komunitatean laguntza emateko eta zerbitzuak trukatzeko programak; produktu eta zerbitzu berrien probaketa; etab.



Erreferentziatzat, besteak beste, proiektu hauek hartzen dira: *Portal Ciudadano*<sup>1</sup>, auzotarren erkidegoetako zaintzei buruzkoa, Donostian; *Tyze*<sup>2</sup>, mendeko pertsonei beren inguruetik laguntzeko gizarte-sare kanadarra; *Andes*<sup>3</sup>, elikagaien bankuei zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkieten jatekoen denda solidarioen ekimen frantsesa (antzeko ekimen erraz bat, Galdakaotik abiatuta beste toki askotan kopiatzen ari dena, *Hozkailu Solidarioa*<sup>4</sup> da); *Roots of empathy*<sup>5</sup>, empatia eta gaitasun emozionalak eta sozialak areagotuz gazteen arteko eraso-kopuruak murriztu dituen programa kanadarra; eta *The Good Kitchen*<sup>6</sup>, Holstebro udalerrri daniarreko etxera janaria eramateko zerbitzua (lankidetzako diseinu-prozesu baten emaitza). Interesatuta egon litezkeen eragile instituzionalen artean Osakidetza eta BFAko *Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza* daude. Bai jarduera horretarako bai beste batzuetarako, auzo-babesletza edo *crowdfunding* bidez finantzatzeko aukera aipatzen da.

\* Proiektu honetan elkarrekin sortzeko saioetan egin ez ziren baina geroko txostenetan jaso ziren ekarpen asko bildu dira; horrek adierazten du gaiak interesa pizten duela.

## SANFRAN CHEF \*

### gastronomia | kultura\_anitz | osasungarria

Enplegu-, gizarteratze- eta laneratze-zentro berezia den taberna-jatetxea. Kultura-aniztasuna eta osasungarria dena uztartzen dituen eskaintzarekin. Asteko platera auzoko zenbait jatetxetan (plater/kontzeptu desberdinak lantzea). Era berean, eramateko janaria dago, baita etxera eramateko zerbitzua ere. Janaria prestatuz edo janez elkar ezagutzea, topaketa- eta erlazio-modu gisa (jatea beharra eta gozatzeko modua da). Halaber, txoko bat dauka auzoan/auzoarentzat; bertan, nazioarteko sukaldaritzako ikastaroak eman ahal dira (*Munduko emakumeak, Munduko medikuak...*). Lotura estua *Sarean* proiektuarekin eta hiri-ortuarekin.

\* Proiektu honetan proiektu "gastrokulturala" gehitu dugu, oso antzekoak direlako.

1 <https://goteo.org/project/portalcuidadano>

2 <http://www.tyze.com/>

3 <http://www.epiceries-solidaires.org/>

4 [http://www.huffingtonpost.es/2015/06/10/frigorifico-solidario\\_n\\_7553962.html](http://www.huffingtonpost.es/2015/06/10/frigorifico-solidario_n_7553962.html)

5 <http://www.rootsofempathy.org/>

6 <http://www.servicedesigntoolkit.org/cases-good-kitchen.html>



## **HARROPARCOUR**

### **teknologia-appa | osasuna | kirola | profesionalak\_ikasleak**

Online jolasa, eta kirola eta osasuna harremanetan jartzen dituen *appa* plazaren ingurunean. Eremu birtuala eta fisikoa nahasten dira, eta aldi behin jarduerak antolatzen dira plazan bertan. Proiektuak guneko profesionalak ikastolan ematen diren lanbide-familietakako (kirola, informatika edo 3D modelatua) lanbide-heziketakoko ikasleekin harremanetan jartzen ditu. Hasiera batean, testuinguruaren gainean benetako kasu batera aplikatutako prestakuntza- eta praktika-proiektu gisa bideratu liteke.

## **3D ANIMAZIOA**

### **3D\_teknologia | prestakuntza**

3D animazioaren eta ingurune interaktiboaren lanbide-familiarekin zerikusia duen prestakuntza- eta ekintzaitza-proiektua, 2019tik aurrera ikastolatik gauzatu beharrekoa, sektoreko eragile profesionaleri lotuta.

## **HARROBI VALLEY**

### **gizarte\_teknologia | bizikidetasuna | gatazkak | eremu\_profesionala | nazioarteko erreferentzia**


Auzoan lan ugari egin da bizikidetzaren eta gatazken inguruan, modu desberdinetan, bai eremu publikoan bai pribatuan edo etxeetan (eta alderdi komunean eta bitartekoan), eremu sozialean, ekonomikoan edo kulturean, bitartekaritza eginez edo zuzenean esku hartuz, eta arrakastak zein porrotak egon dira. Gizarte-teknologia altua. Gizarte- eta erlazio-teknologia bigunen indarra eta auzoan horien inguruan bildutako esperientzia. Nazioartean goraka ari den jardura-eremu horretako eragileen indarra sinestea (arazoaren ikuspegi komunitarioa, egoera kaltegarriari aurre egitea, giza garapena, berronartzea, erresilientzia, etab.).

Jardura-eremu hori gero eta esanguratsuagoa da alderdi sozialari eta profesionalari dagokienez, eta eragile eta esperientzia ugari daude. Esperientzia eta lan-eremu horren balioa azpimarratu behar da, jardunbide egokiak ikustarazi eta prozesuak sistematizatu behar dira. Lehenengo eta behin, sinetsi behar dugu jardura-eremu horrek baduela etorkizuna, eta horretan garrantzitsutzat jo behar dugu geure burua.

Esate baterako, jardura hauek aipatu dira: Gizagune, Konekta, *Gizarte Diseinuko Eskola* (APTESek, Farapik, Novia Salcedok eta ColaBoraBorak bultzatua), BATen *#alterotopiak eta Hacks4Good*, oinarri teknologikoko enprekin batera, hala nola Shareak, Arcadiapps, Clickea eta Jokoga eta ikastolaren IKT adarra.

Hasteko: auzoan eragileak eta jardunbide egokiak identifikatzea + antzeko auzoetako puntako esperientziak ezagutzea > nazioarteko ekitaldi HANDI bat antolatzea kontu horren inguruan (erreferentzia gisa BIA hartzen da; 2014an antolatu zen, arkitekturaren, ingeniartzaren, eraikuntzaren eta abarren sektoreari lotuta).

\* *Proiektu honetan "Harrobia bizikidetasunerako" proiektua gehitu dugu, oso antzekoak direlako.*



## EL BARRIO DE LAS ARTES

### arteak | espazio publikoa | esku-hartze soziala | kulturtegia

Arteak gizarte-bitartekaritza gauzatzeko eta auzora beste pertsona batzuk erakartzeko elementu gisa (herri-iruditeria / "Sortzeko eskuragarri dagoen espazioa" marka). Badauden espazioak eta baliabideak erabiltzea + zaharkituta dauden espazioak + espazio publikoa + *pop-up* esku-hartzeak.

*Kulturtegiaren* ideia (kiroldegi moduan, jarduera ugari amateur zein profesional gisa egiteko tokia).

Gauzak gertatzea baimentzea (nolabaiteko lasaitasuna araudiari dagokionez). Aldizkako deialdiak egitea. Maila eta intentsitate desberdinak: inurria egunerokoan eta salbuespeneko uneko indioilarra (oreka eta jasangarritasuna bilatzea).

Auzoan ugaritzen diren instituzio, erakunde eta jarduera artistikoekiko harremana (BilbaoArte, Berreginen Museoa, consonni, Okela, Histeriak, Martzana, SCgallery, MEM, Gau Irekia, IDEATOMICS, Artaziak, Zaramari, ColaBoraBora, La Cosa en Casa, BLVart, Muelle3, BilboRock, Anti-, La Kultur, artisten estudio ugari...). ArteShop, Bilbao Art Distrit jardueretan eta horrelakoetan lotura edo presentzia handiagoa edukitzea edo Kale Artean (Basaurin) edo Komanditario Berriak adibideei jarraitzea.

## LA CANTERA DEL S.XXII

### ikustaraztea | seinaletika | multzoa

Plaza gizarte-berrikuntzako testuinguru gisa. Plazako eraikinen lotura eta dagoenaren, gertatzen ari denaren bistaratze fisikoa. Multzo-nortasuna sortzea (nolabaiteko batasuna, koherentzia, homogeneousotasuna, multzoa, aniztasunetik abiatuta). Seinaletika, muralismoa fatxadetan, eta espazioan esku hartzeko beste modu batzuk. Bistaratzea sinergiak eta lankidetzak sustatzeko modu gisa. Puntu komunak identifikatzea (proiektuak, sektoreak, ideiak...).



## LA MEZCLA Y LA SUMA

### ikustaraztea | konektatzea | elkarlanean\_aritzea

Plazari bizia ematea, badagoena aprobetxatuz eta indartuz, eragile-aniztasun aberasgarritik abiatuta, aukera-berdintasunean oinarrituta, kontuan hartzen diren profilak mugatu gabe, elkarren ezagutza sustatuz, beharrak, eragileak eta baliabideak konektatuz. Ekintza-eremu azpimarragarri batzuk: adinekoen zaintza, enplegua, espazio publiko eta pribatuen erabilera.

## ESPERIENTZIA LABORATEGIA

### laborategia | elkarlanean\_aritzea | probak | egitea | proiektuen\_deialdia

Esperimentatzeko espazio bat (nahitaez ekintzaitza-fasera heltzean pentsatu gabe). Gogoz eta berotasunez, zer gertatzen den probatzeko. Jarduerak eta prozesuak *living lab* ideian oinarrituta ikustaraztea (baina lan pribatuko eta sozializazioko inguruneak bereiziz). Elkarren oso desberdinak diren eragileak eta proiektuak (unibertsitatea, auzokoak, *maker*ak, artistak, enpresak, gizarte-erakundeak...) elkarrekin egotea. Bakoitzean hiru proiektu; txandakatu egingo dira (1 eta 6 hilabete bitartean). Proposamenen deialdi irekia. Gutxieneko azpiegiturak eta baliabideak (erakundeak erraztu egiten du, eta gizarte-eragile batek kudeatu eta dinamizatu egingo du). Harrobiko "igerilekuan" egin liteke, beiratea aprobetxatuz.


Geroko txostenean laborategiaren, egiteko eta esperimentatzeko espazioaren, ideiarekin zerikusia duten zenbait ekarpen egon dira. Ekarpen laburrena honela zehazten da:

1. Lankidetzako lan-espazio bat sortzea, non protagonistak eskulana eta esparru profesionalen arteko elkarrizketa diren.
2. Espazio informalak, non harremanak nagusi diren, jateko, atsedean hartzeko, berriketan egiteko, lan-espazio intelektualagoetatik urrun.
3. HUB: topaketarako eta harremanak eta interesak (bir)banatzeko lekua + ExpoGela: erakusteko, partekatze, konektatzeko espazioa + CodeGela: ia denak koderen bat eta programaren bat daramatza jadanik (programatzen ikastea, gaitasun berri bat, brikolaje-modu eguneratu bat) + BioGela: proiektu bizietarako.

## KUBO 365

### erakustokia | egunero | erabilera\_anitz | laborategia | erantzunkidetasuna

Beti zerbait gertatzen den leku bat (aztura sortzen du, zerbait diferente aurkituko duzula dakizulako joaten zara). Espazio txiki eta garden bat plazaren erdialdean. Egunero gauza desberdin bat gertatzen da, urteko 365 egunetan. Gauzak auzotarren, erakundeen, enpresen, auzo barruko eta auzotik kanpoko jendeen proposamenetatik sortzen dira. Ez dago jarduera-mota zehatzik, dena da posible. Proposatze eta esperimentatzeko, ikusgai jartzeko eta probatzeko, elkartzeko, ospatzeko... espazio bat. Jarduera-fitxa bat aurkezten da eta garatu beharreko



jarduerak aukeratu eta lehenesten dira. Egun batzuetan zozketaz adjudikatzen dira bestela ziurrenik parte hartuko ez lukeen jendearen artean. Arau bakarra dena aurkitu duzun bezala uztea da (erantzunkidetasuna). Bitartekaritza- eta komunikazio-lan handia dago, partaidetza dibertsifikatzen saiatzeko eta gertatzen dena ezagutarazteko. Baliabideak zeregin horretarako erabiltzen dira, ez edukiak ekoizteko (nork berea ekoizten du, baina badaude oinarrizko baliabide batzuk).

## LA PROBETA DERRAMADA

### 100\_pertsona\_berri | kutsatzea | barreiatzea

Plazara 100 pertsona berri erakartzea, gizarte-berrikuntzari buruz ikas eta esperimenta dezaten. Eragile berriak, beste begirada batzuk erakartzea eta plazan badaudenekin (ikastetxeak, enpresak, erakundeak, instituzioak) konektatzea. Kutsatze- eta barreiatze-prozesuak (pertsona horiek besteen konektoreak dira). Nola erakarriko dira pertsona horiek? Zer proposatu edo eskainiko diegu? Nola egingo diegu harrera? Publiko zabal batengana jotzea, zenbat eta aniztasun handiagoa, orduan eta hobeto: gazteak, langabeak, merkatariak, boluntarioak, ikertzaileak, artistak... Koordinatu, komunikatu eta ebaluatu behar da.

## ESPACIO MAGNÉTICO

### open-txokoa | info-puntua | bizikidetza | ikustaraztea

Plazaren inguruan kokatzen diren eragileak eta proiektuak ikustarazteko eta elkarri eragiteko espazioa, bai haien artean, bai beste eragile batzuekin eta auzokoekin. Espazio ireki bat (open-txokoa), etengabe aldatzen ari dena, bistako laneko azpiegiturarekin, gardentasuna eta bizikidetza sortzen dituen, info-puntu gisa balio duena eta bere jarduerak ere sortzen dituen.

Gauza komunak (info-puntua, agenda, jarduerak, egonaldiak) txandaka kudeatzen dituzte eragile parte-hartzaileak. Beste toki batzuetako jendea hurbiltzen duen egonaldi- eta truke-programa bat sartzeari planteatzen da (nazioarteko antzeko beste proiektu batzuk, unibertsitatetik ikertzeko proiektuak, etab.). Aurrekontua esleitu da inplikaturako eragileentzat ekartzen duen aparteko lan-zama (denona kudeatzea, jarduerak eta egonaldi- eta truke-programarako baliabideak sortzea) jasangarria egiteko.



## **HARROBIA, GIZARTE-BERRIKUNTZAKO ERAKARGUNEA**

### **gizarte\_sarea | nor\_da\_nor | ikustaraztea | konektatzea**

Garapen komunitarioarekin zerikusia duten proiektu alternatibo eta berritzaileen direktorio edo gizarte-sare fisiko eta digitala. Auzoaren gainean dagoen ezjakintasuna eta estigmatizazioa gainditzea. Eragileak konektatzea, elkar ezagut dezatela, gertatzen dena kanporantz ikustaraztea... Elkar aurkitzea, elkarrekin konektatzea, elkarri eragitea eta hortik aukera berriak sortzea.

Lehenago egin diren direktorioak eta mapak identifikatzea, horietako batetik abiatzeko edo ideiak berrerabiltzeko. Haraindi joatea *Bilbao Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako baliabideen gidaren* formatuari eta erabilerei dagokienez. Prozesu parte-hartzaile batean lehen prototipoa diseinatzea, badauden eragile batzuk inplikatu.

Oinarrizko esparruak: nor zaren / zer egiten duzun / zer behar duzun. 10 arlotan 10 preskriptore identifikatzea, beste 10 eragile erakarri ahal dituztenak. Plataforma horrek zertarako balio behar duen pentsatzea. Badagoenaren direktorio orokorra da? Gauza jakin batzuk adierazten edo azpimarratzen diren lekua da? ...? Gauza gehiegitarako balio izatea nahi badugu, ziurrenik azkenean ez du ezertarako balio izango.

## **GIZARROBI**

### **benetako\_beharrak | eskaintza-eskaria | arazoak\_aztertzea | gizarte-eragina**

Eskaria eta eskaintza mundu hobe bat lortzeko batuz sortu den proiektua. Sistemak auzoko benetako beharrak bildu edo zundatzen ditu (gizarte-zerbitzuekin aritzeko espazioen bidez, kexa-iradokizunen postontzien bidez, Birgaitze Bulegoaren bidez, auzo-etxearen bidez...) eta ekintzaileekin, enprekin edo gizarte-erakundeekin lotzen ditu konpontzeko. Arazoak aztertzea eta baliabideak optimizatuz irtenbideak ematea. Berrikuntza jendeak behar duela esaten duen horretan ardatzea eta gizarte-inpaktua maximizatzea. Horrek herritarren ahalduntzea ekartzen du, administrazioaren eta herritarren arteko harremanak arintzen ditu, erantzunkidetasuna sustatzen du, gizarte-merkatuaren eta asmoa duen enpleguaren garapena ahalbidetzen du. Finantzaketa *gizarte-eragineko bonuen* antzeko sistema baten bidez egin daiteke.

## **IDEIEN USTIAPEN ZENTROA**

### **immigrazioa | kultura\_anitz | ekintzaitzarako\_leihatila\_bakarra**

Auzoan oso aktibo garrantzitsu bat dago (gaur egun ez zaio probetxurik ateratzen eta xahutu ere egiten da), immigrazioak ekartzen dituen aberastasunak eta aniztasunak sortutako gizarte- eta kultura-kapital guztiarekin zerikusia daukana. Jakintzak, bizi-esperientziak, hizkuntzak, nazioarteko harremanak...

Proposamena horren balioa azpimarratzean eta tokikoarekin erlazionatzean datza, atzera elikatzeko. Ideiak garatzeko eta ustiatzeko zentro bat sortzea. Ekintzaitza eta auzoko eragileen arteko harreman produktiboak errazten dituen eta laguntzen dien leihatila bakarra (Lanbiderekiko hitzarmena —badauden programak gurutzatu





edo batzea—). Ekintzailetza babesten duten eragileen ustezko koordinazio-faltari edo horien kapitalizazio kuantitatiboari dagokienez, zerbitzu-bokazio koordinatuaren ideia irteten da: “*Ekintzaileak ez dira inorenak, baizik eta denonak*”.

## **MERKATU PLAZA**

### **market placea | trukea | subiranotasuna**

Tokian tokikoa. Sasoian sasoikoa. Pertsonak sasoikoak diren edo badauden jakintzekin, ekimenekin, produktuekin eta zerbitzuekin lotzen dituen *market placea* (online, offline ordezkartzarekin). Gure bizitzetan harremanak, trukeak eta subiranotasuna areagotzeko modu bat, ekonomia jasangarriago eta gizatiarrago bat erdiesteko asmoz. Ondo pentsatu behar dira inbentariatzeko edo indexatzeko modua eta sarbide-, erabilera- eta truke-protokoloak.

## **LABORATORIO EMPRENDEDOR**

### **hezkuntza | gazteak | sektore\_berriak**

Eremu produktibotik gizarte-berrikuntzarako giza talentua prestatzeko sarea. Inguruneke gazteentzako (eta ereduak erakarrita etor daitezkeen beste batzuentzako) hezkuntza-proiektua. Garapen komunitarioko kontzientziarekin gaitasun berriak eta enplegu-hobi berriak sortzea.

## **GRAN HOTEL DEL EMPRENDIMIENTO**

### **topaketa | mentoringa | trukea | egonaldiak**

Proiektu-garapeneko fase desberdinetan dauden gizarte-ekintzaileentzako topaketa-espazioa + Ekintzaile berrientzako *mentoringa* + Praktiken eta talentuen trukea. Tokiko eragileak eta nazioarteko egonaldiak (*Erasmus+* modukoak). Espazio fisiko bat edo auzoan banatutako espazio asko (hotel handitik *Airbnb* delakora). EHUko ikasle-egoitzarekiko eta Bilvi hotelarekiko harremana.

## **COMPARTIENDO**

### **ikaskuntza\_komunitatea | harremanak | ezagutzak | esperientziak**

Elkarrekin gehiago gara. Egun batzuetan ikasi, beste batzuetan irakatsi egiten dut. Ekintzaileen ikaskuntza-komunitatea; aldizka biltzen dira (hilean behin, hitzordu finkoa) eta bakoitzean interes orokorrekotzat jotzen den gai bat jorratzen dute. Gai bakoitza pertsona batek garatzen du (ahal bada, taldeko batek). Auzoko zenbait tokitan elkartzeko dira; zati formalago bat eta zati informalago bat eduki ahal du (auzoko taberna ren batean gosalduta edo askalduta). Ekintzaile-moten nahasketa: ezagutza, zerbitzuak, merkataritza, ostalaritza, tradizionala, berrikuntza... Ekiteko prozesuan lagunduak sentitzeko, esperientziak eta zerbitzuak trukatzeko, sarea sortzeko, harreman profesionalak garatzeko modua (eta ez bakarrik horretarako).



## **HARROBRAIN**

### **plataforma | trukea | ikaskuntza**

Iragarki-taula + espazio fisikoa + plataforma digitala. *Escuela Godzilla, Free University, Banco Común de Conocimientos*. Auzoan gurutzatzen diren talentu guztiak topatzeko, trukatzeko eta berriro nahasteko toki bat. Ikasketa-modu informal eta banatu bat. Antzeko proiektu asko daude, baina askok ez dute funtzionatzen.

Zergatik? Zer egin funtziona dezaten? Masa kritikoa, dinamizazioa, plataformaren erabilgarritasuna...? Funtzionatu ez duenez ikastea erabiltzailearengan oinarritutako diseinuaren ikuspegitik aldatzeko.

## **UNIVERSIDAD ABIERTA DE SABERES**

### **ikaskuntza\_komunitatea | trukea | jakintzak\_berreskuratzea | oroimen\_aktiboa | kultura\_anitz**

Ezagutzak eta jakintzak berreskuratzeko, garrantzitsutzat jotzeko eta partekatzeko diziplina arteko azterketak, tradizio komunitarioa eta kultura anitzekoa bateratzen dituztenak, galtzen ari dena eta beste leku batzuetatik heltzen dena nabarmentzen dituztenak. Jakintza horiek gizarte-berrikuntzaren esparruetara, zerbitzu eta profil profesional berrietara proiektatzea.

- > Jakintzak identifikatzea + dokumentatzea/sistematizatzea + aplikatzea.
- > Askotariko jakintzak dituzten pertsonak + bideratzaileak + erabiltzaileak.
- > Ikaskuntza-komunitatea + P2P trukea + ezagutza librea.

## **BANCO E INTERCAMBIO DEL TIEMPO**

### **denbora | trukea | jakintzak\_gaitasunak**

Baliabide eta zerbitzuetarako sarbidea, truke fisikoak eta online trukeak, sozializazioa eta harremanak, berrerabilera eta birziklatzea. Parekoen arteko harremana, denbora truke-diru gisa. Gaitasun pertsonalak eta profesionalak ikustaraztea eta haien balioa azpimarratzea. Plataforma-tresna bat behar da, baita erabilerak koordinatzeko, dinamizatzeko eta kudeatzeko lana ere. *Banco Común de Conocimiento* erreferentzia gisa.

## **PRACTICA EN MI EMPRESA**

### **enplegu berriak | praktikak | auzoko\_enpresekiko\_harremana**

Gaitasun berriak, lan berriak, ekonomia berriak xede dituzten enplegu-planak. Langabeentzako prestakuntza-programak, auzoko enpresetan eta saltokietan gizarte-berrikuntzaren, kulturaren, sormenaren, teknologien eta arkitekturaren eremuekin zerikusia duten praktikak eginez. Langabeak litezkeen lan-sektore



berrietarantz hurbiltzea (lanbide eta gremio berriak). Era berean, auzoan instalatzen diren enpresak dauden errealitate hurbilagoarekin konektatzeko modu bat litzateke (horren parte izatearen eta komunitatearen ideia). Horrela, irla-enpresen nolabaiteko ideia hautsiko lirateke, gentrifikazio-arriskua arinduko litzateke, auzokoek ez lituzkete enpresa berriak satelitetzat joko...

Proiektu horren inguruan oso gogoeta adierazgarria sortzen da enpresen, haien zerbitzuen eta instalatuta dauden ingurunearen arteko harremanari buruz. Instalaturako ekimenek balioa ekarri behar dute auzoan (batez ere kalearen parean daudenek). Zenbait galdera egin behar dira: nork kontsumitzen ditu auzoko enpresa aholkulari eta espezializatuen zerbitzuak? Zer ekartzen diote auzoari? Nori? Badaukate loturarik auzoarekin edo prezioagatik baino ez daude hemen, iragaitzaz? ...?

## ETORRI BILBORA

### mugikortasuna | trukeak | anfitrioiak

Etorri eta joango naiz. Mugikortasuna eta esperientzien eta berotasunaren konexioa. Nazioarteko trukeen programa pilotua (*Erasmus+* modukoa, baina ez soilik Europarekin —auzoan bizi diren nazionalitateekiko harremana—). Auzoko erakunde edo enpresa batek proiektu zehatz baterako hartzea. Datorren jendea auzoko etxe batean biziko litzateke (*Familias de acogida* edo *Apadrina un emprendedor* programen moduan). Bitartekaritza- eta harrera-eragilea eta baliabideen gutxieneko poltsa. Eta ez ahaztu mugikortasun aldeanitzuna: geu ere beste toki batzuetara joatea.





## 3.2. \_Beste ekarpen batzuk

Txosten hau bukatzeko, parte-hartzaileek bidalitako agirietatik ateratako gogoeta batzuk zerrendatuko ditugu, *HARROBItik HARROBIra* prozesuari dagokionez proposamenak zehazterakoan erreferentziatzen hartu ahal ditugulako.

### Oro har auzoaren testuinguruari dagokionez

- Bultzatzen den proiektu orok **auzoa eta hango biztanleak dauden egoera hobetzeko helburua eduki eta horretarako balio** behar du. Pertsonengandik eta pertsonentzat, testuinguruari eraginez (onura-, balio- edo itzulkin-moduak dibertsifikatzea).
- **Auzoaren garapenaren ereduari eragitea. Ondasun komunak eta pertsonak osorik hartuta zaintzea.**
- **Egiten denak jarduera, bizitza, mugimendua sortu behar ditu.** Garrantzitsua da eskuarki auzora etorriko ez lirakekeen pertsonen zirkulazioa sortzea. Kultura-, berrikuntza-, teknologia- eta arkitektura-sektoreekin zerikusia daukaten enpresek profesional- eta bezero-motak dibertsifikatu dituzte. Zirkulazio horrek ez ditu beste batzuk galarazi edo baztertu behar.
- **Erreferentzia-puntu bihurtzea eta erakarpen positiboa sortzea.** Auzo-harrotasunaren espiritua, "San Francisco Pride", sustatzea. Gizarte-berrikuntzako "*Nazioarteko Harrobia Sariak*".
- **"Herriko" produktuak.** Lauburu bat eta Afrikako lepoko bat.
- **Gatazkei modu produktiboan heltzea** (ez ukatu edo ezkutatu), baina enpatiaz eta alaitasunez.
- **Hizkuntza-egoera diglosikoa gainditzea** eta eleaniztasunaren alde egitea (euskara-gaztelania binomiotik haraindi, baina arazo espezifikoki hori kontuan izanik eta ikastolak horri dagokionez duen garrantzia aintzat hartuta). Hizkuntzak baliabide eta ondasun komun gisa. Euskararen erabilera hobetzea, mintzalagunak, hitz-trukea...
- **Berrikuntza-ekosistema bat garatzeko faktoreen konbinazioa:**
  - \_\_ Baliabide materialen aprobetxamendu gorena.
  - \_\_ Merkatuen aldaketa, hauei esker: elkarrekin, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko akordioak, birkokatze produktiboa.
  - \_\_ Ezagutzarako sarbide askea (ezagutzaren ekonomiak gora egitea).
  - \_\_ Big dataren bidez makina adimentsuak sartzea.
  - \_\_ Plataformen bidez baliabide kognitiboak mugiaraztea.
  - \_\_ Jakintzak berreskuratu eta gordetzea.
  - \_\_ Mugiarazle berriak sartzea, hala nola diru digitalak.
  - \_\_ Energiaren sorketa deszentralizatzea (eguzki-energia, nagusiki).



## Harrobi plazari dagokionez

- Plaza dena da. Toki txikia, klaustrofobiko samarra, 4 aldetatik 3 itxita dituen eta ia jarduerarik gabeko bide bat, Gimnasio-Gasteiz, daukana (dagoen jarduera etxe barruan gertatzen da). Ez da iraganbidea eta zaila da iraganbide bihurtzea. **Baina, egiatan, plazan badago batzuetan uste duguna baino bizitza gehiago.** Jadanik gertatzen denari garrantzia eman behar diogu.
- Gainera, **lokal eskuragarri gutxi** daude **kalearen parean**. Eta gainerako lokalak (adib., Harrobian eskuragarri dauden espazioak) erabiltzeko aukerak amortizazioa ahalbidetzen duten alokairuen edo akordioen menpe daude; kasu batzuetan, inbertsio handiak eskatzen dituzten hargunak behar dira. Nork egin dezake eta eutsi diezaioke inbertsio horri? Zein helburu eta interesekin? Nola egin daiteke
- Nahia erraza eta erradikala da, hain zuzen, **plaza PLAZA bat, Bilboko beste plaza bat**, izatea (nolabaiteko normalizazioa hiriko gainerako lekuei dagokienez). Aukera-, topaketa-, erakarpen-lekua, jendearekin topo egiteko, mintzatzeko, askaltzeko, jolasteko... Plazan gauza asko gertatuko dira.
- **Plaza nodo gisa auzoan**. Gizarte-berrikuntzari lotutako jarduera produktiboaren katalizatzaile bat. Gune biztanledun baten grabitate-zentro bat.
- **Miribillako auzotar berriak konektatu/inplikatu** behar dira (batez ere orain bukatzen ari diren eta plazatik oso hurbil egongo diren etxeak). Badago eskailerak benetan igarotzeko espazioa izateko modurik, arazo-fokua edo erabili gabeko espazioa izan beharrean?
- Aldez edo moldez, jendeak **plazan taberna bat** egoteko eskatzen du. *Los ladrones van a la oficina*ko taberna gaur egun polizia-etxea dagoen tokian? Zuku-taberna bat badagoenari etekina ateratzeko. "*Kañak hartzea*" "*kañak edatea*" baino gehiago den taberna. Tabernaririk ez duen taberna; horren ostez, *hosta, dealerra*...

## Pertsonen dagokienez

- **Pertsonak eta horien eta ingurunearen arteko bidezko harremanak berrikuntza-prozesuaren erdigunean ipintzea.**
- **Zer behar dute pertsonak gauzatzeko?** Balioetsiak sentitzea, egonkortasuna eta bizimodua ateratzeko aukera edukitzea. Eskastasuna eta ziurgabetasuna gainditu, eta berriro etorkizuneko itxaropenak eduki behar dira. Aukerak egotea, nork bere ahala garatzeko posibilitateak egotea. Beren bizitzak zuzentzen dituzten pertsonak.
- **Aldaketa ez da abstraktua, alderdi pertsonaletik egiten da** eta hein handi batean aztura-aldaketarekin dauka zerikusia, bai emozioekin bai harremanekin. Alderdi pertsonala politikoa da.
- **Bakarrik ez sentitzea, laguntza edukitzea.** Aldaketa-prozesu batean parte hartzen ari garela sentitzea..
- **Lana ez da gauzatzeko eta gizarte-balioa ekoizteko era bakarra.** Lan-denbora banatzeko aukera errealean pentsatzea (zereginak komunitatearen funtzio gisa garatzea, guztiontzako baliabide nahikoak sortzea, bizitzaren jasagarritasuna eta beste jarduera batzuk lanaz haraindi).



## Ekimenei dagokienez

- **Sortzen diren ekimenek testuingurua ekoiztea** funtsezkoa da, eta ildo horretan badaude kontuan izan beharreko zenbait faktore garrantzitsu: 1) ekartzen duen berrikuntza-, diferentzia- edo espezializazio-balioa eta 2) enplegua eta auzoarentzako itzulkin ekonomikoa sortzeko gaitasuna.
- **Ez dago gizarte-baliabideen asetzerik** (oraindik badago beharra, baina esku hartu beharreko arazoak aldatuz joan dira; aurrekoak, hala nola toxikomanikoak, prostituzioa, enplegua, bazterketa, etab. desagertu gabe, beste batzuk gehitu dira, esate baterako, helduen babesgabetasuna, bakantzea, mendetasuna, desgaitasuna, gatazkak konpontzea...). **Hala ere, badago ahaleginak bat etorrarazteko eta sinergiak sortzeko gaitasun murriztua.** Zatiketa sarearen orde. Horregatik, oso garrantzitsua da gizarteratze-enpresekin eta enplegu-eta prestakuntza-programekin zerikusia duten eragileak eta ekimenak koordinatzea. Oso ondo hausnartu behar da jasotzaileen ibilbide, zehaztasun eta ahalmen desberdinez, baita gaur egungo lan-testuinguru konplexuaz ere (prekarizazioa, aldizkakotasuna eta sektore eta aukera berriak kontuan izanik). Sektore zaurgarrietan (gazteak, emakumeak, migratzaileak, iraupen luzeko langabeak) jarri behar da arreta, goraka ari direnekin konbinatuta.
- **Proiektu puntualak eta proiektu estrukturalak konbinatzea.** Hain zuen, proiektu puntualek estrukturaleri laguntzen diete eta estrukturalak ekintza puntualez osatzen dira.
- **Jarduera-konbinazioa, prestakuntza alderdi guztietan, orientabidea, ekintzaitza eta barne-ekintzaitza, berrikuntza barne hartzen dituen.**
- Oro har, ekimenen garapenean **desoreka handia dago egin beharko litzatekeenaren eta horretarako dauden baliabideen artean,** jasangarritasunaren eta eskastasunaren eta ziurgabetasunaren artean.
- **Berreskuratu eta berriro aktibatzea. Jauzi kualitatiboa egitea.**
- **Merkataritzak eta ostalaritzak ematen dute dinamismoa eguneroko bizitzan hein handi batean.** Eskaintza sofistikatu eta gaitu behar da, bai proposamen berriei bai auzoan betidanik daudenei dagokienez. Halaber, auzotarrentzat erabilgarriak eta aldi berean kanpokoentzat erakargarriak diren irudi bat eta zerbitzu-mota bat sortu behar da (jende asko oraindik ez dira ausartzen auzora etortzera).
- **Beren proiektua auzoan hasi eta denborarekin bertan behera uzten duten zerbitzuen eta merkatarien ekimen ugari daude.** Horretarako arrazoiak aztertu beharko lirateke, baita ekimen horietan egiten den inbertsio publikoaren itzulkina neurtu ere egin (zein helbururekin eta zein neurritan babesten diren, proiektu ekintzaileak direlako edo auzoan testuinguruan sortzen dutelako?).
- **Ostalaritza-lokal eta saltoki askok zuzentzen dituztenen jatorriarekin zerikusia duten kultura anitzeko eskaintza daukate.** Horrek ikustarazi eta balioa gehitu beharreko eskaintza aberatsa eta dibertsifikatua sortzen du. Auzoa merkatu-plaza irekitzat jo liteke, adibidez alderdi gastronomikoa nabarmenduz (hilean behin merkatu antolatuago bat egin liteke —2 de Mayorenarekin batera eta modu osagarrian edo beste une batean—).
- **Kontuz auzoaren barruko guettifikazio-arriskuarekin** (erabiltzaile-motengatik, jardueragatik). Gurutzaketa, nahasketa, elkarren ezagutza indartu behar dira.



## Eragileen arteko harremanei dagokienez

- Badirudi asmoa bai baina denbora gutxi dagoela, eta aldi guztiak ez datoz bat.
- **Nolabaiteko beldurra nork bere nortasuna galtzeari, ordezkaritza-espazioa, garrantzia, legitimitatea galtzeari.** Tarteak galtzea.
- **Erakundeen, toki-eragileen eta herritarren arteko lotura katalizatzailea behar da.**
- **Administrazioak bermatzailea, eragile bazkidea eta prozesuaren bideratzailea izan behar du.**
- **Eragileen, proiektu komunaren eta kokatzen diren testuinguruaren arteko elkarrekotasuna.** Denak berdintzatzea, bakoitzak bere gaitasunetan, aukeretan eta ahalmenetan (beti irekiak) oinarrituta. Alderdi bakoitzaren interesak eta erantzukizunak identifikatu eta zaintzea. Erakunde bakoitzaren jardueraren eta helburuen espezifikotasuna, iragazkorra izateko eta esparrura oro har edo puntualki egokitzeko beharra ahaztu gabe.
- **Benetan nahi dugu ELKARREKIKO harremana?** Besteak ezagutzea interesatzen zaigu, horretarako denbora eta eskuragarritasuna dauzkagu edo geure *mugidetan* murgilduegiak gaude? Zenbateraino aritu gaitzke elkarlanean eta izan gaitzke interaktiboak? Testuinguruak lankidetzaren alde egiten du edo beste ahalegin bat dakar?
- **Jomuga bat: EKITATE ADIMENDUNA.**

**Koordinazioa eta garapena: HARROBItik HARROBIra**

ColaBoraBora Koop  
WikiToki - Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbao  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
Tel.: 944 158 861





# ***5.eranskina***

***HARROBItik-ra-rako inspirazioa***

**Proiektuak, espazioak,  
neurriak eta programak  
Ekimen eta erreferentzi kasuen  
bilduma txostena**

**52 orrialde**





# ***HARROBItik-ra*** ***prozesurako inspiratzea***

**Han-hemengo ekimen batzuk,  
berrikuntzari eta gizarte-ekintzaitzari,  
kultura-ekintzari eta adimen kolektiboari  
buruz.**

**proiektuak, espazioak, neurriak eta programak**

Bilbon, 2015/11/22an

Agiri honen edukia, *HARROBItik HARROBIra* prozesutik eratortzen diren gainerako materialen moduan,  
*Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da



# HITZAURREA

## Txosten honen helburua

Txosten honen asmoa **jadanik abian dauden eta ikaskuntzak, funtzionamenduak, arrakastak eta porrotak estrapolatzeko eta aplikatzeko balio dezaketen proiektuei, neurriei, programei eta tokiei buruz begirada anizkun bat eskaintzea** da, Harrobi plazaren inguruko eta auzo guztiko helburu komunean gidatzeko gai eta nahikoak direlakoan.

Horretarako, txostenak HARROBItik HARROBIra prozesurako mapa bat marrazteko erreferentziako lehen seinaleak osa ditzaketen kasuen multzo bat jasotzen du. Kasu batzuk ekintzailtzara bideratzen dira; beste batzuk, kultura-ekintzara; beste batzuk, ordea, hiri-berroneratzera. Inspirazio-iturria eta isla motibagarria izan daitekeen saski-naskia, aipatzen ditugunen antzeko ideiak leku askotan errealitate zirrargarriak, eraldatzaileak eta produktiboak direla ikusita.

**Orain geure puzzlearen piezak ordenatu behar ditugu!**

## Ikuspegi ekosistemiko eta ekojasangarria

Puzzle hau, formari eta edukiari dagokienez, **ikuspegi anizkun** batetik eta **ikuspuntu sistemiko batekin** osatu behar da, gizarte-erronka horiei aurre egiteko erakundeentzako eta gainerako eragileentzako aukerak eta gomendioak kontuan hartuta, baita auzoak ezartzen duen izaera ere, kultura anitzekoa, kultura artekoa eta soziala baita.

**Proposamen zehatzak egin behar dira, alderdi interesdun guztiak barne hartzeko, irtenbideak zenbait ikuspegitatik aurkitze aldera. Horretarako, laborategi-filosofiaren arabera lan egingo dugu, ekosistema-formatuan proiektatuko dugu, baliabideak erabiltzean eraginkorrak izango gara, badagoen horretatik abiatuta sortzea ahalbidetuko dugu eta ekimen zaharren eta berrien artean sofistikatuko dugu.**



Ilde horretan, printzipio horiei dagokienez, *Kalundborg*-eko<sup>1</sup> parke ekoindustrialia, izen bereko herri daniarrean kokatua, har dezakegu erreferentzia-puntutzat, berrikuntza ekologikoaren printzipioari men egiten baitio. Proiektua eskualdeko industria-jardueren konplexutasuna kudeatzean oinarritzen da. Horretarako, enpresak ekosisteman baten antzeko egitura batean antolatzen ditu, alegia, eskuragarri dauden baliabideek eta espezieek elkarri eragiten diete eta erlazio organikoetan atzera elikatzen dute elkar<sup>2</sup>.

**Profil ekosistemikoa ulertuz eta aplikatuz, irtenbide anitz lortu ahalko dira edo zenbait ekintza barne hartzen dituen programa edo ibilbide-orria sortu ahalko da** (elementu edo proiektu erakargarriren bat beharrezkoa izan liteke), auzoaren hobekuntza osoan aurrera egitea ahalbidetze aldera. Horretarako, **irekitasun eta sormen** ugari beharko dira, **toki-garapeneko eredu jator bat sortzeko**; hori nazioko zein nazioarteko erreferentzia-puntuetan oinarrituta, baina, funtzionatzeko, egungo eta etorkizuneko biztanleen beharrak eta itxaropenak bete behar ditu eta haien gaitasunetan oinarritu.

Laburbilduz, kokatzen den ekosistemako baliabideak agortzen dituen erauzketa-harrobiaren konnotazio negatiboa alderantzikatu egin behar da, hain zuzen berroneratze ekosistemikoa eginez, sozialki, kulturalki eta ekonomikoki emankorra den elkarrekin bizitzeko ingurune produktiboa bihurtu dadin.

<sup>1</sup> [https://en.wikipedia.org/wiki/Kalundborg\\_Eco-industrial\\_Park](https://en.wikipedia.org/wiki/Kalundborg_Eco-industrial_Park)

<sup>2</sup> HARROBItik HARROBIra prozesua osatzen duen beste eranskin batek, "Harrobia trantsizioan" izenekoak, aukera horietan jartzen du arreta zehatz-mehatz, proposamenak egiteko moduan, aukerok trantsizioko eskualdeak, toki-garapena, gizarte-ekonomia eta permakultura lotzen baitituzte.



## Esparrua, irizpideak eta kasuen garapena

Harrobiaren gainean prospekzio baterako erreferentzia-puntu inspiratzaileak hautatzeari ekin genion unean, ekimenen multzoa eta lotutako *tagen* hodeia hazi egin ziren eta nolabaiteko kaosa bihurtu ziren; kaosa onartu eta kudeatu egin dugu, esparru orokor bat eta gutxieneko irizpide batzuk ezarriz.

Hasteko, kontzeptu-esparrua zedarritu genuen eta esparru orokor gisa **Europa Estrategia 2020<sup>3</sup>** delakoaren heltzeko modu transbertsala hautatu genuen, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea sustatzen baitu; eta, zehatz-mehatz, Europako Batzordeko Hiri eta Eskualde Politiketako, Enpleguko, Gizarte Gaietako eta Inklusioko Zuzendaritza Nagusiek batera argitaratutako **Gizarte-berrikuntzari buruzko gidak<sup>4</sup>** gizarte-berrikuntzaz ematen duen definizioa hartu genuen:

*Gizarte-berrikuntza honela defini daiteke: **gizarte-beharrak betetzeko, gizarte-harreman berriak sortzeko eta emaitza hobekak eskaintzeko** ideia berriak (produktuak, zerbitzuak eta ereduak) garatzea eta inplementatzea. Elkarreragin sozialeko prozesuari eragiten dioten gizarte-eskariei erantzuteko balio du eta giza ongizatea hobetzea du xede. Gizarte-berrikuntzak gizartearentzat onak izan ez ezik pertsonen jarduteko gaitasuna hobetu ere egiten dutenak dira. Herritarren, sozietate zibilaren erakundeen, toki-erkidegoen edo enpresen sormenean oinarritzen dira.*

Horrez gain, kasuak hautatzeko eta aztertzeko egokiak diren **irizpideen multzo** sinplea ezarri genuen, hala nola:

- HARROBITik HARROBIra proiektuaren azterketara hurbiltzean azaleratu diren alderdi batzuekiko antzekotasuna.
- Ekimenaren berrikuntza-maila.
- Betetzen dituen gizarte-beharrak, baita ukitutako pertsonentzako hobekuntzen sarrera ere.
- Askotariko eragileen partaidetza haien sorketan edo funtzionamenduan.
- Espazioak sortzeko edo okupatzeko gaitasuna.
- Gobernamentu- eta finantzaketa-eredu hibridoa eta egingarria.
- Lurraldearen gaineko eraginak.

Kasu bakoitzerako hurbilketa modu errazean egiten da, **bigarren mailako iturriak** (nagusiki, ekimenen webguneak) behatuz edo proposamen batzuk zuzenean ezagutuz (beharbada aurrerago interesgarria izan daiteke kasu baten azterketa xehatuago bat egitea, lehen mailako iturrien bidez). Ekimen (edo ekimen-multzo) bakoitzari buruz fitxa bat egiten da, elementu hauek barne hartzen dituena: deskribapen labur bat, intereseko informazioa eta Harrobi plazaren inguruko proiektuaren ezaugarriekin zerikusia duen behaketak biltzen dituen atal bat.

---

3 [http://ec.europa.eu/europe2020/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/europe2020/index_es.htm)

4 [http://ec.europa.eu/regional\\_policy/en/information/publications/guides/2013/guide-to-social-innovation](http://ec.europa.eu/regional_policy/en/information/publications/guides/2013/guide-to-social-innovation)



## Kasuen aurkibidea

**Medialab Prado**  
**Darwin Ecosysteme**  
**Fabrique POLA**  
**Coopolis**  
**Zaragoza Activa / La Azucarera**  
**#HarineraZGZ**  
**Barcelona Lab**  
**Forum for Social Innovation Sweden**  
**Knowledge West Media Centre**  
**Torino Social Innovation**  
**Finantzaketa eta gizarte-eragineko bonuak**  
**La Fonderie**  
**Volumes**  
**ConectaLab**  
**Enplegu-anezkek**  
**La Noria**  
**El milagro de los peces**  
**Incredible Edible**  
**TransEuropeHalles**  
**Open Living Labs**



## Medialab Prado

Madril

<http://medialab-prado.es>

komunitatea | bitartekaritza | herritarren\_laborategia | kultura\_askea | ezagutza\_partekatua | diseinu\_irekia | gizarte\_teknologiak

### Deskribapena

Ezagutzen, praktiken eta esperientzien arteko elkarketatik sortu diren **esperimentazioko eta ikaskuntza partekatuko moduak arakatzan dituzten** ikerketa-, ekoizpen- eta hedapen-**proiektuen** herritarren laborategi bat; artearekin, zientziarekin eta teknologiarekin, kultura askearekin eta herritarren partaidetzarekin dute zerikusia.

Helburua komunitatea osatzen duten *prouserrei* (ekoizle eta erabiltzaileei) lankidetzako proiektuak garatuz ikerketa-, ekoizpen- eta hedapen-prozesuak konfiguratu, aldatu eta bestelakotzeko eskatzen eta bide ematen dien plataforma ireki bat gaitzea da. Era berean, askotariko jarduerak (mintegiak, lantegiak, lan-talde eta -estazioak, deialdiak, aurkezpenak, haurrentzako edo gazteentzako jarduerak...) antolatu eta hartzen dira; bitartekaritza-taldearen lanari esker, pertsona guztientzat irisgarriak eta interesgarriak izatea da xedea.

### Informazio interesgarria

Zentroa Madrid Destino enpresaren, Madrileko Udaleko Arte, Kirol eta Turismo Sailaren enpresa publikoaren, menpe dago. 2000an sortu zen, Conde Duque kultura-zentroan. 2007an Plaza de las Letrasera lekualdatu zen eta Medialab-Prado izena hartu zuen. Horrez gain, 2014an antzinako Serrería Belgaren aldameneko eraikina hartu zuen eta nabarmen handitu zituen instalazioak.





Proiektu eta jarduera puntualez gain, zenbait lan-ildo garatzen ditu modu iraunkorrean, hala nola:

- *Interactivos*: elektronikaren eta programazioaren sormenezko erabilerei buruz.
- *Visualizar*: informazioa bistaratzeko estrategiak eta tresnak.
- *Inclusiva-net*: gizarte-inklusioko prozesuetako sare-kulturaren inguruko ikerketa eta gogoeta.
- *Laboratorio del Procomún*: ondasun komunaren kontzeptuaren eta praktikaren inguruko diskurtsoa, ekintzak eta jarduerak antolatzea.
- *AVLAB*: soinu- eta ikusmen-arteak sortu eta hedatzea.
- *Mediación*: bisitariak hartzea eta komunitateko harremanak zaintzea.
- *FabLab*: berezko espazio berria 2015etik.
- *Fachada Digital*: esperimenduzko led-gailua zentroko fatxadan.

## Oharrak

- **Open sourceren aldeko apustua.** Ezagutzen eta prozesuen truke ireki eta lankidetzazkoa sustatzearen aldeko erabateko apustua egiten da, software eta hardware libreko tresnak erabiliz, lizentzia libreak baliatuz eta ekoitzitakoa transferitzeko dokumentatuz. Librea eta irekia dena paradigma-aldaketa bat ekartzen ari da ekoizpen-eredura eta eragin sozioekonomiko nabaria edukitzen ari da; hortaz, protagonista izan beharko luke HARROBITik HARROBIra prozesuaren inguruan garatzen diren ekimenetan.
- **Bitartekaritza hartu eta inplikatzeko bide gisa.** Medialab erabiltzaileengan ardaztutako proiektu bat da; erabiltzaileok askotariko profilak (artistikoa, zientifikoa, teknikoa) eta espezializazio-maila desberdinak (adituak eta hasiberriak) dituztenez, komunikazio- eta inplikazio-bide ugari dauzkate. Prozesu horretan funtsezkoa da bitartekaritza- eta harrera-talde oso dinamiko baten zeregina; gainera, azken urteotan, zentroaren lan-ardatzekin zerikusia duten ikerketatxoak egiteaz ere arduratzen da. Harrobi plazari begira, bitartekaritza-eredu hori oso interesgarria izan daiteke; beraz, komeni da urtero egiten duten kontratazio-deialdiaren eredia aztertzea.<sup>5</sup>
- **Work in progress eta nolabaiteko kaosa onartzea.** Medialab proiektu porotsua da, beti errealitatearekin eta haren koiunturekin zuzeneko harremanetan dagoena; ziurgabetasun- eta erresilientzia-kuota altuak kudeatu behar ditu, interes desberdinak dituzten askotariko eragileen arteko harremanei eta tentsioei eusteko.

---

<sup>5</sup> <http://medialab-prado.es/article/convocatoria-mediacion-2015-2016>



## **Darwin Ecosysteme**

**Bordele (Frantzia)**

<http://www.darwin-ecosysteme.fr>

**bio\_eko | ekonomia\_zirkularra | publikoa\_pribatua | hiri\_berroneratzea | ekosistema | ekintzailtza | laborategia | sormena | hiri\_kultura | diseinua**

## **Deskribapena**

**Ekintzailtza aktibo eta jasangarriari, DIY laborategiei, bio eraikuntzari eta erduei, skate eta bmx egitearen inguruko hiri-kulturari eta abarri** buruzko dimentsio anitzeko hiri-ekosistema eta proiektua. Kuartel bat ostatatzen zen aldameneko zenbait eraikinetan eratuta dago eta hiriko zirkulazio gutxiko guneko bat eraldatzen du.

Ibaiaren ondoan dago kokatuta, trantsizioko aldiriko guneko batean, Bastide-Neilen, eta badirudi guneko ekoegoitzazkoa bihurtuko dela eta lurzoruari balio handiagoa emango zaiola. Darwin guneko Bordeleko modako leku berria da.

## **Informazio interesgarria**

Ekimen pribatutik bultzatutako proiektua da, lehen hangarrak hartu baitzituen, eta gero tokiko erakunde publikoak (Bordeaux Metropole, Bordeleko Udala, Akitaniako Eskualdea), enpresak (GDF Suez, Orange, FCBA...) eta beste erakunde batzuk (EB, Ademe...) barne hartu zituen. Era berean, *crowdfunding*-formulara jo dute *Magasin Bio* inauguratu berria finantzatzeko.



Berreraikitako azalerarik handiena jabetza pribatuko eraikin nagusi batean dago, **co-working eremu** handi batek (**300 pertsona baino gehiago**) okupatuta, eta sektore "berdeko" eta "sormenezko" sektoreko bai enpresa finkatuak bai sortu berriak hartzen ditu barne (gune bat udalarekin hitzartutako ekimen-mintegia da). Enpresa nagusiaren bulegoak ere badaude hemen (komunikazioan aritzen da). Gainera, duela gutxi taberna-jatetxe bat eta produktu ekologikoen denda bat zabaldu dituzte.

Beste azalerak **hiri-kulturarekin** zerikusia duten askotariko praktiketarako zenbait hangar hartzen ditu, esate baterako: *skate*, *bmX*, grafitia, ortua eta, gutxi barru, *eco-lodge* bat. Horrez gain, aldizka yoga, borroka-arteen eta abarren ikastaroak ematen dira eta ekitaldi soziokultural ugari giten dira.

## Oharrak

- **Ondare-intereseko aldirietako leku bat birgaitzea, irizpide ekologikoen arabera**, erakunde eskudunen hiri-berritze ekologikoaren estrategiari jarraiki. Alderdi onuragarria proiektua abian jartzeko baimenak eta akordioak negoziatzerakoan.
- **Ekosistema-kontzeptua zenbait joera, erabilera eta publiko integratzeko proiektu gisa**; bai ekintzaitza eta arkitektura jasangarria bai hiri-kulturako espazioa; bai enpresariak eta ekintzaileak bai skaterrak eta artistak; bai aldi baterako erabilera bai behin betikoa. Proiektuak intereseko zenbait sektoreren eskariak eta beharrak entzuten jakin du, baita arrakastaren zati bat bermatzen duten estetika hori eta marketing cool hori ematen dizkieten **joera gehienak integratzen** ere. Harrobia prozesuak bere diseinuan kontzeptu hori integratzeko gai izan beharko luke, auzoaren higiarazle gisa, erabileren eta erabiltzaileen aniztasuna kudeatuz.
- Proiektuaren kudeaketa eta garapena **harremanen eta lankidetzaren sorketa oso dinamiko eta proaktiboan** oinarritzen dira, bai Darwin komunitateko kideen artean (eragileen masa kritiko bat dago), bai hiriko bertako eragileekin (Fabrique POLA delakoa laster aldatuko da gune horretara; jarraian hitz egingo dugu horretaz). Halaber, nazioarteko beste eragile batzuekin lan-bideak zabaltzen ditu, Europako proiektu asko aktibatuz (esate baterako, proiektu horietako batzuetan Bilboko eragile batzuek hartzen dute parte, hala nola WikiTokik eta ZAWPek).
- Oso proiektu handinahia da eta, finantzaketa apur bat eta laguntza publikoa edukitzeaz gain, inbertsio pribatu sendo bati esker sortu zen (atzean bere interesak dituen enpresa-talde indartsu bat dago). Proiektuak kudeaketa parte-hartzaile eta erantzunkidea agertzen duen arren<sup>6</sup> eta komunitate-ideiari garrantzi handia ematen dion arren, herritarren sektore batzuek gardentasun-falta eta ekosistemaren kudeaketa oso zentralizatua kritikatzeko dituzte. **Geure buruari galdetzen diogu ea geure ingurunean mota horretako inbertsiogilerik aurkitu ahalko genukeen; kidetasun publiko eta pribatu horiek garatzeko kulturarik badagoen; eta horrelako zerbaitek auzoaren dinamikarekin bat etorriko litzatekeen ala gentrifikazio-prozesuak azkartuko lituzkeen.**

---

<sup>6</sup> <http://www.darwin-ecosysteme.fr/a2-une-gouvernance-collective/>



## Fabrique POLA

Bordele (Frantzia)

<http://www.pola.fr>

arteak\_sormena | autokudeaketa | lankidetzeta | zerbitzu\_komunak |  
gizarte-ekonomia

## Deskribapena

Arteen eta kulturarekin, sormenarekin eta lan kognitiboarekin zerikusia duten beste jarduera batzuen (edizioa, teknologiak, diseinua, arkitektura eta loturiko bestelako zerbitzuak) eremuan ekoizteko sorketa-espazio handia. Bere burua kudeatzen duen proiektua; udalarekiko hitzarmen baten bidez, Bordeleko aldirietako antzinako posta-egoitza bat okupatzen du. Lan-espazio pribatuz gain, gune komunak, erakusketa-aretoa eta hiru ekoizpen-lantegi ditu.

## Informazio interesgarria

Fabrikak 19 egitura, 9 artista egoiliar eta 5 pertsonako kudeaketa-talde bat dauzka (guztira, 70 pertsona inguru). Eragile guztiek urtero 2,7 milioi euro sortzen dituzte; horietako 500.000 € udalarekiko hitzarmenetik datoz, eta horietako 250.000 € 5 pertsona liberatu kontratatuzko erabiltzen dira. Pertsona horiek honelako funtzioak daukate: kudeaketa, administrazioa, komunikazioa, kideentzako zerbitzuak eta jarduerak.

Batzarren moduan jarduten dute; 12 pertsonako lantalde bat daukate, hilean behin biltzen dena; horrez gain, gai zehatzei buruzko proposamenak egiteko eztabaida-taldeak daude.



## Oharrak

- Hauxe da proiektu komunaren baliorik handiena, osatzen duten eragileen arabera: **lankidetzeta-proiektuak errazten dira, ikaskuntza-prozesu partekatuak gertatzen dira, zerbitzu-erosketa eta -kontratazio kolektiboak egiten dira eta eragileen arteko laguntza-prozesuak jazotzen dira.**
- Gaur egun **zerbitzuen katalogo komun bat egiten eta POLAtik zuzenean eskaini ahal izateko moduko paketeak egituratzen** saiatzen ari dira (multzoa unitate gisa ikustaraztea eta multzoari koherentzia ematea —eragile bakoitzak bere autonomia galdu gabe—). Ildo horretan, kide berriak sartzekoan, gero eta modu praktikoagoan hartzen dute kontuan zerbitzu-eskaintza hori osatzea (edo horren osagarri izatea).
- Gainera, proiektua gero eta **lotura** gehiago ezartzen ari da **ekonomia alternatibo eta solidarioarekin** (pertsonek liberatu eta batek ardatz hori garatzeko funtzioa dauka).

Kontu horiek guztiaz Harrobi plazaren errealitatera eta baterako proiektu baten garapenera egokitu ahal dira. Eta gainera, hein handiagoan edo txikiagoan eragile batzuen dinamiketarik helduz ari zaie dagoeneko (behintzat, WikiTokitik eta Hi! Plazatik).

- Berrikuntzarekin eta ekintzailtzarekin zerikusia duten hiriaren zenbait eremuren antolamendu edo espezializazioa gertatzen ari da. Ildo horretan, gaur egun POLA dagoen gunea teknologien eremu espezifikoan garatuko da, eta POLA Darwin dagoen gunea berera lekualdatuko da, gizarte-berrikuntzan ardatzuta baitago, kulturaren eta sormenaren eta ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunaren arteko elkarketatik. **Espezializatzeko eta eragile espezifikoaren masa kritiko handiagoa bilatzeko zonakatzeari (edo ez zonakatzeari) buruzko kontu** hori aintzat hartu beharko litzateke plazako proiektuaz hausnartzekoan, baina Bilboko Udalak ere orokorrean planteatu beharko luke.
- Duela gutxi antzeko ezaugarri batzuk dituen proiektu bat abian jarri da Iruñean, eta uste dugu interesgarria dela laburki deskribatzea. **Jazar**<sup>7</sup>, 5 solairuko (horietako 3, erabilera komunitarioarako) antzinako ikastola, bizilagun berriek sortzeko espazio bihurtzeko asmoz berreskuratu dute; eremu profesionalaren eta amateurraren artean, maker munduaren eta artisautzaren artean, dago. Espazioak honako hauek dauzka: zurgintza-, estanzazio- eta plastika-lantegiak, argazki-estudio/laborategia, informatika-gela, bizikleta-lantegia, gaztandegia, sukalde, arte eszenikoak, ehungintza, garagardoa, fabrika, doako denda, skateparka... Inplikazio-maila desberdinetan oinarrituta bere burua kudeatzen duen eredu; batzar batek zuzentzen du eta zenbait lantalde (egonkor edo koiuntural) ditu: administrazioa eta ekonomia, proiektuaren definizioa, gimnasioa, garbiketa, mantentzea, programazioa, sukalde/barra, arkitektura, komunikazioa eta legegintza.

---

<sup>7</sup> <http://jazar.org>



## Coopolis

Bartzelona

<http://www.laciutatinvisible.coop/intervencio/coopolis>

garapen\_komunitarioa | elkarlaneko\_gizarte\_ekonomia | enplegua |  
ekintzailletza | autoantolaketa | publikoa\_pribatua

## Deskribapena

Coopolis (oraindik abian jartzeko fasean) toki-sarean integratutako eta sustraitutako ekimenak sustatzeko gizarte-berrikuntzako ekosistema gisa sortu da, alderdi produktiboaren eta harremanetakoaren artean, enpresaren eta auzokoen artean. Bi planteamendu nagusi ditu ezaugarri: **1) gizarte-ekonomiaren eta elkarlaneko ekonomiaren sustapenean eta dinamizazioan erreferentzia izateko asmoa, Sans auzotik eta metropolialde osorako; eta 2) erkideagoak kudeatutako ekipamendu publikoa bihurtzeko nahia.**

Coopolis **gizarte-ekonomiaren eta elkarlaneko ekonomiaren erakunde erakargarrien egoitza soziala** izango da, **baita azaleratzen ari diren ekimen berritzaileen higiarazlea ere**. Pertsonen eta enpresen prestakuntza-, aholkularitza- eta laguntza-beharrak estaltzen dituen ibilbide oso bat proposatzen du, proiektu ekonomiko bat abian jartzeko hasierako fasetik hazkunde- eta finkapen-etapara arte.

## Informazio interesgarria

Proiektua auzokoen eskaritik sortu zen, 2011n, Bartzelonako Sans auzoko Can Batllóko pabiloiak aprobetxatzeko (Coopolisez gain, badago erabilera anitzeko espazio komunitario bat abian jarrita, eta etxebizitza-kooperatiba bat eta eskola libre bat aurreikusita daude). Coopolis La Ciutat Invisible-k eta Lacol-ek antolatutako proposamena da, Barcelona Activa udal-garapeneko agentziak sustatua (proiektuaren helburua gaur egun udalak espezifikoki lantzen ez duen eremu ekonomiko hori sendotzea da).

Proiektua fabrikaguneko 4. blokean ardaizten da; 2.650 m neurtzen du, eta han ekipamendu hauek instalatuko dira: erakunde erakargarrientzako lan-moduluak, *co-working* guneak, bilera-, prestakuntza- eta aurkezpen-espazio komunak, dokumentazio-zentroa, kafetegi-*officea*, biltegia. Lehen fasean, blokearen erdia berreskuratzea planteatu da, eta hasteko aurrekontua 1,5 milioi euro dira. Hurrengo faseetarako, hau da, kontratatze eta jarduera garatzeko, beste 3 milioi euro aurreikusi dira.

Coopolisek jorratzen dituen lehentasunezko sektoreak hauexek dira: **ekonomia berdea, teknologia berriak, kultura, komunikazioa, lanbide eta jarduera erdiindustrialak, enpresa-zerbitzuak eta pertsonentzako zerbitzuak**. Eta hauek dira ekimenak hautatzeko irizpideak: berrikuntza-maila, kalitate oneko enpleguaren sorketa, enpresaren eta talde-osaketaren eredua, hazteko edo errepikatze gaitasuna, kaudimen tekniko eta gizarte-eta ingurumen-jasangarritasuna, gizarte-sustraitzea eta lurraldearen gaineko eragin positiboa, (sektoreko eta lurraldeko) lankidetzaren sareak sortzeko ahalmena eta gizarte-eragina.

Coopolisek zenbait espazio edo programa iraunkor ditu:

- **Espacio Emprende:** Coopolisen sartzeko ate nagusia da; negozio-eredua garatzeko edo jarduera hasteko fasean dauden proiektuei laguntzeko eta prestatzeko balio du. Horrez gain, *Barcelona Activaren Enpresari Arreta Emateko Bulegoa eta Enpresa Kokatzeko Zerbitzua* barne hartuko ditu.
- **Espacio Re-emprende:** inplikazio handia dauka tokiko testuinguruan eta Santsen merkataritza txikia eta mikroenpresa berriro definitzeko balio du.
- **Espacio Colaborativo:** Coopolisen dauden eragileen arteko lankidetzaren harremanak indartu nahi ditu. Lankidetzaren eta trukearen alde egiteko tresnak eta metodologiak dauzka, hala nola, denbora-banku bat eta baliabide-banku bat.
- **Feinateca:** langabezia-egoeran dauden edo lanbide-ibilbidez aldatu nahi duten pertsonentzat.

Gobernamenduari dagokionez, Coopolisek bi antolaketa-maila ditu:

- **Maila politikoa:** batzar bat eta gutxienez ekintza-talde bat, eragileak espazio batean biltzen dituen, estrategia eta helburu komun eta transbertsalak definitzeko, lana planifikatzeko eta prestakuntza eta esku-hartze ildoak diseinatzeko.
- **Maila tekniko:** egitura profesional egonkor bat (gutxi gorabehera 14 pertsonakoa), hartutako erabakiak garatu eta gauzatu dituen eta proiektuaren egunerokoa eraginkortasunez eta kalitatez kudeatzen duena. Hauek dira talde horren funtzioak: koordinazioa, harrera, idazkaritza eta administrazioa, komunikazioa eta artxiboa, programen eta hitzarmenen garapena eta pertsonentzako, enpresentzako eta lurraldearentzako zerbitzuak.



## Oharrak

- Coopolisek —eta Can Batllóko proiektu osoak— lantzen duen toki-garapenaren ideia gizarte-kapitalaren ekoizpenean, elkarre-sareen balioan, testuinguruan egotearen eta horrekin inplikatzearen ondorioz sortzen den konfiantzan eta gizarte-merkatu eta toki-ekonomia jasangarri baten ekoizpenean oinarritzen da. Hori guztia, **proiektu zehatzen planifikazio estrategikoaren eta diseinuaren antolaketa konplexu batean** gainjarria, eragile guztien (administrazioa, eragile pribatuak, sozietate zibila) inplikazioarekin. Hori funtsezkoa da auzoan erreklamazio historiko gisa, eta gauza bera gertatzen ari da *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuaren jatorrian.
- Horrelako proiektuak garatzeko, **erakunde publikoen eta pribatuen, toki- eta udal-eragileen edo irabazi-asmoa duten eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen estrategien adostasun konplexua behar da, haztatu behar diren askotariko interesak eta helburuak eta funtzionamendu-logika eta lotura-maila desberdinak kontuan hartuta.**

Alderdi praktikoari begira (prozesuari eta eragileen arteko harremani loturiko beste kontu batzuek haraindi) proiektuaren helburuei heltzea ahalbidetzen duen eta eragile guztiek parekotasunez parte hartzeko gobernamentu-eredu bat ziurtatzen duen **forma juridiko** bat aurkitu behar da. Modu posible bat **erakundeen zerbitzu-kooperatibarena** da; gutxitan erabiltzen da, baina oso interesgarria da eta proiektuak sustatzen dituen balioekin bat dator. Euskadiko kooperatiben legearen 125. artikulua araberak: ***Batzak, herri-erakundeak, iraskundeak, sindikatuak eta bestelako elkarteak dira mota honetako kooperatibak era ditzaketanak; kooperatiba horien bidez, denen berdintasunean eta kide bakoitzaren burujabetasuna eta erakunde lez dituen ezaugarriak ukitu gabe, edozein arazo edo antolamendu edo jarduneko beharrez irtenbidea eman dakioko.***





## Zaragoza Activa / La Azucarera

Zaragoza

<http://zaragoza.es/activa>

ekintzailtza | berrikuntza | komunitatea | laugarren\_ sektorea |  
elkarlanean\_aritzea | dohain\_ekonomia | neurtzea\_ ebaluatzea

### Deskribapena

Zaragozako Udalaren proiektu bat, antzinako azukre-lantegi batean, 2009an birgaitu zen 4.000 m<sup>2</sup>-ko eraikin batean, kokatua. **Ekosistema ekintzaile, berritzaile eta elkarlanekoa, pertsonen, enprezen, proiektu publikoen eta gizarte-ekimenez osatua.** Ekimen ekonomikoen mintegi baten, auzo-etxe baten eta herritarren laborategi baten artean dagoen lekua. Espazio horretatik ideiak zabaldu daitezke, baita horra talentua erakarri ere egin. Herritarrentzat zabalik dago eta hasiera batean gutxienentzat jotzen diren praktikak eta jarrerak jende ugariengana hurbiltzeko asmoa du.

Duela gutxi memoria bat<sup>8</sup> argitaratu dute lehen bost jardura-urteak ospatzeko; horren bidez, proiektua eta haren inguruan mugitzen diren ekimen-motak hobeto ezagut daitezke eta orain arte egindako guztiaren analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa ikus daitezke.

---

<sup>8</sup> <http://www.zaragoza.es/contenidos/sectores/activa/zgz-activa15.pdf>



## Informazio interesgarria

Zaragoza Activan bai proiektu egonkorak bai aldizkako ekimenak zein puntualak garatzen dira; guztiek elkar atzera elikatzen dute eta komunitate-idea indartu egiten dute.

- *Vivero de Emprendedores*. Enpresa-laguntzako programa bat eskaintzen duten 17 bulego, hilean 220€-ko prezioan.
- *La Colaboradora*<sup>9</sup>. P2P co-workinga, kide desberdinen arteko elkarlanaren eta trukearen bidez, denbora-banku baten bidez, funtzionatzen duena.
- *Semillero de Ideas*. Ekintzaile-eskola publikoa eta doakoa (4 hilabeteko murgilketa).
- *Zona Empleo*. Enplegua bilatzeko edo hobetzeko orientabidea emateko arreta pertsonalizatuko bulegoa. IMEFEZen (Zaragozako Enpleguko eta Enpresa Sustapeneko Udal Institutua) menpe dago.
- *Made in Zaragoza*<sup>10</sup>. Sormenezko ekonomiako sarea, batez ere elkarlaneko blog batez eta merkataritza-dinamizazioko jardueraz aritzen dena.
- *Yuzz*. Banco Santanderren laguntzaz kudeatutako azeleratzailea, urtero start-up bat Silicon Valley-ra bidaltzen duena.
- *ThinkZAC*. Jakintza nomadako laborategia, gizarte- eta kultura-berrikuntzan espezializatua.
- *Cubit*. Udal-sareko liburutegia, bereziki gazteengan ardatzua, Bertelsmann fundazioarekin eta CAIrekin sinatutako hitzarmen batetik sortua.
- Beste iragate-espazio (*ciberra*, sukaldea, kafetegia) eta proiektu batzuk, hala nola: *No-Master* ikaskuntza partekaturako, *Speaknic* ingelesa praktikatzeko, *BetaBeers* garatzaileentzako, *Canvas Abierto* negozioak elkarlanean prototipatzeko...
- Eta hori guztia, *Red ZAC*<sup>11</sup> komunitate birtualean bilduta; gizarte-sare horretan, mundu guztiak alta hartu eta bere profila sor dezake (6.000 erabiltzaile baino gehiago daude), beste sare pertsonalekin konektatu, *ZACcoin* direlakoak kudeatu, jardueretarako izena eman, etab.


## Oharrak

- **Proiektu jendetsua**, urtero 300.000 bisita/erabilera jasotzen dituen, gantxoarena egiten duten oinarrizko programei esker, adibidez, *Cubit* liburutegia eta *Zona Empleo*, pertsonak prestakuntza- eta dibulgazio-jarduera espezializatuagoen edo gutxiengodunen agenda bizi batera erakartzen baitute (500-600 jarduera urtero).
- **Trantsizio bigunak**, *protomaker*-aktibista-ekintzailearen eta handik igarotzen zen auzoko gaztearen artean dagoen arraila gainditzea ahalbidetzen dutenak. Espazioen eta jardueren arteko elkarreragin- eta geruza-sistema. Horien arteko kutsadura eta trantsizioa errazten ditu; horrek partaidetza, sormen eta berrikuntza handiagoa eragiten ditu, lotura gertagaitzen bidez, eta *prouser* (ekoizle-erabiltzailea) figura indar handiagoaz sortzea ekartzen du.

<sup>9</sup> <http://zaragoza.es/lacolaboradora>

<sup>10</sup> <http://www.madeinzaragoza.es>

<sup>11</sup> <http://www.zaragoza.es/zac>



- **Laugarren sektorearen ikuspegia.** Hauek bat datozen guneari deritzo: pribatua, berrikuntza eta kudeaketa arina eta malgua baitakartza; publikoa, giharra, segurtasun juridikoa eta sarbide unibertsalaren ikuspegiarako arreta baitakartza; eta soziala, arazo zehatz eta kokatuekiko harremana, komunitate-zentzua eta masa kritikoa baitakartza. Horrekin batera, *trans* jarrera dago eragile bakoitzak betetzen dituen rolei eta gobernamentu-eredu berrien osaketari dagokienez.
- **Dohain-ekonomia da La Colaboradorearen** oinarria. Adimen kolektiboko espazio fisikoa, parekoen arteko (*peer to peer*) truke-sareen filosofia eta giza kontaktuaren intentsitate guztia konbinatzen dituena. Komunitate irekia, erabiltzaileek beraiek kudeatua; bertan, denbora da ezagutzak, zerbitzuak eta beste baliabide batzuk ibilarazteko truke-dirua. Trukeek zeharkako elkarrekotasuna daukate, eta kide bakoitzak hilean bere gaitasunekin zerikusia duten 8 ordu ekartzeko konpromisoa hartzen du (webgune bat sortzeko, gutun bat ingelesera itzultzeko, kontabilitate-zerbitzuak emateko, lan-saio bat errazteko, logotipo-bat diseinatzeko...).
- **Dimentsio digitala eraikin fisikoaz haraindi,** komunitatea eraikitzeke eta indartzeko moduak erraztu eta dibertsifikatzen baititu. Espazio birtuala, gizarte-sarea, kriptodirua edo erdiespen digitalen liburutegia; hori guztia, *open source* delakoaren parametroen arabera.
- **Itzulkin soziala neurtzea, sortutakoaren balioa ezagutzea, SROI** edo *Ondasun Komunaren Ekonomiaren Matrizaren* bidez; horri esker, helburuak lortzeko aurrerapena ebaluatu eta inbertsioa justifikatu ahalko da, murrizketa-boladaren aurrean eta funts publikoen eta pribatuen birbideratzearen aurrean.



## #HarineraZGZ

Zaragoza

<https://harinerazgz.wordpress.com>

partaidetza\_prozesua | publikoa\_pribatua | sormena | komunitatea | hiri\_berroneratzea | dokumentatzea

### Deskribapena

**#HarineraZGZ** Zaragozako Udalak bultzatutako **partaidetza-prozesua** da, **arteetan, sormenean eta kulturaren ardaztua**; 2014ko urrian hasi zen eta Harinera sormen-espaziorako kudeaketa-erabileren eta mekaniken proiektu bat idaztea du helburu.

Prozesu horren bidez, Harinera abian jartzeko eta ondoren kudeatzeko kontuan hartu beharreko prozedurak eta jarraibideak definitu nahi dira, litezkeen erabiltzaileen beharretara eta helburuetara egokitzen dela bermatzeko, bideragarritasun- eta jasangarritasun-irizpideei jarraituz. Lehentasunetako bat trantsiziorako jarraibideak ezartzea da (eragileek kudeaketa horretan parte hartzeko tresnak barne hartzen dituen kudeaketa-eredu batetik abiatuta), **behin betiko ereduan eragileek berek kudea dezaten espazioa, modu osoan, kolektiboan eta parte-hartzailean.**

### Oharrak

Proiektua oraindik abian ez dagoen arren, uste dugu interesgarria dela; izan ere, funtzioaren diseinuari eta kudeaketa-ereduari dagokienez bilakaera logikoa proposatzen da, aurreko puntuan ikusi dugun La Azucarera / La Colaboradora baden horretarantz. **Hasieratik, etorkizuneko erabiltzaileek prototipatze-prozesuan parte hartu dute eta loturak eta komunitate-harremanak sortu dira, elkarrekin eraikitzeko lantegiak eginez, erreferentziako beste zentro batzuk bisitatuz, erabilerak elkarrekin diseinatuz, etab. Horrez gain, elkarrekin sortzeko prozesu hori modu irekian biltzen, dokumentatzen eta partekatzen ari dira<sup>12</sup>.**

---

12 Oso interesgarria da <https://harinerazgz.wordpress.com/documentacion/> webguneko dokumentazioari buruzko atala, eta bereziki erabileren-programari buruzko txosten xehatua: [http://issuu.com/paisajetransversal/docs/150317\\_programaampliadodeusos\\_masba](http://issuu.com/paisajetransversal/docs/150317_programaampliadodeusos_masba)



## Barcelona Lab (BCNlab)

Bartzelona

<http://www.barcelonalab.cat>

*living\_laba* | *helize\_laukoitza* | *hibridazioa* | *gizarte\_teknologiak* | *prototipatzea* | *kultura\_askea* | *sareko\_lana* | *aditua\_amateurra*

## Deskribapena

Pertsonen eta komunitate sozial, zientifiko, artistiko edo teknologikoen arteko loturak bultzatu eta ezartzeko plataforma, sormen aplikatuko ideiak eta proiektuak gauzatzeko; **berrikuntza hiriak eta haien ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalak eraldatzeko tresnatzat** jotzen da.

Berrikuntza-ekosistema horrek laborategi-hiriaren ereduaren inguruan egiten du lan: **hiri dinamikoa, aktiboa, erantzunkidea, non unibertsitateak eta ikerketa-zentroek, enpresaren munduak, administrazioak eta herritarrek (helize lauhoitza deritzonak) elkarrekin aurrera egiten duten.** Lurraldean hedatutako sarea, gizartearen onurako diren berritzeko era berriak arakatzeko eta esperimendatzeko, elkarrekin sortzea eta herritarrek parte hartzea funtsezko elementutzat hartuta. Gizarte-berrikuntza programa, non produktu eta zerbitzu berriak sortzeaz gain funtsean balio publikoa sortzen den<sup>13</sup>.

**PERTSONAK + IDEIAK + HIRIA + BULKADA**

---

13 Webguneaz gain, BCNlab ezagutzeko erreferentzia on bat Inés Garrigak Medialab-Prado 2015eko urrian antolatutako #labmeeting delakoan egin zuen aurkezpena da: <http://medialab-prado.es/article/barcelona-lab>



## Informazio interesgarria

BCNlab Bartzelonako Udaleko Kultura Institutuko Sormen eta Berrikuntza Zuzendaritzak bultzatutako programa da; 2012tik dago abian, eta haren aurrekariak i2cat (Unibertsitate Politeknikoa), CitiLab, LivingLaben *Sare Katalana* esperientziak eta *guifi.net* proiektua dira.

Programak udalaren finantzaketa handia dauka; hori, beste erakunde publikoekin eta pribatuekin egindako akordio eta proiektu zehatzen bidez, Europako funtsez, unibertsitatez eta ikerketa-zentroz, enpresez, elkartez eta hiriko komunitatez osatzen eta dibertsifikatzen da.

### BCNlab-ek lantzen dituen helburu batzuk hauek dira:

- Estrategia bat antolatzea eta ekintzak bat etorraraztea, multzoaren koherentzia bilatzeko asmoz.
- Hirian helize laukoitzean oinarritutako gizarte-berrikuntzako eredu bat probatzea.
- Eragile desberdinen artean finantzaketa eta beste baliabide batzuk erakarri eta bideratzea.
- Teoriatik praktikara pasatzea, prototipatzeari garrantzi berezia emanez.
- Herritarren ikerketa berrikuntza-eragile ofizialenekin konektatzea, berrikuntza irekiko ikuspegi batetik.
- Partaidetzako, elkarlaneko eta crowdsourcingeko tresnak, metodologiak eta protokoloak garatzea eta horiei euskarria ematea.

### BCNlab hauxe eskaintzen dio bere komunitateari:

- Kidetasuna, laguntza eta komunitatearen proiektzioa.
- Komunitatearen dinamizazioa (lantegiak, aurkezpenak, networkinga etab).
- Azpiegitura, baliabide eta programa publikoen erabateko sarea, berrikuntza-zentroa espezializatuetatik auzo-etxeen eta liburutegien sareraino, udal-jaialdi kulturalak barne (esperimentazio-ingurune gisa).
- Herritarrek proiektuetan duten partaidetzaren egituraketa.
- Nazioko eta nazioarteko deialdietara aurkezteko laguntza.
- Aktiboen eta hedapen-euskarri fisikoen eta digitalen marketplacea.
- Gizarte-, hiri- edo merkatu-erronka berrien planteamendua.

## Oharrak

- **Udalaren barruan jarraitutasuna eta bokazio transbertsala dituen apustu politiko baten garrantzia.** Horretarako, proiektua pixkanaka eskalatu behar izan da eta politika eta neurri zehatzak bihurtu diren pilotuak sortu behar izan dira.
- **Berrikuntza kulturalan eta berrikuntzaren kultura.** Agenteak, proiektuak eta azpiegiturak/baliabideak mapatzea; eragileen arteko sinergiak eta diziplinen hibridazioa; funtzionamendu-hizkuntzak eta -kulturalak ulertzea eta egokitzea; ezagutzak eta esperientziak transferitzea.
- **BCNlab ez da edonolako herritarren laborategia, baizik eta laborategi-sistema (*laben laba*).** Hiri osoan, erdialdean eta aldirietan, banatutako *lab*-azpiegituren sarea, ekipamendu espezializatuen eta auzo-etxeen eta liburutegien artean antolatua, lurralde-unitate banatu gisa.



## **Forum for Social Innovation Sweden**

Malmö (Suedia)

<http://socialinnovation.se/en>

plataforma\_sarea | askotariko\_eragileak | diseinua | elkarrekin |  
gizarte\_berrikuntza | ikerketa | unibertsitatea | laborategia |  
politika\_publicoak

### **Deskribapena**

Suediako estatu-plataforma gizarte-berrikuntza eta gizarte-ekintzailtza sustatzeko. Foroa **topaketa-lekua da, etengabe eboluzionatzen ari da eta ahalik eta eragile gehienen lankidetzan eta partaidetzan oinarritzen da:** unibertsitatea, industria, gobernua, herritarrak eta gobernuz kanpoko erakundeak. Hauxe da haren helburua: alde batetik, berrikuntzaren eta gizarte-ekintzailtzaren radarrean dauden eragile guztiak biltzea; eta, bestetik, hazten ari den sektore horretan ikerketa, ezagutza eta gaitasunak garatzea.

Foroaren arreta-gune nagusietako bat **diseinuaren eta gizarte-berrikuntzaren arteko elkarketa** da; halaber, **aztertzen da nola den erabilgarri diseinua gizarte-erronka konplexuak konpontzeko.**

### **Informazio interesgarria**

Proiektua 2008an hasi zen, Malmöko Unibertsitateak eta Skane eskualdeak kudeatuta. Hiru ardatzen inguruan lan egiten du: ikerketa, prestakuntza eta gizarte-ekintzailtzari buruzko sentsibilizazioa.



Foroak **zerbitzu publikoak eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspuntutik birmodelatzeko** konpromisoa hartu du; **horretarako, askotariko eragileek horiek elkarrekin diseinatzea eta elkarrekin sortzea sustatzen du**. Urrian Herri Administrazioaren Europako Institutuak (HAEI) kontu horiei buruz antolatutako mintegian<sup>14</sup> parte hartuko dute.

Beste funtzio bat bai tokiko bai munduko **informazioa bildu eta zabaltzea** da, baita **bere ikerketak** garatu eta argitaratu ere egin, ezagutza partekatzeko. Era berean, beste eragile batzuen argitalpenen banku oparoa dauka.

## Oharrak

- **Co-Labak** abian jarri berri dituzte, **eragile zehatzen arteko foro batzuk, eguneroko testuinguruetan eta gizarte-erronkak dauden eta landu behar diren inguruneetan berritzeko gaitasuna eraikitze eta indartzeko**. Apustuetako bat gizarte-berrikuntzaren arloan erabakiak hartzeko eta proiektuak sortzeko eredu deszentralizatu batera pasatzea da. Aldi zehatz batean, parte-hartzaileak aldizka biltzen dira elkarrekin irtenbideak eta ezagutza sortzeko, parte-hartzaileen eta proiektuen liderkideen artean. Hortik abiatuta, diseinu- eta prototipatze-fase batera pasatzen dira.

Pentsatzen da eredu hori interesgarria dela zabaltzeko eta Suediako gizarte osoak gizarte-berrikuntzak garatzeko agertoki gisa erabiltzeko elkarlan-moduak sortzeko. 2015ean eremu espezifikotako 3 *co-lab* egingo dituzte, horietako bat, liburutegi publikoei buruzkoa, ondasun komun gisa<sup>15</sup>.

**Harrobi plaza gizarte-berrikuntzako erakargunetzat jo dezakegu; bertan, auzoko eta hiriko gizarte-berrikuntzarekin zerikusia duten askotariko eragileen arteko topaketa- edo laborategi-gune horiek sortzeko plan pilotu bat abian jar dezakegu**. Plazaren inguruko espazio komunak, dauden erakundeak eta auzoaren idiosinkrasia bera, gizarte-erronka ugari biltzen baititu, aprobeztatzea. Horrek auzoan ez dauden beste eragile batzuk erakarriko lituzke eta programak eta praktikak garatzeko eta trukatzeko balioko luke.

- Foroa **herritarren intereseko proiektuetan integratutako "unibertsitate aplikatuaren"** adibide ona da. Gure unibertsitateak *HARROBitik HARROBIra* prozesuan prestakuntza-programez, praktikez, ikerketa-proiektuez eta abarrez nahasteko moduz hausnartu beharko genuke. Beste adibide bat *Cibersity* ikerketa-taldearen lankidetzat izan liteke, *KulturBasqueren* bidez, *UrbanBat*<sup>16</sup> pedagogia kritikoen programan.
- Diseinua gero eta eremu garrantzitsuagoa da gure bizitzetan, eta are gehiago **gizarte-diseinua, pertsonengan ardaztua, hobekuntzak sortzen dituzten eta gizarte-eragin positiboa daukaten harreman-produktu, -zerbitzu edo -ereduen garapenera aplikatua**<sup>17</sup>. Harrobi plazako ingurunean kokatutako zenbait eragile (APTES, Farapi, ColaBoraBora eta Novia Salcedo) gaur egun *Gizarte Diseinuko Eskola* bat zehazteko eta abian jartzeko lan egiten ari dira, eta, horrez gain, eremu horretan Ttipi Studio eta Apitropik enpresek ere lan egiten dute, besteak beste.

<sup>14</sup> <http://socialinnovation.se/en/improving-effectiveness-and-efficiency-in-public-service-delivery-through-co-design-and-co-creation/>

<sup>15</sup> <http://socialinnovation.se/en/common-libraries-prototyping-the-library-of-the-future-today/>

<sup>16</sup> [http://urbanbat.org/bat\\_alterotopiak/](http://urbanbat.org/bat_alterotopiak/)

<sup>17</sup> <http://www.experimenta.es/noticias/servicios-participativos-colaborativos-diseno-e-innovacion-social-para-la-sostenibilidad-3711>







Datu kuantitatibo batzuk eskaintzearen, 2014an 11.797 pertsona joan ziren ekitaldietara, *workshop*etara eta ikastaroetara; 2.620 pertsonak parte hartu zuten proiektuen inguruan antolatutako jardueretan (horietako %50ek baino gehiagok 25 urte baino gutxiago zeuzkaten, ia %15ek 60 urte baino gehiago zituzten eta ia %40 Bristoleko biztanleak ziren); 49 boluntariok eskaini zuten lana (guztira, 630 ordu); 5 lanpostu berri sortu ziren eta 14 gaztek parte hartu zuten praktika-programetan; 8 enpresa berri sortzen lagundu zen; 9 *app* programatu ziren (10.000 deskarga eduki dituzte), guztira 32.500 pertsonari banatu zitzaizkien *newslett*errak eta magazinak; webguneak 30.000 bisita eduki zituen, eta zentroko proiektuek eta jarduerak ekoiztutako audioek, bideoek eta *streaming*ek guztira 56.000.000 erreproduzio eduki zituzten.

## Oharrak

- **Kokapena eta eraikina.** Beraiek adierazten dutenez, *“Ez ginateke beste edonon egongo. Hasi ginenetik egoiliarrekin, toki-ekintzaileekin eta gazteekin lan egin dugu, gizarte-aldaketa positibo bat lortzeko eredu berriak eta sormenezkoak garatzeko asmoz”*. **Proiektua bere testuinguruan gainjartzea funtsezkoa eta erabakigarria da**, eta *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesuarentzat ere halakoa izan behar du.
- **Artea eta teknologia.** Auzoan garapen komunitarioaren ikuspuntutik zein enplegua sortzeko ikuspegitik landu litekeen binomioa. Horretarako, jadanik lan egiten duten eragileen ugaritasuna aprobeztatuko litzateke, batez ere sektore artistikoari eta gero eta gehiago teknologia- eta hezkuntza-sektoreari dagokienez. Kontu horretan auzoan dauden eragileek zeregin bat bete ahalko lukete, esate baterako, ikastolak berak eta eskaintzen duen lanbide-heziketak (adib., 3D modelatuari buruzko prestakuntza berri batez) edo ekipamendu espezializatuek, hala nola BilbaoArtek<sup>18</sup> eta Arte Berreginen Museoak<sup>19</sup> (**beren jarduera-eremua erreproduzio materialeko eta sozialeko teknologiei lotutako kultura-praktiketara zabalduz**—ildo horretan, ColaBoraBorak, 2012an, Mirasol kondearen kaleko antzinako Berreginen Museoaren espazioan garatzeko proiektu bat aurkeztu zuen—).
- **Transmedia kontakizunak.** Ikus-entzunezko komunikazioa proiektuaren ardatz nagusietako bat da. Horren adibide bat *Urbanwise Media Project*<sup>20</sup> ekimen interesgarria da, ikus-entzunezko istorioak ekoizteko 10 beka eskaintzen baitizkie justizia penaleko sistema uzten duten gazteei edo horrelako delituak egiteko arriskuan daudenei. Ildo horretan, auzoan mota horretako proiektuak garatzen ari dira jadanik, esate baterako, Aldauri fundazioak garatzen dituen jarduerak; horien artean, *Identibuzz*<sup>21</sup> dokumentala azpimarra liteke, auzoan egin baitzen eta biztanleak teknologia berrien erabileran gaitu baitzituen; bestalde, Olga Ruizek Askabiderekin egindako proiektua, *“Historia de mujeres”*<sup>22</sup>, aipa daiteke.

18 <http://bilbaoarte.org/>

19 <http://www.museoreproduccionesbilbao.org/>

20 <https://www.facebook.com/pages/UrbanWise-Movement/139343782746228>

21 <http://www.identibuzz.org/>

22 [http://www.olgaruiz.es/proyecto\\_historia\\_mujeres.php](http://www.olgaruiz.es/proyecto_historia_mujeres.php)



## Torino Social Innovation

Turin (Italia)

<http://www.torinosocialinnovation.it>

**gizarte\_berrikuntza | ekintzailtza | programa\_publicoa | askotariko\_partnerrak | finantzaketa | plataforma\_sarea | espazio\_katalizatzailea | lankidetz**

### Deskribapena

Turineko Udalak 2014ko urtarrilean abian jarritako eta kudeatutako programa publikoa; euskarria emateko, sinergiak sortzeko eta hezkuntzaren, enpleguaren, mugikortasunaren, osasunaren eta inklusioaren eremuetan balioa sortzen aritzen diren enpresa berrien eragina areagotzeko estrategien eta tresnen multzo bat biltzen du. **Hirian gizarte-berrikuntzaren kultura, sormenezko komunitateen garapena, elkarlaneko ekonomia eta harreman dinamikoagoetan, inklusiboetan eta jasangarriagoetan oinarritutako negozio-ereduak sustatu nahi ditu.**


### Información de interés

Orain arte, aholkularitza, prestakuntza eta finantzaketarako sarbidea eman zaizkie proiektu eta ekintzaile ugari, zenbait programaren bidez. Orain arte, ekintza nagusia *Facilito Giovanni* izan da, enpresak abian jartzeko laguntza eta finantzaketa eskaintzen baititu —funts galdurako inbertsioen bidez edo 10.000€ eta 80.000€ bitarteko mailegu bigunen bidez—. **Baina programak jauzi kualitatiboa egin du eta erakunde publiko eta pribatu gehiago sartzen ari da; horrela, gizarte-berrikuntzarako plataforma koordinatua bihurtzen ari da.** Plataforma hori hartzeko, udalak deialdi bat zabaldu du 1.400m<sup>2</sup>-ko eraikin industrial zahar bat berreskuratzeko, han *Centro Open Innovation* berria kokatze aldera.



## Oharrak

- **Eraikin bat baino lehen edukia sortzearen garrantzia.** Lehenik, zenbait zerbitzu barne hartzen dituen programa bat sortu da, komunitatea eratu da eta, ondoren, proiektua eskalatu egingo da, hiriko espazio huts bat berrerabiliz. Garrantzitsua da alderdi hori aintzat hartzea *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesutik planteatzerakoan, plazaren inguruan dagoen enpresa- eta komunitate-sarea sendotzeko eta dinamizatzeke.
- **Programa hasieratik askotariko *partner*-sare bat garatzea gogoan hartuta diseinatzea.** Sare horrek orain 34 erakunde publiko eta pribatu biltzen ditu, gizarte-berrikuntzan bat etortzen direnak. Plataforma ireki gisa funtzionatzen du, ikerketan, ekintzailertzan, politika publikoetan eta gazterian eskumen desberdinak dituzten eragileen ekosistema gisa. Bi *partner*-maila daude: lehenengo mailan, eskualdeko administrazioa eta unibertsitatea biltzen dira, besteak beste; bigarrenen, askotariko erakundeak daude, hala nola Turineko FabLab, Social Fare, fundazioak, enpresa handiak, merkataritza-ganbera, behatokiak, kooperatiben konfederazioak, *venture capitale*ko eragileak. Bilboko Udalaren funtzioetako batek askotariko eragile-mota horiek erakarri eta katalizatzea izan beharko luke.
- **Abian jartzeko finantzaketa esanguratsua eskaintzea,** bere programen bidez edo inbertsio-funtsak dauzkaten *partner*rekin elkarlanean. Orain arte, 50 proiektu baino gehiago finantzatu dira, guztira 1.108.000€-rekin. Hasierako faseetarako, proiektuak definitzeko eta prototipatzeko 4.000€-ko poltsa ekonomikoak eskaintzen dituzten *partner*ak daude.
- ***Centro Open Innovations* berriaren helburua behatokia, erreferentziako espazioa izatea** eta herritarren, administrazio publikoen eta enpresen gizarte-beharrak **partekatzea da.** Harrobi plazan garatzeko proiektuak ere hirian gizarte-berrikuntzaren inguruko eragileentzako erreferentzia-puntu bihurtzeko nahi hori eduki dezake.



## Finantzaketa eta gizarte-eragineko bonuak

neurri\_ekonomikoa | gizarte\_politika | finantzaketa\_inbertsioa |  
gizarte\_enpresa | hirugarren\_sektorea | publikoa\_pribatua

### Deskribapena

Gizarte-eragineko bonuak (GEB)<sup>23</sup> emaitzetan oinarritutako finantzaketa-tresna dira; horien bidez, **administrazio batek (edo emaile batek) hirugarren bat kontratatzen du administrazio publikoak estaltzen ez dituen gizarte-zerbitzu batzuk emateko.**

GEB ereduak honela funtzionatzen du: inbertsiogile batek (edo inbertsiogile-talde batek) finantzaketa aurreratua ematen du zerbitzu-hornitzaile baten eragiketetarako, proiektu zehatz bati heltzeko, eta ordaintzailearengandik (oro har, administrazio bat edo beste erakunde emaile bat) errentagarritasun bat jasotzen du emaitzak lortutakoan.

Adibidez, diabetesa duten gaixoei arreta emateaz arduratzen diren kliniketako zerbitzuak hobetzeko inbertitzea, arrisku handian dauden herritar batzuekin lan eginez. 4 urteko aldirian, Mexikoko gobernuak dirua itzultzen die inbertsiogileei diabetesa kontrolatzea lortzen duen pertsona bakoitzeko, horrek osasun-konplikazioak saihesten baititu eta gobernuari dirua aurrezten baitio. Pertsona ebaluatzaile independente batek zehazten du eragina, analisi zorrotz baten bitartez (kasu zehatz honetan, ausazko kontrol-proba bat).

### Informazio interesgarria

Lehen GEB Erresuma Batuko espetxe-sisteman abiarazi zen, 2010ean; *Social Finance*<sup>24</sup> izan zen burua, eta Petersbrough-ko kartzelan errehabilitazio-zerbitzuak ematea zen xedea, berrerortze kriminalaren tasa murrizteko helburuarekin.

<sup>23</sup> [https://en.wikipedia.org/wiki/Social\\_impact\\_bond](https://en.wikipedia.org/wiki/Social_impact_bond)

<sup>24</sup> <http://www.socialfinance.org.uk/>



1. Emaitzen arabera ordaintzen duen erakunde ordaintzaile batek; gobernu-agentzia, fundazioa, etab. izan daiteke.
2. Hirugarren sektoreko zerbitzu-hornitzaile batek.
3. Inbertsiogile batek edo batzuek; pertsonak, fundazioak edo inbertsio-enpresak izan daitezke.
4. Proiektuaren inplementazioa diseinatzeaz, programa kudeatzeaz edo tartean dauden alderdiak koordinatzeaz edo haien artean bitartekari izateaz arduratzen den pertsona batek.
5. Pertsona ebaluatzaile independente batek.

Gaur egun, honako hauek ordaintzen ari dira emaitzen arabera: tokiko eta naziko gobernuak herrialde garatuetan (adibidez, Erresuma Batua eta Estatu Batuak), sarrera ertaineko herrialdeetako gobernu nazionalak (esate baterako, Mexiko eta Txile) eta nazioarteko emaileak (hala nola Global Fund). Hauek, aldiz, inbertsiogileak dira: nazioarteko banku-erakundeak (adibidez, Goldman Sachs eta Merrill Lynch) eta fundazioak (esaterako, UBS Optimus fundazioa eta Rockefeller fundazioa). Espainian, Kreditu Ofizialeko Institutuak (KOI) 2013an gizarte-bonuetan 1.000 milioi euroko emisioa atera zuen lehenengo aldiz.

## Oharrak

GEBak sustatzen eta garatzen dituztenek **egoera paradoxiko honi** aurre egin nahi diote: **gizarte-arazoan prebentzioan inbertitzeak diru publikoa aurreztu ahal du, baina administrazio publikoarentzat zaila da inbertsio horiek egiteko bere baliabideak erabiltzea.**

Gure ustez, premiazko arazo batzuei heltzeko, GEBen moduko finantzaketa-tresna bat interesgarria izan liteke gure testuinguruan, baina aldi berean arrisku batzuk ekar litzake. Ondoren, ageri ohi diren kritika eta arrisku batzuk azalduko ditugu:

- Analista batzuek ohartarazten dute finantza-tresna berri horiek **esperimentu garesti eta ezegonkorak** bihur daitezkeela, gobernuari azken arriskua uzten dietela eta hornitzaileei porrot egin duten edo eztabaidapean dauden kontratuak uzten dizkietela.
- Era berean, kontratu-modalitate horretarako sarbidea eduki dezaketen hirugarren sektoreko hornitzaile-motei buruzko zalantzak planteatzen dira, baita *lobby*ak edo eragileen arteko desberdintasun-egoerak sortzeko aukerarik egoteari buruz ere. Horrela, **kontratazio-irizpideek eta arauketek** kontu hauek xedatzea eskatzen da: ibilbidea eta testuingurua, zerbitzuaren kalitatea, hori garatzeko baldintzak, genero-ikuspegia, etab.
- Gai batzuk, **konplexuak direlako, behar bezala zehaztuta ez daudelako edo epe laburreko irtenbideen orde epe ertain edo luzeko irtenbideak dituztelako, kanpoan geratzen dira**, bai politika publikoei dagokienez (kasu askotan legegintzaldiei lotuta baitaude), bai tresna-mota berri horren bidez heldu beharreko kontuei dagokienez, tresnok askoz ere gai zehatzagoak eta neurgarriagoak eta epe labur edo ertainean sozioekonomikoki errentagarri bihur daitezkeenak lantzeko erabiltzen dira-eta.



Alternatiba edo osagarri bat **toki-erakundeetatik banaka edo taldeka zerbitzuak sortzen dituzten gizarte-enpresen ekosistema sendo bat eratzea sustatzea eta horretan laguntzea** izango litzateke. Alegia, bai jadanik instalatuta dauden gizarte-enpresak bai instalatu beharreko berriak babesten dituen programa bat.

Jarraian, erreferentzia izan litezkeen proiektu eta neurri batzuk hautatu ditugu, Harrobi plazaren inguruan berrikuntza eta gizarte-ekintzailtzako erakargune banatu bat proiektatu eta abian jartzeko.

- **Enplegu eta Gizarte Berrikuntzako Europako Programa (EaSI)**<sup>25</sup>. EBko eskalako finantzatresna; kalitate oneko enplegu jasangarriaren maila altua sustatzea du xede, gizarte-babes zuzena ekartzeko, gizarte-bazterketaren eta pobreziaaren aurka borrokatzeko eta lan-baldintzak hobetzeko. Haren helburuetako bat talde zaugarrientzako eta mikroenpresentzako zein gizarte-enpresentzako mikrofinantzaketaren eskuragarritasuna eta irisgarritasuna areagotzea da. 2014-2020rako guztizko aurrekontua 919.469,000 € dira.
- **Gizarte Ekintzailtzako Ataria**<sup>26</sup>, estatukoa; ekintzailtzatik gizarte-aldaketan lan egiten duten eragileak konektatzen dituen sare bat sortzeko helburua du. Toki-erakunde batzuek horren barruan gaude (plazatik hurbileneko testuinguruan, AD2S Consulting eta ColaBoraBora).
- **Banku etikoa eta kreditu-kooperatibak**, euskal lurraldean instalatutako bi erakunderen<sup>27</sup> bidez, alegia, Fiare eta Koop 57. Erakunde horien finantzaketa-programak gizarte-proiektu eta -enpresei lotzea (baita auzoan bulegoak edo egoitzak instalatzearen alde egitea ere), auzoarentzat aproposa den esparru-hitzarmen baten bidez, arreta benetako beharrei erantzuten dieten zerbitzuetan jarrita.
- **Coopérer**<sup>28</sup>. Ekimen frantsesa, kooperatiben eta soldatuko ekintzailearen figuraren bidez autookupazioa errazten duena eta ekonomia-jarduera bizkortzen duena. Ildo horretan, Frantzia **Les CIGALES**<sup>29</sup> programa ere interesgarria da, hain zuzen, herritar pribatuek ekonomia solidarioari lotutako tokiko mikroenpresak sustatzeko eratutako inbertsio-klubak.
- **Antropia ESSEC**<sup>30</sup>. Incubadora social puesta en marcha en 2005 desde la Cátedra de Iniciativa Emprendedora Social de ESSEC en Francia, cuyo objetivo es apoyar la creación de empresas sociales sostenibles, con alto impacto social y/o ambiental. Cuenta con diversos socios financieros y colaboradores, entre los que se encuentra Ashoka y otros que denominan *socios pro-bono*.
- **Antropia ESSEC**<sup>31</sup>. 2005ean Frantzia ESSECen Gizarte Ekimen Ekintzaileko Katedratik abian jarritako gizarte-inkubagailua. Haren helburua gizarte- edo ingurumen-eragin handiko gizarte-enpresa jasangarriak sortzen laguntzea da. Zenbait kide finantzario eta laguntzaile dauzka; haien artean Ashoka eta *pro-bono kideak* deritzeten batzuk daude.
- **Social Enterprise UK**<sup>32</sup>. Gizarte-enpresak ordezkatzeko dituen estatuko erakundea. Hona hemen haren helburuak: sektoreari hazten laguntzea, sarea sortzea, gizarte-ekintzaileak diren pertsoneri eta enpresei aholkuak ematea, kanpainak gauzatzea, ikerketak egitea, etab.

25 <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=1081&langId=es>

26 <http://www.emprendedorsocial.org/>

27 <http://www.fiarebancaetica.coop/> | <http://www.coop57.coop/>

28 <http://www.cooperer.coop/>

29 <http://cigales.asso.fr/>

30 <http://antropia.essec.fr/>

31 <http://antropia.essec.fr/>

32 <http://www.socialenterprise.org.uk/>



## La Fonderie

Île de France eskualdea (Frantzia)

<http://coworking.aap.lafonderie-idf.fr>

neurri\_ekonomikoa | publikoa\_pribatua | *co-workinga* | *fab-labak* | azpiegiturak | laguntza

## Deskribapena

Hauek dira erakundearen helburuak: 1) eskualdean berrikuntza digitala sustatzea, 2) politika publikoak herritarren partaidetzarekin konfiguratzeko teknologiek sartzen dituzten aldaketez hausnartzea eta 3) elkarlan-espazioak sortzen laguntzea. 2012tik, urtero, **lankidetzakultura eta teknologiak hedatzeko *co-working* zentroetarako eta *fab-lab*etarako laguntza-deialdi bat egiten du.**

## Informazio interesgarria

Urtero 2 milioi euro inguru erabiltzen dituzte elkarlan-espazio berriak finantzatzeko; hain zuzen, abian daramatzaten lau urteetan, guztira 80 zentro finantzatu dituzte, eskualde osoan banatuak. **Espazio bakoitzak gehienez 200.000 €-ko finantzaketa jaso dezake, gehienez inbertsio- eta ekipamendu-gastuen % 50 finantzatzeko.** Horren barruan hauei lotutako gastuak daude: espazio fisikoa eta egokitzapen-obrak, altzariak, hardwarea eta softwarea, ikus-entzunezko ekipamenduak, etab. Hala ere, ez dute bestelako funtzionamendu-, pertsonal- edo programazio-gasturik estaltzen.



ETE-ek (ahal izanez gero, kooperatibek), elkarteek eta tokiko erakunde publikoek hel diezaiekete laguntzei, baina Frantzian *interes publikoko taldeak (GIP)* deitzen dietenek, aldiz, ez. Epaimahai batek hautatzen du eta enpresa handiek kudeatutako espazioak finantzatzen ez direla ziurtatzen du, batzuetan simulazioz beren ohiko languneetarako makina eta ekipamendu berriak erosteko proiektuak aurkezten baitituzte.

## Oharrak

- **Partner estrategikoak.** Erakunde publikoa den arren, La Fonderiek baditu enpresa babesle batzuk, hala nola Orange, Leroy Merlin, Societe Generale, BPI France, etab. **Euskadin ez dago ez kulturarik ez pizgarririk ekimen horiek babesletza pribatua jasotzea sustatzeko**, baina interesgarria litzateke administrazio publikoetatik bide hori lantzea.
- **Finantzaketaz laguntzea** ezinbestekoa da sektore berriak sortu eta sustatzeko; hain zuzen, gehienak baliabide urriko gazteak jartzen ari dira abian, ekoizpen- eta banaketa-ereduak aldatzearen aldeko apustua egiten ari baitira. Proiektu horietako asko *co-working* espazio diferenteetan taldekatzen dira. Interesgarria da organikoki sortzen diren **espazio horien sorketa pertsonalizatua** babestea, erakundeek espazio horiek sortu eta gero enpresez *bete* behar izan beharrean, gainera horrela oso mapa koloretsuagoa eta desberdinagoa sortzen da-eta.

Idea auzoko espazio eta lonja hutsak okupatzean oinarritu liteke. Han lankidetzaz-espazioak instalatu litezke, **lan-espazioen ekosistema banatu bat** sortzeko; **bakoitzak bere ezaugarriak edukiko lituzke, baina denak esparru komun baten barruan egongo lirateke.** Hain zuzen, badira urte batzuk auzoan errealitate hori gertatzen ari dela, zenbait *mikro-coworking* instalatu baitira, prezioak erakarriak, baina baita auzoaren dinamismoak erakarriak ere.

Horren antzera, Euskadin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik, badira urte batzuk *Sormen Lantegiak*<sup>33</sup> diru-laguntzen programa bultzatzen dela. Horien modalitateetako batek, *Sorgunek*, **espazio-azpiegiturak babestea du helburu, kultura-ekoizpena sustatzeko asmoz, eta garrantzi berezia ematen die beste gizarte-eragile batzuekiko elkarrekintzari eta testuinguruari.** Auzoko zenbait eragilek, adibidez, consoinik, Okelak, Sareanek, Histeria Kolektiboak eta Wikitikok, programa horretatik jasotzen dute finantzaketa.

- **Finantzaketaz haraindi.** La Fonderieko taldea, finantzaketaren aurretik eta ostean, espazio bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiteaz arduratzen da, **lankidetzaz handitzeko eta harremanak estutzeko asmoz, soilik berrikuspen kontrolatzailea egiteko baina.** Espazio bakoitzean zer gertatzen den jakin nahi dute, han dauden pertsonak ezagutu eta antolatzen dituzten jardura batzuetan sartu ere egin.

---

33 [http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-kult20/es/contenidos/informacion/sormen\\_lantegiak\\_laguntzak/es\\_ayuda/sarrera.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-kult20/es/contenidos/informacion/sormen_lantegiak_laguntzak/es_ayuda/sarrera.html)



## Volumes

Paris

<http://volumesparis.org>

**co-workinga | sukaldea | makerra | komunitatea | elkarrekin\_kudeatzea | ekintzailatza | herritarren\_laborategia | elkarlaneko\_ekonomia | diseinu\_irekia**

## Deskribapena

Espazio hibridoa eta diziplina anitzeko proiektua, 2015ean arkitekto- eta artista-talde batek abian jarria, Pariseko auzo kultura anitzekoenetako batean, Belleville-n, kokatua. 500m<sup>2</sup>-ko lokal erreformatu eta egokitua, hiru alde bereizi eta aldi berean osagarri barne hartzen dituena: **co-working espazio bat, foodlab bat (elkarlaneko sukalde batekin) eta maker-space bat.**

Volumesek **desberdinen arteko lankidetzara eta sinergiak sustatzeko erreferentziako espazio** bihurtu nahi du; horretarako, bizikidetzako esparru produktibo bat ematen du eta sormenean eta diziplina ugariaren arteko lankidetzara zabaltzean oinarritutako etorkizunaren ikuspegi bat pizten du.

## Informazio interesgarria

Volumes profesional eta enpresa independenteentzako langunea baino gehiago izateko xedearekin sortu zen. Horretarako, hiru ardatzen inguruan antolatzen da:

1. **Funtzio anitzeko elkarlan-tresna.** Erabiltzaile guztiei beren proiektuak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen dizkie: Internet, inprimaketa anitzeko ekipamenduak, bilera-gelak, prototipatze-lantegiak, jantokia eta sukalde kolektiboa, lege- eta kontabilitate-laguntzak zerbitzuko, *coaching* pertsonalizatua.
2. **Profil ugari,** trebetasun osagarriak, esperientzia paregabeak eta ibilbide desberdinak dituen **komunitate oparoa**; nahasten, kideak elkar ezagutzen eta elkarlanean aritzen hasi dira.
3. Ikasteko, adierazteko, aurkitzeko, **partekatzeo ekitaldien askotariko programazioa:** hitzaldiak, debateak, aurkezpenak, erakusketak, lantegiak, yoga-eskolak, sukaldaritza, kontzertuak, proiektzioak, topaketa informalak, *afterwork*ak...

Volumes **La Fonderie** erakunde publikotik jasotako funts galdurako **300.000€-ko finantzaketari esker abian jarri ahal izan da** (ikus aurreko fitxa), espazioa egokitzeko eta altzariez eta ekipamendu tekniko horitzeko inbertitu baita. Horrez gain, **foodlaba hornitzeko crowdfunding-kanpaina** bat egin dute eta, horren bidez, 17.184€ bildu dituzte<sup>34</sup>.

Orain, negozio-eredua zenbait jardueraz elikatzen da: tarifen sistema berezia *co-working* espazioaren erabileren arabera; *maker-space* erabiltzea eta alokatzea; jardueretan parte hartzea; eta espazioak (eta lotutako zerbitzuak) unean-unean berrikuntza-ekitaldiak eta -jarduerak garatzeko erakundeei alokatzea.

## Oharrak

- **Profesionalen eta erakundeen komunitate erakargarria, goraka ari dena eta askotarikoa.** Volumesek, oraingoz, gutxi gorabehera 60 pertsona egoiliar eta beste hainbeste nomada edo behin-behineko hartzen ditu. Elementu erakargarrietako bat *Ouishare*<sup>35</sup> elkarlaneko ekonomiako sarearen egoitza nagusia da; horrek, gaur egun oso esanguratsua den lan-eremu bat ez ezik, entzute handia eta nazioarteko kontaktuak ekartzen dizkio proiektuari. Antzeko ildoan, azken *Paris Design Week*aren egoitza izan dira. Nazioarteko ekitaldi horrek espazioari eta hango enpresa batzuei ikusgaitasuna ematea ahalbidetu du eta, horrela, proiektua, ekitaldi "makroago" batetik, harremanetan ohi ez diren publikoekin konektatu du.
- **Elkarreragina auzoarekin eta toki-erakundeekin.** Hasieratik, auzoko gizarte-erakundeekin harremanetan egon dira, baita "*Mairie*"-ko (Parisko Udaleko) Berrikuntzako eta Herritarren Partaidetzako Sailarekin ere, haientzat zenbait proiektu garatzen ari baitira. Alde batetik, Volumesen gobernamentu-eredua udal-arlo batzuetara edo herritarren proiektuetara egokitzeko modua arakutzen ari dira; bestetik, zaharkituta dagoen antzinako antzerki bat, auzoko plaza batean baitago, suspertzeko prozesua koordinatzen dute.

34 Kanpainari buruzko informazioa: <https://fr.ulule.com/volumes-foodlab>

35 <http://ouishare.net/en>



## ConectaLab

Rivas (Madril)

<http://www.conectalab.com>

kooperatibismoa | ezagutza\_partekatua | ekintzailletza | prestakuntza | laborategia | teknologia | *open\_source*

## Deskribapena

Duela gutxi(2014) sortutako ekintzailletza- eta berrikuntza-zentroa; argi eta garbi ***open source*** enpresa-sektorerara bideratzen da. Oinarri teknologikoko lankidetz-espazioa da eta kontzeptualizatzaileentzat, teknologoentzat eta jakin-nahientzat irekita dago, haien jarduera nagusia onura elkarlanean eta erantzukizunez sortzea bada. **Irabazi-asmorik gabeko lan elkartuko kooperatiba baten inguruan antolatzen eta kudeatzen da;** proiektu berritzaile berriak babesteko helburuarekin bat egiten duten profesional independenteek eta zenbait sektoretako (sormena, industria, hezkuntza, teknologia...) enpresek osatzen dute.

## Informazio interesgarria

Lau erabilera nagusi ditu bereizita:

1. **Co-working espazioa;** tarifak hilean 50€ eta 150€ bitartekoak dira.
2. **Start-upen anezka,** berrikuntza esanguratsua dakarten proiektu guztietarako.
3. **FabLAB,** ideiak prototipo bihurtzeko prototipatze azkarreko laborategi gisa.
4. **ConectaKid,** gazteenei robotika- eta programazio-printzipioak modu dibertigarrian irakasteko helburua duen hezkuntza-proiektua.

**Kide kooperatibistak kooperatiba kudeatzeaz eta elkarrekin administratzeaz arduratzen dira,** ekonomia-jarduera dinamizatzeke eta ondasun komuna babesteko




asmoz:

- Kooperatiba pertsonen talentuan inbertituz ekintzailtza dinamizatzeko eta ideia berritzaileen garapena sustatzeko helburuarekin sortu da.
- Kooperatibak bere estatutuei men egiten die eta artezkaritza-kontseiluaren eta batzar nagusiaren bidez manipulatzeko da. Kooperatibako kide guztiek hitz bera eta boto-eskubide bera dauzkate batzarraren erabaketan.

## Oharrak

- **Proiektuaren izaera ekosistemikoak** honako hauek hartzen ditu barne: kooperatiba + laguntzaileak + ekintzaileak + prototipatzea. Elkarrekin sortutako onurak partekatzen dira, ekonomia partekatuko kontzeptu berri bat sortuz; horren arabera, elkarlaneko ekoizpena, ezagutze-trukea eta sormena gauzatzen dituen kide-komunitate batek modu demokratikoan prototipatze digitaleko makineriarako sarbidea dauka.
- Eraikina eraikitzeari edo egokitzeari dagokienez nolabaiteko laguntza instituzionala egon dela ulertzen dugun arren, proiektuaren funtzionamendua batzar-kooperatibaren eredu horretan oinarritzen da. Interesgarria litzateke eredu sakonkiago ezagutzea, ikusteko **zer-nolako inbertsioa eskatu duen, nola eratu den kooperatiba eta zein den haren benetako gobernamentu-eredua**, Harrobiaren inguruko pertsonen eta erakundeen komunitate-kooperatiba bat sortzeari begira.
- Atentzioa ematen du (beharbada duela gutxi sortu delako eta webgunea eguneratuta ez dagoelako) **osatzen duten proiektuak, sareak, pertsonak eta erakundeak ez direla ikustarazi**. *Nor dagoen eta bakoitzak zer egiten duen jakitea funtsezko faktorea da, baita HARROBItik HARROBIra proiektuko gogoeta-prozesuan parte hartu duten Harrobi plazako eragileek berek gehien aipatu dituzten errekerimenduetako bat ere.*
- Era berean, ez dago argi tokiko edo munduko herritarren beste ekimen batzuekin duen lotura (edo ez da ikusten webgunean). *HARROBItik HARROBIra proiektuan jarduera-, ekintzailtza- edo sektore-mota baten aldeko apustua egiteaz haraindi, **ekintzak auzoko bizitzarekin metatzen dituen elementuren bat sortu** behar da.*



## Enplegu-anezkak

Jatorria, Aguilar de Campoon (Palentzia).

Orain estatu osoan kopiatzen ari da

<http://www.lanzaderasdeempleo.es>

enpleagarritasuna | ahalduntzea | formakuntza | partekatutako jakintza | ekintzailtza solidarioa | finantzaketa publiko pribatua | errepikatzeko gaitasuna

## Deskribapena

*Anezkak* espiritu dinamikoa, konprometitua eta solidarioa duten pertsona langabeen talde heterogeneoak dira; pertsona horiek borondatez hartzen dute parte ekimenean eta, *coach* batek koordinatuta, **beren gaitasunak indartzen dituzte, jakintza kolektiboa sortzen dute, beren burua ikusgai egiten dute eta helburu komun bat erdiesteko elkarlanean aritzen dira: alegia, enplegua lortzeko, besteren kontura zein ekintzailtzatik.**

*Anezkak* oraingo unerako alternatiba eta irtenbide gisa proposatzen dira, munduan krisi ekonomikoa baitago eta langabezia-tasak altuak baitira. Horretarako, ikuspegi-aldaketa bat proposatzen dute eta, orain arte garatutako laneratze-politikak jorratzerakoan, ahalduntze indibidualean eta kolektiboan eta enplegarritasun-aukeren bilaketako lankidetzaren jartzen dute arreta.

## Informazio interesgarria

*Enplegu-anezken* lan-metodologia dinamizazio- eta prestakuntza-tekniketan oinarritzen da, ezagutzak trukatu. *Coach* batek taldearen lana errazten du, baina langabeak dira beren enplegarritasun-prozesuetako protagonistak. Adimen emozionala, komunikazioa eta



sormena lantzen dituzte; curriculumak egiteko eta aurkezteko teknika berriak ikasten dituzte; lan-elkarrizketei zenbait dinamikaren bidez aurre egiteko modua aztertzen dute; enplegarritasun-mapak garatzen dituzte eta profil pertsonala lantzen ikasten dute, bereizteko eta lan-merkatuan hobeto kokatzeko. Azken helburua **haien enplegarritasuna hobetzea da, toki aktiboan, konprometitan eta solidarioan kokatzen dituen ikuspegi batetik, gaur egungo egoerak ezartzen dituen erronka handien aurrean.**

Lehen *enplegu-anezka* 2013. urtean hasi ziren jarduten, Aguilar de Campoon (Palentzian), José María Pérez “Peridis” arkitekto, marrazkilari eta eskola-lantegien ereduaren bultzatzailearen eskutik. Hortik Kantabriako lau udalerritarra hedatu ziren (Torrelavega, Castro Urdiales, Astillero eta Santander), Profesor Uría fundazioaren lankidetzari eta finantzaketari esker eta Kantabriako eskualde-gobernuari esker. 2014an Madrilera, Kataluniara, Errioxara, Valentziako Erkidegora eta Andaluziara hedatu ziren, Obra Social “La Caixa”-ren, Acción contra el Hambre-ren, Andalucía Emprende fundazioaren eta beste erakunde batzuen laguntzaz. Azken hiruhilekoan Telefónica fundazioa eta Enplegu Ministerioa sartu dira eta, ondorioz, gaur egun 64 anezka aktibo daude.

## Oharrak

- Oraindik datu kuantitatiborik ez daukagun arren, ereduak baditu **ezaugarri interesgarriak (ahalduntzea, gaitasun indibidualak modu kolektiboan partekatzea) ohiko prestakuntza- eta enplegarritasun-prozesuetarako aukera gisa**. Zentzu askotan, *Juntas Emprendemos*<sup>36</sup> proiektuarekin harremanetan dago; aurten bertan garatu dute ColaBoraBorak eta Gaztaroa-Sartuk plazako testuinguruan, zaugarritasun-egoeran dauden emakumeentzat da, EEA Grants programaren Europako finantzaketa eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarena jaso du eta aldi berean Bartzelonan, Madrilan eta Zaragozan gauzatu da. Era berean, *CARE (Centro de Alto Rendimiento para la Empleabilidad, Enplegarritasunerako Errendimendu Altuko Zentroa)* proiektuarekin zerikusi handia dauka; Novia Salcedo fundazioa bultzatzen ari da, espezifikoki gazteentzat da, lehen lan-esperientziatik gaikuntzarako eta ahalduntzerako urrats bat emateko —eginez ikasiz eta erronka zehatzetan inplikaturaz—, nor bere bizitzaren eta bere garapen profesionalaren zein bere ingurunearen eraldaketaren eragile aktiboa bihurtzeko. Eta ildo horretan bertan, interesgarria da orobat *Emprendipia*<sup>37</sup> nabarmentzea; Adolfo Chautónen proiektua da, *Sociedad de la Imaginación de Extremaduraren* esparrutik, eta ziurgabetasunari gizarte-berrikuntzaren, elkarren ulermenaren eta 4. sektorearen bidez aurre egitean ardatzen da.
- **Finantzaketa publikoa eta pribatua**. Ibilbide luzeko erakunde publikoek, enpresek, elkarteek eta fundazioek laguntza ekonomikoa eman dute zenbait *anezka* abian jartzeko. Zein eragile izango litzateke baliokidea gure testuinguruan?
- **Errepikatzeko gaitasuna**. *Anezken* ereduaren estatu osoan errepikatzen ari da dagoeneko; badirudi arrakasta daukala eta sare bat eratzen ari da. Posible litzateke eredu hori Euskadira ekartzea, Lanbideren eskutik eta beste eragile laguntzaile batzuekin batera? Zein da ereduarekin bat egiteko baldintza? Prototiporik gararik liteke plazan?

36 <http://www.juntasemprendemos.net/>

37 <http://emprendipia.org/>



## La Noria

Malaga

<http://www.malaga.es/lanoria>

haurrak\_gazteak | agroekologia | hezkuntza | gizarte\_berrikuntza |  
erabilera\_anitz | publikoa\_pribatua

## Deskribapena

**Gizarte-berrikuntzaren, gizarte-ekintzailetzaren eta agroekologiaren inguruko proiektuen inkubagailua, ama-haurrentzako ospitalearen ondoan kokatutako instalazioetan, 6.000m<sup>2</sup>-ko azalerarekin; oinarritzko harrera-zentroaren txanda hartu du. La Noria haurrengan eta gazteengan ardatzen da: haurrengan, gizarte-bazterketako eta pobreziako arriskuagatik; eta gazteengan, haien etorkizuneko itxaropenak eta lana aurkitzeko aukerak hobetzen dituzten formula, eredu eta tresna berriak behar dituztelako. Helburua herritarrek, gizarte-erakundeek eta enpresek parte hartzen duten proiektuak bultzatzea da.**





## Informazio interesgarria

Zentroak egonaldiko proiektuak (urtebete baino gehiago), aldi baterakoak (urtebete baino gutxiago) eta erabilera partekatuko guneak (*co-workinga*, ortua, lorategiak) barne hartzen ditu. Beste funtzio bat berezko jarduerak edo administrazioak edo hiriko beste kolektibo batzuek proposaturiko jarduerak antolatzea da. Haren ezaugarriek, instalazioei, langileei eta programei dagokienez, kolektibo eta helburu ugaritarako erabiltzeko bide ematen dute: prestakuntza, kultura, hezkuntza, jolasak, etab.

Malagako Aldundiak sustatu eta kudeatzen du zentroa, baina funtsak bi bidetatik hartzen dira: bata, publikoa, Europako erakundeak nahastea lortuz; eta bestea, pribatua, enpresen inplikazioa sustatuz, GEK-ko programen bidez edo haien fundazioen bidez.

## Oharrak

- **Zaharkituta dagoen espazio baten** (lehen, oinarrizko harrera-zentroa) **berrerabilera** azpimarratzea; bestela instalaziorik edukiko ez luketen askotariko proiektu eta jarduerak hartzen ditu barne.
- **Instalazioen aniztasuna eta erabileren aniztasuna.** Ekitaldi-aretoa, erabilera anitzeko gelak, ikasgelak, ekintzailatza-espazioa, logelak, bi jantoki, sukaldea, lantegiak, igerilekua, lorategiak, ortua eta kirol-pista daukate. Askotariko jarduerak egiten dira. Baliteke jarduerak posizionamendu argirik edo estrategia bideraturik ez edukitzea (adibidez, xaboi naturaleko lantegiak zein *community manager* ikastaroak edo ikasturte amaierako jaiak har ditzakete), baina irekitasun hori, bestalde, positiboa da erabiltzaile-mota asko barne hartzen direlako eta horiekiko harremana egoten delako.
- Instalazioen **erabilera-araudi**<sup>38</sup> bat argitaratuta dute.

---

38 [http://static.sopde.es/malaga/subidas/archivos/5/8/arc\\_176585.pdf](http://static.sopde.es/malaga/subidas/archivos/5/8/arc_176585.pdf)



## ***El milagro de los peces***

Sevilla

<http://huertosverdesdelsur.blogspot.com>

garapen\_komunitarioa | inklusioa | enplegu\_hobi\_berriak |  
ekonomia\_berdea | eragile\_anitzeko\_lankidetza | ekologia | elikadura |  
ikerketa + esku-hartze\_soziala

## **Deskribapena**

Proiektu soziala, ekologikoa, hezkuntzakoa eta ikerketa aplikatukoa, modu autonomoan elikagaiak (arrainak eta barazkiak) ekoizteko; Polígono Surren, Sevilla hirian, sozialki baztertuen dagoen eta egungo krisiak gehien ukitzen ari den auzo batean, garatzen ari da.

Proiektuak *VERDES DEL SUR* auzoko nekazaritza ekologiko, sozial eta komunitarioko elkarteak jarri du abian, Sevillako Unibertsitateko ikertzaile-talde batekin batera, auzoko familia batzuk jasaten ari diren elikagai-urritasunari aurre egiteko.

Elikagaiak (arrainak eta barazkiak) batera ekoiztean datza, Espainian aitzindaria eta berritzailea den sistema batean, alegia, **AKUAPONIA edo sistema akuaponikoa; horri esker, instalazio berean bi produktu lor daitezke**, kostuak, lana eta inbertsioa partekatuz, ingurumena errespetatzen duen teknologia garbi eta jasangarri baten bidez.



## Informazio interesgarria

VERDES del SUR elkarteak 2012ko maiatzean jaio zen, Polígono Surreko (3.000 Viviendas auzoa) familia-talde batek bultzatua. Hasieran, auzoko lugorrietan ortu sozial eta ekologikoak sortu zituzten, nagusiki auzoko familia txiroentzako janaria ekoizteko helburuarekin, eta auzoko eskoletan haurrei, gazteei eta haien familiei ekologikoki landatzen irakatsi zieten; eta, zeharka, natura eta auzoa zaintzen ikastea izan zuen xede.

*El milagro de los peces* proiektu pilotuan, 1.000 litroko hiru ur-gordailu instalatu dira tilapiak hazten diren etxebizitza bateko portxean eta, horien gainean, metro eta erdiko altueran, tomateak, pepinoak, kuiatxoak, zerbak, porruak... hazten dira. Ur-zirkuitu itxia da. Arrainen ura, bonba baten bidez, ortuetara igotzen da, laborantzak elikatzeke, eta sustraietan jalkitzen da. Han, bakteriek arrainen hondakinak landareentzako gatz bihurtzen dituzte eta, gainera, ura garbitu egiten dute. Sifoi baten bidez, likido berriztatua arrainengana itzultzen da; horrela, ibai baten zikloa simulatzen du eta zenbait urtez ez da ureztatu behar.

2014an, prototipoak 21 kilo arrain eta 60 kilo barazki eta fruta sortu zituen. 2015erako, **elkarteko langabe kronikoentzako, elikagai-negozioak dituzten auzotarrentzako enplegua sortu nahi dute eta teknologia akuaponikoarekin zerikusia duten produktu eta zerbitzu ekologikoak garatu nahi dituzte.**

## Oharrak

- Akuaponia historian aztekek eta txinatarrek erabili duten teknologia da. Gaur egun berreskuratu egin da eta **EBn goraka ari den sektoretzat jotzen da**, zientzian eta teknologian elkarlanean aritzeko **COST proiektuak<sup>39</sup> islatzen duen moduan**. Harrobian plan pilotu bat egin liteke *Birika*<sup>40</sup> enpresari esker, jadanik teknologia horrekin esperimentatzen ari baita.
- **Lankidetzak eta komunitatea**. Proiektua boluntario-sare baten, akuaponian adituak diren Sevillako Unibertsitateko ikertzaileen taldearen, udal-teknikarien eta toki-erakunde ugariaren lan kolektiboari esker egin ahal izan da, proiektuak zaletu egin baititu. Horrez gain, *crowdfunding*era jo zuten finantzaketaren ordezkoko aukera gisa, eta 6.614€ lortu zituzten proiektua hasteko<sup>41</sup>.
- Puntu negatiboa da udalak Guadaira parkean ortuak landatzeko 15.000m<sup>2</sup>-ko lursaila, baliabide urriko 130 familia janariz hornituko babilizteke, lagatzeari uko egin diola; halaber, babesa ukatu die ortuetan orobat instalatuko liratekeen instalazio akuaponiko berriei. Horrek erakusten du arrazoi desberdinak direla medio herritarren proaktibitateak eta kasu arrakastatsuen garapenak ez dutela beti administrazio publikoen erantzun errazik aurkitzen, beraien bideei jarraitzera ohituta daude-eta.

39 [http://www.cost.eu/COST\\_Actions/fa/Actions/FA1305](http://www.cost.eu/COST_Actions/fa/Actions/FA1305)

40 <http://birika.eu/>

41 <https://goteo.org/project/el-milagro-de-los-peces>



## Incredible Edible

Todmorden (Erresuma Batua)

<http://www.incredible-edible-todmorden.co.uk>

herritarren\_ekimena | autokudeaketa | komunitatea | konfiantza |  
DIY\_DIT | garapen\_komunitarioa | espazio\_publicoa | toki\_ekonomia |  
eskalatzea + transferentzia

## Deskribapena

*Incredible Edible* (hitzez hitz itzulita, *Jangarri Sinestezina*) hiri-ortuko proiektu kolektiboa da; 2008an hasi zen, Todmorden hiriko (Erresuma Batuko iparraldean) pertsona-talde txiki batek bultzatua. Haren helburua ingurumen-problemez kontzientziaztea da, elikagaien toki-ekoizpenaren bidez eta komunitateen lan kolektiboaren bidez.

*Guerrilla gardening* ekimen gisa abiatu zen eta azkar herritarren eta toki-administrazioaren artean partekatutako proiektu egonkorra bihurtzeko eboluzionatu zuen. Praktika **erabiltzen ez diren lur-espazio edo -zatiak hiri-ortu kolektibo oparoak bihurtzean datza; horietan, barazki ugari hazten dira tokiko biztanleak doan hornitzeko**. Elizetan, antzerkietan, suhiltzaile-etxeetan eta polizia-etxeetan antolatuta dira laborantza-guneak. Eta proiektua mundu osoko komunitate ugari kopiatu dute.



## Informazio interesgarria

Proiektua bere komunitateak kudeatzen du, batera, eta 300 boluntarioko talde batek parte hartzen du. Izan zuen arrakastaren ondorioz, kudeaketa-egitura handia sortzeko tentazioa egon zen, baina **modu organikoagoan, arinagoan eta aldi berean eraginkorrean antolatzeko aldeko apustua egin zuten, haiek baieztatzen duten moduan**. Horrela, pertsona-talde murriztu batek eguneroko erabakiak hartzen ditu, eta plantazioei buruzko erabakiak eta sakonera handiagokoak, aldiz, komunitate guztiak hartzen ditu.

Berezko bulegorik edo langile kontrataturik ez daukaten arren, proiektuak **toki-ekonomiarentzako alboko ondorio positiboak** sortu ditu, **komunitate baten eraikuntzaren alde egin du eta ekologiarekiko kultura erantzunkide bat sustatu du**. Todmorden oso herri turistiko batetik hurbil dago, eta lehen ez zegoen ia bisitaririk, baina hori zeharo aldatu da *Incredible Edible* fenomeno bihurtu denetik, proiektua ezagutzeko jakin-mina duten bisitari ugari erakartzen baititu. Orain, bazeuden toki-saltokientzako dirua ekartzen du eta sortu direnentzako (artisau-okindegia, garagardoa, gaztak...) estimulua da.


Proiektua eskalatu egin da, eta orain bi ekimen berri jarri dira abian. *Every Egg Matter* kanpaina (*Arrautza bakoitza inporta da*) udalerrria eta patioak oiloez betetzen ari da, 2018an astero 30.000 arrautzako ekoizpena lortzen saiatzeko, biztanle guztientzako nahikoak izango baitira. Eta *Baserri Sinestezina*, *crowdfunding* bidez bultzatu duten gizarte-entrepresa, haragia, arrautzak, esnea, berdurak eta barazkiak ekoizten dituen... Gazte-entregua sortzeaz gain, baserria asteko zazpi egunetan zabalik dagoen prestakuntza-espazioa da (laborantza- eta abeltzaintza-modu desberdinei buruz, permakulturari buruz...).

## Oharrak

- **Sozialki berritzaileak diren eta komunitatetik eta adimen kolektibotik sortu diren** ekimenen adibide argia da, eta haren arrakastak itxaropen baikorrenak gainditu ditu. Ez datza soilik barazkiak kolektiboki eta sozialki haztean, baizik eta baita hurbileko nekazaritzaren, lotura komunitarioa berreraikitzearen eta ingurumen-hezkuntzaren garrantziari buruzko diskurtso bat garatzean ere, klima- eta energia-krisiaren testuinguruan.

**Interesgarria da egiaztatzea mikropraktiketarik neurri handiagoko proiektuetarantz, beren testuinguruan gainjarritako gizarte-ekonomiaren sortzaileetarantz, eskala daitekeela.** *Harrobia trantsizioan* txostenak mota horretako proposamenak lantzen ditu bereziki, ikuspegia alderdi agroekologikoaz haraindi zabalduz eta auzoaren idiosinkrasiara moldatuz.

- **Kudeaketa komunitarioa posiblea, bideragarria eta eraginkorra da.** Todmordenen mesfidantza garaitu da eta herritar guztiak, toki-administrazioa barne, kezkatzen zituzten beldurrak gainditu dira. "Sagar-landareak erori ahal direla eta norbait buruan zauritu ahal dutela, aran-landareek zoladura zikindu ahal dutela, lapurrak udalerrira etorriko direla, azkenean inor ez dela laborantzez arduratuko, landareak pozoitu egingo direla... ez da horrelako ez gertatu", ziurtatu du boluntario batek. Denboraren iragateak beldur horren guztien eragina gutxitu du eta kidetasunezko giro positiboa sortu du.



Auzoan beldur asko agerikoak eta ezkutuak dira, baina horregatik ez dira gaindiezinak. Pentsa dezagun *Munduko arrozak*<sup>42</sup> kultura arteko topaketan, urtero janaria elkarrekin prestatzen eta jaten duten 3.000 pertsona baino gehiago biltzen baititu. Herritarren ekimen horrek, gainera, auzotik kanpoko pertsona ugari erakartzen ditu eta, horrela, auzoari buruz dauden beldurrak eta estigmak (ziurgabetasuna, droga-trafikoak, zikintasuna...) eraisten laguntzen du eta iruditeria positiboa sortzen du. Auzoan dagoeneko gertatzen diren horrelako herritarren ekimenak mapatu litezke, aztertzeko eta haien balioa azpimarratzeko. **Horrek zera dakar: behetik goranzko prozesuak posible eta desiragarri gisa integratzea; beste aldi, erritmo eta egiteko modu batzuk ezagutzea; eta horrelako ekimenak proposatzen dituzten eragileen artean (administratibotik eta eragileen beren artean) konfiantza handiagoa egotea.**

*Incredible Edible*ren kasua ez da salbuespena, baizik eta herritarrek bultzatutako ekimenen ugaritzearen lagina. Txosten honen irismenak gehiago luzatzen uzten ez badigu ere, beste kasu batzuk nabarmendu nahi ditugu:

- **Vivero de Iniciativas Ciudadanas (VIC)**<sup>43</sup>, non proiektu ugari biltzen diren, jarduketaren eremuen arabera ordenatuak: mikrohirigintza, herritarren ahalduntzea, ortuak eta lorategiak, orube hutsak, hormak, kale zurrak, cohousinga, zerbitzuak partekatzea, coworkinga, denbora-bankuak, elikagaien bankua, trukea, open data, p2p sareak, etab. Viverotik ekimen horiek garatzeko ezaugarriak eta baldintzak aztertzen dira eta autoantolaketarekin, ahalduntzearekin, mapatzeekin edo beste kontu espezifiko batzuekin zerikusia duten lantegiak sortzen dira. Era berean, glosario terminologiko bat dauka.
- **Campo de Cebada**<sup>44</sup>, 2009an La Latina auzoko, Madrileko erdialdean bertako, orube batean sortu zen proiektu komunitarioa; udalak laga zion lurra AVECLA auzo-elkarteari eta modu komunitarioan kudeatzen da. Proiektua askotariko eragileak inplikatzeari esker eta oso jarduera desberdinak garatzeko erreferentziako tokia bihurtzeari esker garatu da; hona hemen jardueretako batzuk: erakusketak, udako ikastaroak, zinema-zikloak, kontzertuak, hitzaldiak, liburu-azokak, herri-jaiak, hiri-ortua, kirol-jarduerak, autoeraikuntza-lantegiak, etab. *Huffington Post*eko duela gutxiako artikuluko batek, *"Garagar-soroa, auzotarrek auzotarrentzako eskuz egindako plaza bat muntatzeko gidaliburua"*<sup>45</sup> izenburupean, ekimena deskribatzen du eta horrelako proiektu bat egiteko 16 osagai zerrendatzen ditu, esate baterako: gogoan duen jendea, udalarekiko akordioa, toki bat eta oinarrizko azpiegiturak edo gobernamentu-eredu autoantolatua.

42 <http://mundukoarrozak.info/>

43 <http://viveroiniciativasciudadanas.net/wiki/iniciativas-ciudadanas/>

44 <http://elcampodecebada.org/>

45 [http://www.huffingtonpost.es/2015/03/29/campo-de-cebada\\_n\\_6790650.html](http://www.huffingtonpost.es/2015/03/29/campo-de-cebada_n_6790650.html)

- **Amarika Proiektua**<sup>46</sup>, herritarren batzar baten eta Arabako Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren artean abian jarritako ekimena; praktika artistiko garaikidearekin zerikusia duten baliabideen, ekipamenduen eta programazioaren zuzeneko kudeaketa Arabako sozietate zibileko kultura-eragile aktiboen esku uztean ardatzen da. Gobernamentu parte-hartzailearen eredia erakundearen eta gizarte-eragileen artean konfiantza sortzeko, elkar ezagutzeko eta hitz egiteko prozesu bati esker izan zen posible (2005. eta 2009. urteen bitartean). Eskala txiki, arin, malgu eta parte-hartzaileko formula bat; Amarika batzarrean ordezkaturako pertsonen eta egunerokoan funtzio betearazleak dituen kontseilu baten lan kolektibotik abiatuta sare horizontalak garatzean eta antolatzean oinarritzen da.
- **Katakarak**<sup>47</sup>, Iruñeko alde zaharrean egindako proiektua, gizarte-ekonomiaren eta aktibismoaren artean kokatua; taberna-jatetxe bat, liburutegi bat eta jarduera sozial, kultural eta politikoetarako erabilera anitzeko espazio bat biltzen ditu. Proiektu autokudeatua, modu operatiboan gizarte-ekimeneko kooperatiba baten bidez funtzionatzen duena. Espazioaren fundazio edukitzaile bat sortu zen, kolektiboki erosi zen, proiektuaren hurbileko inbertsiogile partikularrak bilatuz, eta hein batean *crowdfunding*-kanpaina baten bidez erreformatu zen.
- **CityRepair**<sup>48</sup>, Portlandeko (Estatu Batuak) irabazi-asmorik gabeko erakundea; haren helburua herritarrak espazio publikoaren zaintzari eta gozamenari buruz heztea eta inspiratzea da, hiriko biztanleen eta haien ingurunearen arteko harremana sortzeko. Bere helburuak lortze aldera, CityRepairrek proiektu batzuk garatu ditu komunitateak ahalduntzeko eta toki-kultura sustatzeko. Adibide on bat *Place Making* da; lau kaleren elkarketa aldi baterako “berreskuratzean” datza —ertzetan bankuak jarriz eta kafe- eta janari-gurditxoak instalatuz—, komunitateak topaketa-espazio gisa erabili ahal izateko.
- **Bristol Rising**<sup>49</sup>, Bristolen (Estatu Batuak), herritarrek gizarte-sareen bidez proposatzeko eta bozkatzeko sistemaren adibide bat. Gero, hiria gobernatzen duen erakundeak atxikipen gehien dituzten proposamenak aztertu eta betearazi egiten ditu. 2010ean jarri zen abian eta ez dago argi oraindik badabilen.
- **Ardora-DSS2016**<sup>50</sup>, aurrekoaren ildo berean, Donostia Europako Kultur Hiriburutik, herritarrek proposaturiko eta herritarrek berek ebaluatu eta hautatutako proiektuak hautatzeko ekimen bat jarri dute abian. Ebaluazio-batzordea askotariko profiletako 25 pertsonen osatzen dute eta zozketaz antolatzen da Donostiako herritarren eroldaren artean.

---

46 <http://www.amarika.org/>

47 <http://www.katakarak.net> | <https://goteo.org/project/hormiga-mutantea>

48 <http://www.cityrepair.org/>

49 <http://bristolrising.com/>

50 <http://www.dss2016.eu/es/olas-de-energia/ardora>



## **TransEuropeHalles**

Europako sarea

<http://teh.net>

sarea | Europa | kultura\_zentro\_independentek | aniztasuna | trukea | sinergiak

## **Deskribapena**

Kultura-zentro independenteen Europako sarea, 1983an sortua eta gaur egun Europa osoko 58 zentro kidez eta 17 zentro elkartuz osatua. Sarearen helburua **zentroen arteko harremanak sustatzea, esperientziak eta programak trukitzea, proiektu aldeaniztunak garatzea, ezagutza irisgarria egitea eta zentro eta ekimen berriak aholkatzea** da.

## **Informazio interesgarria**

TEHko kide bihurtzeko, **kultura-zentro eskatzaileek irizpide batzuk bete behar dituzte**, besteak beste: zentro independentea eta irabazi-asmorik gabekoa izatea; diziplina-aniztasuna sustatzea, kultura-programa egonkorra edukitzea, funtzionamenduan oinarritzko irizpide etiko jakin batzuk betetzea. Sareko kide izateko tasak 300€ eta 1.200€ artekoak dira eta urteko bileretan parte hartzeko eskubidea, kontaktuetarako sarbidea, programei buruzko informazioa eta batzar nagusian boto bat ematen dituzte.



Saretik zenbait proiektu koordinatzen dira, adibidez: **Artists-In-Residency**, Europako artisten mugikortasunerako; **Changing Room**, kultura-operadoreen nazioarteko mugikortasunerako; **Trans Nordic Net**, Europako iparraldeko eta Baltikoko herrialdeetako kultura-zentro independenteen sarea; **EVS Youth Exchanges**, 18 urtetik 30 urtera arteko gazteen mugikortasunean ardaztuta, 2-12 hilabeteko egonaldietan, *Europako Boluntariotza Zerbitzuaren* bidez; edo duela gutxiko **Creative Lenses**, kultura-sektoreko negozio-eredu ez-inbaditzailei buruzkoa.

TEHren jarduera nagusietako bat kideen bilerak dira; **urtero bitan egiten dira, eta bakoitzean kide batek antolatzen ditu**. Topaketa horiek kideek elkar topatzeko eta herrialde eta kultura-zentro berriak aurkitzeko aukera dira. Hiru egunetan, bertaratzen direnek lantegietan, mintegietan, hitzaldietan eta *networking*-saioretan parte hartzen dute; horiek inspirazio-iturria eta lankidetzaren berrien jaiotzea izaten dira.

## Oharrak

- **Praktika-trukea eta nazioarteko egonaldiak.** Sareko kidea izateak egonaldi artistikoak antolatzea ahalbidetzen du, sarekoa den tokiko sormen-lantegi batean, ZAWPen<sup>51</sup>, gertatzen den moduan. Hemen hiru egonaldi-mota daude: sormen-espazio desberdinen alokairua, bidaiarako eta egonaldi-irako bekak eta gonbidapena ekoizpen-poltsarekin. Beka- eta truke-programa bat ezartzea plazaren inguruan proiektu bat dinamizatzen hasteko proposa litezkeen gauza errazetako bat litzateke.
- **Gobernamendu deszentralizatua.** Zentro kideek sarearen erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen dute, urtean bitan topaketetan egiten diren batzar nagusietan botoa emanaz. Kide guztiek berdin parte hartzen dute erabakietan, sarean duten antzinakotasuna, tamaina edo egoera ekonomikoa kontuan izan gabe. *Batzorde betearazle* bat, bi urtean behin hautatua, da gobernu-organoa eta batera adostutako helburuak eta estrategiak garatzeaz arduratzen da. Gobernamendu-eredua, Harrobi plazaren inguruan kokatzen diren eragileen aniztasun handia kontuan hartuta, funtsezkoa izango da proiektuan eragile inplikatu guztiek parte hartu ahal izan dezaten.
- **Eraikinak berreskuratzea berriak eraiki beharreen.** TEHren zentro gehienak lantegietan, biltegietan, kuarteletan edo erlijio-zentro zaharretan ezartzen dira. Haien argitalpen bat *Design Handbook for Cultural Centres*<sup>52</sup> da, kultura-zentro bat arkitektura-ikuspuntutik sortzeko edo birmodelatzeko gida
- **Diziplina-aniztasuna eta diziplinartekotasuna.** TEH osatzen duten zentro guztiek dute ezaugarri hori, eta funtsezkoa da kontuan hartzea Harrobi plazaren inguruan kokatzen diren eragileen aniztasunean pentsatzen badugu. Euskadiko diziplina arteko kultura-eragileen harremanari dagokionez erreferentzia-puntu bat *KARRASKAN*<sup>53</sup> sormen-esperientzien sarea izan daiteke, kulturako berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzea baitu helburu.

---

51 <http://www.zawp.org>

52 <http://teh.net/wp-content/uploads/2015/01/design-handbook.pdf>

53 <http://www.karraskan.org>



TEHko kide diren zentro asko eta beste adibide asko *Europako sormen-lantegien direktorioan*<sup>54</sup> biltzen dira, consonnik Eusko Jaurlaritzarentzat egin baitzuen. Erreferentziako agiri on bat da, eta ondoren hizpide dugun gairako interesgarriak iruditzen zaizkigun adibide batzuk aterako ditugu horretatik:

- ***Mains D'Oeuvres*<sup>55</sup>, *St.Ouen (Frantzia)***. Arteen eta gizartearen esparruetako ikerketa garaikidera irekitako kultura-espazioa, musikaren, ikusmen-arten, dantzaren, antzerkiaren, multimediarren, hezkuntzaren, politikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologien, nazioarteko lankidetzaren eta abarren arteko sinergiak bilatzen dituzten pertsona guztientzat.
- ***Korjaamo Culture Factory*<sup>56</sup>, *Helsinki (Finlandia)***. Europako iparraldeko herrialdeetako arte-zentro independente nagusietako bat da. Töölöko tranbia-biltegi zahar batean fundatu zen eta hiru kontzertu- edo antzerki-gela ditu, baita sei sormen-espazio eta bilera- eta mintegi-gelak ere. 2012an eguneratu egin zen eta taberna bat, jatetxe bat, co-working bat eta arte-galeria bat gehitu ziren.
- ***Subtopia*<sup>57</sup>, *Estokolmo (Suedia)***. Alby kultura anitzeko auzoan kokatuta dago, eta haren helburu nagusia gunean sormen-industriak garatzea eta kultura-ekintzaileentzako plataforma izatea da. Haren funtsa kulturaren, hezkuntzaren, ekintzailetzaren eta gizarte-konpromisoaren arteko lankidetzan datza.

---

54 <https://www.consonni.org/es/proyectos/directorio-de-fabricas-de-la-creacion-en-europa>

55 <http://www.mainsdoeuvres.org>

56 <http://www.korjaamo.fi>

57 <http://www.subtopia.se>



- **RIXC, The Centre for New Media Culture<sup>58</sup>, Riga (Letonia).** Kultura mediatico berriaren zentroa; han, artearen, zientziaren eta goraka ari diren teknologien arteko diziplina anitzeko proiektuak sortzen dira. Jaialdiak eta erakusketak antolatzen dituzte, argitaratze-lerro bat daukate, mediateka bat dute eta 2014an etorkizuneko Riga Innovation Laberako jarduerak jarri zituzten abian. RIXCen helburua eliteko kultura delakoaren eta aldi berean existitzen diren beste kultura diferenteen arteko arrail tradizionala gainditzea da.
- **UFA Fabrik<sup>59</sup>, Berlin (Alemania).** Kulturen arteko eta belaunaldien arteko topaketakotokia; 18.500m<sup>2</sup> okupatzen ditu eta askotariko klubak, ekimenak eta enpresak hartzen ditu, bizitza ireki eta tolerantetaren ikuspegitik, komunitateen, sarearen jasangarritasunaren eta sormenaren garrantzia sustatzeko. Nazioarteko kultura-zentro bat, haurrentzako zirko-eskola bat, auzotarren zaintza-zentro bat, baita kafetegi bat, okindegi bat eta aterpe bat ere, beti ere proiektuek ezaugarri esperimental bat barne hartzeari lehentasuna emanez.
- **104<sup>60</sup>, Paris (Frantzia).** Udal-jabetzako zentroa, kudeaketa independentea duena; antzinako beilatokian kokatuta dago, biztanleen ehuneko handi bat etorkinak diren auzo batean. 40.000m<sup>2</sup>-tan antzerki, dantza, musika, arte garaikide eta literaturako taldeentzako lan-guneak eskaintzen ditu, eta haien ekoizpen-prozesuak jendaurrean jartzen dira. Halaber, liburu-denda espezializatu bat, kafetegi bat, jatetxe bat, etab. ditu. Profesionalizazio-maila desberdinak daukate eta lan-kontratuen bidez ordaintzen diete artista egoiliarrei.

58 <http://rixc.org/en/center>

59 <http://www.ufafabrik.de/en>

60 <http://www.104.fr>



## Open Living Labs

Europako sarea

<http://www.openlivinglabs.eu>

sarea | *living laba* | erabiltzaileak | elkarrekin sortzea | berrikuntza\_ekosistema

## Deskribapena

*European Network of Living Labs (ENoLL)* Europa osoan *living lab* eredua hedatuz **berrikuntza-estrategia sistemiko bat sustatzea** helburu duen komunitate bat da. Hezkuntzarekin eta sormen-industriekin zerikusia daukaten eragileei laguntza eman nahi die, pertsonengan ardaztutako elkarlaneko ikerketak gara ditzaten, gizarte-beharrak betetzeko ikuspegitik. Hauek dira arreta jartzen duen eremu batzuk: *smart cityak*, *future internet*, erabiltzailearengan ardaztutako diseinua, *big data*, *serious gamea* eta *game designa*.

ENoLLen arabera, *living labak* proba- eta esperimentazio-ingurune errealak dira, non erabiltzaileek eta ekoizleek elkar aurkitzen duten elkarrekin berrikuntzak sortzeko. Europako Batzordeak erabiltzaileak gidatutako berrikuntza irekirako *Public-Private-People (PPP)* elkartetzat jotzen du figura hori.

Oro har, *living labek* lau jarduera-mota hartzen dituzte barne: **1) erabiltzaileek eta ekoizleek elkarrekin sortzea eta diseinatzea; 2) arakatzea, goraka ari diren erabilerak, portaerak eta merkatu-aukerak aurkitzea; 3) erabiltzaileen komunitateen barruko benetako agertokien eta prototipoen bidez esperimentatzea; eta 4) kontzeptuak, produktuak eta zerbitzuak irizpide sozioergonomikoak, soziokognitiboak eta sozioekonomikoak kontuan izanik ebaluatzea.**



## Informazio interesgarria

Sarea 2010ean sortu zen, nazioarteko elkartearen formula juridikoaren bidez. Idazkaritza Bruselan dago, Vrije Universiteit Brussel-eko campusean, Flandria *Free University* delakoan. Haren gobernandu-eredua batzarrak izendatutako kontseilu batek zuzentzen du, eta, horrez gain, beste mota bateko *partner* estrategikoak ditu, hala nola Munduko Bankua, FAO, France Living Labs eta Suráfrica Living Labs.

Urtero *Wave* izeneko deialdi bat zabaltzen da, hautapen-prozesu batekin, sareari atxikitzeko. Sareko benetako kidea izateko, 5.000€-ko urteko kuota ordaintzeaz gain, **herritarrek aktiboki parte hartzeko moduen aldeko konpromisoa dutela frogatu behar da eta amaierako erabiltzailearen figura argi eta garbi aipatu behar da.** Gaur egun 19 kide daude, 5 Espainiako estatuan eta horietako bat, *Bird Living Lab*, Urdaibaiko erreserban. Beste kide-kategoria batzuk daude, irizpide eta konpromiso lasaiagoak dituztenak; kide horien artean, *Comercios Innovadores de Bilbao (CIB)* sarea, Bilbao Ekintzak bultzatua, dago.

Sareak urtero *iCapital saria*<sup>61</sup>, alegia, 950.000€-ko saria, ematen dio **berrikuntza-ekosistema** onena eraikitzen ari den Europako hiriarri; **herritarrak, erakunde publikoak, erakunde akademikoak eta enpresak hartu behar ditu barne.** Joan den edizioan Bartzelonak irabazi zuen.

## Oharrak

*Berrikuntza-ekosistemaren* kontzeptuak eta *living labaren* ideia zehatzak, batzuetan, IKTei oso lotuta dagoen alderdi bat daukate, baina beste modu askotan gara daiteke. Guri dagokigunez, **gizarte-berrikuntzaren inguruko proiektuak esperimintatzean** ardatzu liteke, **auzoan badauden eragileak** (elkarteak, erakunde eta zentro publikoak, enpresak eta ekintzaileak, auzotarrak eta mota guztietako erabiltzaileak), sektore askori (teknologia, artea, kultura, garapen komunitarioa, hezkuntza, gizarte-inklusioa, kirolak, ostalaritza, etab.) lotuak, gogoan hartuz. Hori neurri handi batean bat dator *HARROBITik HARROBIra* prozesuaren inguruan eta auzoaren testuinguru orokorrean sor litekeenaren aukera errealekin.

---

61 <http://www.openlivinglabs.eu/news/icapital-2016-award-european-city-building-best-innovation-ecosystem>



**Inspirazioei buruzko txosten hau  
HARROBitik HARROBIra prozesuak garatu eta koordinatu du.**

*ColaBoraBora Koop*  
WikiToki - Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbo  
<http://www.colaborabora.org> | @colaborabora  
Tel.: 944 158 861

An aerial, black and white photograph of a stadium. The rows of seats are visible, and a white umbrella is placed on one of the seats in the middle ground. The text is overlaid on a semi-transparent grey rectangle in the lower half of the image.

# ***6.eranskina***

***Harrobia Trantsizioan***

**Harrobia Plazaren inguruan  
*Trantsizio-ekimen* bat egiteko  
aukerak eta erreferentziei  
buruzko txostena**

**48 orrialde**







# ***Harrobia trantsizioan***

## **Harrobi plazaren inguruan *Trantsizio-ekimen* bat egiteko aukerak eta erreferentziak**

Bilbon, 2015/07/27an

Borja Izaola, Synergy Matters  
ColaBoraBora

Agiri honen edukia, *HARROBI*tik *HARROBI*ra prozesutik eratorzen diren gainerako materialen moduan, *Creative Commons 3.0 by. sa.* lizentziarekin argitaratzen da.



# AURKIBIDEA

## 1. Sarrera

- 1.1. Zer litzatekeen *Harrobia trantsizioan*
- 1.2. Zer diren *trantsizioko ekimenak*
- 1.3. Zer den trantsizioa petrolioaren gailurraren ostean

## 2. Faktore erabakigarriak

- 2.1. Komunitatea
  - Sozietate zibila | Gizarte-kapitala | Garapen komunitarioa
- 2.2. Gizarte-ekonomia berria
- 2.3. Permakultura
- 2.4. Erresilientzia

## 3. Nola egiten den

- 3.1. Nondik hasi
- 3.2. Badagoen horretatik abiatuta
- 3.3. Etorkizuna imajinatzea orainaldian mugitzeko
- 3.4. Trantsiziorako plan kolektibo bat diseinatzea
- 3.5. Abagune bakoitza eta ekintza bakoitza ospatzea
- 3.6. Banakako barne-trantsizioari ekitea
- 3.7. Aldaketa aldaketa kulturala da
- 3.8. Tokiko adinekoak ohoratzea
- 3.9. Kanpotik etorri zirenak gehitzea
- 3.10. Toki-diruak eta *crowdfundinga*
- 3.11. Denbora baliabide gisa
- 3.12. Kexaz baino gehiago ekintzaz arduratzea
- 3.13. Erakundeen zeregina

## 4. *Harrobia trantsizioan* ekimenerako erreferentzia praktikoak

- 4.1. Erabilgarriak izan daitezkeen dozena bat kasu
  - Le Zeybu Solidaire | Transition Belsize | Toulouse en Transition | R-Urban | Tot Raval | Usera Barrio Sostenible | Union Gewerbehof | Coisas do Vizinho | Cardedeu en Transició | Job Opportunities for All | Horta a Porta | Fuenjirola-Mijas en Transición*
- 4.2. Hariari tira egiteko beste adibide batzuk
  - Ekimenak metatzea
  - Lehen sektorea auzoan bertan
  - Ezagutza partekatua lehiaketarako abantaila gisa
  - Kasu frogagarriak eskolatik
  - Birgaitze jasangarria eta enplegu berria
  - Gizarte-ekintzaitza eta trantsizioa
  - Ikastaroak, lantegiak eta praktika-komunitateak
  - Trantsizioa banakako eta taldeko ahalduntze gisa
  - Europako estrategia bat (baliabideekin batera)
- 4.3. Bukatzeko, esteka batzuk

## 5. Epilogo

Zer | Nork | Nola | Zeren bidez



# 1. Sarrera

## 1.1. Zer litzatekeen Harrobia trantsizioan

Bilboko erdialdeko auzo historiko batean gauzatu den ekimena, tokiko giza garapena eta ingurumen-jasangarritasuna oinarri hartuta lan egiteko. Horretarako, kanpoko energia-mendetasuna txikiagotuko da, auzotarren erresilientzia areagotuko da eta lankidetzako harreman-sare interdependenteak ezarriko dira. Helburua, hain zuzen, pertsonen eta planetaren arteko errespetuan oinarritutako paradigma batera pasatzea da.

## 1.2. Zer diren trantsizioko ekimenak

Ingalaterran eta Irlandan XXI. mendearen hasieran, lehenengo eta behin Kinsale<sup>1</sup> hiriaren (Irlanda) eta gero Totnes<sup>2</sup> hiriaren (Erresuma Batua) energia-jaitsierarako ekintza-planaren diseinu permakulturalaren ondorioz, sortutako ekintza-korrontea da. *Trantsizioko hiriei trantsizioko mugimendua* edo *trantsizioko ekimenak* ere esaten zaie, ekintzen multzoari landako, hiriko edo hiri azpiko mailan edo kasu bakoitzari zehazki aplikatzen zaion.

1 <http://www.transitiontownkinsale.org/>

2 <http://www.transitiontowntotnes.org/>



Osorik hartuta, **oinarrizko gizarte-mugimenduen sarea da; haien tokiko erresilientzia areagotzen lan egiten ari dira, petrolioaren gailurrari, klimaren eta ekosistemaren erronkei eta sistema kapitalistaren egungo faseko ezegonkortasun ekonomikoari erantzunez.**

Kasu bakoitza desberdina da. Ez dago besteen berdina den ekimenik. **Trantsizioa idatzirik ez dagoen bidea da, toki bakoitzean kolektiboki hasten duten pertsonen ahalmenek eta trebetasunek modelatzen baitute.** Baina trantsizioa ikusgaia eta inguratzailea da auzokoen artean. Kokaleku zehatzetan sortzen da: hiri batean, herri batean, auzo batean, kale batean edo plaza batean. Auzotarrek garapen komunitarioaren alderdi praktikoetan parte hartzera hertsatzen dute elkar. Dagoeneko abian jarri diren pertsonak energiari, elikadurari, erresilientziari, gaitasun komunitarioei eta abarri buruzko aurkezpenak edo hitzaldiak eskaintzen dituzte. Horrela, egiten denaren kontzientzia eta talde-sentipena handitzen dira. Topaketak antolatzen dira guztien artean imajinatzeko nolakoa litzatekeen komunitate erresilienteago hori (etortzekoak diren aldaketei aurre egiteko gai). Eta horrela sortzen da ekimen partikularra. Batzuk tokiko gizarte-kohesioan ardatzen dira; beste batzuk, seme-alaben edo zaharren segurtasunean; beste batzuk, ordea, osasunean, elikaduran edo energian... Baliabideak/beharrak binomio partikularretik ateratzen dena.

*Trantsizioko ekimenak* auzotarrek jomuga horiekin beren etxeko gastuak eta energia-kontsumoa murriztu dituzten lekuak dira. Han, pertsonak buruaskitasun handiago bateranzko trantsizioa egiteko neurriak hartzen ari dira eta, aldi berean, baliabideen tokiko eta munduko murrizketarekin orekan bizitzeko moduak aurkitzen ari dira. Eta elkarrekin egiten ari dira, beren ingurunean, beren kalean<sup>3</sup>, beren auzoan, beren hirian<sup>4</sup>... bakoitza bere eskalan.

Erresilientziara, energia-jaitsierara edo ekonomia berrira pasatzeko konpromisoa hartu duen komunitatearen eskalaren arabera, **toki-erakunde desberdinak auzotarrekin eta elkarteekin nahasten dira berezko kultura jasangarri bat sortzeko**, baliabideak kontsumitzeko, hondakinak kudeatzeko eta pertsonen artean harremanetan egoteko aztura batzuk planteatzen dituen, kapitalismoaren egungo faseko estandarren desberdinak.

*Trantsizioko ekimene*k jasangarritasunaren ikuspegi osoa, goraka ari dena eta komunitarioa partekatzen dute. Hain zuzen, lau funtsezko hipotesitan dago oinarrituta:

1. *Petrolioaren gailurra* dela-eta, saihetsezina da energia-kontsumoa zorrozki jaitea, eta hobe da planifikatzea ezustean harrapatzea baino.
2. Gure egungo herriek, hiriek, auzoek eta komunitateek ez daukate gaitasunik *petrolioaren gailurrarekin* batera datorren energia eskuragarriaren jaitsierara egokitzeko.
3. Ezinbestekoa da tokian bertan eta komunitatean jardutea, eta orain jardun behar dugu. Ekimen indibidualari masa kritikoa falta zaio, eta ekimen publikoari bizkortasuna falta zaio.
4. Komunitateen jeinu kolektiboa askatzea, modu sortzaile eta proaktiboan bere energia-jaitsiera diseinatzeko, aukera ona da bizi-estilo konektatuagoa, baliotsuagoa eta kontzienteagoa eraikitzeko.

---

3 Ikusi trantsizioko kaleen adibideak hemen: <http://www.transitionstreets.org.uk/>

4 Ikusi orobat: <https://citiesintransition.eu/>



### 1.3. Zer den trantsizioa *petrolioaren gailurraren ostean*

Erregai fosilen erauzketaren puntu gorenari buruzko ezagutza fisikoa eta ekonomikoak funtsezko kontzeptua da gizateria gaur egun dagoen abiapuntua ulertzeko. Puntu horretatik gaur egungo sistema ekonomikoak proposatukoaz bestelako norabidean abiatzeko puntua, hain zuzen ere erregai-mota horren eskuragarritasunean oinarrituta baitago eta hori inflexio-puntu batean baitago.

Antonio Turiel CSICeko zientifiko espainolak zehatz-mehatz kontatzen du gaia<sup>5</sup>, baina laburki eta modu errazean azal daiteke<sup>6</sup>:

*Petrolioaren deribatu merkeak munduarentzat eskuragarri eta irisgarri izatea da egungo sistema ekonomikoaren oinarritzko bidea. Hala ere, kalitate onekoak diren eta erraz erauz daitezkeen petrolio-hobiak agortu egin dira, eta erauzpen-monopolioek, teknologiaren eta politikaren babesarekin, petrolio saltzen jarraitu nahi dute, gero eta eskari handiagoa sortu, nahiz eta merkaturatzea garestiagoa izan eta etorkizuneko eskuragarritasuna bermatzea zalantzarriagoa izan, baita epe laburrean ere. Baina, batez ere, sistema puntu batera heldu da non, erregaia bilatzeko, erauzteko eta banatzeko, aurkitzen duena baino kantitate handiagoa gastatu behar duen. Horrek ordaindu ezingo den zorra sortu ez ezik amaitzen ari den produktu batekiko mendetasuna ere sortzen du. Beraz, jaitsiera nahitaezkoa da, egindako zorrak gero eta garestiago, txarrago eta eskasago kontsumitzen jarraitzera behartzen gaituzten arren.*

Hurrengo kontua jaitsiera hori nolakoa izango den da, bat-batekoa edo mailakakoa. Eta horretan dautza *trantsizioko ekimenak*, ahalik eta lasterren, oraintxe bertan, modu osasungarrian jaisten hastean, toki-komunitatean alternatibak sortuz.

Hori gure lurralde-eremuan adibidez adierazteko, Euskadiren<sup>7</sup> kanpoko energia-

<sup>5</sup> <http://crashoil.blogspot.com.es/>

<sup>6</sup> La UNEDek 7 minututan egiten du: <http://www.rtve.es/alacarta/videos/uned/uned-mas-alla-del-pico-del-petroleo-31-10-14/2840981/>




<sup>7</sup>Hurrengo grafiko eta datuetarako, ikusi Energia Euskadin 2013 txostena:

<http://www.eve.es/CMSPages/GetFile.aspx?guid=bfd24854-318f-499b-9080-87330afa6412>



mendetasuna gutxi gorabehera %95 da (kontsumitzen dugunaren %5 baino ez dugu ekoizten), eta energia hori guztia (fosila, nuklearra eta berriztagarria, batez ere Frantziari) erostea 6.093 milioi euro kostatu zen 2013an (oraindik ez dira publikoak 2014ko datuak), 2.191.682 biztanle ginenean<sup>8</sup>, hots, 2.780€ pertsona bakoitzeko. Kostu sozial hori, hein batean, alde batetik kontsumitutako argiaren, erregaiaren edo hiri-gasaren gaineko zergez estaltzen da, eta bestetik, zerga orokorrez.

Gastu arrunt hori murriztea lortzen badugu, energia-intentsitatea hobetuz, industriari eta etxeko eta laneko konfortari eutsiz, zerga horiek tokiko gizarte-zerbitzuetarako erabil ditzakegu. Hori toki-komunitateak indartuz lor daiteke. Ez da nazioarteko edo Frantziarekiko solidaritaterik eza. Izan ere, frantsesek<sup>9</sup> ere hasi dute beren trantsizioa.



*Dependencia energética exterior en Europa*<sup>10</sup>. (EVE, Informe Energía en Euskadi, 2013)  
*Consumo final energético interior en Euskadi*<sup>11</sup>. (EVE, Informe Energía 2013)  
*Coste de la energía para el consumidor final en Euskadi*<sup>12</sup>. (EVE, Informe Energía 2013)

8 INE 2013

9 80 ekimen baino gehiago daude, Frantzia osoan, ikusi bereziki: <http://www.toulouse.transitionfrance.fr/>

10 Europako kopuruetan kanpo kontinente-mendetasuna ikusten da: Errusia (gasa), Saudi Arabia (petrolio)...

11 Beheranzko lerroan ikusten dena krisiaren eragina da, ez borondatezko murrizketa kontziente batena.

12 Aurreko grafikoan ikusitako kontsumoaren jaitziera gorabehera, grafiko honek erakusten du gastu globala bere horretan jarraitzen duela, hau da, unitate bakoitzeko garestitu egin dela, eta gorako joera begi-bistakoa da, nahiz eta litekeena izan globala gorenean egotea.



## 2. Faktore erabakigarriak

*Trantsizioko ekimenak* kontuan hartu beharreko lau faktoretan oinarritzen dira, alegia: komunitatea, gizarte-ekonomia berria, permakultura eta erresilientzia. Jarraian, faktore bakoitza azalduko dugu laburki.

### 2.1. Komunitatea


Komunitate-idea funtsezko elementua da *trantsizioko ekimenetarako*. Baina zaila da anbiguotasunik gabe adieraztea noiz **bihurtzen den komunitate teoria praktikoren bat partekatzen duten pertsonen talde bat, komunitatea tokikoa, nortasunekoa zein interesekoa izan**. Terminologia sozialean, argi dago “kolektibo” kontzeptua, espazio/denbora jakin batean teoria praktikoko hori partekatzen duten pertsonen talde gisa. Era berean, auzokoak toki publikoak partekatzen dituen kolektibotzat jotzen dira; toki horiek, nagusiki, berehalakotasuna eta eskala txikia dituzte ezaugarri (eraikin bat, etxe-uharte bat, kale bat edo plaza bat). Eskala handiago batean (metropolia, eskualdea), zaila da komunitate bat sortzea, baina lurralde beraren barruan konektatuta dauden komunitate txikiagoen sare batek antzeko ondorioak izan ditzake.

Tonniesek, Baumanek, Adornok, Beckek, Sennetek, Shivak eta jardunean dauden beste egile batzuek gaur egun parametro komunitario batzuk ezartzea zailtzen duten oztopoak identifikatu dituzte<sup>13</sup>. Hauek dira oztopoetako batzuk:

- Arrazionalismotik eta ilustraziotik sortutako modernotasun indibidualizatzailea.
- Estatu-naziotik desitxuratutako nortasun- eta komunitate-proiektua.
- Lehen liberalismoko *taylorismoaren* kontsumoaren eta merkatuaren logika.
- Gaur egungo neoliberalismoaren lehia askearen aldeko borroka.
- Globalizazioaren eta informaziorako nonahiko sarbidearen emaitza den berrindibidualizazioa.

---

13 Ver Rojas, J, 2007, en “Comunidad humana, desarrollo y biosfera. Hacia una sustentabilidad integral”, págs 9-11, Cátedra UNESCO.



Panorama hori ikusita, Beckek gauden “arrisku globaleko gizartearen”<sup>14</sup> pobrezia- eta marjinaltasun-mekanismoak salatzen ditu eta, joera ekologista batekin batera, **komunitatea berreskuratzearen** alde egiten du, **gizakia berriro biosferaren zati bat izan dadin**. Shivak<sup>15</sup> ideia hori zabaldu egiten du, UNESCOren konbentzio ofizialekin, **berdintasun-, autonomia- eta interdependentzia-printzipioekin** bat etorritik. Komunitateek silueta identifikagarria eduki ohi duen inguru batean kokatzen dituen topografia bat behar dute. Eta haien nortasun-ezaugarrietako bat definitzen dituen subiranotasunen batean sinestea da, alegia, bakana eta espezifikoa den “zerbait garela”. Era berean, erantzukizun partekatua den ideia ageri da.

**Berdintasun-, interdependentzia-, toki-, nortasun- eta erantzukidetasun-kontzeptu horiek batuz, komunitatea lurralde bat okupatzen duten eta han modu parte-hartzailean beren arauak eta ohiturak ezartzen dituzten pareen talde gisa defini daiteke.**

Auzo-elkartek, toki-garapenerako plataformak eta *hackerren* sarea beren lurralde birtualean ere sartzen dira komunitatearen adiera horretan. Partaidetza komunitarioa barne-antolaketa modu bat da, eta haren gizarte-harremanen kalitatea elkarrekintza, interdependentzia, lankidetzak, proiektu komun batzuen, erabakiak hartzeko prozesu parte-hartzailearen eta mantentze eta kudeaketa partekatuen bidez adierazten da. Zentzu horretan hitz egiten dugu trantsizio komunitateez, Harrobia plazako berehalako ingurunean komunitate dei baitaiteke eta *trantsizio ekimene*n berezko teoria praktikoa gara baitezake.


Hizpide dugun komunitate-idea hobeto finkatzeko, ondoren sozietate zibil, gizarte-kapital eta garapen komunitario kontzeptuak garatuko ditugu laburki.

14 Beck, U. (2002). La sociedad del riesgo global. Madrid: Siglo Veintiuno.

15 Shiva, V. (2006). Earth democracy: Justice, sustainability and peace. Zed Books.



### Línea de continuidad del ciudadano activo



## Sozietate zibila

Hiri-kohesioko udal-politika askok —zehatz-mehatz, aldrietako auzoak hiri-egituran integratzeko asmoa dutenek— komunitate-ideia hori garatu nahi izaten dute. Hala ere, “goitik-behera” direlako dinamikek emaitza eskasak ekarri ohi dituzte, eta zaila da “behetik-gora” direlakoek jarraitutasuna edukitzea edo eskalatu ahal izatea. Hori dela-eta, **erakunde bideratzaile eta porotsuak eta herritar aktiboez, erantzunkideez eta solidarioez osaturiko sozietate zibil bat beharrezkoak dira**. Beren boterea, eskumenak eta baliabideak birbanatzeko gai diren erakundeak; eta inskribatzen diren testuingurua, haren gatazkak eta aukerak eta era antolatu eta kolektiboan jarduteko mekanismoen gakoak ulertzeko gai diren herritarrak. Horrela, sozietate zibilak, erakunde publikoek eta eragile pribatuek bat egiten badute, ohiko logiketatik haraindi doazen proiektuak bultzatu ahalko dira.

## Gizarte-kapitala

Antzeko zentzu batean, edo sozietate zibilak ekoiztako balioaren balioztapen ukigarria edo ukiezina egiteko modu gisa, gizarte-kapitalaren teoria daukagu, Bordieu-k, Puttman-ek eta Coleman-ek garatua. **Gizarte-kapitala zenbait kolektiboren arteko gizarte-lankidetzatik sortutako ondasuna da. Hiru iturri nagusitan oinarritzen da: 1) elkarrekiko txera eta konfiantza, 2) arau eraginkorrak eta 3) gizarte-sareak**. Txera-iturriaren kontuari barne-trantsiziotik heltzen zaio (aurrerago ikusiko dugu); arauen eraginkortasuna, aldiz, herritar aktiboak antolatzeke moduarekin bat dator. Sareak edo interkonexioak ugaritzea, zehazkiago, sarea trinkotzea, sarriago egitea, trantsizio-mugimenduaren eta garapen komunitarioarenaren funtsezko estrategia ere bada (ondoren ikusiko ditugu).

Hala, gizarte-kapitalaren teoria gauza baten arrazionalizazioa da, eta garapen komunitarioa, gauza beraren praxia. Horri ekonomiaren eta energiaren deskarbonizazioak bideratutako kontzientzia ekologikoa gaineratuz gero, trantsizio-mugimenduaren sistema higiarazlea daukagu.



## Garapen komunitarioa

Budapesteko adierazpenaren<sup>16</sup> (2004) arabera, hauxe da garapen komunitarioaren<sup>17</sup> nazioarteko definizioa:

***Garapen komunitarioa sozietate zibila indartzeko modu bat da, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-politikaren garapenean komunitateen ekintzei eta haien ikuspegi lehentasuna ematen diena. Toki-komunitateen ahalduntzea lortu nahi da; alegia, komunitate geografikoak, nortasun-komunitateak, interes-komunitateak edo gai espezifikoaren edo ekimen politikoaren inguruan antolatuak jotzen dira toki-komunitatetzat. Pertsonak beren taldeen, erakundeen eta sareen bidez herritar aktibo gisa duten gaitasuna indartzen du; halaber, instituzioek eta erakundeek (publikoak, pribatuak eta gobernu kanpokoak) herritarrekiko elkarrizketa lantzeko duten gaitasuna indartzen du, komunitateetan aldaketa taxutzeko eta zehazteko asmoz. Funtsezko zeregina betetzen du bizitza demokratiko aktiboaren babesean, komunitate pobreen eta zaugarrien ahotsa sustatuz. Funtsezko balioak eta printzipio sozialak ditu, giza-eskubideak, gizarte-inklusioa, berdintasuna eta aniztasunaren errespetua barne hartzen dituztenak, baita gaitasun espezifikoak eta berariazko jakintzak ere.***

Garapen komunitarioa toki-baliabideen balioztapenean<sup>18</sup> eta balio etikoaren zaintzan<sup>19</sup> oinarritzen den teoria praktikoa da; azken horien artean hauek daude:

- Garapen inklusiboa, hausnartzekoa eta epe luzekoa sustatzea.
- Gizabanakoak eta komunitateak (tokikoak, interesekoak, nortasunekoak, etab.) aldaketa positibo baten erantzukizuna gain hartzeko gaitzea.
- Toki-ondasunetatik abiatuta identifikatu, ospatu eta garatzea.
- Erakundeek eta pertsonak herritar aktibo gisa daukaten gaitasuna (eta zahartze aktiboarekiko konpromiso espezifikoa) indartzea.
- Bidegabekeriak eta desberdintasunak jakitun izatea; pobreen eta zaugarrien ahots autonomoa sustatzea.
- Komunitateen barruko aniztasuna errespetatzea.
- Komunitatearen barruko eta hortik kanpoko askotariko eragile eta sareekiko elkarketa eta lankidetzak.
- Epe luzeko ikaskuntza- eta aldaketa-prozesu bat sustatzea, irtenbide azkarren ordez.

Balio horien alderdi etikoaren ondorioz, garapen komunitarioak ez du funtzionatzen laguntza-, ezarpen- edo korporazio-politikatik, horiek beste etika bati jarraitzen baitiote eta askotan prozesuaren logikarekin (alegia, aldaketa organikoa, baterako ikaskuntza eta lana, eta jasangarritasuna) bateraezinak baitira. Diferentzia horiek jarraian aurkeztutako taulako bi zutabeetan azaltzen dira:

<sup>16</sup> <http://www.iacdglobal.org/publications-and-resources/conference-reports/budapest-declaration>

<sup>17</sup> Ikusi "Trabajo social comunitario en la sociedad individualizada". Jesús Hernández Aristu

<sup>18</sup> Ingelesez *Asset Based Community Development* deritza; ikusi: <http://www.abcdinstitute.org/>

<sup>19</sup> Ikusi Tracy Winter-en duela gutxi tesiko zerrenda zabalagoa eta gaituagoa (66.-72. orrialdeetako taula erantsia)

## Valores y principios del desarrollo comunitario

Formas de:		
Individualista	Acción colectiva	Colectivismo
Global	Colonización	Local
De arriba abajo	Empoderamiento	De abajo arriba
Dependiente	Interdependencia	Independiente
Competitiva	Colaboración	Cooperativa
Elitista	Participación	Inclusiva
Consumista	Reciprocidad	Ciudadana
Del tener	Igualdad	Del ser
En necesidades	Foco puesto en	En recursos
Modernista	Justicia social	Postmodernista
Que organiza	Poder	Que construye
Desde el orden	Control	Desde el caos

Importancia del proceso  
 Cambio orgánico  
 Aprendizaje y trabajo conjunto  
 Sostenibilidad  
 Derechos humanos

Garapen komunitarioa kontzeptu interesgarria da Europako elkarrizketaren testuinguru batean kokatzeko; izan ere, Europar Batasuna estatu kideen arteko kohesioaren bilaketa lantzeko erabiltzen ari den elementuetako bat da. AEIDL<sup>20</sup> (Toki Garapenari buruzko Informazioa Emateko Europako Elkartea) sozietate zibilari ekitatean eta kidetasunean oinarritutako garapen komunitarioko prozesuetan laguntzeko sortu zen, 1988an. Erakunde horrek, ECOLISEren<sup>21</sup> laguntzaz, **“Europa trantsizioan: zergatik diren toki-komunitateak karbono-isurketa baxuak dituen gizarte bateranzko aldaketako buru”**<sup>22</sup> izenburuko azterketa sakona egin zuen 2013-2014an; bertan, Europako zenbait herrialdetan horri dagokionez dagoen egoera biltzen da. **“Reinventing Europe through Local Initiative”**<sup>23</sup> txostenean, berriz, oso interesgarriak diren 25 jardunbide egoki jasotzen dira.

20 <http://www.aeidl.eu/en/#&panel1-5>

21 [http://www.ecolise.eu/?page\\_id=24](http://www.ecolise.eu/?page_id=24)

22 <http://www.aeidl.eu/images/stories/pdf/transition-final.pdf>

23 [http://www.llf.partneribas.lv/resource/1413210502\\_brochure-en.pdf](http://www.llf.partneribas.lv/resource/1413210502_brochure-en.pdf)



## 2.2. Gizarte-ekonomia berria

Jonathan Dawson<sup>24</sup> Schumacher College-ko Jasangarritasunerako Ekonomiako irakaslearen arabera:


*Ekonomia berria ez da botere ekonomikoetatik eta sistema kapitalistatik sortuko, baizik eta alderdi sozialetik, behetik gora, pertsonengandik haien komunitate, eskualde eta herrialdeetarantz; horiek eraikitzen ikasten dutenean eta ekonomiaren kontrola hartzen dutenean, beren ongizatea neurtzeko modu egokiak benetan zein diren zehazten dutenean eta lurrak eskaintzen dizkigun baliabide naturalak gure eta etorkizuneko belaunaldien onerako babesten ikasten dutenean.*

Eredu ekonomiko berri horrek guk bi faktore ulertzea eskatzen du:

1. **Gauza guztien eta izaki bizidun guztien arteko interkonexioa dago.** Nik besteei eta nire inguruneari egiten diedanak nigan dauka eragina.
2. **Hazkunde mugagabe eta esponentziala ezinezkoa eta antinaturala da.** Naturan ez dago eredu horri jarraitzen dion prozesurik. Hazkundeak beti denboran orekatzeko joera dauka.

---

<sup>24</sup> Beharbada haren teoria ekonomiko garatuena "Economía de Gaia" liburuan dago: <http://www.holistika.com/economia/economia-de-gaia.asp>



Era berean, **diruari buruz ditugun sinesmenak berrikusi** behar ditugu. “Zenbat diru nahi dut?” galderatik “Zenbat behar dut?” galderara pasatu behar da. Ekonomia horretan, inork ez du hartzen erabili behar duena baino gehiagorik; izan ere, hartuko balu, beste norbaiti kenduko lioke. Ez da indarkeriaren edo handikeriaren ekonomia, Gandhik zera idatzi baitzuen horri buruz:

*Naturak gure eguneroko beharrak estaltzeko nahikoa ekoizten du; eta pertsona bakoitzak bere beharretarako nahikoa dena eta ez gehiagorik hartuko baluke, mundu honetan ez litzateke pobreziarik egongo.*

Antzeko ikuspegi bat sustatzen du Charles Eisenstein-ek “*La economía sagrada*” bere liburuan. Eisensteinek **opariaren ekonomiaz (edo dohaintzarenaz)** ari da; ekonomia-mota hori oso gertukoa da gizakientzat, milaka urtez gizarte-sistema guztietan funtzionatu du-eta. Dohaintzaren ekonomia behar ez duzuna partekatzean datza; izan ere, ingurune pertsonentzako oparotasuna norberarentzako oparotasuna da eta esker ona, segurtasuna eta jasangarritasuna sortzen ditu<sup>25</sup>.

Lerro horretan daude praktika ugari, bai ibilbide luzea egin dutenak, bai goraka ari direnak, esate baterako: ekonomia alternatibo eta solidarioa<sup>26</sup>, ekonomia zirkularrala<sup>27</sup>, elkarlaneko ekonomia<sup>28</sup>, ondasun komunaren ekonomia<sup>29</sup>, P2P ekonomia<sup>30</sup>, *Onura publikoaren enpresak*<sup>31</sup> eta *4. sektorea*<sup>32</sup>. Eredu horiek guztiak beta fasean daude eta elkarren oso antzekoak dira (konpromiso etikoari ematen diete nagusitasuna, itzulkin soziala lehenesten dute mozkin ekonomikoa maximizatzearen ordez) eta hein handiagoan edo txikiagoan badaude Harrobia plazaren eremuan, hango eragileen bitartez.

25 “Yours, mine, ours” duela gutxiko filmak Stefan Baset-ek urtebete baino gehiagoz egungo diru-sistemari lotuta ez dagoen truketik bizitzen izan zuen esperientzia kontatzen du: [https://www.youtube.com/watch?v=HPZwQScJ\\_aA](https://www.youtube.com/watch?v=HPZwQScJ_aA)

26 <http://www.economiasolidaria.org/>

27 <http://economiecirculaire.org/>


28 <http://ouishare.net/es/> en Euskadi <http://www.shareak.org/>

29 <http://www.ebceuskadi.org/>

30 [http://www.colaborabora.org/2013/04/21/euskadi\\_copiado\\_p2p/](http://www.colaborabora.org/2013/04/21/euskadi_copiado_p2p/)

31 <http://www.colaborabora.org/proyectos/empresas-del-procomun/>

32 <http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=806>



## 2.3. Permakultura

Trantsizio-mugimenduaren abiarazlea, Rob Hopkins, permakultorea da lanbidez, eta permakultura azpian dago *trantsizio* hitza daraman guztia diseinatzeko eta biltzeko ikuspegi gisa. Horrek malgutasuna eta sekuentzia egokia eskatzen ditu, aldaketa onargarriak egin ahal izateko. Permakulturako giroa sortzea prozesu luzea eta mailaz mailakakoa da, printzipio ekologikoetan, teknologia egokietan eta aspaldiko jakindurian oinarritua.

Permakultura<sup>33</sup> **giza habitaten sistema holistikoak diseinatzean** datza; naturako ereduetan aurkitutako erlazioak imitatzen ditu, herri primitiboen aspaldiko jakinduriaz elikatzen da eta gaur egungo zientziaren aurrerapenetan oinarritzen da. Helburua ekologikoki osasungarriak, sozialki inklusiboak eta ekonomikoki bideragarriak diren, barne-beharrak betetzeko beharrezkoa dena ekoizten duten eta beren baliabideak ez agortzen ez kutsatzen ez dituzten sistemak sortzea da. Lurra eta pertsonak zaintzean eta energia, baliabideak eta soberakinak zuzenki (bir)banatzean funtsatutako **printzipio etiko** batzuetan oinarritzen da. Eta **prozesu batzuek beste batzuk atzera elikatzen dituzten diseinuaren pentsamendu** bat hartzen du oinarri. Permakultura nekazaritzako elikagaien eremuan sortu zen, baita beste eremu askotara aplikatu daiteke, adibidez: osasuna, hezkuntza, finantzak, etxebizitza, energia, gizarte- eta kultura-prozesuak, etab.

<sup>33</sup> Permakulturaren printzipioak <http://permacultureprinciples.com/es/>



*Trantsizioko ekimenek permakultura-printzipio asko hartzen dituzte: Txiki hastea, Behatu eta elkarri eragitea, Irudimenaren erabilera intentsiboa, Arazoa irtenbidea da, Errendimendu handiena - Ahalegin txikiena, Biodibertsitatea eta harremanak maximizatzea, Funtzio-aniztasuna, Egiturak konektatzea eta Energia ibilaraztea. Eta haren gizarte-teknologia batzuk erabiltzen dituzte<sup>34</sup>, hala nola: *story telling, open space, sociocracy, appreciative inquiry cycle* direlakoak, etab.*

Ildo horretan, “8 B-en” txikitzeko eredua ere interesgarria da: *birbalioztatzea* (balioak ordeztzea), *birkontzeptualizatzea* (ideiak eta ikuspuntuak iraultzea), *berregituratzea* (ekoizpen-aparatua eta gizarte-harremanak egokitzea), *birlokalizatzea* (km 0 filosofia), *birbanatzea* (banaketa bidezkoagoa), *beheratzea* (gutxiago gehiago da), *berrerabiltzea* eta *birziklatzea* (gauzen eta osatzen dituzten materialen bizitza luzatzea).

---

34 Ikusi *In Transition 2.0* bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=FFQFBmq7X84>



## 2.4. Erresilientzia

Aldaketa azkar eta gogorak dituen garai batean bizi gara eta horiekin dantzaten ikasi behar dugu. Horregatik, egitura eta harreman erresilienteak ekoiztea *trantsizioko ekimenen*<sup>35</sup> funtsezko helburuetako bat da. Horrela, komunitatearen zati batek sufritzen badu, talkak ez dio sistema osoari eragiten, inguruabarrei erantzuteko sormenezko irtenbideak aktibatzen baititu.

Komunitateko kideek elkar ezagutzen dute, harremanetan daude, kooperatzen dute, trukutzen dute eta elkar babesten dute; hala, hain zuzen, erresilientzia sortzen dute. Esan dezakegu komunitate bat erresiliente giten duten hiru ezaugarriak hauek direla:

1. **Aniztasuna:** komunitatea osatzen duten kideena, bete ditzaketen funtzioena, eskain ditzaketen erantzunena, haien artean dituzten loturenak, informazioa zirkularazteko eta prozesatzeko modua, etab.
2. **Modularitatea:** komunitateko gizabanakoen eta nodoen egitura banatuaz eta autokonektatzeko gaitasunaz ari da; hau da, zati batek kaltea jasotzen badu, gainerakoek modu autonomoan jardun ahal dute.
3. **Kausaren eta efektuaren arteko distantzia:** distantzia laburra bada, gobernamentu-sistema ez-zentralizatueta bezala, komunitateko kideek inguruan gertatzen dena ikus dezakete eta behar bezala eta une egokian jardun dezakete.

Badauden trantsizioko taldeen esperientzietan oinarrituta, honetan jar dezakegu arreta:

- Trantsizioko talde gehienak tokiko elikagai ekologikoak ekoizteko **esperientzia txikiekin hasten dira**, bai lurzati batean, ortu komunitario batean, kontsumo-taldeen bidez, bai elikadurarekin edo zerbitzu komunitarioekin zerikusia duten enpresa berriak sortuz. Komunitatearen jabetzako okindegiak edo garagardotegiak zabaltzen dituzte, baita energia sortzeko iturri berriztagarriak ere, ondasunek eta diruak tokian zirkula dezaten, aldi berean berritzeko eta enplegua sortzeko<sup>36</sup>. Bizitzeko eta lan egiteko modu berri horiek komunitate bizi eta bideragarriak sortzen dituzte, haien erresilientzia-maila handitzen dutenak.
- Sarearen dentsitateak eta elementuen arteko loturek erresilientziaren alde egiten dute. 31 trantsizio-sare nazional<sup>37</sup> daude. Espainiakoaz<sup>38</sup> gain (hiru topaketa egon dira estatuan: 2012an, Zarzalejosen, Madrilan; 2013an, Mijasen, Malagan; eta 2014an, Bartzelonan<sup>39</sup>) eta fundatzaileez gain (Erresuma Batua eta Irlanda), mugimendua esanguratsua da Portugalen (14 ekimen, ikusi hurbiltasunagatik eta interesagatik *“Good neighbours project”* Pombalen<sup>40</sup>), Errumanian, Hungarian, Italian, Frantzia, Holandan, Norvegian, Danimarkan, Brasilen, Txilen, Estatu Batuetan, Japonian eta abarretan.)

Bukatzeko, esan behar dugu erresilientzia Londreseko *Transition Network*<sup>41</sup> delakoaren urteko topaketaren gai nagusia izango dela aurten, irailaren 18tik 20ra.

35 Ikusi komunitate erresilienteen gida: <http://www.resilience.org/communities-guide>

36 Transition Network-en REconomy proiektuak posible egiteko beharrezkoak diren tresnak, sarea eta babesa eskaintzen ditu: <http://www.reconomy.org/>

37 Gutxi gorabehera 2.000 guztira (2014an) <http://www.transitionnetwork.org/initiatives/national-hubs>


38 <http://www.reddetransicion.org/>

39 [http://www.reddetransicion.org/wp-content/uploads/2015/01/INFORME\\_RedTE\\_ENCUESTRO\\_INICIATIVAS\\_2014.pdf](http://www.reddetransicion.org/wp-content/uploads/2015/01/INFORME_RedTE_ENCUESTRO_INICIATIVAS_2014.pdf)

40 <http://coisasdovizinho.ning.com/>

41 <https://conference15.transitionnetwork.org/weekend-program/>





## 3. Nola egiten den

### 3.1. Nondik hasi

Gutxienez bi pertsona behar dira eta...

... gauden uneaz jakitun izan behar dute.

... komunitatekoak, auzokoak edo aldameneko inguruneakoak izan behar dute.

... beren erresilientzia, familiena eta lagunena indartzen hasi nahi izan behar dute, estutu gabe.

... beren asmamena eta trebetasunak partekatzeko eta auzotarren eta beren ekimena gainerako eragileen artean agerrarazteko prest egon behar dute.

... egiten dutenak inoiz ez du pertsona gisa hazarazten dituztenaren eta haien balio-eskalaren gorenean dagoenaren aurka egin behar.

### 3.2. Badagoen horretatik abiatuta

Trantsizioko ekimenek toki-komunitatearen autonomia oinarritzko beharren eremutik gauzatzen dute (erresilientzia areagotzen dute): elikadura, jantziak, etxebizitza, garraioa, etab. **Auzoan planifikatzen eta erabakitzen dira, pertsonen trebetasunen, ezagutzen eta aukeren arabera eta epe luzerako plan bati jarraiki.** Plan hori Erresuma batuan **EDAP** (Energy Descent Action Plan=Energia Jaitsierako Ekintza Plana) deitzen da eta komunitatetik bertatik sortzen da.



### 3.3. Etorkizuna imajinatzea orainaldian mugitzeko

*Trantsizioko ekimenek* ikuspegi partekatuek, positiboek eta posibleek etorkizunaren gainean duten ahalmen higiarazle boteretsuaz jokatzeko dute. Sinesmen gerarazleak, geldiarazten gaituzten eta beste errealitate bat eraikitzeko eragile aktiboa izatea eragozten diguten mugak gainditzen saiatzen dira. **Komunitatearentzako etorkizun desiragarria, jasagarria eta erresiliente baten ikuspegi berri bat proposatzen dute** (komunitatearen gaitasunez energia-, elikagai- eta baliabide-gabeziako egoera bati aurre egiteko gai dena).

Modu parte-hartzailean egindako ariketa. Maketetan, antzerki-sketchetan, bideoetan, informazio-orrietan eta abarretan islatu ohi dira; horiek jarduten den tokiaren eraldaketaren irudizko modua aurkezteko balio dute, datatik 15 edo 20 urtera.


### 3.4. Trantsiziorako plan kolektibo bat diseinatzea

Tartean dauden pertsonen beren *EDAP* sortzen dute: zenbait etaparako proiektua erresilientzia (edo herriaren, auzoaren eta abarren autonomia, energia gutxiago dagoen agertoki batean) areagotzeko helburu batzuk erdiesteko. **Plan bakoitza bere testuingurukoa da eta tartean dauden pertsonen menpe dago.** *Trantsizioko ekimena* aldi batez funtzionatzen egon ostean diseinatzen da eta etorkizun desiragarriaren ikuspegi kolektiboan oinarritzen da.

### 3.5. Abagune bakoitza eta ekintza bakoitza ospatzea

**Ospakizuna egindako lanaren onarpena da, pertsonen arteko loturak indartzen laguntzen du eta konpromisoaren jarraitutasunerako aurretik prestatzen du.** Horrez gain, ospakizunak beste pertsona batzuen arreta erakartzen du (inplikatzeko aurretiko urratsa), eta horiek aitortuko dute *Trantsizioko ekimena* adiskidetsua dela, giza eskalan, baita indarra ematen duela ere.

Antolatzen diren trantsizio-ekintza guztiek (topaketek, lantegiek, lan kolektibo praktikoak, aurkezpenek...) ospatzeko une bat eduki behar dute. Alde batera utzi behar ez den funtsezko elementua da. Azkari bat, dantza, jolasa, musika-kontzertu txiki bat, etab. izan daiteke.



### 3.6. Banakako barne-trantsizioari ekitea

Gizabanakoa izaki kolektiboa DA. Trantsizio kolektiboak oihartzun indartsua dauka trantsizio pertsonalean. **Trantsizioa taldean egiteak gure bizitzan aldaketak egitera animatzen gaitu.** Lagunduak gaude, gure zailtasunak eta besteenak ikus eta uler ditzakegu, ulertuak eta babestuak sentitzen gara.

Talde-erronkek —alegia, energia eta baliabide gutxiago eskuragarri daudenerako toki-autonomia areagotzekoek— askoz ere energia gehiagorekin mugiarazten dituzte bizitzaren eta kontsumoaren banakako aldaketak. Energia murrizteko bideetan aurrera egitean, geure buruarekin, besteekin eta *mundu naturalarekin* ditugun harremanak berreraiki behar ditugu. Horrek trantsizioaren bihotzean eta ariman ardatzea eskatzen du.

**Aldaketa komunitariorako ekintza positiboak arrakasta edukitzeko probabilitate gehiago izango ditu pertsonen indarguneen, talentuen eta ondasunen identifikazioak inspiratzen eta mantentzen badu.** Komunitateak trebeak eta boteretsuak bihurtzen dira ezaugarri horiek pizten direnean eta, horrela, oparotasun-komunitateak bihurtzen dira.

**Aldaketa geure burua aldatuz hasten da, ikasitako guztia praktikan jarritz:** proiektu jasangarrietan eta toki-enpreetan inbertituz; diru-sarreraren zati bat beste pertsona batzuei edo hurbileko proiektuei emanez; sistema ekonomiko alternatiboak, hala nola kreditu-kooperatibak, denbora-bankuak, diru alternatiboak, etab., erabiltzen hasiz; gobernuei benetako ekonomia bat eskatuz, non dirua zorrik gabe sortzen den eta non herrialdearen aberastasuna herritarren zoriona, azpiegituretan edo gizarte-zerbitzuetan egindako inbertsioa eta natura-ingurunearen zainketa kontuan hartuta neurtzen den; eta dena beti horrela izan delako eta ezer aldatu ezin delako sinesmenari motibazioa galarazten utzi gabe.



### 3.7. Aldaketa aldaketa kulturala da

Banakako eta taldeko aldaketa, egiatan eta neurri handi batean, aldaketa kulturaltzat jotzen badugu gerta daiteke. **Iruditeria eta erreferentzia-puntuak aldatzea, subjektibotasun berri bat ekoiztea, errealitatea zalantzan jartzeko eta horri eragiteko esparru sinboliko berrietan sakontzeko.** Hori dela-eta, sormenak, arteak eta kultura-ekintzak oro har funtsezko zeregina betetzen dute trantsizioko prozesuetan, aurretik edo aldi berean; askotan, ikusi gabe edo zeharka. Ideien eta prozesuen irudikapen edo ilustrazio soilak eta beste mendeko erabilerak eta erabilera instrumental batzuk gainditu behar dira, arteari eta kulturari sormenaren eta bitartekaritzaren artean, esanahiaren ekoizpen materialaren edo immaterialaren eta komunitate-kohesioaren artean, laborategi esperimentalaren eta eguneroko bizitzako praktikaren artean kokatzen diren funtzioak esleitzeko. Herritar gisa, aldaketaren eragile gisa, modu irekian, interpelatu, ukitu, inplikatu egiten gaituzten proposamenak behar dira.

Auzoan kultura-eragileak egotea bereizgarria da eta ibilbide handia du, badira urte asko modu naturalean gertatzen dela eta erakundeek azken 20 urteetan babestu dute. Horrela, instituzio, erakunde eta jarduera ugari aurki ditzakegu, esate baterako: BilbaoArte, Berreginen Museoa, Consonni, Okela, Histeriak, Marzana, SCgallery, MEM, Sarean, Gau Irekia, IDEATOMICS, Artaziak, Zaramari, ColaBoraBora, La Cosa en Casa, BLVart, Muelle3, Punto de Fuga, BilboRock, Anti-, La Kultur, artisten estudio asko... Eta beste toki askotan gertatzen den moduan, **toki degradatu edo arazotsuen eta kultura-eragileen binomio hori gentrifikazio-arrisku larriaren eta bizitza soziokomunitarioko gainjartze osasungarriaren artean mugitzen da.** Nolanahi ere, auzotik lan egiteko funtsezko ardatza da; proiektuaren hasierako planteamendutik hartu da kontuan eta behin baino gehiagotan agertu da *HARROBItik HARROBIra* lan-prozesuan zehar<sup>42</sup>.

Erreferentzia gisa, nazioartean arteak eta kulturak zeregin erabakigarria bete duten proiektu ugari aurkitu ditugu, bai harremanen, gatazkaren edo gizarte-erreproduzioari dagokienez bai ingurunearen aldaketari dagokionez (sarritan bi alderdiak lotuz). Adibidez, hauek azpimarratuko ditugu: *Transductores*<sup>43</sup>, ingurune komunitarioetako arte eta pedagogia kritikoei buruz, zeinarekin ColaBoraBorak eta Artaziak-ek harreman estua dute; *Nuevos Comanditarios*<sup>44</sup>, frantses jatorriko programa, duela urte batzuetatik Euskadin ere garatzen dena; *Idensitat*<sup>45</sup>, dagoeneko ibilbide luzea egin duen programa, arteari, lurraldeari eta espazio publikoari buruzkoa, orain Consonni garatzen ari den *Esfera Pública* proposamenaren antzekoa; *Redesartepaz*<sup>46</sup>, artea eta garapen komunitarioa lotzen dituen proiektuen sare latinoamerikarra, Sarean-etik *Gau Irekia* izan litekeen moduan; edo New Yorkeko *Center for Urban Pedagogy*<sup>47</sup>, artearen, diseinuaren, hezkuntzaren eta herritarren partaidetzaren arteko praktikak egiten dituen, Zaramarik garatzen dituen oso antzekoak, hala nola *PlayDay*.

42 Adibidez, oso modu espezifikoan *El Barrio de las Artes* proiektuan; testuinguruko eragileek egindako elkarrekin sortzeko saioretan sortutako prototipoetako bat da (ikusi 5. *eranskinaren* 38. or.).

43 <http://transductores.net/>

44 <http://www.nouveauxcommanditaires.eu/> | <https://nuevoscomanditarios.wordpress.com/>

45 <http://www.idensitat.net/es/> | <https://www.consonni.org/es/proyectos/prologo-laboratorio-esfera-publica>

46 <http://redesartepaz.org/> | <https://es-es.facebook.com/GauIrekiNocheAbierta>

47 <http://welcometocup.org/> | <https://www.youtube.com/watch?v=VxMQiOGjJKg>



### 3.8. Tokiko adinekoak ohoratzea

Gizateriaren historia osoan eta kultura guztietan, adinekoak gizarte-kohesioaren, kultura-transmisioaren eta jakituria espiritualaren bermea izan dira. Gainera, adinekoak —gure belaunaldiari dagokionez— **jakituria- eta trebetasun-iturria dira, hain globalizatua ez zegoen eta erregai fosilen mendekotasun txikiagoa zuen mundu batean bizi baitziren eta han ikasi baitzuten.**

*Trantsizioko ekimenetan* adinekoak entzuten dira, haiengandik, haien garaitik, haien trebetasun eta aholkuetatik ikasten da. Ekimenetan parte hartzera hertsatzen dira, ahal duten heinean, eta komunitateari egiten dioten ekarpena aitortzen da, baliagarriak direla senti dezaten. Horrela, adinekoekiko topaketak oso ohikoak dira, belaunaldien arteko harremanak gauzatzeko, bizitzaren alderdi hau edo bestea (janari-ekoizpena, energia, manufakturak, osasuna...) beste garai batean nolakoa zen komentatzeko eta praktika horiek orainera egokitzeko.

### 3.9. Kanpotik etorri zirenak gehitzea

Gauza bera gertatzen da beste leku batzuetatik etorritako migratzaileekin, gutxi gorabehera finkatuta edo iragaitzaz daudenak, *trantsizioko ekimen* baterako funtsezkoak diren beste jakintza, kultura eta esperientzia batzuk ekar ditzakete-eta. Horrek garrantzi berezia dauka Harrobiaren eta auzo osoaren testuinguruan, mundu osoko leku ugaritatik etorritako auzotarren ehuneko altua baitago. **Pertsona horiek, kasu askotan (honetan estereotipoetan eror gaitzkeen arren), beren jatorrizko jakintzekiko eta bizi-esperientzia erresilienteekiko harreman estuagoa daukate.**

Ezin dugu *trantsizioko ekimenik* aktibatzean pentsatu biztanleriaren sektore garrantzitsu horren partaidetza aktiboa kontuan hartu gabe, kultura-aniztasunari eta kultura-artekotasunari dagokienez.



### 3.10. Toki-diruak, diru digitalak eta crowdfundinga

*Trantsizioko ekimenek* toki-ondasunak eta zerbitzuak herrian bertan trukatzeko balioak izatea sustatzen du. Horretarako, adibidez, erabiltzen diren diruen osagarriak diren diruak egiten dira. **Toki-diru horiek diruaren jatorrizko esanahia daukate: benetako ekonomiarako eta komunitaterako truke erabilgarriko tresna dira.** Bilbon lan hori *Ekhi Txanpona*<sup>48</sup> delakoarekin hasi da dagoeneko; 2014tik dago zirkulazioan, 78 enpresa dira kide eta 26.000 ekhi baino gehiago trukatu dira. Era berean, *Gita*<sup>49</sup> txanponaren esperientzia aipatu behar da; Sartuk jarri zuen abian eta gizarte-inklusioko helburuak zeuzkan diru osagarriaren ezaugarriak biltzen zituen.

Gainera, **P2P kriptodiru digitalek**, ohiko diru-sistemari ezinbestean lotuta ez baitaude, gero eta garrantzi handiagoa daukate. Ezagunena *BitCoin*<sup>50</sup> delakoa da, baina *hemen interesatzen zaizkigun gizarte- eta lankidetzeta-balioetatik hurbilago dagoen adibide bat FairCoin*<sup>51</sup> izenekoa da.

Era berean, **ekonomia modu banatuan sortzeko beste era batzuk** kontuan hartu behar dira, **hala nola crowdfundinga**, azken urteetan ekimen komunitario asko finantzatzeko balio izan baitu, estatuan adibidez *Goteo*<sup>52</sup> plataformaren bidez; *plataforma hori komuna, askea eta irekia dena sustatzen duten proiektuetan ardaizten da espezifikoki.*

### 3.11. Denbora baliabide gisa

Diruaz haraindi (ofiziala zein osagarria izan), *trantsizioko ekimenek* beste balio eta kapital batzuk ipintzen dituzte zirkulazioan, diruan oinarritzen ez diren ekonomiak ekoizteko, truketik dohaintzara. Ildo horretan, **denbora-bankuak oso garrantzitsuak dira; horien bidez, pertsonak beren denbora, jakintzak eta gaitasunak eskaintzen dituzte, besteekin trukatzeko.** Auzoan bertan, Aldauritik kudeatua, badago denbora-banku bat<sup>53</sup>, oso erreferentzia ona izan daiteke. WikiTokin ere denbora-banku bat erabiltzen dute, baina ikuspegi desberdin batekin, pertsona bakoitzak komunitateari hilero eskaintzea agintzen duen orduak kudeatutzeko. Lantaldeei, batzarrei edo beste zereginetara eskaintako denbora, berrikuntza edo mantentze lanei eskaintakoa bereziz.

48 <http://www.ekhitxanpona.org/wordpress/>

49 <http://www.vivirsinempleo.org/2012/12/una-nueva-moneda-social-en-bilbao-la.html>

50 <https://bitcoin.org/es/>

51 <https://fair.coop/es/faircoin/>

52 <https://goteo.org/>

53 <http://www.bdtbilbao.org/>



### 3.12. Kexaz baino gehiago ekintzaz arduratzea

*Trantsizioko ekimenak* inklusiboak dira<sup>54</sup>, energia-baliabide gutxiago eskuragarri dauden etorkizun batean denok gaudelako inplikaturik. Mundu guztia sar daiteke mundu guztia beharrezkoa delako, hasierako jarrera trantsizioari dagokionez ez ikusiarena egitea, ukatzea edo aurkakoa izatea izan arren.

Eta modu errazean pasatzen da ekintzara. Bi pertsona nahikoak dira abian jartzeko, ahal den neurrian. Hortik abiatuta, **beste pertsona, kolektibo eta erakunde batzuen inplikazioa bilatzen da, baina ez da exijitzen. Adibide praktikoa higiarazle indartsua delako eta jarrera-aldaketa eta besteen inplikazioa ahalbidetzen duelako konfiantza izaten da.**

*Harrobia trantsizioan* ekimenaren inguruan txikitzearen aldeko toki-kolektiboen<sup>55</sup>, ekologisten<sup>56</sup>, ekintza soziokulturaleko taldeen<sup>57</sup>, eta abarren inplikazioa eduki liteke. Talde horietan nahasita dauden eta Harrobi plazako auzotarrak edo erabiltzaileak diren pertsonak badaude konektatuta eta jardunean; *trantsizioko ekimen* batean nahasteak ez luke ezinbestean ekarriko haien agendei beste ekintza bat gaineratzerik, baizik eta haien ekintzari zentzua gehitzea, atzera elikatzeke eta prozesuak indartzeko bat etorraraztea.

54 <http://www.reddetransicion.org/estrategias-de-sensibilizacion-para-promover-el-paso-a-la-accion/>

55 <http://desazkundeabilbo-e.blogspot.com.es/>

56 <http://www.ekologistakmartxan.org/>

57 <http://sarean.xtreemhost.com/>



### 3.13. Erakundeen zeregina

*Trantsizioko ekimenak* toki-ekintzen batuketaren emaitza dira; beraz, elkarrizketaren eskala ere bada, eta toki-erakundeak dira prozesua babesteko hoberen eta zentzu handienarekin inplika daitezkeenak. Jakina, eragiten duen esparru handiago bat dago, eskualdean, estatuan eta nazioartean. Kontua da nazioarteko politikek klima-aldaketarako egokitzapena, erregai fosilen murrizketa eta gobernamendu deszentralizatu onartzen eta bultzatzen dituztela<sup>58</sup>.

Aukera ugari daude. Beharrezkoa da erakundeak legitimitate demokratikoan oinarritzea, izapide juridikoaren orde; gobernu-epeek prozesu natural eta sozialetarako balio izatea, hauteskunde-prozesuetarako baino areago; eta alderdi eta ideologia politikoek ingurumen- eta gizarte-gaiak ekonomia-gaien maila berean sartzea. Halaber, erakundeek berek barne-trantsizioko prozesu bat hasi behar dute.

Hemen, gure inguruan, badauzkagu oso lagungarriak izan daitezkeen eta erreferentzia gisa erabili ahal diren esperientziak. Energiaren gaiari dagokionez, Goiener<sup>59</sup> edo Oñatiko kasua<sup>60</sup>; dauzkagu; gobernamendu-mekanismoei eta ondasun komunari buruz, Orendaingo kasua<sup>61</sup>; azter dezakegu; baratze komunitarioei dagokienez, komenigarria da Noaingo *La Huerta de los Sentidos*<sup>62</sup> gogoratzea; etab. Imajinatzen ditugun baino askoz ere adibide gehiago daude, eta batzuk Harrobi plaza bera bezain hurbil daude. **Hasteko modu erraz bat jadanik egiten ari dena ikustaraztea eta modu antolatuan babestea, eskala-jauzi bat ahalbidetzen duten harremanen eta tresnen alde egitea eta ekintzen multzotik ekintza-plan batera pasatzeko beharrezkoa den urratsa babestea litzateke.**

Eta hori guztia Bilboko Udaletik jada ezarritako konpromiso instituzionalekin bat dator. *Alkateen Itunetik EJEPei (Energia Jasangarriko Ekintza Planak)*<sup>63</sup> buruz esandakoak trantsizioa dagoeneko hasten ari dela agerrarazten du. Hori finkatzeko urrats bat *Petrolio Osteko Udalerriak*<sup>64</sup> ekimenarekin bat egitea izan liteke.

58 [http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n16/07\\_RobertoBermejo.pdf](http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n16/07_RobertoBermejo.pdf)

59 <http://www.goiener.com/>

60 <http://www.diariovasco.com/v/20130210/alto-deba/onati-siglo-energia-limpia-20130210.html>

61 [http://www.eldiario.es/norte/euskadi/comun-instala-localidad-guipuzkoana-Orendain\\_0\\_335966738.html](http://www.eldiario.es/norte/euskadi/comun-instala-localidad-guipuzkoana-Orendain_0_335966738.html)

62 [http://www.cederna.eu/wp-content/uploads/2013/01/fundacion\\_varazdin\\_huertas\\_sociales\\_varazdin\\_fundazioa.pdf](http://www.cederna.eu/wp-content/uploads/2013/01/fundacion_varazdin_huertas_sociales_varazdin_fundazioa.pdf)

63 [http://www.pactodelosalcaldes.eu/actions/sustainable-energy-action-plans\\_es.html](http://www.pactodelosalcaldes.eu/actions/sustainable-energy-action-plans_es.html)

64 <http://municipios.pospetroleo.com/doku.php?id=es:start>





## 4. *Harrobia trantsizioan* ekimenerako erreferentzia praktikoak

### 4.1. *Erabilgarriak izan daitezkeen dozena bat kasu*

#### 1. *Le Zeybu Solidaire*

**Irismena:** Eybens (9.000 biztanle), Grenobleren (155.000 biztanle) ondoan, Frantzia.

**Proiektu-motak:** bidezko merkataritzako eta elikadura-subiranotasuneko ekintzak.

**Katalizatzailea:** Grenobleko toki-merkatua azalera handien presioagatik ixteak eta horrek Eybenseko merkataritza txikirako ekarri zuen mehatxuak auzokoak astindu zituzten eta kontsumo-kooperatiba baten bidez suspertzea erabaki zuten.

**Kontaktua:** <http://www.lesamisduzeybu.fr/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** 2009an sortu zen, toki-eskaria irizpide solidarioei jarraituz betetzeko. 2014an toki-diru bat sortu dute, oinarri sozialeko negozio berriak babesten dituzte, elikadura-subiranotasunari eta ingurumen-gaiei buruzko prestakuntza ematen dute eta beren trantsizioa eta autokudeaketa ospatzen dituzte. 2013an toki-garapeneko REVES saria irabazi zuen eta "udalerrri berritzaile" gisa onartu zuten.

***Harrobia trantsizioan* ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** sozietate zibila, premiazko uneetan, oso motibatua dago ikuspuntu praktiko batetik mugitzeko; gainera lider egokiak dauzkanean, lotura sendoak eraikitzen ditu, eta hori desiragarria litzateke gure kasuan. Elikadura eta eguneroko etxeko eskaria betetzea berehalako arreta eskatzen duten eragin handiko elementuak dira. Auzoan KideKoop-en esperientzia berria har liteke kontuan.



## 2. Transition Belsize

**Irismena:** Belsize (60.000 auzoko), Londreseko ipar-mendebaldeko auzoa.

**Proiektu-motak:** energia-eraginkortasuna, petrolio-gailurrari buruzko prestakuntza, saltoki komunitarioak, elikadura-subiranotasuna.

**Katalizatzailea:** 2008an, tokiko elkarte ekologista batek hondakinen gaikako bilketa bat antolatu zuen parkean eta egoera eta ekintzaren emaitza positiboak auzokoekin partekatu zituen. Auzokoek auzoko egoera gehiago hobetzeko ideiak eta borondatea ekartzen dituzte. **Kontaktua:** <http://www.transitionbelsize.org.uk/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** 2014ra arte leihoak isolatzeko eta berritzeko 100 lantegi inguru egin dituzte, baita eraikuntzaren energia-eraginkortasunari buruzkoak ere, eta zurgintza-lan ugari ere erosi dituzte, beren baliabideekin modu komunitarioan negoziatuz. Gainera, elkarlanean garagardoa, ogia eta ortuko barazkiak hazi eta prestatzen dituzte. Prestakuntza- eta kontzientziazio-jarduera asko egiten dituzte.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** indar kolektiboak inbertsioak eta azpiegiturak abantailaz negoziatzea ahalbidetzen du. Erdiespenak eta huts egin duten edo gauzatu ari diren saiakerak jolasez eta ospakizunaz ikustarazteak boluntario berriak atxikitzea eragiten du. Jatorri desberdineko (auzokoen %50 ez dira jatorri ingelesezkoak) eta gizarte-klase desberdineko pertsonak espazioa, arazoak eta irtenbide komunak partekatzeko nahasten dira.



### 3. Toulouse en Transition

**Irismena:** Empalot auzotik (18.000 biztanle), Tolosa hiri osoa (450.000 biztanle), Frantzia.  
**Proiektu-motak:** garapen komunitarioa, auzoaren birgaitze osoa, energia-eraginkortasuna, landare-balkoiak eta -estalkiak, petrolio-gailurrari eta permakulturari buruzko prestakuntza. **Katalizatzailea:** 2010ean auzo hori pixka bat atzeratuta geratu zen Tolosako hiri-berroneratzeko proiektu handiko prozesu parte-hartzaileetan, eta trantsizio-mugimendutik abiatuta erreakzionatu zuten.  
**Kontaktua:** <http://www.toulouse.transitionfrance.fr/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** mugimendua nazioko eta nazioarteko sare esanguratsu guztiekin ezarrita eta lotuta dago. 100 pertsona inguru daude etengabe jardunean, eta 2.000 inguru modu puntualagoan, mota guztietako gutxi gorabehera 50 proiektutan inplikaturik. Astero lantegiak antolatzen dituzte, ekitaldietan parte hartzen dute eta prestakuntza eskaini ohi dute; horrela, trantsizio-mugimendua Frantziako beste udalerrri batzuetara hedatzen dute.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntzak:** trantsizio-ekimen bat abiarazteko urrats "estandarrek" (lehen aurkezpen ireki bat antolatzea, ikuspegi partekatua bat sortzea, komunitate-baliabideak aktibatzea, ekintzak ospatzea, barne-trantsizioarekiko konpromisoa hartzea eta ikaskuntzak partekatzea) arazorik gabe funtzionatu zuten. Horrek gizabanakoak, saltokiak, gizarte-eragileak eta auzotarrak erakarri zituen, eta haiek pixkanaka inertzia eta sinesgarritasuna sortzen dute. Han posible bada, hemen ere bai.



#### 4. R-Urban

**Irismena:** Colombes hiri txikitik (80.000 biztanleak), Pariseko ipar-mendebaldean dagoen aldiritik, gaur egun Alemaniako, Belgikako, Espainiako, Erresuma Batuko eta Errumaniako beste hiri batzuekin harremanetan dago.

**Proiektu-motak:** garapen komunitarioa, erresilientzia, tokiko ekoizpen- eta kontsumo-zikloa, eguneroko bizitzako azturen aldaketa, hiriaren eta landaren arteko harremana.

**Katalizatzailea:** proiektua Atelier D'Architecture Autogèrèe (AAA) delakoak koordinatzen du, ingurumen-gobernamenduko EC Life+ programaren laguntzaz, eta Europako beste hiri batzuetan kopiatu ahal diren prototipo batzuk abian jartzea du helburu.

**Kontaktua:** <http://r-urban.net/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** funtzionatzen ibili den denboran, hiru unitate esperimental jarri dira abian: 1) Agrocite: hiri-nekazaritzaren unitatea, mikrobaserri esperimental batez, lorategi komunitarioez eta energia-ekoizpeneko, konpostajeko eta euri-uraren bilketako sistemez osatua; 2) RecyLab: hiri-hondakinak birziklatzeko eta ekoeraikuntzako azpimultzotan eraldatzeko unitatea; eta 3) Ecohab: hein batean autoeraikitako etxebizitzaren kooperatiba-unitatea, ekologietan, autojasangarritasunean eta espazio eta baliabide komunetan oinarritua. Gaur egun, proiektua hasten ari den eta sare asko ezartzen ari diren arren, tokiko gobernuaren aldaketa mehatxatzen ari da.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplika daitekeen ikaskuntza:** proiektuak zenbait eremurekin (etxebizitza, enplegua, kontsumoa, mugikortasuna, nekazaritza) zerikusia duten jarduera batzuk zeharka harremanetan jartzen ditu, erresilientziaren eta hurbileko ekoizpenaren eta kontsumoaren ideian oinarrituta, alderdi materialak ez ezik kulturalak, kognitiboak eta afektiboak ere barne hartuz. Proiektua funtzionatzeko, beharrezkoak dira AAAREN koordinazio aditua, auzoko komunitatearen inplikazio sendoa, toki-administrazioaren laguntza eta Europako programetan eta sareetan integratzea.



## 5. Tot Raval

**Irismena:** El Raval auzo historikoa (50.000 biztanle), Bartzelona.

**Proiektu-motak:** askotariko ekintzak bizi-kalitateari eta gizarte-kohesioari dagokienez.

**Katalizatzailea:** auzokoek, auzo-elkarteek eta hiri-garapeneko bulegoak eragile anitzeko fundazio bat sortu zuten auzoko egoera sozioekonomikoa hirikoarekin parekatzen saiatzeko asmoz.

**Kontaktua:** <http://www.totraval.org/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** 2011n sortu zen, 25 proiektu txikirekin; 2014an zuzenean 5.000 pertsona nahasi ditu adin guztietarako zenbait jardueratan, hezkuntzaren, aisia aktiboaren, etnia anitzeko ospakizunaren eta osasun osoaren eremuan.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** kidetasun publiko eta pribatuko eredu interesgarria; oso lokalizatua dago, toki-eragileak ahalduz eta komunitatearen bizi-kalitatearen eremu guztietan etekinak eta sinergiak sortzean ardatzen da.



## 6. Usera Barrio Sostenible

**Irismena:** Usera auzoa (140.000 biztanle), Madrilén hegoaldean.

**Proiektu-motak:** garapen komunitarioa, energia-eraginkortasuna, ingurumen-kutsadura, landare-estalkiak, hiri-ortuak, mugikortasun jasangarria, lanbide-heziketa eta enplegu-nitxo berriak.

**Katalizatzailea:** proiektua 2014an sortu zen, Grupos Compartir-ek bultzatua, Tomillo fundazioaren eskutik, helburu bikoitzarekin: 1) Usera auzoan bizi-kalitateak, garapen komunitarioa eta ingurumen garapena hobetzeko; eta 2) lanbide-heziketako eremu berriak arakatzeko, haiekin lan egiten duten gazteen enplegarritasuna areagotze aldera.

**Kontaktua:** <https://prezi.com/9keapy6ba78b/barrios-sostenibles-usera/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** proiektua fase pilotuan dago; 2.000 pertsonari baino gehiagori eragiten die, Userako ikasleak eta familiak barne hartuta, eta oso helburu praktikoa zehatzak ezartzen ditu, esate baterako: 60 ikasle prestatzea, 250 etxebizitzatan esku hartzea edo landare-estalkiko 2.880 m<sup>2</sup> muntatzea.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** proiektua eragile bultzatzaileak dagoeneko egiten ari diren edo egin dezaketen horretan ardatzen da, behar eta gaitasun zehatzetan. Barne hartzen diren ekimenera eragile zehatzek babestuak egon behar dute, mantentze-lan eskasa eskatu behar dute eta finantzaketa-bide anitz eduki behar dituzte. Garapenerako, Grupos Compartir-ek askotariko eragile publiko eta pribatu ugari inplikatu ditu, hala nola: EPTISA, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Nekazaritza Ingeniarien Goi Eskola, Instituto de Energía Solar (Eguzki Energiaren Institutua), IDAE, CIEMAT, Botín fundazioa, Madrilgo Udala (zenbait zinegotzitza eta bulego), energia-zerbitzuen enpresak (EZE), baita Userako eskolak, elkarteak eta komunitateak ere.



## 7. Union Gewerbehof

**Irismena:** Dortmund-eko hirigune historikoa (120.000 biztanle), Alemania.

**Proiektu-motak:** lan-espazioen birgaitze autokudeatua eta autoekintzailtza.

**Katalizatzailea:** oso gaituta eta kontzientziatuta zeuden dozena bat langabe beren lan-espazioa, bezeroak eta negozio-eredua sortzeko bildu ziren.

**Kontaktua:** [www.union-gewerbehof.de](http://www.union-gewerbehof.de)

**Ekimenaren garapen-fasea:** 13 pertsonak 1986an 67 partaidetza, bakoitza 767 €-koa, lortu zituzten obren hasiera finantzatzeko; gero sindikatu batek lagundu zien, beste 10.000 € emanaz. 1992an birgaitzea bukatzeko eskualdeko laguntzak jaso zituzten, eta 2014an aholkularitzaren, prestakuntzaren eta sormen-industrien arloko 90 negozio eta zuzenean enplegatutako 270 egon dira (horien % 50 ez dira jatorri alemanekoak). Zerbitzu osagarriak sortu dira, adibidez, jatetxeak eta tabernak, eta hasieran hirigintzari dagokionez gainbeheratuta zegoen eremu bat suspertu da.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** eremuan birgaitzea behar duten eraikuntzak edo gutxiegi erabiltzen diren espazioak daude, baita prestakuntza-maila altua daukaten baina langabezia daukaten eta diru-sarrerara gutxi dituzten pertsonak ere. Eskala handitu lezaketen ekintzailtza- eta autokudeaketa-jardunbide egokiak daude. Gainera, hasierako finantzaketa-eredua, hurbileko pertsonen ekarpenetan oinarritua, oso interesgarria da.



## 8. Coisas do Vizinho

**Irismena:** Pombal (56.000 biztanle), Portugal.

**Proiektu-motak:** bigarren eskuko objektuen trukea, permakulturari buruzko prestakuntza, garapen komunitarioa.

**Katalizatzailea:** bikote baten 2010ean bigarren eskuko arropako denda bat zabaltzea erabaki zuen eta, hortik aurrera, bestelako kontaktuak, trukeak, toki-ahalduntzeko harremanak eta ekonomia alternatiboa eta solidarioa sortu zituzten.

**Kontaktua:** <http://coisasdovizinho.ning.com/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** Gaur egun, 150 *vizinhok* (auzotarrak, ez kale edo auzo berekoak ezinbestean) mota guztietako ondasunak eta zerbitzuak trukutzen dituzte. Denbora-banku bat daukate, permakultura-proiektuei buruzko prestakuntza emateko eta horiek ezartzeko jarduerak egiten dituzte eta barne-trantsizioaz behar den moduan jabetzeko bide bat partekatzen dute.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** permakultura-diseinuaren lehen irizpidea "txiki hasia" da, alegia, urrats bakoitza bere kabuz mantentzea, baita eskari presente eta erraz batekin hasia ere. Topaketarako espazio fisiko bat kalearen parean zabaltzea (horixe egin nahi du Sareanek Mariaren Bihotza plazan) gizarte-ahalduntzeko sormenezko mugimendu eraginkorrak hasia ahalbidetzen du. *Maiatzaren 2ko azokaren* antzeko jarduerak ere haztegi onak izaten dira.





## 9. Cardedeu en Transició

**Irismena:** Cardedeu (18.000 biztanle), Bartzelona metropolitarraren alde bat.

**Proiektu-motak:** trantsizioko, txikitzeko eta subiranotasuna lortzeko ekimen-mota guztiak. **Katalizatzailea:** Cardedeu Bartzelona metropolitarrako herri dinamikoa da; kalitate-, hezkuntza- eta ekonomia-estandar onak ditu, 2008an Alkateen Ituna sinatu zuen eta udal-kudeaketa irekia eta parte-hartzailea dauka. Udalerrian berez hiri-baratzeak, toki-garapenerako jarduerak, denbora-banku bat, etab. sortuak ziren. 2012an kultura-jardueraren batean *Transition 2.0* bideoa ikusi zuten, tokiko aditu baten laguntzaz; ondoren debate-foro bat egon zen eta jarduerak trantsizio-kontzeptuaren inguruan egituratzea erabaki zuten.

**Kontaktua:** <https://cardedeuentransicio.wordpress.com/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** gaur egun ia herri osoa dago ekintza jasangarri, erresiliente zein trantsizioko edo permakulturako ekintza batean inplikaturik. Jarduera asko eta asko daude, eta udalerrri jasangarriaren adibide aitortua da.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** trantsizioko balioak partekatzen dituzten ekimenera, nahiz eta motibazio desberdinetatik sortu eta askotariko helburuekin identifikatu, sinergiak sor ditzakete trantsizioko ekimenen eremuan, eta begibistakoa da horrek etekinak ekartzen dizkiola komunitateari. 5. barrutiaren inguruan eragile eta mugimendu solidarioen, ekologikoen, elkarlanekoaren eta jasangarrien mapa oso bat dago; haien balio komunak trantsizioaren inguruan gauzatu daitezke.



## 10. Job Opportunities for All

**Irismena:** Karditsa hiria (91.000 biztanle), Grezia.

**Proiektu-motak:** udalerrian baztertutako ehunak birziklatzearen eta kudeatzearen arloan enplegu okupazionala sortzeko gizarte-kooperatiba. Laguntza psikosoziala, hezkuntzako eta finantzarioa barne hartzen ditu.

**Katalizatzailea:** tokiko GKEk toki-garapenerako agentzia nahasten du, eta horrek Europako funtsak mugiarazten ditu.

**Kontaktua:** [www.topeko-entos.gr](http://www.topeko-entos.gr)

**Ekimenaren garapen-fasea:** 2012an hasi zen eta 2014an zuzenean 16 pertsona enplegatzen zituen. Arreta komunitate-eskalako trantsizio sozioekonomikoko beste alderdi batzuetara (eraikinak birgaitzea) zabaldu du. Laguntza psikosozialeko profesionalak etxeko beste ondasun eta zerbitzu batzuk trukatzeko dituzte ekimenaren barruan.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplikatu daitezkeen ikaskuntza:** birziklatzearen sektorea handituz doan jardura da eta auzoan badu tradizioa (formala eta informala), adibidez, txatartegiak eta TrucaRec proiektua. Gainera, Euskadin ekimen garrantzitsu asko daude, esate baterako, Kooperera, Emaus eta Recickleta. Auzoan garatzeko enplegu-sektore interesgarria izan liteke.



## 11. Horta a Porta

**Irismena:** Porto metropolitarrak (2 milioi biztanle), Portugal

**Proiektu-motak:** Porto inguruko aldiriko gune berdeen jateko birlanaketa eta etxeko hondakinen kudeaketa.

**Katalizatzailea:** landa-mundutik etorritako etorkin adinduen arlo metropolitarrak; hasieran baratze-espazio txikiak okupatzen dituzte, baina gero beren konposta kudeatzeko eta beren produktuak banatzeko antolatuz joaten dira.

**Kontaktua:** <http://www.lipor.pt/pt/galerias/horta-a-porta/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** 2004an hondakinak kudeatzeko agentzia metropolitarrak espazio horiek erabiltzaileen laguntzaz koordinatzea onartu zuen eta aldiriko ortuen azalera 4 hektareara zabaldu zuen. 2014an 1.000 pertsona zeuden nahasita produktuen eta hondakinen erabileran, banaketan eta kudeaketan, prestakuntzan, ekipamendu-trukean eta eskariz produktuak elkarri agintzean. Komunitate produktiboa zein afektiboa sortu da.

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplika daitekeen ikaskuntza:** administrazio publikoek berezko gizarte-ekimenak onartzen badituzte, horiek legez kanpoko inguruabarretan badaude ere, errespetatzeko, elkarlanean aritzeko eta denek etekina lortzeko helburuarekin, merkatuan, pertsonen ohituretan eta hiri-politikan eragina izateko adina masa kritikoa duten proiektuak ateratzen dira. Aitzindariak administrazio publikoen erantzun hori lor dezakete baldin eta errebindikazioak modu produktiboan egiten badituzte, liskarrak sortu beharrean, eta beren ikaskuntzak eta *expertisea* erakusten badituzte.



## 12. Fuenjirola-Mijas en Transición

**Irismena:** bi herriak batera, 200.000 biztanle inguru, *Coin en Transición* proiektuarekin (22.000 biztanle) aldi berean lan egiten, denak Malagan. Hortik hurbil *Marbella en Transición* dago.

**Proiektu-motak:** trantsizioko, txikitzeko eta subiranotasuna lortzeko ekimen-mota guztiak. **Katalizatzailea:** 2011n ama-talde batek, seme-alabentzako hezkuntza-ingurune osasungarria bilatuz, txikitzeko aktibisten talde batekin batera, indarrak elkartu zituen beren baliabideak sortzeko eta beren arazoak konpontzeko.

**Kontaktua:** <http://fuengirolamijastransicion.blogspot.com.es/>

**Ekimenaren garapen-fasea:** gaur egun hiru herriak (turista-biztanleria higikorra barne hartu gabe) txikitzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ekintzetan nahasita daude. Diru osagarri bat, denbora-bankuak, elkarlaneko baratzeak, kontsumo-kooperatiba bat eta berrerabiltzeko eta birziklatzeko zenbait lantegi daude. 2013an trantsizio-topaketa iberiarra hartu zuten; trantsizioko 15 hirik eta ia 100 pertsonak hartu zuten parte, prestatzeko eta esperientziak trukatzeko 5 egunetan (Synergy Mattersek lagundu zuen topaketa hori zuzentzen).

**Harrobia trantsizioan ekimenera aplika daitekeen ikaskuntza:** kasu honetan, zenbait herritako ekimenen arteko lankidetzak da azpimarratzekoa, lagun arteko, senideen arteko edo lankideen arteko harreman pertsonalen bidez egiten baita. Konexio-estiloa lasai samarra da, eskarian eta pertsonen eta komunitatearen gaitasunetan ardatzen da. Autokudeaketa-esperientzia handia dute eta eskaria jasangarritasun gogorreko mailetara murriztu dute, txikitzeko balioak oinarri hartuta. Trantsizio-kontzeptuak barne- eta talde-jarrera osasungarria eta fidakorra ekartzen die, baita alternatiba ekonomiko bideragarriak eta frogatuak ere. Harrobi plazan dauden eragile batzuen artean badaude horrelako loturak eta balioak.



## 4.2. \_Hariari tira egiteko beste adibide batzuk

### Ekimenak metatzea

*Mostoleseko Trantsizio Institutua*<sup>65</sup> (Madril) proiektu autonomoen topagunea da, non horietako bakoitzak, bere ikuspuntutik, gizarte-sistema apurka-apurka eraldatzeko lan egiten duen, alternatibak eraikiz. Proiektu guztiak *trantsizioko ekimenak* kontakizun partekatu eta proiektu metatzaile gisa ematen duen kohesioari etekina ateratzen diote.

Txosten honetan behin baino gehiagotan esan dugun moduan, *Harrobia trantsizioan* ekimena bultzatzeko lehen urratsa, eta beharbada garrantzitsuena, **multzo berean eta helburu eta agenda komunekin jadanik gertatzen ari diren ekimenak metatzea** da.

<sup>65</sup> <http://institutodetransicion.rompeelcirculo.org/>



## Lehen sektorea auzoan bertan

Elikagaiak ezusteko tokietan ekoiztea, *Incredible Edible Todmorden*<sup>66</sup> lanak ezin hobeki erakutsi duen moduan, **zaindu gabeko espazioak eta lugorriak baratze ekologiko produktiboak bihurtzeko** *know-how*a baitaukat; edo **lorategi komunitarioak** bihurtzeko, *Esto no es una plaza*<sup>67</sup> edo *Transition Newton Abbot*<sup>68</sup>, proiektuen moduan, udal-jabetzako lugorri bat elikagaiak ekoizteko eta komunitateak gozatzeko espazioa bihurtu baitu.

Horri dagokionez, auzoan badaukagu *San Franeko Ortuaren*<sup>69</sup> esperientzia, barruti-zentroko patioan, Mariaren Bihotza plazan. Badira urte batzuk WikiTokin<sup>70</sup>, PEZ Estudiotik, *Agronautas*<sup>71</sup> esperientzia garatzen ari direla. Eta HII! Plazan modu horretan lan egiten duten oso ekintzaitza-erperientzia interesgarri bi daude, Birika<sup>72</sup> eta Uartea<sup>73</sup>. Horrelako proiekturen bat Mariaren Bihotza plazan badagoen esperientzian indartzea izan liteke, edo osagarriak garatzea, adibidez Miribillako parkean, Gimnasio kaleko orubean edo Harrobia eraikineko estalkian. Azken aukera horri dagokienez, badago aurreproiektu bat<sup>74</sup>, energia fotovoltaikoaren ekoizpena eta sozializazio- eta prestakuntza-jarduerak konbinatzen dituen.

66 <http://www.incredible-edible-todmorden.co.uk/> eta ikusi orobat 5. *eranskinaren* 35. or.

67 <http://estaesunaplaza.blogspot.com.es/>

68 <http://www.transitionnewtonabbot.org.uk/>

69 <https://www.facebook.com/SanFranekoHiriOrtuaElHuertoDeSanFran>

70 <http://pezestudio.org/>

71 <https://www.youtube.com/watch?v=0lwK-odnN1k>

72 <http://birika.eu/>

73 <http://uarte.com/>

74 Kontsultatu Synergy Matters, Sare Arkitektura, EMMA eta Ttipiren 2013ko *HARROBINN* proiektua.



## Ezagutza partekatua lehiarako abantaila gisa

Ezagutza askea gero eta finkatuago dago gizarte-aberastasuneko funtsezko abantaila gisa, harremanak eta ekoizpen-moduak eraldatzeko gai baita ondasun komun materialak zein immaterialak sortzean eta haien balioa azpimarratzean oinarrituta.

Gaur egun, horren erreferentzia nazioartean *FLOCK Society / Buen Conocer*<sup>75</sup> proiektua da, Ekuadorreko gobernuak bere ekoizpen-eredua *Ezagutzaren Pacha Mama* delakoaren inguruan antolatzearen alde egin duen apustu garrantzitsua (kultura indigenentzako hain garrantzitsua den *Naturaren Pacha Mamari* erreferentzia eginez eta hori osatuz). Proiektu horren zuzendaritzan Xabier Barandiaranek<sup>76</sup>, WikiTokin<sup>77</sup> dauden eragileetako batek, hartu du parte; azken hori Harrobi plazan kokatutako ekimena da, **zeinaren helburu nagusia ekoizpen-, gobernamentu- eta jabetza-modu berrien inguruko ikerketa egitea den, elkarlanetik eta irekitasunetik**, eta non kontu horiei buruzko beste eragile garrantzitsu batzuk ere parte hartzen duten.

Kultura-trantsizioari lotuta adibide hauek aipa ditzakegu: *Campo de la Cebada*<sup>78</sup> Madrilén; Frantziako Permakulturaren Herri Unibertsitatea<sup>79</sup>, permakulturari buruz prestatzeko eta esperimendatzeko plataforma deszentralizatu; *El otro Valladolid*<sup>80</sup>, Valladolideko mugimendu sozial eta alternatiboen deialdien agenda, mugimendu sozialen probintzia-bulegoaren inguruan ardatzatuak; edo Santiago de Compostelako Trantsizioeko Unibertsitatea<sup>81</sup>, non irakasleek eta ikasleek hezkuntza-alderditik sozialera trukatzeko barne-sareak ezartzen dituzten. Ekimen horiek eta beste batzuk *Socioeco*<sup>82</sup> baliabide-biltegiokoak dira.

75 <http://flokksociety.org/>

76 <https://xabierbarandiaran.wordpress.com/>

77 <http://wikitoki.org/>


78 <http://elcampodecebada.org/>

79 <http://www.permaculturefrance.org/>

80 <http://elotrovalladolid.es/> conectado con <https://valladolidentransicion.wordpress.com/>

81 <http://www.usc.es/entransicion/>

82 [http://www.socioeco.org/index\\_es.html](http://www.socioeco.org/index_es.html)



## Kasu frogagarriak eskolatik

Harrobia ikastolaren eraikina edo Miribillako eskola publikoa (plazako ingurune hurbilean) energia-hobekuntzako kasu praktikoak izan litezke. Osonako Energiaren Toki Agentziaren<sup>83</sup> (Cataluña) Desendolla't delakoaren adibideari jarraitu ahal dio; hain zuzen, eskoletatik eta urtean 35.000€-ko inbertsio txikiarekin, bi urtetan %24ko energia-aurrezkia eta 280.000€-ko aurrezki ekonomikoa bildu ditu eta, gainera, sariak eta aintzatespenak lortzen jarraitzen du.

Ikastetxeak leku bikainak dira **eraldaketen eragina handiagotzeko, haurrek ikasten dutenean familiei transmititzen baitiete, ikasitakoaren zuzeneko sozializazio-kanal gisa**. Haurrak *trantsizioko ekimenean* nahastea lortzen badugu, ETORKIZUNA duen ekimena izango da. Horregatik, proposatzen diren jarduera askotan protagonistak izan behar dute edo haiek parte hartzea ahalbidetzen duten moduak bilatu behar dira.

Bestalde, ikastolaren kasu espezifikoan, gainera lanbide-familia berrietara hurbiltzea ekar lezake.

## Birgaitze jasangarria eta enplegu berdea

Eraikinak birgaitzeko eta isolatzeko lantegiak egitea, Londresen *Transition Belsizen* egindakoen modukoak (lehen ere aipatu da kasu hori), **auzoan eta komunitate-loturetan eraldaketa zein enplegu-aukera berriak sortzen ari baitira**.

Harrobi plazan arkitektura jasangarriko eta energia-ingeniaritzako zenbait estudio daude eta lan hori, guztiz egokia baita, SURBISaren politikekin bat etorriz eta Bilbao Ekintzak inplementatutako eta Sartuk eta beste eragile batzuek gauzatutako *Enplegu Plana* inplikaturaz egin lezakete.

83 <https://www.ccosona.cat/index.php/serveis/serveis-ccosona/agencia-local-de-l-energia>





## Gizarte-ekintzailtza eta trantsizioa

Sarritan **co-working** espazioak, nagusiki **gizarte-ekintzailtzari lotuak, dira trantsizioko prozesuen hubak eta katalizatzaileak hiri-ingurunetan**<sup>84</sup>. Hori horrelakoa da bai topaketa-, truke- eta dinamizazio-tokiak direlako bai ekimen berriak sortzeko elkarri eragiten dioten pertsona geldigaitzak metatzen dituztelako. Erronka toki horiek dauden testuinguruei benetan lotzea da, eragina eta itzulkin soziala maximizatzeko.

Soilik Harrobi plazan AuzoFactory<sup>85</sup>, Hi! Plaza<sup>86</sup> eta WikiToki<sup>87</sup> proiektuak daude; azken hori lankidetzeta-praktiketan eta gizarte-ekintzailtzan ardatzen da. Eta hori auzoko eta hiriko gainerako tokietan banatzen diren ezaugarri horietako (askotariko) proiektu ugarietako batzuk baino ez da; horietako lagun on bat ezagutzeko, *Coworkalari*<sup>88</sup> proiektua, Ttipi Studio eta NOIZena, ikus daiteke.

Ildo horretan, orain WikiTokitik garatzen hasten ari den proiektua nabarmentzea ere interesgarria izan daiteke; auzo osoko eragileak harremanetan jartzea du xede, espazioak eta beste baliabide batzuk trukatzeko sare bat eraikitzeke helburuarekin.

84 <https://citiesintransition.eu/>

85 <http://www.auzofactory.net/>

86 <http://www.hiplaza.es/>

87 <http://wikitoki.org/>

88 <http://coworkalari.net/>



## Ikastaroak, lantegiak eta praktika-komunitateak

REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak —plazako auzotar asko horren kide baitira— *Energia-trantsizioko*<sup>89</sup> ikastaro bat antolatu zuen joan den ekainean. *Bilbao trantsizioan* taldeak, Synergy Matters haren administratzailea baita, trantsizio-ikastaro ofizial bat proposatu zuen, eta azkenean Donostiako Ekogunean egingo da, urrian.

Harrobi plazako eragileek antolatu ahal dituzten aurkezpenen, ikastaroen eta lantegien katalogoa itzela da; taldeak eta komunitateak dinamizatzeko gaitasunak instalatuta daude dagoeneko, eta metodologia asko probatu egin dira, adibidez, *Hondartzan*<sup>90</sup> izan zen ondasun komunaren inguruko praktika-komunitatearen bidez edo kontsumo-azturak aldatzea errazten duten proiektuen bitartez, hala nola *Mecambio*<sup>91</sup> edo *SOSTenibles.tv*<sup>92</sup>. Edo elkarlaneko hirigintzari buruzko esperientziak, bereziki haurrekin lan egiten baitute, esate baterako, *Arkitente*<sup>93</sup> Zaramarikoak, edo *Elkartoki*<sup>94</sup>, Ttipi Studiokoa.

89 [http://www.economiasolidaria.org/curso\\_verano\\_transicion\\_energetica](http://www.economiasolidaria.org/curso_verano_transicion_energetica)

90 <http://es.slideshare.net/ColaBoraBora/hondartzan-kit-diwo>

91 <http://www.mecambio.net/>

92 <http://sostenibles.tv/>

93 <http://www.arkitente.org/es/>

94 <http://elkartoki.com/>



## Trantsizioa banakako eta taldeko ahalduntze gisa

Bartzelonan, 2004-2011 urteetan, *SOPHIE*<sup>95</sup> proiektua burutu da, FP7ko Europako finantzaketarekin; **zaurgarritasun-egoera sozioekonomikoan dauden auzo** batzuetan garatu zen, **degradazioa ekiditeko eta auzokoen bizi-baldintzak hobetzeko asmoz**. Proiektuak batez ere langile-klaseetan izan du eragin positibo handiena; horri esker, autoestimua eta ahalduntzea hobetzeko prozesuak aktibatu dira eta gizarte-desberdintasun jakin batzuk leundu dira.

Mota horretako esperientzian jarri behar da arreta, alderdi batzuetan geure testuinguruaren antzekoak dira-eta.

## Europako estrategia bat (baliabideekin batera)

Europako lan- eta finantzaketa-ildo estrategiko ugari daude, *trantsizioko ekimenekin* zuzenean edo zeharka lotuta daudenak; adibidez, hiri-birgaitzeko programa eta ingurumenekoak eta energia-eredua aldatzekoak, baita gizarte-ekintzarekin, kulturarekin, lankidetzarekin, herritarren partaidetzarekin eta autonomia pertsonalarekin zerikusia daukaten kontuak ere.

Ildo horretan, garrantzitsua da udalaren babesa edukitzea **interesgarriak izan litezkeen Europako sareak eta programak identifikatzeko, proiektua edo horren zati bat finantzatzearren eta Europako antzeko beste errealitate batzuekin lotzearren**.

Ondoren, eta atal hau bukatzeko, *trantsizioko hiriekin* zerikusia daukaten Europako 6 proiekturi buruzko informazioa erantsi dugu, aukerak arakatzeko balio lezake-eta.

---

95 <http://www.sophie-project.eu/index.htm>



### EU-INNOVATE Project

EU-InnovatE investigates the active roles of end users in shaping sustainable lifestyles and the transition to a green economy in Europe. The aim of the FP7 project is to gain a better and broadened understanding of the active roles of end users in sustainability innovation processes and sustainable entrepreneurship with a special emphasis on the four domains food, living, mobility, and energy.

[www.euinnovate.com](http://www.euinnovate.com)

Frank-Martin Belz  
Project coordinator  
Frank.belz@tum.de

### GLAMURS Project

The overall aim of GLAMURS (Green Lifestyles, Alternative Models and Upscaling Regional Sustainability) is to develop a theoretically-based and empirically-grounded understanding of the main obstacles and prospects for transitions to sustainable lifestyles and a green economy in Europe, as well as of the most effective means to support and speed them up.

[www.glamurs.eu](http://www.glamurs.eu)

Ricardo Garcia Mira  
Project coordinator  
ricardo.garcia.mira@udc.es

### GREEN SURGE Project

GREEN SURGE will identify, develop and test ways of linking green spaces, biodiversity, people and the green economy in order to meet the major urban challenges related to land use conflicts, climate change adaptation, demographic changes, and human health and wellbeing. It will provide a sound evidence base for urban green infrastructure planning and implementation, exploring the potential for innovation in better linking environmental, social and economic ecosystem services with local communities.

[www.greensurge.eu](http://www.greensurge.eu)

Cecil Konijnendijk van den Bosch  
Project coordinator  
cck@ign.ku.dk

### Pathways Project

The EU FP7 project PATHWAYS looks at the possibilities of transitions to a low-carbon, sustainable Europe based on the analysis of different scientific disciplines, i.e. modelling exercises, transition research, and participative action research. While each of these disciplines has its strengths, none of them can give a full picture. By combining and coordinating these different disciplines, PATHWAYS aims at providing better policy advice for European, Member State and local policy-makers.

[pathways-project.eu](http://pathways-project.eu)

Andries Hof  
Project coordinator  
andries.hof@pbl.nl

### TESS Project

TESS is a 3-year, European-wide research project funded by the EC FP7 programme. It aims to reach an understanding of the potential for community-led initiatives to help deliver a truly sustainable, low-carbon future. The main research questions are: How can innovative, grass-roots green initiatives lead to the transformational changes required to meet decreasing carbon targets and wider community objectives; how can the wider emergence and success of such initiatives be supported?

[www.tess-transition.eu](http://www.tess-transition.eu)

Anne Holsten  
Project coordinator  
holsten@pik-potsdam.de

### TRANSIT Project

TRANSIT (TRANSformative Social Innovation Theory) is an ambitious new FP7 4-year research project that will develop a theory of social innovation that focuses on transformation in terms of empowerment and change in society. TRANSIT will utilize a research method, which encourages feedback from social entrepreneurs and innovators, policy makers and academics to develop a theory with practical relevance.

[www.transitsocialinnovation.eu](http://www.transitsocialinnovation.eu)

Flor Avelino & Julia Wittmayer  
Project coordinators  
transit@drift.eur.nl





## 5. Epilogo

### Zer?

Gogorarazi nahi dugu “Harrobia trantsizioan” Bilboko erdialdeko auzo historiko batean gauzatuko den ekimena dela, tokiko giza garapena eta ingurumen-jasangarritasuna oinarri hartuta lan egiteko. Horretarako, kanpoko energia-mendetasuna txikiagotuko da, auzotarren erresilientzia areagotuko da eta lankidetzako harreman-sare interdependenteak ezarriko dira. Helburua, hain zuzen, pertsonen eta planetaren arteko errespetuan oinarritutako paradigma batera pasatzea da. Tokitik modu konektatuan ahalduntzea, bizi-kalitatearen eremu guztietatik etekinak eta sinergiak sortzeko, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-alderdiei dagokienez garapen komunitarioa erdiesteko.

### Nork

Sozietate zibilak, hau da, herritar aktibo, erantzunkide eta solidarioek, autonomia- eta interdependetzia-printzipioetatik, beren gizarte-kapitala jokoan jarriz, komunitate gisa indartzeko nahian.

Auzotarrek, gizarte- eta kultura-eragileek, adinduek, haurrek, migratzaileek, merkatariak, ekintzaileak... Toki-erakundeen laguntza, babesa eta inplikazioarekin.



## Nola

Modu errazean pasatzen da ekintzara. Testuingurutik bertatik konprometitutako bi pertsona nahikoak dira abian jartzeko, ahal den neurrian. Hortik abiatuta, beste pertsona, kolektibo eta erakundeen inplikazioa bilatzen da, baina ez da exijitzen. Adibide praktikoa higiarazle indartsua delako eta jarrera-aldaketa eta besteen inplikazioa ahalbidetzen duelako konfiantza izaten da.

Aldaketa komunitarioak arrakasta edukitzeko probabilitate gehiago edukiko ditu baldin eta ekintza positibotik abiatuta egiten bada eta pertsonen indarguneen, talentuen eta ondasunen identifikazioak inspiratzen eta mantentzen badu. Komunitateak trebeak eta boteretsuak bihurtzen dira ezaugarri horiek pizten direnean eta, horrela, oparotasun-komunitateak bihurtzen dira.

Ez da hutsetik hasi behar; aitzitik, badagoena garrantzitsutzat jo, ikustarazi eta modu antolatuan babestu behar da. Proiektu autonomoen topagunea (*huba*, katalizatzailea) osatu behar da, non horietako bakoitzak, bere ikuspuntutik, gizarte-sistema apurka-apurka eraldatzeko lan egiten duen, alternatibak eraikiz.

Askotariko eragileak eta ekintzak bat etorraraztea, helburu komunetatik abiatuta, prozesuak kontakizun partekatu bat duen proiektu metatzaile batean atzera elikatu eta indartzeko. Eskala-jauzi bat ahalbidetzen duten harremanak eta tresnak sustatzea, jarduera-multzo batetik ekintza-plan baterako urrats kualitatiboa emanez, datatik 15 edo 20 urtera.

## Zeren bidez

Mota guztietako jarduerak eta proiektuak, elikagaien eta energiaren autoekoizpenarekin, kontsumo-azturen aldaketarekin, ingurunea birgaitzearekin, gizarte-zaurgarritasunari aurre egitearekin, ahalduntze eta autonomia pertsonalarekin, kultura arteko eta belaunaldi arteko harremanekin, herritarren partaidetzarekin eta bizikidetasunaren kudeaketarekin, enplegu berdearekin eta gizarte-ekintzaitzarekin, kulturaren garapenarekin eta ezagutza librearekin zerikusia dutenak.

Finantzaketa-bide instituzionalak, gizarte-ekonomia, tokiko diruak, *crowdfundinga* eta denbora-bankuak.

Ospatzea loturak estutzeko eta mugarriak gainditzeko bide gisa.

# ***Dagoeneko hasi egin da!!***









HARROBitik HARROBIra txostenaren  
1.0 bertsioa irailaren 8an bukatu da,  
eta 1.1 bertsio berrikusia,  
2015eko abenduaren 7an, Bilbon

Ilusioz espero dugu  
hazi honetatik  
fruitu mamitsuak ernetzea





FIELD KIT





**AUZO  
FACTORY**  
LA CANTERA